

BIBLIOTHECA SCRIPTORUM CLASSICORUM VASCONICA, III

PUBLIO VIRGILIO MARON
BUKOLIKAK ETA GEORGIKAK

Sarrera, itzulpena eta obarrak:

IÑIGO RUIZ ARZALLUZ



Eusko Jaurlaritza
Euskal Herriko Unibertsitatea
Vitoria-Gasteiz

MCMXCVII

ehu^{press}



OPEN
ACCESS

Bibliotheca scriptorum classicorum Vasconica
Postakutxa 2111
01080 Vitoria-Gasteiz

- I. *C. Salusti Crispi Bellum Iugurthinum*, Gidor Bilbao Telletxearen edizioa. 1995.
- II. *C. Iuli Caesaris Commentarii de bello Gallico*, Guadalupe Lopetegi Senperenaren edizioa. Prestatzen.
- III. *P. Vergili Maronis Bucolica et Georgica*, Iñigo Ruiz Arzalluzen edizioa. 1997.
- IV. *Corneli Nepotis De viris illustribus*, Luzi Etxabe Solozabalen edizioa. Prestatzen.



PUBLIO VIRGILIO MARON
BUKOLIKAK ETA GEORGIKAK

Bildumaren arduradunak:

Gidor Bilbao
Joakin Gorrotxategi
Iñigo Ruiz Arzalluz

ISBN: 84-8373-005-7

Legezko gordailua: BI. - 475-98

© 1997 sarrera, itzulpen eta oharrena: Iñigo Ruiz Arzalluz.

© 1997 bildumarena: Gidor Bilbao, Joakin Gorrotxategi eta Iñigo Ruiz Arzalluz.

Eusko Jauriaritzaren Kultura Saileko Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak diruz lagundu eta bultzaturiko bilduma.

BIBLIOTHECA SCRIPTORUM CLASSICORUM VASCONICA, III

PUBLIO VIRGILIO MARON
BUKOLIKAK ETA GEORGIKAK

Sarrera, itzulpena eta obarrak:

IÑIGO RUIZ ARZALLUZ

Eusko Jaurlaritzza
Euskal Herriko Unibertsitatea
Vitoria-Gasteiz

MCMXCVII

AURKIBIDEA

| | |
|------------------------------|--------|
| Hitzaurrea | XI |
| Sarrera | XV |
| I. Bizia eta iturriak | XVII |
| II. Bukolikak | XXIX |
| III. Georgikak | XXXVII |
| IV. Testuaren historia | XLV |
| V. Bibliografia | XLIX |
| Sigla | LXI |
| Bukolikak | 1 |
| Georgikak | 111 |
| Izendegia | 327 |

Non canimus surdis, respondent omnia silvae
Ecl. X, 8

HITZAURREA

Liburu hau osatzen duten atalak ez dira denak nahitaez irakurleko bakar batentzakoak: jatorrizko latin testuari ipinitako oharrak eskolarakoak dira erabat; itzulpena Virgilio irakurtzeko gogoa duen edonorentzat dago eginda, ez aldameanean duen latina itzulpenarekin batera irakurri ahal edo nahi dutenentzat bakarrik; sarrerak ere, azkenik, poetaren gainean eta bereziki hemen ematen diren bi liburuen gainean axolazkoena jakin nahi duenarentzat balio dezakeelakoan nago.

1. Sarrera, berez, gida bat baino ez da: Virgilioren biziaz eta idatziez ditugun iturri zaharrak erabiltzeko eta baita ere filologia modernoak *Bukolikak* eta *Georgikak* ikertzean nabarmendu dituen ezaugarrien eta arazoen berri izateko gida soil bat. Hor aipatzen den bibliografia ere oinarrizkoena da eta apropos dago behar-beharrezkoa denera murriztua. Sarrera da, hitzaren zentzu jatorrean: Virgilio leitzean etekin zerbait ateratzeko behar diren —baina, hala ere, askotan aipatzeke uzten diren— lauzpabost xehetasun ematen ditu eta, aldi berean, irakurtzen jarraitu nahi duenari arretaz aukeraturako bibliografia aurkezten dio.

2. Latin testua Geymonat-ena da (1973), baina honek Mynors-en (1969) edizioarekin dituen aldaera garrantzitsue-

HITZAURREA

nak —ortografia hutsezkoak ez diren guztiak— aparatu kritikoan jaso dira: beraz, irakurleak bi edizio nagusi hauek ditu begien aurrean, noizean behin aparatuari begiratzeko nekea hartu nahi baldin badu.* Aparatuak ere funtsezkoena bakarrik jasotzen du, halako edizio batean egoki den bezala: hala ere, aldaera bat azaltzean, beharrezkoak izango liratekeen baino lekukotasun gehiago eman nahi izan ditut askotan, hau ere —inork kontrakoa irizten badio ere— auzi hauetan ohitura luzerik ez duenari lagungarri gerta dakiokelako. Oharrak, gorago esan bezala, oinarri-oinarrizkoak dira: ikasleak —edo eskura liburu gehiegi ez duen irakasleak— latinezko testua ulertzeko ezinbesteko duen gutxienekoa argitzen saiatu naiz, bai —eta batez ere— hizkuntza hutsezko dena bai *realia* beharrezkoenei dagokiena.

3. Itzulpenaren gainean argibide pare bat eman gogo dut. Orain irakasten denaren kontra —antzinateko testuen itzulpengintzari buruz bakarrik ari naiz— ahal izan dudan bezain hitzez-hitzezkoa egiten saiatu naiz: ez dut Virgiliorekin lehiatu nahi izan, Virgilioren jatorrizkoa irakurri ezin dutenei Virgilioren latin indartsu eta okerra ahal bezain zintzo ispila dezakeen euskara bat eman baizik. Alor honetan —azken hamarkada hauetako kontua delakoan nago— exegesia egiten irakasten da, ez itzultzen: alegia, idazlearen

* Edizio honen helburua zein den kontuan izanik, ondo iritzi diot Geymonat-en testutik puntu bakar honetan aldentzeari: *-is* ondarkiaz bukatzen diren nominatibo pluralen ordez *-es* ondarkiaz bukatzen direnak ipini ditut neure testuan —ezaguna denez, azken aldaera hau da eskuizkribu gehienetan irakurtzen dena eta, zer esanik ez, hau da *ia-ia* editore guztiek onartu izan dutena—. Dena den, aparatuan jasotzen da gaur egun italiar tradizioan bakarrik onartzen den xelebrekeria honi buruzko guztia; hauek dira, norbaitek arreta pixka batekin begiratu nahi badie, Geymonat-en edizioan *-is* batez bukaturiko nominatibo plural bat duten lerro denak (beti *Georgiketakoa*k): I, 161, 215, 390; II, 434; III, 198, 265; IV, 96, 121, 198, 472.

edo are hizkuntza arrotz horren berezitasunak behar baino gehiago —ez da gutxi— desegiten. Izen-adjektibo elkartzeko bitxi samar bat agertzen den bezain laster izenaren nahiz adjektiboaren zentzua aldatzen irakasten da: «nautica pinus» (*Ecl.* IV, 8) bezalako *iunctura* baten aurrean, esaterako, gutxi lagako du ‘pinu itsastarra’ bezalako zerbait, nahiz eta hau izan, eta hau bakarrik, Virgiliok dioena. Hortik aurrerako guztia exegesia da, eta ez, alajaina, oso maila jasokoa: ‘pinu itsastarra’ garai hartako erromatarrentzat guretzat baino errazagoa edo normalagoa izango balitz bezala. «Facilis quaerentibus herba» (*Georg.* IV, 272) ‘belar erraza bilatzen dutenentzat’ baino ez da erromatar jator batentzat: besterik esan nahi izan bazuen esatea zuen —nork eta Virgiliok—, latinak ez baitzion, inondik ere, galarazten. Edo, mahatsondoei buruz ari denean, «tum stringe comas, tum braccia tonde» (*Georg.* II, 368) ‘orduana eraz iezaiezu adatsa, orduana moztu iezaiezu besoak’ izan behar duela ulertzen ez duenak ezin du Virgilio ulertu. Hau guztia, noski, euskarak ez ja utzi, ezpada aholkatzen digun neurrian: *comae* latinean (pl.), adibidez, euskaran *adatsa* (sg.) bezain arrunta da. Halaber, *bendiadyoin* den-denak desegin egin behar omen dira eta orobat —*horresco referens*— hipalageak, eta berdin bitxiak egiten zaizkigun plural denak: erromatarrek hipalageak eta *bendiadyoin*-ak barra-barra egiten hitz egingo balute bezala. Esaterako, zergatik ez da «antiquos signorum... ortus» (*Ecl.* IX, 46) ‘izar multzoen jaiotza zaharrak’ bezalako zerbaitz itzultzen? Egin dudana itzulpena nekagarria da askotan, irakurketa bakarrarekin ez ulertzeko modukoa: Virgilio-ren bertsoak ere honelakoxeak dira, etengabeko eta maila askotako *variatio* baten gainean eraikiak, arretaz irakurri beharrekoak. Ez diot, bada, irakurleari lege den baino gehiago

HITZAURREA

lagundu nahi izan, laguntza hori nahitaez jatorrizkoari — eta, beraz, jatorrizko horren itzulpen zintzoa bilatzen duen irakurleari— zor zaion leialtasunaren kaltean delako beti: Virgilio —batik bat *Georgiketakoa*— zaila da guretzat eta zaila zen bere garaiko erromatarrentzat: nire itzulpena egungo euskaldunentzat Virgilioren latina garaiko erromatarrentzat zen bezain zaila egiten saiatu naiz.**

** Izen bereziak transkribatzean «Antzinateko eta, oro har, latin bitartekotzako izen berezien euskal ordainaz», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, 28 (1994), 1003-1011 artikuluan azaldu nituen irizpideei eutsi diet. Izen arruntei dagokienez, bizpahiru hitz berri asmatu behar izan ditut ezinbestean: 'gudal-aho' *acies*, 'gudal-ilara' *agmen*, eta era honetako besteren bat. Azkenik, *Bukoliken* eta *Georgiken* euskal itzulpenen historia axola zaionak irakur dezake orain nire «Virgilio Txerribuztangoerrekan (I. *Bukoliken* eta *Georgiken* euskal itzulpenak)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, 29 (1995), 661-696.

SARRERA

I

BIZIA ETA ITURRIAK

Virgilioren bizia berreraikitzeke ditugun iturriak honela sailka daitezke: *vitae Vergilianae* direlakoek osatzen duten bilduma, garaikideen eta geroagokoen lekukotasunak, eta Virgilioren obra bera. Oso gutxi da, hala ere, Virgilioren biziari buruz dakigula esan dezakeguna: funtsean, edo iturriek dioten gehiena Virgilioren bertsoen gainean egindako zenbait alegoriatan oinarritua egon daitekeela susmatzen dugulako, edo garaian ohikoak ziren asmakizun topikoak izatearen itxura nabarmena dutelako.

1. «*Vitae Vergilianae* izenaren pean antzinatean, antzinate berantiarrean, erdi aroan eta humanismoaren garaian idatzitako eta, oro har, Virgilioren testuaren edizioaren inguruan argitaratutako *vitae* sartu ohi dira. Ez zaigu gorde segurtasunez antzinatekotzat har daitekeen *vita*-rik, nahiz eta uste izan heldu zaigun antzinate berantiarreko *vita* zaharrena, *Vita Donatiana* delakoa alegia (VSD: IVgarren mendeko hirugarren laurdenean idatzia, ziurrenik), galduta dagoen Suetonioren *Vita Vergilii*-tik eratorria dela, hau da, Suetoniok IIgarren mendeko lehenengo laurdenean bere *De viris illustribus* liburuaren *De poetis* atalerako egin zuenetik» (Naumann 1990:571). Izan ere, arrazoi ugari dago VSD funtsean Suetonioren *Vita Vergilii* bera dela pentsatzeko edo, kasurik

txarrean, Suetoniok idatzitakoaren moldaketa bat; Suetonioren *De poetis*-etik zuzenean datorren —eta guganaino iritsi den— beste iturri bakarra Hieronymoren *vita* edo *excerpta* dira. Gainerako *vitae* guztiak (29 aipatzen dituzte Naumann-ek eta Brugnoli-k 1990:571) bi hauetako batetik edo bestetik datoz. Hieronymoren *excerpta* hauek gutxi, laburrak eta oro har hutsalak dira; VSD-tik datozen *vitae* direlakoek, bestalde, ia ez dute VSD-n ez dagoen xehetasunik ematen. Beraz, eta atal honi dagokionez, VSD da, askorekin, iturri nagusia. (*Vitae* zaharrenen edizio hoberenak Brummer 1912, Hardie 1954 eta Bayer 1970 dira).¹

VSD-ren iturriak, inoiz esan denaren kontra, urriak eta txarrak izan zirela ematen du, beharbada ordurako —Suetonioren garairako— eskura zitezkeen bakarrak: izan ere, pentsa daiteke iturrietako bat Virgilioren testuaren gainean Virgilioren garaian bertan —eta neurri handi batean Virgiliok berak— egindako irakurketa alegorikoa eta biografikoa

(1) Bi auzi daude hemen —ez bat— frogatu beharrekoak: VSD Suetoniorena dela —neurri handiago edo txikiagoan— baina baita VSD Donatoren eskuetatik pasatu dela ere. Donatoren izena —bigarrenetik hasteko— eskuizkribu bakar batek gorde duen eta VSD-ren atarian dagoen eskaintza moduko gutun baten *inscriptio*-an agertzen da (Par. Lat. 11308; *inscriptio*-a hau da: «El<ius> Donatus L. Munatio suo salutem»); Parisko eskuizkribuaren testuak *stemma*-n duen lekuagatik (eta baita VII edo VIIIgarren mendekoa den *Liber glossarum*-en ere Donatori atxikitzen zaiolako testu hau) badirudi Elio Donatok Virgilioren obraren gainean egindako —eta galdu zaigun— iruzkinaren hasieran egon zitekeela VSD; edonola izanda ere, seguru da gutxienez VIIgarren mendetik aurrera VSD Donatoren izenaren pean irakurri zela. (Elio Donatori buruz ikus beheago). Halaber —lehenengo auzira pasatzeko— egiantzekoa da VSD Suetoniorena izatea, gutxienez zati handi batean: honetarako arrazoi nagusia hau da, Terenzioren komedien gainean Donato honek berak egin zuen —eta heldu zaigun— iruzkinaren atarian Terenzioren *vita* bat ipini zuela eta espresuki aitortzen duela Suetonioren *De poetis*-en dagoen Terenzioren *vita* bera dela, dagoen dagoenean, hark kopiatutakoa; honetaz gain, Suetonioren eta VSD-ren artean egin diren konparaketa guztiek Suetonioren egiletasunaren alde hitz egin dutela dirudi (Naumann 1990:572-573). Hauek honela, arazoa beste hau izango litzateke: noraino ikutu zuen Donatok Suetonioren jatorrizko testua.

izan zela: irakurketa edo exegesi hau gutxienez Propertziok, Calpurnio Siculok, Martzialek eta Quintilianok ezagutu zuten jada, eta ez dago arrazoirik alegoria hau zuzena denik edo Virgilioren egiazko bizian oinarritzen denik suposatze-ko; beste iturri oparo bat Virgilioren *obtrectatores* zirelakoen aurka sortutako izkribuak izan zirela pentsatu behar da (beharbada Asconio Pedianoren bitartekotza bakarraz irakurriak): era honetako kontrako eta aldeko literatura zabal bat izan zela gutxienez Suetoniok (ez ordea VSD-n), Aulo Gelliok eta Macrobiok egiaztatzen digute. (Honek ez du esan nahi, jakina, Suetonio baino lehenago Virgiliori buruzko beste idatzi biografikorik izan ez zenik: L. Vario Ruforen *De ingenio moribusque Vergilii* ez zen, beharbada, Virgilioren biografía bat, baina izango zituen, dudarik gabe, haren biziari buruzko datuak; Quinto Cecilio Epirotak Virgilioren testuari egin omen zizkion *Praelectiones* zirelakoetan pentsatzekoa da egongo zela zer edo zer haren bizitzaren gainean; eta gauza berbera imajina daiteke Hyginoren obrari dago-kionez).

2. Garaikideen eta geroagokoen lekukotasunak ez dira falta: ondo bilduta daude, adibidez, EV-n (V**:429 hh.), Götte-Bayer-en (1970:406 hh.) edo, beharbada errazago antolatuta, Sabbadini-n (1930:1-18). Hauen zerrendei gehitu behar zaizkie berriki papiroetan —batez ere P. Herc. Paris 2 delakoan— aurkitutako aipamenak (ikus Petrucci 1987 eta, derrigor, Gigante-Capasso 1989): orain frogatuta dago Philodemo, bere Περὶ κακιῶν καὶ τῶν ἀντικειμένων ἀρετῶν, behin baino gehiagotan zuzentzen zaiela Plozio Tucca, Lucio Vario Rufo, Quintilio Vario eta Virgiliori (ez ordea Horaziori), honek Virgilioren biziaren eta heziketaren ezaguerarako dakarrenarekin: ὦ Πλώτιε καὶ Οὐάρ[ι]ε

καὶ Οὐεργ[ί]λιε καὶ Κοιντ[ί]λιε]. Egia da, dena den, sail honetako testigutza gehienek gehiago esaten digutela Virgilioren obraren biziaz Virgiliorenaz beraz baino. (Antzinateko iturriek gure egileari buruz idatzi zuten guzti-guztia jaso da orain dela gutxi argitaratutako hiru liburukitan: Barabino et al. 1991-1995; lekukotasunak dagokien Virgilioren lerroaren arabera daude antolatuta).

3. Virgilioren obrak berak zer edo zer erakusten du honetaz. *Appendix Vergiliana*-ren zatia den *Catalepton*-eko Vgarren eta VIIIgarren ataletan (baldin Virgiliorenak badira, orain berezilara gehienek onartzen duten bezala) lekukotasun zaharrenak irakurtzen dira: Vgarrenean Virgilio Siron epicurotarraren eskolan sartzeko prest agertzen da, eta VIIIgarrenean Siron beraren etxea aipatzen da Virgilioren eta, «si quid de patria tristius audiero» (VIII, 4), familiaren babes gisa. *Bukoliketan* autobiografikoak diruditen aipamen ugari leitzen dira: sinesgaitzenek ere onartzen dute I eta IX garrenetatik Virgilioren familia Philipposeko garaipenaren ondoren etorritako desjabetzeak pairatzeko zorian egon zela atera daitekeela eta, halaber, desjabetze horiek ez zirela azkenean gauzatu Virgilioren adiskide zenbaiti esker; adiskide hauetako batzuk, hain zuzen ere, *Bukoliketan* zehar aipatzen diren miresle, mirestu eta babesleen artean daude: Asinio Pollion (40ko kontsula), Alfeno Varo, Cornelio Gallo, etab. —Octaviano eta Mecenas ere, batzuen iritzian, *Bukoliketan* leudeke jada, batik bat lehenbizikoa—. *Georgiketakoak* guxtiago dira baina askoz seguruagoak: Octaviano eta Mecenas argi eta nabarmen agertzen dira obraren hartzaile gisa eta Mantua, Tarento eta Napoles espresuki agertzen dira, nahiz eta ez denak argitasun berarekin. *Eneidak*, agian gene-

roagatik beragatik, ez du berririk ematen Virgilioren bizia-
ren gainean, apokrifoa baldin badira —eta hala dira gehie-
nentzat— Servioren arabera *Eneidaren* hasiera ziren baina
Variok kendu egin zituen lerroak (VS, 35 hh.):

Ille ego, qui quondam gracili modulatus avena
carmen et egressus silvis vicina coëgi,
ut quamvis avido parerent arva colono,
gratum opus agricolis, at nunc horrentia Martis
arma virumque cano...

4. Iturri hauetatik guztietatik eta hauen gainean filologia
klasikoak mendetan egindako lanetik Virgilioren biziaz on-
doren datorrena egiantzekotzat eman daitekeela pentsatu
ahal da, baina —ia-ia datu bakoitzerako, agian dataren ba-
ten salbuespenarekin— batere segurtasunik gabe.² Virgilio
K.a. 70garren urteko urriaren 15ean jaio zen, Mantuan edo,
beharbada, Mantuatik hur dagoen Andes izeneko herriskan;
heziketa Erroman eta Napoleseko inguruetan izan zuen: az-
ken honetan beharbada epicurotarren baten eskolan —ho-
rrelako eragin bat erakusten dute *Bukolikek*, edonola izanda
ere—; gorago esan bezala, Philipposeko gudaldiaren ondo-
ren (42ko urria) soldaduentzat egin ziren lur banaketetan
berek galtzeko zorian egon zela Virgilioren familia onar-

(2) Virgilioren bizitzaz diharduten liburuak eta artikulua askotarikoak dira:
antzinatoko iturrietan aipatzen diren txikieria guztiak eta oraingo filologoei buru-
ratu zaizkien hipotesi xelebreenak aztertzen dira EV-ren azken liburukian argitaratu
den biografia handian (EV, V**, 1991: 2-97); oso klasikoa da —eta oso atsegina—
Frank-ena (1922); gauza bera esan daiteke, funtsean, Grimal-i buruz (1985) eta
arrakastasua izan zen Guillemin-en gainean (1968), honelako lanetan hain aberatsa
izan den tradizio frantsesetik gehiago ez aipatzearren; diren gainerakoetatik erabat
desberdina da —baina ez du honengatik bakarrik merezi aipamena— García Calvo
(1976:7-99). Ez da ordea ahaztu behar liburu hauetan guztietan erabiltzen diren da-
tuen egitasunaz, EV-ko biografiaz landa, Horsfall (1995:1-25) bera eta honek ai-
patzen dituen lanak hartu behar direla kontuan, batez ere Naumann (1981) eta be-
herago dakartzadanak.

tzen dute gehienek, litekeena bada ere biografiaren puntu hau *Bukoliken* alegoria baten gainean asmatuta egotea. (Are gehiago, badirudi egiantzekoa den eta *Bukoliketan* oso markatua agertzen den alegoria honek askoz ilunago diren beste batzuk zilegitu zituela). *Georgiketatik* aurrera —gutxienez— Octavianori zuzentzen zaizkio Virgilioren laudorioak: lekukotasun ugari heldu zaigu Augustok *Eneidaz* zuen ardurara eta zaletasunari buruz. K.a. 19garren urtearen irailaren 21ean, ekialdetik zetorren Augustori Erromara laguntzen ziolarik, Brundision hil zen, *Eneida* oraindik bukatu gabe zegoenean: Napolesen lurperatu zuten eta *Eneida* Vario Rufok —ez, antza, Tuccak— argitaratu zuen Augustoren aginduz, ikuturik —itxura guztien arabera— egin gabe —lekuko dira oraindik ere bukatu gabe irakurtzen diren lerroak—. Ez dago argi (VSD-k bi gauza desberdin esaten baitu honetaz) *Eneida* erre nahi izan zuen ala ez. Data hauetaz gehiago esango bada ere beherago, *Bukolikak* 41a eta 39a bitartean idatzi zituen; *Georgikak* 36an hasi zituen eta 30ean bukatu, beharbada 29an, apika 27an; *Eneidari* 29tik 19an hil arte ekin zion. (Litekeena da, azkenik, Scaligerok *Appendix Vergiliana* bataiatu zuen bildumak Virgilioren gazte denborako ezer edukitzea).³

(3) *Appendix Vergiliana* Josephus Justus Scaliger-ek VSD-k eta antzinateko beste iturri batzuek —eta eskuizkribu zenbaitek— Virgilioren gaztarokotzat ematen dituzten poesien bildumari ezarri zion izena da (1573): *Dirae (Lydia), Culex, Aetna, Copa, Elegiae in Maecenatem, Ciris, Priapea et Catalepton, Priapeum 'Quid hoc novi est?', Moretum, De institutione viri boni, De est et non, De rosis nascentibus*. (*Appendix*-aren gaurko edizio erabiliena Clausen eta besteena da; EV-n ere irakur daiteke, V** liburukian). Ez da iritzi batasunik (Horsfall-ek 1995:10 esaten duena esaten duela) *Appendix*-eko testuen jatorriasunari buruz: gehienek onartzen dute *Catalepton*-eko V eta VIIIgarren atalak Virgiliorenak izan daitezkeela; orobat, denek onartzen dute *De institutione viri boni, De est et non* eta *De rosis nascentibus* ez direla Virgiliorenak. VSD-k aipatzen dituenak hauek dira: *Catalepton et Priapea, Epigrammata, Dirae, Ciris, Culex*

5. Seguru da Virgilioren testua oso goiz sartu zela eskolan (ikus Suetoniok dioena Augustoren garaian bertan bizi izan zen Quinto Cecilio Epirotari buruz) nahiz eta —K.o. lehendabiziko mendean— eztabaida ugari eta grinatuak izan Virgilioren alde eta kontra; eskolan sartzeak, beste gauza askoren artean, bere obra gramatikalarien eskuetan erortzea zekarren —edo alderantziz, nahi baldin bada: gramatikalariek sartu zuten eskolara—, eta hauen zeregina zen iruzkinak, biografiak eta kritikazko izkribuak idaztea. Virgilioren testuari buruzko antzinateko filologia zeharka eta zatika iritsi zaigu. Berez dira garrantzitsuak filologia haren zatia diren iruzkinak; are garrantzitsuagoak horiek baldin badira —osorik edo zati estimagarrietan— iritsi zaizkigun testu bakarrak.⁴

Oso zail da askotan iruzkinen artean muga zehatzik ezartzea eta —are zailago— egiletasunaren kontzeptua ohi bezala erabiltzea: osotasuna duten elementu txikienak iruzkinak osatzen dituzten glosak edo eskolioak dira, eta ele-

eta, zalantzakoa bezala, *Aetna*; Serviok *Copa* gehitzen dio VSD-ren zerrendari; Murbach-eko katalogoan (erdi aroko lekukotasun zaharrena: XVgarren mendeko kopia baten bitartez heldu den IXgarreneko testu bat da) VSD-k eta Serviok dakartzatenez gain *Elegiae in Maecenatem* eta *Moretum* aipatzen ditu. Funtsean, *Appendix*-aren jatoriasunari buruzko auzia VSD-ren eta, oro har, Virgilioren bizitzako antzinateko iturrien fideltasunaren jatoriasunari buruzko bera da.

(4) Virgilioren antzinateko filologiari buruz irakur daitekeen lanik hoberena —eta, edonola izanda ere, irakurri beharrekoa— Timpanaro (1986) da. Eskola eta filologi egite honen barruan sartzen dira baita Virgilioren testuaren historiarekin hain estu lotuta dauden glosak ere —batzuetan erraza ez den arren iruzkinetatik bereiztea—: hitzen azalpen labur-laburrak dira, askotan hitz bakarrekoak; hauen garrantzia ez datza horrenbeste testuaren exegesisirako ekar dezaketenean, testuaren beraren historian izan duten eraginean baizik: aldaera asko, esaterako, gertatu izan dira hitz bakarreko glosa batek jatorrizko hitzaren lekua hartu duelako. Glosa bildumei buruz eta hauen historia aldrebesari buruz ikus, besterik gabe, Geymonat-Roccaro (1985:771-774) eta hor aipatzen diren lanak.

mentu hauek erraz pasatzen dira iruzkin batetik bestera; bestela esanda, kopiatzaileek eta liburu antolatzaileek bi iruzkinetatik —edo bi baino gehiagotik, noski— beste iruzkin berri bat egin dezakete —eta egin izan dute askotan—, beren nahi eta beharren arabera. Beraz, sarri gertatuko da hau bezalako kasu bat: ezer berririk ez duen iruzkin bat beste inongo iruzkinen berdina ez izatea. Hau kontuan izanda bakarrik uler daiteke ondoren datorren Virgilioren iruzkin aipagarrienen azalpena.

Elio Donato (gramatika irakaslea Erroman IVgarren mendeko erdi aldean, Hieronymoren maisua izandakoa) heldu ez zaigun Virgilioren obrari buruzko iruzkin baten egilea da (K.o. 363 baino lehenagokoa); iruzkin honetatik gorde den bakarra honako hau da: a. iruzkinaren aurrean bide zegoen Virgilioren *vita* bati egindako eskaintza gutun bat; b. Virgilioren *vita* hori bera (itxura guztien arabera Suetoniorena edo honen moldaketa bat: ikus gorago); c. *Bukoliketarako praefatio* bat. (Azken bi testu hauek eskuizkribu askoren bitartez iritsi zaizkigu; gutuna, berriz, bakar batean: ikus gorago esandakoa). «Virgiliok erdi aroan izandako biziari buruzko ikerketetarako, Donatoren iruzkina ‘zulo beltz’ erraldoi bat bezalakoa da» (Daintree-Geymonat 1988:707): badirudi uste izan den baino beranduago arte izan dela bizirik iruzkin hau, modu misteriotsu eta ezkutatu samarrean bada ere: baliteke *Servius auctus* delakoaren *scholia Danielis* Donatoren iruzkinetik hartuak izatea.⁵

(5) Jakin beharrekoa da Donato antzinate berantiarrean eta batez ere erdi aroan garrantzi handia izango duten beste liburu batzuen egilea ere badela: *Ars minor* (GLK, IV, 352-366) eta *Ars maior* (GLK, IV, 367-402), biak, zalantzarik gabe, gehien erabili ziren latin gramatikak, eta Terenzioren komediei buruzko iruzkin bat

Servio da (fl. 395-410 seguruenik) heldu zaigun Virgilio-ren iruzkin zaharrenaren egilea (Thilo-Hagen-en edizioan 1881-1887 irakurri behar da oraindik ere).⁶ Virgilioaren obrari buruzko berri benetan ugari dakar eta nabarmena da, bestalde, lehenagoko —eta zeharka baino ezagutzen ez dugun— iruzkin tradizioa jasotzen duela. Serviorene testu honen garrantzia, beraz, ezin neurtuzkoa da. Iruzkina bi bertsiotan ailegatu zaigu: bata, arruntena, eskuizkribu gehienek dakartena da; bestea, *Servius auctus*, *Danielis Servius* edo *Servius Danielinus* deitu ohi dena (DS), oso eskuizkribu gutxik dutena: Pierre Daniel, XVIgarren mendeko jakintsu frantziarra, izan zen DS-ren lehenengo berria eman zuena eta lehenbiziko aldiz argitaratu —edo argitarazi— zuena (Paris 1600).⁷ Badirudi —gorago aipatu da— DS-k dituen glosak eta S-k faltan dituenak Donatoren iruzkinetik etor daitezkeela (zein, bestalde, oro har Serviorene iruzkinaren iturri nagusietako

(hau ere gorde egin zaigu, zati bat kenduta, gorago esan bezala: Wessner-en 1902-1908 edizioan irakur daiteke).

(6) Serviorene izenaren pean gramatikazko obra anitz daude, nahiz eta hauetatik bat edo bi bakarrik izan Serviorenak; hala ere, hauek dira haren izenaren azpian editatzen direnak: *Commentarius in artem Donati* (GLK, IV, 403-448), hauen guztien artean beharbada Serviorena den bakarra; *Explanations in artem Donati* (GLK, IV, 486-565); *De littera, de syllaba, de pedibus, de accentibus, de distinctione* (GLK, IV, 473-485); *Glossae Servii grammatici* (CGIL, II, 507-536); *Centimeter* edo *De centum metris* (GLK, IV, 456-467), agian izan litekeena Serviorena; *De finalibus* (GLK, IV, 449-455); *De metris Horatii* (GLK, IV, 468-472).

(7) Thilo-Hagen-en edizioan bi bertsiok daude jasoak: DS-ren testua —alegia, testu arruntetik aldentzen dena— etzanean dago inprimatua (Thilo-Hagen 1881:xcv). Hau da, esan bezala, dagoen edizio moderno bakarra; *editio Harvardiana* deitu izan dena ere bada, baina orain arte argitaratu diren bi liburukiek (1946 eta 1965) *Eneidären* lehenengo bost liburuei buruzko iruzkina baino ez dute jasotzen: E.K. Rand-ek antolatut zuen talde eta proiektu handi baten fruitu izan ziren bi tomo hauek, baina —Fraenkel-ek 1948-1949 erakutsi zuen bezala— erabat errotua. Pentsatzekoa da edizioa bukatzeko asmorik ez dutela egileetatik bizirik dirautenek. (Ikus, honen historia labur baterako, Brugnoli 1988:810-811).

bat baita). Virgilio eskolan irakurtzeko testua izanik, eta batik bat antzinate berantiarretik aurrera, ezin da haren harre-
ra ulertu bere testuarekin batera hainbestetan irakurtzen zen
Servioreen iruzkina kontuan izateke.

Tiberio Claudio Donatok (Vgarren mendearen bukaera
aldekoa ziurrenik) egindako iruzkina (*Interpretationes Vergilia-
nae*), *Eneidari* buruzkoa bakarrik izanik, ez da hemen hizpi-
de: aipa dadin, dena den, ez dela, gainerako gehienak beza-
la, batez ere *realia* eta antzekoak argitzera zuzendua,
Eneidaren alderdi etiko eta estetikoak erakustera baizik.

Hauetaz landa, baditugu zatika eta egileren izenik gabe
gorde zaizkigun iruzkin zaharrak (antzinate berantiarrekoak
edo goi erdi arokoak alegia): a. papiro zenbaitetan dauden
glosa moduko grekozko itzulpenak (ikus papiroen zerrenda
Geymonat-en 1973:xxii-xxiii eta Daintee-Geymonat-en
1988:709; Virgilioren testu kritikarako papiro zati hauetatik
atera daitezkeen gutxia Geymonat-en 1973 dago jasoa); b.
scholia Medicea: honela esaten zaie Vgarren mendeko *codex
Mediceus Laurentianus* (M) famatuan irakur daitezkeen esko-
lioeci (*Ecl.* IV, 48an hasten dira, *codex*-a ere hor hasten dela-
ko, eta *Bukoliken* bukaeraraino bakarrik heltzen dira; argita-
ratuta daude: Ihm 1890); inoiz *codex*-ean dagoen *scriptio*
bat sinatzen duen Apronianori atxiki izan zaizkie; c. *scholia
Veronensia*: Vgarren mendeko *codex Veronensis* (V) delakoak
dituenak dira, Angelo Mai-k aurkituak (Hagen-en daude ja-
sota 1902:391-450); d. *scholia Bernensia*: erdi aroko eskuizkri-
bu batzuetan dauden *Bukolikei* eta *Georgikei* buruzko esko-
lioak dira (Hagen 1867); e eta f ataletan aipatuko diren
bildumekin estu lotuta daude; e. *explanatio in Bucolica* bildu-
maren bi bertasioak: erdi aroko hiru eskuizkributan gorde
dira eta Philargyrio delako bati atxiki izan zaizkio nahiz eta,

antza, izenaren forma zuzena Philagrio edo Filagrio izan (Hagen-ek argitaratu zituen 1902:1-189); f. *anonymi brevis expositio Vergilii Georgicorum*: Philargyrioren testuak dakartzaten eskuizkribuek berek dakarte hau ere eta *Georgiken* lehenengo bi liburuen iruzkina da (Hagen 1902:191-320; azken bi testu hauek, alegia Philargyrioren bi bertasioak eta *brevis expositio* delakoa, *scholia Bernensia* bildumarekin batera irakurri behar dira: glosen edukiagatik beragatik ikus daiteke hiru iruzkin hauek elkarren ahaideak direla eta, zehazkiago, hirurek osatzen dutela jatorrizko eredu bakar baten bi bertasio desberdin —jatorrizko hori, seguruenik, Irlandako monastegi batean edo kontinentean zegoen irlandar monastegiren batean sorturikoa izanik—: bi bertasio hauetatik bata, *a* deitu izan dena, izango litzateke *explanaciones* direlakoen bi aldakiak gehi *brevis expositio*, eta bestea, *b* alegia, *scholia Bernensia* bera).⁸

(8) Heldu ez zaizkigun iruzkinak idatzi zituzten baita ondoko hauek ere. Lucio Anneo Cornutok (gutxi gora behera K.o. 20garren urtean jaioa) iruzkin bat idatzi zuen Virgilioren obrari buruz eta baita Virgiliori buruz ere beste era bateko liburu bat (zatiak Mazzarino-n 1955 daude bilduak); Velio Longok ere, IIgarren mendearen inguruan, iruzkin bat idatzi zuen Virgilioren testuaz; Emilio Asprok (Aemilius Asper), IIgarren mendeko bukaera eta IIIgarreneko hasierakoa, seguruenik Virgilioren testuaren edizio garrantzitsu bat egin zuen, iruzkin bat obra osoarena (150 bat zati heldu zaizkigu orain Parisen dagoen Vgarren mendeko palimpsesto batean: Tomsin-ek 1952:125-143 argitaratu zituen) eta Virgiliori buruzko ikerketa bat (*Quaestiones Vergilianae* edo agian *Grammatica Vergiliana* izenekoa: Hagen 1902:531-540); Probo (Marcus Valerius Probus), gaurko Beirut-en K.o. 20 edo 30garren urtean jaioa eta Erroman 105garrena baino lehenago hila, *Bukoliken* eta *Georgiken* gaineko iruzkin baten egilea da: gaur duguna, itxura guztien arabera, III garren mendea baino beranduagoko moldaketa bat da (Hagen 1902:321-390); Probo bereziki garrantzitsua da Virgilioren testuaren gainean egin zituen bestelako lanengatik (testua eztabaidatzen eta finkatzen, modu aurrerakoi eta ezohiko batean, gehienen eta batez ere Timpanaro-ren 1986 iritzian; Virgiliori buruzko era honetako zatiak, denak, noski, zeharka iritsiak guganaino, Asitermann-en 1910 irakurri ohi dira); Virgilioren *vita* baten egilea ere bada (ikus gorago); Urbano ere (ez dakigu zein garaitakoa izan daitekeen: Servio baino lehenagokoa dela bakarrik) iruzkin baten egilea da; Tito Gallo eta Gaudenzio, seguruenik, Servio baino geroagokoak dira: badirudi *scholia Bernensia* direlakoen iturrietakoak direla.

II

BUKOLIKAK

Bukolikak ez baziren izan Virgilioren lehenengo lana bai izan ziren hark lehenbizikotzat erakutsi nahi izan zuena: «carmina qui lusi pastorum» dio bere burua aurkeztean, besterik aipatu gabe (*Georg.* IV, 565). Hauek baino lehenago idatzi zituenez ez dugu, bestalde, berri ezin eztabaidatuzkorik. *Bukoliken* kronologiaren xehetasunak gora behera, komeni da ondoko erreferentzia pare hau kontuan izatea egilearen biziaren une honetaz behar bezala jabetzeko: a. bigarren triumviratoaren garaia da, Antonio da nagusi Italian eta honen *legatus* da Pollion, Virgilioren adiskide mina; b. oraindik neoterikotzat har badaiteke Virgilio, inondik ere neoterikoa ez den Lucrezioren poesia miresten du eta —agian Lucreziorenganako mirespenak lagunduta— Campaniako epicurotarren eragina erakusten du —noraino ondo ez dakigun arren—.

1. Izenburua *Bucolica* izan zena ez da zalantzarik: Donatoren *vita*-n (VSD, 19) izen horrekin aipatzen dira eta orobat Macrobiok (V, xvii, 20: «maluit inscribere *Bucolica*»), Columellak (VII, x, 8) eta Virgiliok berak ere, *Georgiketako* «carmina qui lusi pastorum» (*Georg.* IV, 565) grezkozko tituluaren itzulpen zehatza baino ez baita; honen alde hitz egiten du, halaber, Numitoriok idatzi zuenaren izena *Antibucoli-*

ca izateak (VSD, 43); eta baita *Georgica* izenburuarekin duen antzekotasunak ere. Badakigu, bestalde, *Bukoliketako* olerkiak banan-banan zabaldu zirena oso goiztik: hemendik bide dator *Eclogae* izenburu gisa erabiltzea (*ecloga* edo ἐκλογία hitzak bilduma bateko poesia bat edo testu labur bat adierazten du) eta, orobat, *ecloga* hitza hamarretatik bakoitza izendatzeko; banan-banako zabalkunde honekin lotuta daude baita ekloga bakoitzari eman izan zaizkion izen bereziak ere, hauek ere, itxura guztien arabera, oso goiztik (ikus izen hauek testuaren edizioan): Donatoren *praefatio*-n, esaterako, jada horrela aipatzen dira.⁹

Iturri zahar guztiak bat datoz: hogeita zortzi urterekin idatzi zituen Virgiliok *Bukolikak* («sciendum Vergilium XXVIII annorum scripsisse bucolica» Serv., *Ecl. proem.* 3; eta gauza bera, esaterako, Probok, 323, 13-14 eta 329, 6-7: «scripsit bucolica annos natus VIII et XX» eta «ut Asconius Pedianus dicit, XXVIII annos natum Bucolica edidisse») eta hiru urte behar izan zituen bukatzeko («Bucolica triennio... perfecit», VSD, 89-90). Baina ekloga bakoitzetik atera ditza-kegun zehaztaperen kronologikoez ez digute uzten honi guztiari kasu gehiegi egiten; pentsatu beharko da, beraz, ondorengo hipotesi hauetako baten bat egia izan daitekeela: gauza bat dela ekloga bakoitzaren data eta beste bat bilduma osoarena edo honen azken orrazketarena; bilduma ez dela beti guk daukagunaren berdina izan: alegia, litekeena dela hasieran orain baino laburragoa izatea, hau da, orain baino ekloga gutxiago edukitzea; eta, azkenik, jatorrizko bil-

(9) Izenbururako lekukotasunak erraz zabal daitezke: Ovidio (*Trist.* II, 538), Quintiliano (VIII, vi, 46) edo Serviok *Bukolikei* egindako sarrera; eskuizkribuei dagokienez, P da lehenena *Bucolica* izena ematen. Honen gainean Perutelli (1995:27-28), Geymonat (1982), Horsfall (1981) eta Traina (1967) ikus daitezke.

duma oraingoaren berdina izan edo ez izan, edizio bat baino gehiago izan zezakeela. Eklogetatik inongo bortxarik gabe atera daitezkeen kronologi zantzuek 41-39 tartearen alde hitz egiten dute: laugarrenak 40garren urtetik hur egon behar du edo, apika, 41aren inguruan (Pollioni zuzenduz «te consule» esaten duelako: Pollion 40garrenean izan zen konsula baina 41ean izendatu zuten horretarako; bestalde, 17garren lerroko *pacatus orbis* Brundisioko bakea baino ezin da izan, hau da, 40ko urria); zortzigarrenak (6-13) Pollion Macedonian prokonsula izan zeneko garaia suposatzen duela dirudi, 39a alegia. (Eztabaidatu diren gainerako aipamen eta hipotesiak zalantzazkoagoak dira hauek baino). Honen argitan, batzuen iritzian 41 eta 39 bitartean osatuko zen bilduma osoa, besterik gabe; beste batzuek nola edo hala Pollioni eskainia legokeen ekloga talde bat suposatu nahi izan dute (2, 3, 5, 4, 8), 39garren urterako bukatuta egongo zena, eta Pollionena baino talde berriago bat, urte bete edo gehien jota bi geroagokoa izango litzatekeena, hau da, 38garren urtekoa gutxi gora behera; beste batzuek hauek baino teoria korapilatsuagoak azaldu dituzte, bildumaren edizio bat baino gehiago —eta haien artean aski desberdinak— suposatuz. (Ikus Perutelli 1995:28-31, Della Corte-ren 1984:542-543 sinopsiak eta Coleman-en iritziak 1977:14-21).

Bildumaren barruan eklogeek duten hurrenkera ere gai eztabaidatua izan da antzinetatik bertatik: «sed sunt qui dicant initium bucolici carminis non 'Tityre' esse, sed 'Prima Syracosio dignata est ludere versu'» dio Donatok *Bukoliken* sarreran; Serviok ere berbera esaten du: «alii primam illam volunt 'Prima Syracosio dignata est ludere versu'» (*Ecl. praef.*). Hau da, batzuen iritzian seigarrena zela bildumako lehe-

nena eta ez jada Donato eta Servioren garaian lehendabizi jarrita zegoena. Hala ere bi hauek baino askoz zaharrago diren lekukotasunak baditugu gaurko hurrenkeraren alde: Virgiliok berak (*Georg.* IV, 565-566) oraingo lehenengo eklogaren hasiera aipatzen du bilduma osoaren ordezkoko gisa («carmina qui lusi pastorum audaxque iuventa, / Tityre, te patulae cecini sub tegmine fagi»); Ovidiok, Virgilioren obra guztiak labur aipatzeko, «Tityrus et fruges Aeneiaque arma legentur» dio (*Am.* I, xv, 25). Hortaz: seguru da orain irakurtzen dugun hurrenkera Virgiliok azkenean nahi izan zuena dela; litekeena da —ez da, aurrekoa bezala, gauza seguru— Virgiliok egungo hurrenkera ezarri baino lehenago beste bat zabaldu izana eta momentu horren arrastoa izatea Donatok eta Serviok diotena: hurrenkera ezezagun hori izan zitekeen behin-behineko bilduma batena, lehenengo edizio moduko batena, daukagun bilduma baino txikiagoa zen batena —eta, esaterako, oraingo lehendabiziko ekloga ez zuena—, edo, jakina, aipatutako ahalbide bat baino gehiagoren konbinaketa zen batena.¹⁰ Ezagutzen dugun hurrenkera bakarra Virgiliok jarritakoa dela kontuan izanda eta hortik abiatuta (eta, Probok dioskunez, «non eodem ordine edidit quo scripsit» jakinda), honelako galdera bat egin izan

(10) Seigarren ekloga inoiz bilduma osoaren hasiera izanaren aldekotzat aurkeztu izan da askotan beste hau ere: *Bukolikak* bezalako liber batentzako προοίμιον erabat egokia dela, lehenbiziko ekloga ez bezala. Baina alderantziz ere arrazoi-tu daiteke: horrexegatik asmatu zuen baten batek —Donato eta Servio baino lehenago bizi izan zen batek alegia— seigarrenean zegoela bildumaren benetako hasiera. Gainera, hau bezalako *recusatio* bat edo hasieran edo erdian jarri ohi da garai horretako eta era horretako poesian: baliteke, beraz, seigarrenaren aldeko teoria ohitura honen ezulertu bat izatea. (Lehenena seigarrenaren ordezkoi ipintzeko eman ohi den arrazoia zera da, hura dela Octavianori buruz mintzatzen den bakarra —suposatuz, noski, Octaviano agertzen dela ekloga horretan, guztiek onartzen ez duten gauza—).

da: ba al da ordenarik bildumako eklogen artean? Erantzunak askotariko irizpideetan oinarritu dira: edukia, forma, zenbaki konbinaketa erdi misterikoak, etab. Bai onartzen dituzte gehienek bi puntu hauek: a. seigarrenak gorago esandako funtzioa beteko lukeela (*proemio al mezzo* famatuarena) eta aldi berean liburua erdibitu egingo lukeela: 1-5 eta 6-10 beraz (zein diren lehenengo erdiaren ezaugarriak eta zein bigarrenarenak zailago da zehazten); b. bosgarrena, antzinateko nahiz gaurko exegeta gehienen arabera Julio Cesaren ohorean idatzia, bildumaren ardatza litzatekeela eta horren inguruan nolabaiteko simetria bat gertatuko litzatekeela: Iaren eta IXaren arteko antzekotasuna begien bistakoa da (lurrak desjabetzearen gaia, etab.); IIak eta VIIIak maitasunari buruz diardute; IIIa eta VIIa biak dira bertso demak; eta IVgarrenean eta VIgarrenean artzainen mundutik nabarmenki at dauden gauzez mintzatzen da. Guztiarekin ere, ez da alferrik gogoratuko antzinateko iruzkinlariek ez zutela ia ia kontuan izan bildumaren osotasuna.¹¹

(11) Hurrenkeraren ordenari buruzko galderari eman zaizkion erantzun xelebreenetakoa aritmologia deitu izan denarena da eta, honen barruan, arrakasta handiena izan dutenak Maury (1944) eta Skutsch-enak (1969) dira. Bien teorien oinarrian goian aipatutako bi hipotesiak daude: bosgarren ekloga bilduma osoaren ardatza dela eta gainerako guztiak (hamargarrena kenduta) bosgarrenaren inguruan daudela antolatuta simetria baten bitartez. Hemendik aurrera Maury-k zera azaltzen du, lehenengo zikloak (1-4) eta bigarrenak (6-9) 333na bertso dituztela; zenbaki bera sortzen da gehiketa hau eginez gero: $(1+9) + (2+8)$; eta gauza berbera gertatzen da (alegia 333 zenbakia) beste hau egiten baldin bada: $(3+7) + (2+8)$; etab.; eta pare, multzo eta zenbaki guzti hauen gainean bestelako sinbolismoak ere ikusi nahi izan ditu. Skutsch-en teoria apalagoa da eta, beraz, sinesgarriagoa: honentzat ere bi zati daude, 1-4 eta 6-9, erdian bosgarrena dagoela eta bildumatik kanpo nolabait hamargarrena, eta bai lehenengo zikloak bai bigarrenak 331na bertso litzukete; $1+9$ eta $4+6$, 150na lerro; $2+8$ eta $3+7$, berriz, 181na; etab. Bi hauek ez dira, esan bezala, honelako aritmologia baten bitartez era honetako ondorioak atera nahi izan dituzten bakarrak: ikus, honetarako, Della Corte (1984:546-548) eta Perutelli (1995:33-34).

2. «Prima Syracosio dignata est ludere versu / nostra neque erubuit silvas habitare Thalea» (*Ecl.* VI, 1-2): ez dugu Virgiliori ez sinesteko arrazoirik: hura izan zen Erroman genero bukolikoan saiatu zen lehenena. (Gai bukolikoa ikutzen zuen zerbait ikusi nahi izan da neoterikoak baino lehenago loratu bide ziren olerkari batzuetan: kasurik hoberenean izango litzateke hori, ez, inondik ere, generoarekin zerikusi lukeen ezer). Theocrito da Virgilioren eredu nagusia: hura imitatzeak eta oraindik gehiago espresuki aipatzeak berak (ez baitu besterik esan nahi aipatu «Syracosio... versu» horrek) generoari izan nahi dion atxikimendua erakusten dute; eta izan ere Theocritok *Bukoliketako* edukia eta forma baldintzatzen ditu.¹² (Virgiliok imitatzen dituen pasarteen zerrenda ikusi nahi baldin bada: Ribbeck 1894-1895, Jahn 1897-1899, Hosius 1915, Posch 1969).¹³ Grekozko bukolikari dion atxikimendua agertzeko beharrak latin poesiari arreta gehiago ipintzea galarazten —bide— dio: eragin nabarmenen artean erromatar komediarena dago eta baita honekin lotuta legokeen nolabaiteko hizkera apaltasuna ere —biak, bestalde, neoterikoengandik hur dauden ezaugarriak—; Virgiliok aipatzen dituen egile gehienak Julio Cesa-

(12) Theocritok generoaren sorreran duen tokoa zein den gauza eztabaidatua da: batzuek generoaren sortzailletzat eduki dute; beste batzuentzat, berriz, ezin da esan genero berri bat finkatzen duenik: a. poesia epikotik aldenduta dagoen poesia narratiboa baino ez delako, protagonista eta ekintza jasoen ordeztuak apalak izango litzukeena alegia; b. hiritar mimotik uste izan den baino askoz hurbilago dagoelako. (Hauen iritzian, beraz, bere berrikuntza ez da genero bukolikoarena, pertsonai apalak ere dituen mimoarena baizik: Effe 1977, Halperin 1983 eta Fantuzzi 1993). Virgiliok erabili zuen Theocritoren edizioaz ikus Serrao-ren (1990) sinopsia eta hor aipatzen diren lanak.

(13) Bion eta Moscho-ren aztarrenik ere bada, greciar bukolikari dagokionez; hauetaz landa, Callimacho, Arato, Meleagro: ikus Theocritoren kasurako aipatu lanak.

ren garaikoak dira —belaunaldi bat lehenagokoak gutxi gora behera—: Calvo, Catullo, Lucrezio —azken hau salbuespena alde askotatik begiratuta—.¹⁴

Poesia —batez ere jasotzat eta, nolabait, klasikotzat edota eskolakotzat hartzen zen poesia— alegoriaren bitartez irakurri behar zelako teoria oso zabalduta zegoen antzinatean: alexandriar filologoaren artean, estoikoen artean eta beste era bateko gramatikarieren artean. Theocritoren εἰδύλλια ohi baino lehia handiagorekin irakurri ziren alegorikoki: Simichidas izeneko pertsonaiaren azpian Theocrito bera estal zitekeela suposatzetik Theocritoren ingurukoak izan zitezkeen beste batzuk gainerako pertsonaien izenen pean ikusi nahi izatera abiatu ziren. Virgilioren *Bukolikekin* berdin: eklogaren batean Virgilioren bizitzako gertaerak izan daitezkeenak irakurri ahal direnez gero —I eta IX batez ere—, irakurketa alegorikoa askoz zalantzazkoagoak edo ezinezkoak diren beste gertaera, pertsonai edo aipamen batzuetara zabaldu zen. Badakigu antzinatean, alde honetatik begiratuta, hiru modu zeudela funtsean *Bukolikak* irakurtzeko: edozein alegoria gaitzetsiz, edozein aipameneren azpian beste zerbait ikusiz, eta alegoria batzuetan erabiliz eta beste batzuetan ez erabiliz. Serviok (*Ecl.* I, 1) argi baino argiago era-

(14) Oso eztabaidatua izan da, orobat, Theocritorengan agertzen ez den Arcadiaren kontzeptua. *Bukoliken* antzeztokia, izan ere, Mincio, Sicilia eta Arcadia dira: Mincio Virgilioren sorterrria izateagatik; Sicilia Theocritorengatik; Arcadia, aldiz, ez da azken honengan aurkitzen. Teoria ugari eraiki dira honetarako: zabalduena, beharbada, zera da, Virgiliok zuen eta guganaino heldu ez den iturriren batean (apika Theocritoren edizioan) Arcadian artzainen kantu hauek bizirik zirautela irakurtzen zela; beste batzuentzat Arcadia honelako poesiaren sorterritzat aurkezten zen nonbait; inorentzat, biak. Honetaz gain, badirudi Sicilia hurregi gelditu zitzaiola Virgilio: Arcadiak, berriz, ezin hobeto betetzen zituen bere eklogetarako behar zituen baldintzak. Era honetako eztabaida batean aurrerapen gutxi izaten da: Snell (1945), Jachmann (1952), Alfonsi (1962), Jenkyns (1989), Perutelli (1995:45-47).

kusten du: «et hoc loco Tityri sub persona Vergilium debemus accipere; non tamen ubique, sed tantum ubi exigit ratio». Gaur ere aipatu hiru modu horiek aurki daitezke egungo filologian: badirudi, oraindik ere, Serviok proposatzen zuena dela arrazoizkoena. Irakurketa alegoriko honen oinarriak, esan bezala, autobiografikoak izan daitezkeen gertaerak eta dudarik gabe benetakoak diren pertsonaien aipamenak dira: Batio, Mevio, Cesar, Cinna, Gallo, Pollion, Vario, Varo, etab.; ezin da, beraz, benetako alegoria bati buruz hitz egin —hau da, sistematikoki gauzatzen den egokitasun bati buruz—: bai ordea gertatzen da, atzera errepikatzeko, itxura guztien arabera, inoiz pertsonai edo gertaera baten atzean egiazko bat edo desberdin bat ezkatzea.¹⁵

(15) Oinarrizko erreferentziak Perutelli (1995:58-59), Della Corte (1984) eta Coleiro-n (1979:18-22) bila daitezke; ekloga bakoitzerako, alde honetatik ikusita, esan denaz eta Perutelli-n aipatzen denaz gain Coleiro (1984) ikus daiteke. Bai izango litzateke benetan alegorikoa —behinik behin zuzen irakurtzen badute lehen-go eta gaurko filologoek— laugarren ekloga: ikus, gure edizio honetako oharrez gain, Kraus (1980) eta Benko (1980).

III

GEORKIKAK

1. Hesiodoren liburuaren gainean eginda dagoela argi aitortzen duen arren, Virgiliok ez dio honi hartzen obra berriarentzako izenburua: behintzat, Nicandrorenaren berdina da (K.a. II), Γεωργικά alegia. Datazioari buruz ohiko iturriek dakartena hau da: «Bucolica triennio, Georgica VII, Aeneida XI perfecit annis» (VSD, 25); Servioren *vita*-n, aldi berean, hau irakurri ahal da: «ei proposuit Pollio ut carmen bucolicum scriberet, quod eum constat triennio scripsisse et emendasse. Item proposuit Maecenas Georgica, quae scripsit emendavitque septem annis. Postea ab Augusto Aeneidem propositam scripsit annis undecim...». Honen arabera, eta atzetik hasita kontatzen, 36garren urtean hasiko zituen *Georgikak* eta 30ean edo 29an bukatu. (Izan ere, 29an irakurri omen zizkion Augustori, VSD-k dioenez, Atellan «post Actiacam victoriam» Augustok egin zuen atsedendian; Augustok 30garren urtean zehar ekialdean egindakoak baino ezin izan daitezkeenak hiru biderrez aipatzen dira: II, 170-172; III, 26-33; IV, 559-562; azkenik, Xgarren ekloga 37an idatzi bide zuen eta, hain zuzen ere, *Bukoliken* bigarren edizio moduko batean bakarrik sartu omen zen: honen arabera, orduan, bai hasi zituen *Georgikak* justu *Bukolikak* bukatu ondoren). Lekukotasunak ez diren hipotesi

batzuek 29 eta 27 bitartera garamatzate: hauei indar gehiegi emateko arriskuan erortzeke, arrazoizkoa dirudi *Georgiken* bukaera bitarte honetan ipintzea.¹⁶ Baliteke 25aren inguruan bigarren edizio bat izatea, IVgarren liburuan omen zegoen Cornelio Galloren aipamena ezabatuta: gutxi dira ordea hipotesi honen alde hitz egiten dutenak.¹⁷

(16) Bukaera data 27raino atzeratzearen alde dago, funtsean, beste datu hau. *Georg.* III, 25ean agertzen diren britanniarrak ezin dira izan Augustok 34an antolatutako kanpainan ekarritako gatibuak baino, baina kanpaina hori ez zen azkenean egin: litekeena da Virgilio, lerro hori idaztean —34an beraz— ekintzei aurreratzea, baina ezin da ulertu gero zuzendu ez izana gezur bihurtu zen aipamena. Badakigu, bestalde, 27an ere, atzera, kanpaina hori bera egiteko egon zela Augusto, nahiz eta, oraingoan ere, inoiz ez gauzatu: daitekeena da 27koa izatea lerro hori eta, hemen bai, aukerarik ez izatea Virgiliok zuzenketarik egiteko. (Edo, beharbada hobe, 28koa: kanpainaren antolaketa hitz egiten zen garaikoa alegia; 27koa izatearen kontra dauden arrazoiez ikus ondorengo lerroak). Azken hipotesi honek 27ko urtea emango liguke bukaeraren data *post quem* eta, aldi berean, *ante quem* bezala: beranduago bat ipiniko bagenu berriz ere egoera berean geundekeelako, hau da, berriz ere galdetu beharko genuke zergatik ez zuen Virgiliok zuzendu egiazkoa ez zen aipamen hura. Bada, bestalde, 27ko urtea *ante quem* bat egiten duen beste datu bat: *Eneidan* ez bezala, *Georgiketan* Virgiliok ez dio behin ere Octavianori Augusto esaten, eta titulu hori hain zuzen ere 27ko urtarrilean eman zitzaion. (Honen guztia- ren laburpen argiak, baina ez berdinak, egiten dituzte Martin-ek 1985 eta Horsfall-ek 1995; oso kontuan hartzekoa da, halaber, Martin-ek aipatzen duen bibliografia).

(17) Servioreen lekukotasunaren balioa da hemen, hainbestetan bezala, jokoan dagoena: «hic [Cornelius Gallus] primo in amicitii Augusti Caesaris fuit: postea cum venisset in suspicionem, quod contra eum coniuraret, occisus est. Fuit autem amicus Vergilii adeo, ut quartus georgicorum a medio usque ad finem eius laudes teneret: quas postea iubente Augusto in Aristaei fabulam commutavit» (*Ecl.* X, 1); «sane sciendum, ut supra diximus, ultimam partem huius libri esse mutatam: nam laudes Galli habuit locus ille, qui nunc Orphei continet fabulam, quae inserta est, postquam irato Augusto Gallus occisus est» (*Georg.* IV, 1). Izan ere, Cornelio Galloren *laudes* horiek izango zituzkeen laugarren liburua- ren bigarren erdiak; baina Gallok K.a. 26an hil zuen bere burua, Augustoren kontrako konspirazio batean aurkitu omen zutelako; liburua- ren bigarren erdi hori orain irakurtzen dugun Aristeoren historiaz ordezkaturako zuen Virgiliok. Servioreen testigantza honen aurka dagoen arrazoi indartsuenetakoa bat hau da: bitxia da hain luzea izatea Gallo bezalako bigarren mailako pertsonai baten ohorean egindako laudorioa, ez Mecenasentzat ez Augustorentzat berarentzat antzekorik ez dagoenean. Modu askotara argitu nahi izan dira Servioreen hitz hauek: ikus, ikuspegi orokor baterako, Horsfall (1995:86-89) edo, beharbada argiago, Thomas (1988:13-16); zehazkiago, Anderson (1933),

2. Virgiliok izan zituen iturri teknikoez landa (funtsean, nola edo hala nekazaritzari buruz ziharduten grekozko liburuak gehi Varronen *Res rusticae*), Hesiodo da *Georgiketan* sako-
nen dagoen eredu: «Ascraeumque cano Romana per oppida
carmen» dio, ez alferrik, Virgiliok berak (*Georg.* II, 176).¹⁸
Hesiodoganaino alexandriar poesiak landutako gustoetatik
abiatzen da: *Georgikak*, izan ere, erabateko alexandriar lana
baita (erudizioagatik, delako *arte allusiva*-ren erabileragatik,
aukeratu gaiengatik, mitologia ibiltzeko moduagatik, etab.;
garrantzi gutxiagokoa da, neurri batean, eragina izan duten
egileen izenak, beste arrazoi batzuen artean galdu egin zaiz-
kigulako zati handi batean: Eratosthenes, Nicandro, askoz
pisuagoa Callimacho eta agian beste inor baino garrantzi-
tsuagoa Arato). Baina hala ere Homeroren tankera da
—*Eneidan* bezala— Virgiliok hurbilen daukana. Erromakoei
dagokienez, Catonen eragina (*De agri cultura*-rena alegia)
ematen duen baino handiagoa da: zehatz muga daitezkeen
zorrak ez dira asko, baina jada Virgilioengan oso oinarriz-
koak diren kontzeptu zenbait hortik datoz zuzenean, esate-
rako nekazariaren ontasun etikoaren ideia —batik bat ikus-
pegi abertzale batetik—. Lucrezio batere ohikoa ez den

Griffin (1979), Jacobson (1984), Jocelyn (1984), Nisbet (1987); oro har Gallori bu-
ruz, baina baita puntu honetarako ere, ikus orain Manzoni (1995). (Honetaz gain,
saiatu da bat baino gehiago *Georgiken* barne historiari buruz argi pixka bat egiten:
ez dirudi ordea emaitzak kontuan hartzeko modukoak izan direnik. Hauetako ga-
rrantzitsuenen azalpena eta kronologia Martin-en 1985 irakur daitezke; sinesgaitza-
goa da, eta hemen agian arrazoi osoaz, Horsfall 1995:63-65).

(18) *Georgiken* iturriez, oro har, oinarrizkoena Jahn (1903a, 1903b, 1904, 1905a
eta 1905b) da; beharbada azken ikerketa handia iturrien erabileraz Farrell (1991)
da; arretaz tratatzen dituzte iturriak Thomas-ek (1988:4-11 eta iruzkinean zehar) eta
Mynors-ek (1990); hauek baino zaharragoak diren edizio iruzkindun onak ere
oraindik beharrezkoak dira. Zehazki Hesiodoren gainean ezin dira ez ikusi aipatu
Farrell (1991) eta La Penna (1962).

modu batean dago present: mailegurik badago, baina batez ere —agian— hori baino sakonagoa den zerbait: *Georgiken* oinarri gogorrean Lucreziorekiko elkarrizketa moduko bat dago. Bestelakoa da neoterikoen, Varronen eta beste zenbaiten eragina.¹⁹

Mesedegarria da, Virgiliok hemen erabili dituen iturri edo ereduai buruz hitz egitean, hauek prosazkoetan eta poesiazkoetan sailkatzea: batetik oso bereizketa esanguratsua delako kasu honetan —hau da, oso liburu mota desberdinak direlako, hemen, prosazkoak eta poesiazkoak— eta, bestetik, asko esaten duelako bereizketa honek Virgiliok *Georgikekin* nahi zuenaz eta, aldi berean, izan zitzakeen irakurleez. Arrazoizkoa dirudien baino gehiago eztabaidatu da *Georgiken* irakurle goari buruz: Virgiliok «ignaros... miseratus agrestis» idatzi dituela badio ere (*Georg.* I, 41), *Georgiken* irakurleak ez dira, inondik ere, ez nekazariak ez —Varronen liburuaren kasuan gerta daitekeenaren kontra— lur jabeak —ez nahitaez behintzat—, ezpada letretan oso ondo hezitako letra gizonak; Senecak argi asko esan zuen: «Vergilius,

(19) Ez da begien bistatik kendu behar Virgilioren eredu hurbilena alexandriarrena dela, eta genero didaktiko delakoak aldaketa ugari pairatu zituela alexandriar hauen eskuetan, funtsean ordura arte ez bezalako tinkotasunez menderatu ziotelako edukia formari: izan ere, poeta berri hauek prosazko liburu teknikoaren gainean antolatzen dituzte beren poemak, prosa baita jada —Hesiodoren garaian ez bezala— zientziaz hitz egiteko lanabesa, beraz edukiaz interesatua dagoenak prosazko liburu horietara jotzea du; helburu nagusia ez da, bada, irakastea, nahiz eta itxura hori gordetzea generoaren xarmaren zati bat izan —eta hortik bigarren pertsonan erabiltzen diren adizkiak, bokatiboak, etab.—. Formaren alde eta, nolabait esateko, edukiaren kontra daude, orobat, generoa hartzen dijoan ezaugarri batzuk: *digressio*-ak, esaterako. Baina alexandriarren eragin hori bezain pisua da, Virgiliorengan, Lucreziok generoaren historian eragiten duena: alexandriarrek sartu berrikerien aurka, Lucreziok Hesiodorengana, Parmenidesengana, Empedoclesengana jotzen du, eta berpiztu egiten du erromatarrentzat poesia didaktiko handiaren ideia: hemen, berriro, edukiak bere tokia berreskuratzen du. Zalantza izpirik gabe, Lucrezio da Virgiliok gehien miresten duen eredu.

qui non quid verissime, sed quid decentissime diceretur aspexit, nec agricolas docere voluit, sed legentes delectare» (*Epist.* LXXXVI, 15).²⁰ Baina kontuan izan behar da baita ere (Horsfall-ek 1995:70-71 gogorazi duen bezala) hiria eta baserria ez zeudela, ezta gutxiago ere, erabat bananduta: hain ondo hezitako letra gizon horietako askok gertutik ezagutzen zituzten baserriko lanak. Honekin guztiarekin dago lotuta *Georgiken* ustezko helburu politikoaren kontua: ez dira Augustoren nekazaritza politikaren tresna bat, beste arrazoi batzuen artean ez omen zuelako Augustok nekazaritza politika argirik eta Virgiliok deskribatzen duena jada garai hartakoa ez zen nekazaritza baten idealizazioa delako; nekazarien etika eta erlijioa —alegia nekazari idealarenak— duin egin eta aldarrikatu egin nahi ditu Virgiliok aberriaren berreraiketaz asko hitz egiten ari den garai batean. Beste alde batetik, Augustok bakarrik zilegi dezake horrelako berrikuntza etiko bat: eta, izan ere, horrelakoa da *Georgiketan* agertzen den Augusto (I, 40 hh.; I, 500 hh.; II, 170 hh.; III, 22 hh.; IV, 560 hh.). Augusto eta Mecenaz ez dira Lucrezioren obran Memmio dena, hori baino askoz gehiago baikik: Lucreziorentzat Epicuro dena dira bi erromatarrak; Lucrezioren Memmio, berriz, hainbestetan agertzen den nekazari abstraktoa da Virgilioren *Georgiketan*: nekazari hau ez da, noski, liburuaren benetakoa hartzailea, gutxienez Hesiodorengandik generoak eskatzen duen osagai bat baikik.

3. *Georgiken* lau liburuek gai orokor bana dute (lurgintza, zuhaitzgintza, ganaduen zainketa, erlegintza), προοίμιον

(20) Honen gainean egin diren hipotesien artean badira batzuk —eta ez arrakasta gutxien izan dutenak— benetan xebreak: esaterako, *Georgikak* orduantxe lizenziatutako eta nekazaritzan ikasteko asko zuten soldaduentzat zeudela eginak. Eta honelako hamar.

bana (I eta IIIgarren liburuetakoak luzeak, II eta IVgarrene-
takoak berriz laburrak) eta ondorio moduko bukaera bana
(I, 463-514 hiritar guduak; II, 458-540 baserriko bizitzaren
goresmena; III, 474-566 Noricoko izurritea; IV, 315-558
Aristeoren ipuina). Maila honetan oreka eta simetria eraba-
tekoak dira; hemendik kanpo, berriz, lan osoaren estruktura
ez da, ezta hurrik eman ere, nabarmena. Liburu denak *di-
gressio*-ez josita daude: *Georgiken* benetako edukia *digressio*-ak
direla esan izan da, lurrei buruzko irakaspena —eduki ‘tek-
nikoa’, esan ohi den bezala— aitzaki hutsa izanik; badirudi
oposaketa hori bera, *digressio*-aren eta hariaren artekoa ale-
gia, okerra edo, neurri batean behintzat, alferra dela. Bestal-
de, gaiak behar zezaketen hurrenkera oso ahula da: gai ba-
tetik bestera pasatzen da bien arteko loturari begiratu gabe
edo, hobeto esateko, borondatea ia-ia erabat aske lagata.
Beraz: alde batetik ordena eta simetria, bestetik nahikeria
eta estruktura falta. Hemen datza —askoren iritzia da behi-
nik behin— *Georgiken* xarmetako bat.²¹

Beste alde batetik ikusita, honako hauek dira kontuan
hartu beharreko ezaugarri adierazgarrienetako batzuk: libu-
ruen luzerak Homeroren liburuetakoa gogorarazten du; go-
rago aipatu hasieraren (προοίμιον) eta bukaeraren artean, li-
buru bakoitza nolabaiteko gai batasun bat duten *Blöcke*-z
egina da, Hesiodoren teknikaren arabera, Pridik-ek (1971
eta 1980) dioenez;²² ἄλλα zenbait ere sakabanatuta daude

(21) Argi dago *digressio* horietako batzuk geroago txertatu direla testuan
—IIIgarreneko hasiera, IVgarreneko bukaera, *Corycius senex* delakoari buruzkoa,
etab.— baina badirudi *Georgiketako* testua funtsean orain irakurtzen dugun ordenan
idatzi zela; bestela esanda, ez dago arrazoirik *digressio* denak edo gehienak testuaren
haria baino geroagokoak direla pentsatzeko.

(22) I, 43-70, 71-117, 118-159, 160-203, 204-310, 311-350, 351-460; II, 9-82,
83-225, 226-258, 259-314, 315-353, 354-419, 420-457; III, 49-122, 123-208, 209-

lan osoan (Shechter-en 1975 arabera hiruna liburu bakoi-tzean;²³ ἀλτιον zera da, gauzen, ohituren edo hitzen jatorria erakutsiz osatzen den baliabide erretorikoa, batez ere alexandriar poeten artean erabilia); lau liburuak binaka daude antolatuta (I-II eta III-IV alegia, non lehendabizikoa hirugarrenarekin baitago bereziki lotua eta bigarrena laugarrenarekin, hala edukiagatik nola formagatik), gorago esanda dagoen bezala: seguruenik —ez baitzaigu heldu papiroetan aurkitutako oso zati txikiak baino: Parsons 1977, van Sickle 1980— Calimachoren ἀλτια izeneko obraren eredura (inoiz Lucrezioren obrarena ikusi nahi izan bada ere: Büchner 1955); etab.

Georg. II, 176ko «Ascraeumque cano Romana per oppida carmen» hura, beraz, ematen zuen baino mamitsuagoa da: honen arabera uler dezakegu Virgilioren helburuan, nola edo hala, osagai hauek sartzzen zirela, zuzen edo oker: Hesiodoren ereduari heldu —Callimachoren bitartekotzarekin, gehitu beharko genuke—, erromatartu eta, beharbada garrantzitsuena, hiritar egin —*oppida* aipatzen baitira, ez besterik—.

283, 284-294, 295-383, 384-469; IV, 8-115, 116-148, 149-227, 228-280, 281-314, 315-386, 387-452, 453-527, 528-558. (Hasierak eta bukaerak, esan bezala, ez dira kontzeptu honen barruan sartzen).

(23) I, 12-14, 60-63, 147-149; II, 336-342, 380-396, 536-540; III, 113-117, 146-153, 266-283; IV, 149-152, 271-286, 287-558. (Beraz, Aristeori buruzko pasarte osoa hartuko litzateke ἀλτιον-tzat).

IV

TESTUAREN HISTORIA

Antzinateko testuen artean baliteke Biblia bakarrik izatea, gorde zaizkigun eskuizkribuen kantitatearen aldetik, Virgiliorenarekin erka daitekeen bakarra: eskola liburu bihurtu zen egilea oraindik bizirik zegoela; gramatikalariek gehien erabili zuten adibide iturria izan zen; irakurketa klasi-koetan klasikoena izan da hasieratik gaur arte —gogora Eliot 1945— eta kristautasunaren zabaltzeak ere handitu baino ez zuen egin Virgilioren ospea. Zerbaitengatik iritsi zaizkigu bestela hain bakan diren VIgarren mendea baino lehenagoko eskuizkribu *antiquissimi* batzuk: M, P eta R, alde batetik, eta, bestetik, zatika heldu diren F, V, A eta G. Hauetan oinarritzen da —eta ia-ia hauetan bakarrik, zeharkako transmisioa alde batera uzten badugu— Virgilioren testuaren berreraiketa.²⁴ Gauzak honela, testuaren historiarako bakarrik balio dute —hau da, ez, edo apenas, jatorrizko testuaren berreraiketarako— erdi arokoek eta geroagokoek: erdi arokoen artean zaharrenak m eta p, biak VIIigarren mende-

(24) Egipto eta Palestinako hondarrean aurkitutako papiroak ez dira ez gutxi ez garrantzi txikikoak, baina bestela izango luketen baino balio gutxiago dute ditugun eskuizkribuak ohi baino askoz zaharragoak direlako. Honi buruzko ikuspegi orokor, labur eta zehatz bat ematen du Petrucci-k (1987) eta, berriki, Horsfall-ek (1995:254-255); testu gehienak Pack-en (1965) irakur daitezke.

koak; IXgarrenean sartuez gero eskuizkribuak ugaltu egiten dira modu harrigarri batean eta horrela XVgarren mendera arte.²⁵

Honenbeste lekukotasun izan arren, ezin da *stemma* bat proposatu: erdi aroko eta antzinateko eskuizkribuen arteko lotura ez dago batere garbi, eta antzeko zer edo zer gertatzen da antzinatekoen artean. Virgilioren testu kritikaren auzia, beraz, *antiquissimi* haien eta batik bat zeharkako transmisio oparoaren artean garbitzen da inon garbitzekotan. Izan ere, zeharkako transmisio hau antzinateko aberatsena da askorekin: erromatar gramatikariak ditugu alde batetik —askotan errepikatu den bezala, Virgilioren testua ez balitzaigu heldu gramatikarien aipamenei esker berreraiki genezake ia-ia osorik— eta, hauekin batera, antzinateak egin zuen filologi lanaren aztarnak —iruzkinak, han-hemenka leitzen diren filologoaren testigutzak, gramatikariak ez diren egileek egiten dituzten aipamenak, etab.—²⁶

Stemma-rik, hortaz, ez. Famatua da Mynors-en (1969:xiii) metafora: «Apud auctores alios plerumque conamur tanquam per rivulos ad fontem unicum textus ascendere, ad Hippocrenen aliquam sive integram sive iam olim corruptelis inquinatam; apud Vergilium potius de flumine aliquo in-

(25) Kopuruaren garrantziaz jabetzeko, merezi du Geymonat-ek (1995:293) egiten duen kontua aipatzea: 7 eskuizkribu Vgarren mendea baino lehenagokoak; 30 baino gehiago VIII eta Xgarreneko hasiera bitartekoak; 1000 baino gehiago guztira. Horazio, Lucrezio edo Ovidioren kasuetan, konparazio batera, Xgarren mendea baino lehenagoko eskuizkriburik ez dugu.

(26) Guzti honetarako nahikoa da Timpanaro (1986) ikusi eta hor aipatzen den bibliografia aukeratua: inoiz argitaratu den lanik sakonena da eta ez dirudi azkar zahartuko denik. Oro har Virgilioren testuaren historiarako Geymonat-etik (1995) eta hor aipatzen diren lanetatik has daiteke orain: bestela, edizio hoherenaren hitzaurreak beti dira irakurketa onuragarriak (Mynors 1969, Geymonat 1973, etab.); agian Reynolds (1983) da gai honetarako sarrera laburrena eta onena.

TESTUAREN HISTORIA

genti cogitandum, de quo si quis aquam haurit, haurit fortasse eadem opera et omnis generis quae in superficie nant quisquilias, quas deinde purgare necesse neque adeo difficile erit; attamen verum semper haurit Eridanum». Garbitzen zailago edo errazago, ibai bakarra.

V

BIBLIOGRAFIA

1. *Bibliografiak, sarrerak, gidak*. Oinarrizko bibliografia gidatu bat Virgiliori buruzko edozein esku liburutan aurki daiteke: berriena Horsfall (1995) da, baina ez da bere izenburuak pentsarazi dezakeen bezain eroso; Büchner (1955), oraindik ere liburu garrantzitsua izanik, ez da lehenengo hurbilketa baterako aholka daitekeen gauzarik proposena; bai da sarrera egokia Vidal (1990) eta baliteke, hauetaz landa, erabilgarriena edizio iruzkindun zenbaitek ematen dituzten bibliografiak izatea: ikus, beherago aipatzen direnen artean, berrienak. Briggs-ek (1981) eta Suerbaum-ek (1981) *Bukolikei* eta *Georgikei* buruzko bibliografia sistematiko eta sailkatuak ematen dituzte: seguruenik —EV-rekin batera: ikus beherago— orain dugun onena, gai edo puntu zehatz baten gainean zerbait jakin nahi duenarentzat; McKay-k urteko argitalpen gehienen berri ematen du *Vergilius* aldizkarian «Vergilian bibliography» izenburuaren pean: aldizkako bibliografia horren abiapuntua McKay berak Donlan-en (1978) liburuan ateratakoa da eta hortik aurrera jada *Vergilius* aldizkarian 19 (1973) zenbakitik irten duen azkeneraino 42 (1996). Dena den, gaur egun Virgiliorekin zerikusirik duen edozein punturi buruzko bibliografia —eta *status quaestionis* on bat— aurkitzeko bide zuzena EV da. Testuinguru historikoari buruz Syme-tik (1939)

eta Grimal-etik (1955) has daiteke; literatur kritikarako gida ona da —eta ez zaharregia— Serpa (1987).

2. *Edizioak*. Bi dira funtsean indarrean dauden edizioak: Mynors-ena (1969), ‘Oxford Classical Texts’ bildumakoa alegia, eta Geymonat-ena (1973), ‘Corpus Paravianum’ delakoan irtenda. Edizio iruzkindunak ez dira gutxi: Virgilio osoa hartzen dutenen artean, eta jada zahar samarra bada ere, probetxuzko asko dakar Conington-Nettleship-enak (1898) —gehi Haverfield *Bukolikak* eta *Georgikak* dituen liburukian—; balio handia du oraindik Heyne-Wagner-ek (1830-1841); askoz maila apalago batean mesedegarriak dira oso, ezagunenak baino ez aipatzearren, Page (1898), Plessis-Lejay (1913) edo Williams (1972 eta 1979). Aipatzea merezi du oraindik Ribbeck-ek (1894-1895): testuagatik beragatik eta, batik bat, aparatu kritikoarengatik eta *testimonia* aparatua-rengatik. *Bukoliketarako* Clausen (1994), Coleiro (1979) eta Coleman (1977) dira, berrien artean, onenak edota osoenak; Della Corte (1939) da, apika, egokiena hitzez-hitzezko azalpen bat nahi duenarentzat —baina inorentzat ez alferrikakoa—; Hosius (1915) *testimonia*-engatik da aipagarria; To-var-ena (1936) ere aipatu behar da, eta ez bakarrik *honoris causa*. *Georgiketarako* ezinbestekoak dira —eta aurrerapen itzela dira zaharragoen ondoan— Mynors (1990) eta Thomas (1988); hala ere Richter (1957) oraindik garrantzitsua da; oso kontuan hartzekoa da, hemen ere, Della Corte (1942-1960), merezi duen begirunea izan ez badu ere Italiatik kanpo.

3. *Itzulpenak*. Virgilioren euskal itzulpenei buruz dagoen lan bakarra goragoko xiv garren orrialdeko oharrean aipatzen dena da. *Bukoliken* kasuan bi itzulpen oso ditugu: Miangolarrarena eta Ibiñagabeitiarena; *Georgiketarako* Ibiñagabeitiarena da dagoen bakarra.

BIBLIOGRAFIA

4. *Hiztegiak*. Erabilera desberdinetarako balio dute hauek guztiek: Merguet (1909-1912), Wetmore (1911), Ott (1974), Warwick (1975), Fasciano (1982), Wacht (1995). *Bukoliketarako* eta *Georgiketarako* bakarrrik: Lecrompe (1970), Packard (1974), Ott (1976).

5. *Enziklopediak eta aldizkariak*. 1984-1991 bitartean argitaratu du Erromako Istituto della Enciclopedia Italiana-k, Francesco della Corte-ren zuzendaritzapean, beharbada mende honetako Virgiliori buruzko filologiak eginiko lanik handiena: *Enciclopedia Virgiliana*. Virgiliori buruz lan egin nahi duenak ezin du jada pauso bat ere eman enziklopedia hau eskura izan gabe. Bi aldizkari argitaratzen dira munduan Virgiliori buruz: orain Ohio-ko Oxford-en dagoen The Vergilian Society-k 1955-etik argitaratzen duen aldizkaria, *Vergilius* izenekoa, eta, berez aldizkaria ez izanik, London-eko The Virgil Society ospetsuaren *Proceedings of the Virgil Society* (PVS), 1961-1962-tik aurrera kaleratzen dena. (Elkarte miragarri honetaz zerbait jakin nahi duenak Blandford 1993 du orain; merezi du gogoraraztea hemen irakurri eta argitaratu zuela lehenengo aldiz T. S. Eliot-ek bere *What is a classic?* famatua, bertako lehendakaria zelarrik, eta, esaterako, hemengo arima izan zela, urtetan, W.F. Jackson Knight virgiliozale handi eta xelebrea).

Aistermann 1910: J. Aistermann, *De M. Valerio Probo Berytio capita IV*, Bonn 1910.

Alfonsi 1962: L. Alfonsi, «Dalla Sicilia all'Arcadia», *Aevum*, 36 (1962), 234-239.

Anderson et al. 1979: R.D. Anderson-P.J. Parsons-R.G.M. Nisbet, «Elegiacs by Gallus from Qasr Ibrîm», *JRS*, 69 (1979), 125-155

- [= R.G.M. Nisbet, *Collected papers on Latin literature*, ed. S.J. Harrison, Oxford 1995, 101-131].
- Barabino et al. 1991-1995: I. Barabino-A.V. Nazzaro-A. Scivoletto, *Interpretationes Vergilianae minores*, Genova 1991-1995.
- Bayer 1970: Vergil, *Landleben*, ed. J. und M. Götte. *Vergil-Viten*, ed. K. Bayer, München 1970 [2. ed.].
- Benko 1980: S. Benko, «Virgil's fourth eclogue in Christian interpretation», *ANRW*, II, 31-1 (1980), 646-705.
- Blandford 1993: D.W. Blandford, *Pentekontaetia. The Virgil Society, 1943-1993*, London 1993.
- Briggs 1981: W.W. Briggs, jr., «A bibliography of Virgil's *Eclogues* (1927-1977)», *ANRW*, II, 31-2 (1981), 1265-1357.
- Brugnoli 1985: G. Brugnoli, «Donato, Elio», *EV*, II, 1985, 125-127.
- 1988: G. Brugnoli, «Servio», *EV*, IV, 1988, 805-813.
- 1990: G. Brugnoli, «Vitae Vergilianae», *EV*, V*, 1990, 575-585.
- Brummer 1912: *Vitae Vergilianae*, ed. I. Brummer, Leipzig 1912.
- Büchner 1955: K. Büchner, *Virgilio. Il poeta dei romani*, Brescia 1986 [= 1. ed. 1963 = RE, 1955, s. v.].
- Capasso 1991: M. Capasso, *Manuale di papirologia ercolanese*, Lecce 1991.
- CGIL: *Corpus glossariorum Latinorum*, ed. G. Goetz, Leipzig 1888-1923.
- Clausen 1994: W. Clausen, *A commentary on Virgil Eclogues*, Oxford 1994.
- Clausen et al. 1966: *Appendix Vergiliana*, ed. W.V. Clausen, F.R.D. Goodyear, E.J. Kenney, J.A. Richmond, Oxford 1966.
- Coleiro 1979: E. Coleiro, *An introduction to Virgil's *Bucolics* with a critical edition of the text*, Amsterdam 1979.
- 1984: E. Coleiro, «Esegesi allegorica», *EV*, I, 1984, 108-110.
- Coleman 1977: Vergil, *Eclogues*, ed. R. Coleman, Cambridge 1977 [= 1989].

BIBLIOGRAFIA

- Conington-Nettleship[-Haverfield] 1898: *The works of Virgil with a commentary*, London 1898 [5. ed. = Hildesheim 1979].
- Conte 1984: G.B. Conte, *Virgilio. Il genere e i suoi confini*, Milano 1984.
- Courtney 1993: E. Courtney, *The fragmentary Latin poets*, Oxford 1993.
- Daintree-Geymonat 1988: D. Daintree-M. Geymonat, «Scholia non serviana», EV, IV, 1988, 706-720.
- Della Corte 1939: Virgilio, *Le Bucoliche*, ed. F. della Corte, Verona 1939 [= Genova 1985].
- 1942-1960: Virgilio, *Le Georgiche*, ed. F. della Corte, Firenze-Torino 1942-1960 [= Genova 1986].
- 1984: F. della Corte, «Allegoria», EV, I, 1984, 105-108.
- Delvigo 1987: M.L. Delvigo, *Testo virgiliano e tradizione indiretta. Le varianti probiane*, Pisa 1987.
- Donlan 1978: W. Donlan, ed., *The classical world bibliography of Vergil*, New York-London 1978.
- Effe 1977: B. Effe, *Die Genese einer literarischen Gattung: die Bukolik*, Konstanz 1977.
- Eliot 1945: T.S. Eliot, *What is a classic? An address delivered before the Virgil Society on the 16th of october 1944*, London 1945 [= gazt. itz. Id., *Sobre poesía y poetas*, Barcelona 1992, 55-74].
- EV: *Enciclopedia Virgiliana*, ed. F. della Corte, Roma 1984-1991.
- Fantuzzi 1993: M. Fantuzzi, «Teocrito e la poesia bucolica», *Lo spazio letterario della Grecia antica. I. La produzione e la circolazione del testo. II. L'ellenismo*, Roma 1993, 145-195.
- Farrell 1991: J. Farrell, *Vergil's Georgics and the traditions of ancient epic. The art of allusion in literary history*, New York-Oxford 1991.
- Fasciano 1982: D. Fasciano, *Virgile, Concordance. I. Églogues, Géorgiques, Énéide. II. Appendix Virgiliana*, Roma-Montréal 1982.
- Fraenkel 1948-1949: E. Fraenkel, E.K. Rand et al., *Servianorum in Vergilii carmina commentariorum editionis Harvardianae volumen II quod in Aeneidos libros I et II explanationes continet*, Lancaster

- Penn. 1946, *JRS*, 38 (1948), 131-143; 39 (1949), 145-154 [= Id., *Kleine Beiträge zur klassischen Philologie*, Roma 1964, II, 339-390].
- Frank 1922: T. Frank, *Vergil. A biography*, Oxford 1922.
- Frischer 1985: B. Frischer, «Georgiche. [La struttura]», *EV*, II, 1985, 688-691.
- García Calvo 1976: A. García Calvo, *Virgilio*, Madrid 1976.
- Geymonat 1967: M. Geymonat, «Ancora sul titolo delle Bucoliche», *BICS*, 29 (1982), 17-18.
- 1973: *P. Vergili Maronis opera*, post Remigium Sabbadini et Aloisium Castiglioni recensuit Marius Geymonat, Torino 1973 [= 1991].
- 1995: M. Geymonat, «The transmission of Virgil's works in Antiquity and the Middle Ages», in Horsfall 1995:293-312.
- Geymonat-Roccaro 1985: M. Geymonat-C. Roccaro, «Glosse», *EV*, II, 1985, 771-774.
- Gigante-Capasso 1989: M. Gigante-M. Capasso, «Il ritorno di Virgilio a Ercolano», *SIFC*, 82 (1989), 3-6.
- Gioseffi 1991: M. Gioseffi, *Studi sul commento a Virgilio dello pseudo-Probo*, Firenze 1991.
- GLK: H. Keil, ed., *Grammatici Latini* [VIII, ed. H. Hagen], Leipzig 1857-1880 [= Hildesheim 1961].
- Griffin 1979: J. Griffin, «The fourth Georgic, Virgil and Rome», *G&R*, 26 (1979), 61-80.
- 1986: J. Griffin, *Virgil*, Oxford 1986 [= 1991].
- Grimal 1955: P. Grimal, *Le siècle d'Auguste*, Paris 1955 [gazz. itz. México DF 1996].
- 1985: P. Grimal, *Virgile ou la seconde naissance de Rome*, Paris 1985 [gazz. itz. Buenos Aires 1987].
- Guillemin 1968: A.M. Guillemin, *Virgile. Poète, artiste et penseur*, Paris 1951 [gazz. itz. Buenos Aires 1968].
- Haecker 1931: T. Haecker, *Vergil, Vater des Abendlandes*, Leipzig 1931 [gazz. itz. Madrid 1945].

BIBLIOGRAFIA

- Hagen 1867: *Scholia Bernensia ad Vergili Bucolica atque Georgica*, edit, emendavit, praefatus est Hermannus Hagen, Leipzig 1867 [= Hildesheim 1967].
- 1902: H. Hagen, *Appendix Serviana, ceteros praeter Servium et scholia Bernensia Vergilii commentatores continens*, ed. H. Hagen, Leipzig 1902; ikus s. v. Thilo-Hagen.
- Halperin 1983: D.M. Halperin, *Before pastoral*, New Haven 1983.
- Hardie 1954: *Vitae Vergilianae antiquae*, ed. C. Hardie, Oxford 1954.
- Horsfall 1981: N. Horsfall, «Some probleme of titulature in Roman literary history», *BICS*, 28 (1981), 103-104.
- 1995: N. Horsfall, *A companion to the study of Virgil*, Leiden 1995.
- Hosius 1915: *P. Vergili Maronis Bucolica cum auctoribus et imitatoribus in usum scholarum*, ed. C. Hosius, Berlin 1915 [= 1968].
- Ihm 1890: M. Ihm, «Die Scholien im codex Mediceus des Vergilius», *RbM*, 45 (1890), 622-636.
- Jachmann 1952: G. Jachmann, «L'Arcadia come paesaggio bucolico», *Maia*, 5 (1952), 161-174.
- Jackson Knight 1944: W.F. Jackson Knight, *Roman Virgil*, London 1944 [3. ed. 1966].
- Jacobson 1984: H. Jacobson, «Aristaeus, Orpheus, and the laudes Galli», *AJPh*, 105 (1984), 271-300.
- Jahn 1897-1899: P. Jahn, *Die Art der Abhängigkeit Vergils von Theokrit und anderen Dichtern*, Berlin 1897-1899.
- 1903a: P. Jahn, «Die Quellen und Muster des ersten Buchs der *Georgica* Vergils (bis Vers 350) und ihre Bearbeitung durch den Dichter», *RbM*, 58 (1903), 391-426.
- 1903b: P. Jahn, «Eine Prosaquelle Vergils und ihre Umsetzung in Poesie durch den Dichter», *Hermes*, 38 (1903), 244-264, 480.
- 1904: P. Jahn, «Aus Vergils Dichterwerkstätte (*Georg.* IV 1-280)», *Philologus*, 63 (1904), 66-93.

- 1905a: P. Jahn, *Aus Vergils Dichterwerkstätte (Georg. IV 281-558)*, Berlin 1905.
- 1905b: P. Jahn, «Aus Vergils Dichterwerkstätte (Georg. III 49-170)», *RhM*, 60 (1905), 361-387.
- Jenkyns 1989: R. Jenkyns, «Virgil and Arcadia», *JRS*, 79 (1989), 26-39.
- Klingner 1967: F. Klingner, *Vergil*, Zürich 1967.
- Knight: ikus Jackson Knight.
- Kraus 1980: W. Kraus, «Vergils vierte Ekloge: ein kritisches Hypomnema», *ANRW*, II, 31-1 (1980), 604-645.
- La Penna 1962: A. La Penna, «Esiode nella cultura e nella poesia di Virgilio», in *Hésiode et son influence (Vandoeuvres-Généve, 5-10 septembre 1960)*, Génève 1962, 215-252.
- Leclercq 1996: R. Leclercq, *Le divin loisir. Essai sur les Bucoliques de Virgile*, Paris 1996.
- Lecrompe 1970: R. Lecrompe, *Virgile, Bucoliques. Index verborum. Relevés statistiques*, Hildesheim 1970.
- Maggiulli 1995: G. Maggiulli, *Incipient silvae cum primum surgere. Mondo vegetale e nomenclatura della flora di Virgilio*, Roma 1995.
- Manzoni 1995: G. E. Manzoni, *Foroiulnensis poeta. Vita e poesia di Cornelio Gallo*, Milano 1995.
- Martin 1985: R. Martin, «Georgiche [La datazione e la pubblicazione]», *EV*, II, 1985, 664-669.
- Maury 1944: P. Maury, «Le secret de Virgile et l'architecture des *Bucoliques*», *Lettres d'humanité*, 3 (1944), 71-147.
- Mazzarino 1955: A. Mazzarino, *Grammaticae Romanae fragmenta aetatis Caesareae*, Torino 1955.
- Merguet 1909-1912: H. Merguet [-H. Frisch], *Lexikon zu Vergilius*, Leipzig 1909-1912 [= Hildesheim 1960].
- Mynors 1969: *P. Vergili Maronis opera*, ed. R.A.B. Mynors, Oxford 1969.
- 1990: Virgil, *Georgics*, ed. R.A.B. Mynors, Oxford 1990.
- Naumann 1938: H. Naumann, «Suetons Vergilvita», *RhM*, 87 (1938), 334-376.

BIBLIOGRAFIA

- 1974: H. Naumann, «Wert und Zusammenhang der jüngeren Vergil-Viten», *WZ*, 87 (1974), 116-123.
- 1981: H. Naumann, «Was wissen wir von Vergil's Leben?», *AU*, 24-5 (1981), 5-16.
- 1990: «Vitae Vergilianae», *EV*, V*, 1990, 571-575.
- Nosarti 1996: L. Nosarti, *Studi sulle Georgiche di Virgilio*, Padova 1996.
- Otis 1964: B. Otis, *Virgil: a study in civilized poetry*, Oxford 1964 [= Norman-London 1995].
- Ott 1974: W. Ott, *Rückläufiger Wortindex zu Vergil. Bucolica, Georgica, Aeneis*, Tübingen 1974.
- 1976: W. Ott, *Metrische Analysen zu Vergil, Georgica*, Tübingen 1976.
- Pack 1965: R.A. Pack, *The Greek and Latin literary texts from Greco-Roman Egypt*, Ann Arbor 1965 [2. ed.].
- Packard 1974: D. W. Packard, *Vergil's Georgics*, Hanover (New Hampshire) 1974.
- Parsons 1977: P. Parsons, «Callimachus: Victoria Berenices», *ZPE*, 25 (1977), 1-50.
- Perutelli 1995: A. Perutelli, «Bucolics», in Horsfall (1995:27-62).
- Petrucci 1987: A. Petrucci, «Papiri», *EV*, III, 1987, 964-965.
- Posch 1969: S. Posch, *Beobachtungen zur Theokritnachwirkung bei Vergil*, Innsbruck 1969.
- Pridik 1971: K.-H. Pridik, *Vergils Georgica. Struktur-analytische Interpretationen*, Diss. Tübingen 1971.
- 1980: K.-H. Pridik, «Vergils Georgica: Darstellung und Interpretation des Aufbaus», *ANRW*, II, 31-1 (1980), 500-548.
- Putnam 1970: M.C.J. Putnam, *Virgil's pastoral art. Studies in the Eclogues*, Princeton 1970.
- Reynolds 1983: L.D. Reynolds, «Virgib», in Id., ed., *Texts and transmission. A survey of the Latin classics*, Oxford 1983 [= 1986], 433-436.
- Ribbeck 1894-1895: Vergilius, *Opera*, ed. O. Ribbeck, Leipzig 1894-1895 [= Hildesheim 1966].

- Richter 1957: Vergil, *Georgica*, ed. W. Richter, München 1957.
- Sabbadini 1930: *P. Vergili Maronis opera*, ed. R. Sabbadini, Roma 1930.
- Serpa 1987: F. Serpa, *Il punto su: Virgilio*, Roma-Bari 1987 [2. ed. 1993].
- Serrao 1990: G. Serrao, «Teocrito», *EV*, V*, 1990, 110-118.
- Shechter 1975: S. Shechter, «The aition in Virgil's *Georgics*», *TAPhA*, 105 (1975), 347-391.
- Skutsch 1901: F. Skutsch, *Aus Vergils Frühzeit*, Leipzig 1901.
- Skutsch 1969: O. Skutsch, «Symmetry and sense in the *Eclogues*», *HSCP*, 73 (1969), 153-169.
- Snell 1945: B. Snell, «Arkadien, Die Entdeckung einer geistigen Landschaft», *A&A*, 1 (1945), 26-31 [= Id., *Die Entdeckung des Geistes*, Hamburg 1948, 268-293].
- Suerbaum 1981: W. Suerbaum, «Spezialbibliographie zu Vergils *Georgica*», *ANRW*, II, 31-2 (1981), 395-499.
- Syme 1939: R. Syme, *The Roman revolution*, Oxford 1939 [gazz. itz. Madrid 1989].
- Thilo-Hagen 1881-1887: G. Thilo-H. Hagen, *Servii grammatici qui feruntur in Vergilii carmina commentarii*, Leipzig 1881-1887; ikus s. v. Hagen.
- Thomas 1988: Virgil, *Georgics*, ed. R.F. Thomas, Cambridge 1988.
- Timpanaro 1986: S. Timpanaro, *Per la storia della filologia virgiliana antica*, Roma 1986.
- Tomsin 1952: A. Tomsin, *Étude sur le commentaire Virgilien d'Aemilius Asper*, Paris 1952.
- Tovar 1936: Virgilio, *Églogas*, ed. A. Tovar, Madrid 1936 [2. ed. 1951].
- Traina 1967: A. Traina, «De vocis eglogae vi et usu», *Latinitas*, 15 (1967), 97-100.
- van Sickle 1980: J. van Sickle, «The book-roll and some conventions of the poetic book», *Arethusa*, 13 (1980), 5-42.
- Vidal 1990: J.L. Vidal, «Introducción general», P. Virgilio Marón, *Bucólicas, Géorgicas, Apéndice virgiliano*, Madrid 1990, 7-146

BIBLIOGRAFIA

- Wacht 1995: M. Wacht, *Concordantia Vergiliana*, Hildesheim 1995.
- Warwick 1975: H.H. Warwick, *A Vergil concordance*, Minneapolis 1975.
- Wessner 1902-1908: *Aeli Donati quod fertur commentum Terenti. Accedunt Eugraphi commentum et scholia Bembina*, Leipzig 1902-1908.
- Wetmore 1911: M.N. Wetmore, *Index verborum Vergilianus*, New Haven-London-Oxford 1911 [= Hildesheim 1960].
- Wilkinson 1969: L.P. Wilkinson, *The Georgics of Virgil. A critical survey*, Cambridge 1969.
- Williams 1972: *Virgil, Aeneid*, ed. R.D. Williams, London 1972 [= 1996].
- 1979: *Virgil, The Eclogues and Georgics*, ed. R.D. Williams, London 1979 [1996].

SIGLA

- M Mediceus Laurentianus lat. XXXIX, 1: saec. V.
M¹, M² (Turcius Rufius Apronianus Asterius, cos.
a. 494), M³, M⁴: correctores saec. V-VI.
M⁵, M⁶: correctores aetatis Carolinae.
M⁷: Pomponius Laetus, a. fere 1470.
- P Vaticanus Palatinus lat. 1631: saec. IV vel V.
P¹, P², P³: correctores saec. IV-V.
P⁴: corrector aetatis Carolinae.
P⁵, P⁶: correctores renatarum litterarum aetatis.
γ: Guelferbytanus Gudianus lat. 2°, 70: saec. IX.
γ¹, γ²: correctores eiusdem aetatis.
- R Vaticanus lat. 3867 ('Romanus'): saec. V.
R¹, R², R³, R⁴: correctores saec. V-VI.
R⁵: corrector aetatis Carolinae.
a: Bernensis 172 et Parisinus lat. 7929: saec. IX.
a¹: correctores eiusdem aetatis.
- A Vaticanus lat. 3256 et Berolinensis lat. fol. 2°, 416
(‘Augusteus’): saec. IV vel V.

SIGLA

A¹: Claudius Puteanus, ante a. 1574.

A²: Fulvius Ursinus, a. fere 1574.

F Vaticanus lat. 3225 ('Fulvii Ursini schedae Vaticanae'): saec. IV.

F¹, F²: correctores saec. IV-VI.

F³: correctores saec. VII-VIII.

F⁴: correctores aetatis Carolinae.

F⁵: correctores renatarum litterarum aetatis.

G Sangallensis 1394: saec. V.

G¹, G²: correctores saec. V-VI.

G³: corrector saec. VII-VIII.

G⁴: corrector aetatis Carolinae.

G⁵: correctores saec. XVIII (Iohannes Hauntinger, Ildefonsus von Arx).

V Veronensis XL (38): saec. V.

V¹: corrector saec. V.

V²: corrector saec. VI-VII.

m Monacensis lat. 29005, 18: saec. VIII ex.

m¹: corrector eiusdem aetatis.

P Parisinus lat. 7906: saec. VIII ex.

p¹, p²: correctores eiusdem aetatis.

Codices saeculi noni:

a Bernensis 172 et Parisinus lat. 7929.

b Bernensis 165.

SIGLA

- c Bernensis 184.
d Bernensis 255 + 239.
e Bernensis 167.
f Oxoniensis Bodl. Auct. F. 2. 8.
h Valentianensis 407 (389).
n Neapolitanus Vind. lat. 6.
r Parisinus lat. 7926.
s Parisinus lat. 7928.
t Parisinus lat. 13043.
u Parisinus lat. 13044.
v Vaticanus lat. 1570.
ω consensus horum vel omnium vel quotquot non
separatim nominantur.
γ Guelferbytanus Gudianus lat. 2°, 70.
recc. codices saeculo nono recentiores.
edd. editores omnes vel ceteri.
nomina virorum doctorum: apud Ribbeck (1894-1895),
Geymonat (1973).

Fragmenta papyracea vel membranacea:

- Π₁ Pap. Strasb. lat. 2 (Pack 1965: n. 2935): saec. III.
Π₂ Pap. Calif. (Pack 1965: n. 2936): saec. V.
Π₃ Pap. Antin. I, 29 (Pack 1965: n. 2937): saec. IV.
Π₄ Pap. Tebt. II, 686 (Pack 1965: n. 2938): saec. III.

Subsidia:

- ps. Acro Acronis quae dicuntur scholia in Horatium
(ed. O. Keller, Lipsiae 1902-1904).
Agroec. Agroecius (saec. V), *Ars de orthographia*
(GLK, VII).

SIGLA

- Ambr. Ambrosius (saec. IV).
 Amm. Ammianus Marcellinus (saec. IV).
 Ansil. *Glossarium Ansileubi* (saec. VIII; ed. W.M. Lindsay, Parisiis 1926).
 Anth. *Anthologia Latina* (ed. A. Riese, Lipsiae 1894-1906).
 Arus. Arusianus Messius (saec. IV ex.), *Exempla elocutionum* (GLK, VII).
 Aug. Aurelius Augustinus (fl. 400).
 Auson. D. Magnus Ausonius (saec. IV; ed. R. Peiper, Lipsiae 1886).
 CIL *Corpus inscriptionum Latinarum*.
 Char. F. Sospater Charisius (saec. IV), *Ars grammatica* (GLK, I).
 Colum. L. Iunius Moderatus Columella (saec. I).
 Consent. Consentius (saec. V), *Ars* (GLK, V).
 Diom. Diomedes (saec. IV), *Ars* (GLK, I).
 Don. Aelius Donatus (saec. IV), *Ars grammatica* (GLK, IV).
 Don. Ter. Donatus, *Commentum Terenti* (ed. P. Wessner, Lipsiae 1902-1905).
 Dosith. Dositheus (saec. IV?), *Ars grammatica* (GLK, VII).
 DServ. scholia Servianis inserta, quae primus P. Daniel edidit.
 Fulg. Fabius Planciades Fulgentius (saec. V), *Expositio Virgilianae continentiae* (ed. R. Helm, Lipsiae 1898).
 Gell. Aulus Gellius (saec. II), *Noctes Atticae*.
 Germ. Claudius Caesar Germanicus (saec. I in.), *Arati Phaenomena*.

SIGLA

- GLK *Grammatici Latini* ex recensione H. Keil, I-VIII, Lipsiae 1857-1880.
- Gramm. e grammaticis tres pluresve.
- Hor. Q. Horatius Flaccus (65-8 a. Chr.).
- Isid. Isidorus Hispalensis (fl. 600), *Etymologiae sive Origines* (ed. W.M. Lindsay, Oxonii 1912).
- Lact. L. Caecilius Firmianus Lactantius (saec. III-IV).
- adn. Lucan. adnotationes super Lucanum (ed. I. Endt, Lipsiae 1909).
- comm.Lucan. M. Annaei Lucani commenta Bernensia (ed. H. Usener, Lipsiae 1869).
- Macr. Macrobius Ambrosius Theodosius (saec. V in.), *Saturnalia* (ed. J. Willis, Lipsiae 1963).
- Macr. Somn. eiusdem *Commentarii in somnium Scipionis* (ed. J. Willis, Lipsiae 1963).
- Mar. Victorin. Marius Victorinus (saec. IV), *Ars grammatica* (GLK, VI).
- Min. Fel. M. Minucius Felix (saec. II), *Octavius* (rec. M. Pellegrino, Augustae Taurinorum 1963).
- Non. Nonius Marcellus (saec. IV), *De compendiosa doctrina* (ed. W.M. Lindsay, Lipsiae 1903).
- PAC *Poetae Latini aevi Carolini et Medii Aevi*, ed. E. Dümmler, L. Traube, K. Strecker, I-V, Berolini 1881-1939.
- Pers. A. Persius Flaccus (saec. I).
- Phaedr. Phaedrus (saec. I).

SIGLA

- Philarg. Philargyrii et Galli explanationes in Vergilium (saec. V?) in *Appendice Serviana* (cf. etiam schol. Bern. et G. Funaioli, *Esegesi virgiliana antica*, Mediolani 1930).
- Plin. C. Plinius Secundus (27-79), *Naturalis historia*.
- Pomp. Pompeius (saec. V), *Commentum artis Donati* (GLK, V).
- Porph. Hor. Pomponius Porphyrio (saec. III), *Commentum Horatii* (ed. A. Holder, Aeniponti 1894).
- Prisc. Priscianus Caesariensis (saec. V-VI), *Institutio grammatica* (GLK, II-III).
- Probus M. Valerius Probus (saec. I-II; GLK, IV).
- ps. Probus Probi qui dicitur *Commentarius in Bucolica et Georgica* in *Appendice Serviana*.
- Prop. Sextus Propertius (50-15 a. Chr.).
- Quint. M. Fabius Quintilianus (saec. I), *Institutio oratoria*.
- RLM *Rhetores Latini minores* (ed. C. Halm, Lipsiae 1863).
- Rufin. Iulius Rufinianus (saec. IV), *De figuris sententiarum* (RLM).
- Sacerd. Marius Plotius Sacerdos (saec. III), *Artes grammaticae* (GLK, VI).
- schol.Bemb.Ter. scholia in Terentium Bembina (ed. J.E. Mountford, Londinii 1934).
- schol. Bern. scholia in Vergilium Bernensia (ed. H. Hagen, *JKPh*, suppl. IV, 1867; cf. Philarg.).

SIGLA

| | |
|---------------|---|
| schol. cod. M | scholia in Vergilii Bucolica quae in cod. M adservantur (ed. M. Ihm, <i>RbM</i> , 45, 1890, 622-636). |
| schol. Iuv. | scholia in Iuvenalem vetustiora (ed. P. Wessner, Lipsiae 1931). |
| schol. Pers. | scholia antiqua in Persium (ed. O. Jahn, Lipsiae 1843). |
| schol. Stat. | Lactantii Placidi <i>Commentarii in Statii Thebaida et Achilleida</i> (ed. R. Jahnke, Lipsiae 1898). |
| schol. Ver. | scholia in Vergilium quae in cod. V adservantur (in <i>Appendice Serviana</i>). |
| Sen. | L. Annaeus Seneca (4-65). |
| Serv. | Servius (saec. V in.), in Vergilium <i>Commentarii</i> (ed. G. Thilo, Lipsiae 1881-1887; <i>Appendix</i> , ed. H. Hagen, Lipsiae 1902). |
| Sil. | Silius Italicus (saec. I). |
| Stat. | P. Papinius Statius (saec. I). |
| Tac. | Cornelius Tacitus (saec. I-II). |
| Ter. Maur. | Terentianus Maurus (saec. II?), <i>De litteris, de syllabis, de metris</i> (GLK, VI). |
| tit. Pomp. | tituli Pompeiani (CIL, IV). |
| Vegetius | F. Vegetius Renatus (saec. V in.), <i>Epitoma rei militaris</i> (ed. C. Lang, Lipsiae 1885). |
| Velius | Velius Longus (saec. I ex.), <i>De orthographia</i> (GLK, VII). |
| Victorinus | Maximus (?) Victorinus (saec. IV?) (GLK, VI). |

P. VERGILI MARONIS
BUCOLICON LIBER

P. VIRGILIO MARON^{us}
BUKOLIKAK

I

Meliboeus, Tityrus

Meliboeus

Tityre, tu patulae recubans sub tegmine fagi
silvestrem tenui Musam meditaris avena;
nos patriae finis et dulcia linquimus arva,
nos patriam fugimus; tu, Tityre, lentus in umbra
formosam resonare doces Amaryllida silvas.

5

Tityrus

O Meliboee, deus nobis haec otia fecit:
namque erit ille mihi semper deus; illius aram
saepe tener nostris ab ovilibus imbuet agnus.
Ille meas errare boves, ut cernis, et ipsum
ludere quae vellem calamo permisit agresti.

10

I, 1-83 PR — BUCOLICON MELIBOEUS TITYRUS P || 2 silvestrem] agrestem
Quint. IX, iv, 85 (cf. Ed. VI, 8)

Tityrok, Erroman ikusi duen babesle goren bati esker, ez du, Melibeok eta gainerako artzainek bezala, bere lurretik alde egin beharko. Antzinetatik ikusi da ekloga honetan Mantuako inguruetan Philipposeko gudaldiaren ondoren (K.a. 42) gertatu ziren desjabetzeen aipamen bat: alegia, Philipposen galdu zutenen alde egin zuten hirietako hiritarrek galdu egiten zituzten beren lurak irabazleen artean borrokatu zuten soldaduen mesederako. Betidanik pentsatu izan da ekloga hau (eta gai berberaz diharduen IXgarrena) autobiografikoa dela, bada ere neurri batean: irakurketa honen arabera, Virgilio (Tityro) edota bere familia lurak galtzeko zorian egon zen eta Octavianori esker (ekloga honetan aipatzen den jaingo gaztea) berreskuratu egin zituen: hemendik, beraz, bukaerako «impus... miles» eta «barbarus» horiek.

I

Melibeo, Tityro

Melibeo

Tityro, zuk, pago zabalaren estalpean etzanda, basa musa
saiatzen duzu txirula xehearekin; guk sorterriko bazterrak eta
soro gozoak uzten ditugu, guk ihes egiten dugu sorterritik;
zuk, Tityro, gerizpean axolagabe, basoei Amaryllis ederrari
5 erantzuten irakasten diezu.

Tityro

Oi Melibeo, jainko batek egin zizkigun atsedeen hauek: ezen
hura jainkoa izango da beti niretzat; haren aldea gure arte-
gietako arkume samur batek bustiko du sarri. Hark baimen-
du zuen, dakusazunez, nire abelgorriak alderrai ibil zitezen,
eta baita neuk ere nahi nituenak jo nitzan neure kanabera
10 zakarraz.

(1) *Tityre*: Theocritoren agertzen den artzain baten izena («*Laconum lingua tityrus dicitur aries maior qui gregem anteire consuevit*», Serv.; Elianok, *VH*, III, 40, σάτυρος-en sinonimoa dela dio).

(2) *meditaris*: antze mota landu eta ikasi batean ihardun. *avena*: hodi bakarreko txirula, *fistula* ez bezalakoa.

(5) *resonare*: iragankorra, *Amaryllida* du osagarri zuzen; *Amaryllis* ere Theocritoren hartutako izena da ('distiratsua' esan nahi du, ἀμαρύσσω-tik).

(6) *Meliboe*: greciar izena («*Meliboeus*, ὅτι μέλει αὐτῷ τῶν βοῶν, id est quia curam gerit boum», Serv.), ez da irakurtzen iritsi zaigun poesia bukolikoan. *deus*: eskolista gehien arabera, Octaviano (K.a. 27tik aurrera *Augustus* izena hartuko duen berbera).

(7) *namque*: gorago aipatutako *deus* argitzen du.

(8) *nostris ab ovilibus*: «agnus»-en mendean. *imbuet*: bere odolez.

(9) *ipsum: me ipsum*.

(10) *ludere*: atsegina den edozein eginkizun egin, hemen asmatu edo abestu ez tragikoa ez epikoa ez den kanta bat. *calamo*: 2garren lerroko *avena* bezalakoa.

BUCOLICON I

Meliboëus

Non equidem invideo; miror magis: undique totis
usque adeo turbatur agris. En ipse capellas
protenus aeger ago; hanc etiam vix, Tityre, duco:
hic inter densas corylos modo namque gemellos,
spem gregis, a! silice in nuda conixa reliquit. 15
Saepe malum hoc nobis, si mens non laeva fuisset,
de caelo tactas memini praedicere quercus
[saepe sinistra cava dicebat ab ilice cornix]. 17a
Sed tamen, iste deus qui sit, da, Tityre, nobis.

Tityrus

Urbem, quam dicunt Romam, Meliboeë, putavi
stultus ego huic nostrae similem, quo saepe solemus 20
pastores ovium teneros depellere fetus.
Sic canibus catulos similes, sic matribus haedos
noram; sic parvis componere magna solebam.
Verum haec tantum alias inter caput extulit urbes,
quantum lenta solent inter viburna cupressi. 25

Meliboëus

Et quae tanta fuit Romam tibi causa videndi?

12 turbatur n, *Quint. I, iv, 28, Consent. 372, 35, D.Serv. Aen. I, 272* : turbamur PRωγ || 13 protenus ny, *Non. 377, 20, Serv.* : protinus PRω, *Mynors* || 17a v. *praebent* ny¹, *om. cet. nec non Mynors* dicebat n : predixit γ¹

(12) *usque adeo*: biak batera ulertu behar dira. *turbatur*: pertsona gabea.

(13) *ago*: aurrean eramán. *duco*: atzean, tiraka esaterako, eramán.

(15) *spem gregis*: 14ko «gemellos»-en aposizioa. *conixa*: *conitor*, ahalegin handiak egin (hemen erditzeko lanei buruz ari da).

(16) *laeva*: berez 'ezkerra', hemen 'narra, ergela'.

BUKOLIKAK I

Melibeo

Ez dizut bekaitzik, harritzen naiz ordea: hainbesterainokoa da-eta lur guztietatik, edonondik, asaldura. Hara, nik neuk antxumeok nekez daramatzat aurrean; are hau, Tityro, ozta dakart: hementxe, hurritz sarrien artean, bikiak laga ditu
15 oraintsu, artaldearen itxaropena, ai! suharri gorrian erdituta. Gaitz hau zerutik jotako haritzek —buru hau motela izan ez balitz!— askotan iragarri zutela gogoratzen naiz; askotan esaten zuen, arte hutsetik, ezkerretiko beleak. Baina esaigu-
25 zu, Tityro, jainko hori nor den.

Tityro

Erroma esaten dioten hiria, Melibeo, gure honen antzeko-
20 tzat neukan, ergelonek, artzainok ardien ume samurrak maiz eramaten ditugunarena. Honela zakurkumeak zakurren antzekoak zirela banekien, honela antxumeak haien amenak, honela handiak txikiekin erkatzen nituen. Baina honek altzi-
presek zume malguen artean bezainbat jaso zuen burua bes-
25 te hirien artean.

Melibeo

Eta zein izan zenuen Erroma ikusteko hain arrazoi handia?

(17) *de caelo tactas quercus*: gaitza zekarten tximistak jotako zuhaitzek, erromatarren usteetan.

(18) *qui sit*: zehar galdera.

(20) *huic nostrae*: eskoliasta askok, Tityro Virgiliotzat hartuta eta honen bizitzari buruz *vitae Vergilianae* direlakoek diotenaren arabera, Mantua ikusi nahi izan dute honen azpian. *quo*: adizlaguna.

(21) *ovium*: errazago ulertzen da «teneros» «fetus»-ekin joanarazten bada («pastores»-ekin pleonastikoa litzateke).

(22) *depellere*: artaldetik alegia, baten batzuk bakarrik hartzen direlako hirira eramateko (*de-pello*).

BUCOLICON I

Tityrus

Libertas, quae sera, tamen respexit inertem,
candidior postquam tondenti barba cadebat;
respexit tamen et longo post tempore venit,
postquam nos Amaryllis habet, Galatea reliquit. 30
Namque, fatebor enim, dum me Galatea tenebat,
nec spes libertatis erat, nec cura peculi.
Quamvis multa meis exiret victima saeptis,
pinguis et ingratae premeretur caseus urbi,
non umquam gravis aere domum mihi dextra redibat. 35

Meliboeus

Mirabar quid maesta deos, Amarylli, vocares,
cui pendere sua patereris in arbore poma:
Tityrus hinc aberat. Ipsae te, Tityre, pinus,
ipsi te fontes, ipsa haec arbusta vocabant.

Tityrus

Quid facerem? neque servitio me exire licebat, 40
nec tam praesentis alibi cognoscere divos.
Hic illum vidi iuvenem, Meliboe, quotannis
bis senos cui nostra dies altaria fumant;

37 poma] mala Ry?, corr. R²γ¹ || 38 pinus] nobis P, corr. P² (cf. *Ecl. I, 18*)

(29) *tondenti: mihi*, seguruenik.

(30) *Galatea*: itsasoko ninfa baten izena, beharbada hemen besterik gabeko izen berezi bat (ikus, dena den, *Ecl. VII, 37*).

(33) *victima*: singularra pluralaren orde, askotan bezala.

(34) *ingratae*: gaizki ordaintzen dituelako baserritik eramandako salgaiak.

(36) *Amaryllis* ez dago bi artzainekin, baina Melibeok aurrean balego bezala hitz egiten dio.

BUKOLIKAK I

Tityro

Askatasuna, arduragabeoni berandu baina begiratu egin ziona, moztean bizarra zuria erortzen zitzaionean; begiratu egin zion ordea eta denbora luzeren buruan etorri zen,
30 Amaryllisek gauzkanean, Galateak utzi gaituenean. Izan ere —onartuko dut— Galateak nindukan bitartean ez zegoen askatasunaren itxaropenik ez ondasunaren ardurarik. Nire hesietatik opalgai askok irten arren eta hiri eskergabearentzat gazta guria estutu arren, inoiz ez zen nire eskuina diruz
35 astun etxerutzen.

Melibeo

Harriturik nintzen, Amaryllis, zergatik deitzen zenien, tristetuta, jainkoei, norentzat uzten zenituen frutak arbolan zintzilik: Tityro ez zegoen hemen. Pinuek berek, Tityro, iturriek berek, zuhaixka hauek berauek deitzen zizuten.

Tityro

40 Zer egin nezakeen? ezin nuen morrointzatik irten ezta ere beste inon ezagutu hain jainko ongilerik. Hemen gazte hura ikusi nuen, Melibeo, zeinentzat gure aldareei kea baitarie urtero seitan bi aldiz; hemen eman zidan hark lehe-

(37) *pateris: mirabar... cui pateris.*

(38) *aberat*: azken silaba luzea da *productio ob caesuram* gertatzen delako.

(41) *praesentis*: pluralean, beharbada beste laguntzaile batzuk ere aipatu nahi dituelako, beharbada *pluralis maiestatis* (jainko baten *praesentia* haren ongiletasunagatik neurtzen da: hortik hitzak hemen duen adiera).

(42) *iuvenem*: exegeta gehienen arabera, Octaviano, zeinek (K.a. 63-K.o. 14) orduan hogeita gutxi urte baitzituen.

(43) *bis senos*: urtean hamabi biderrez, hau da, hilean behin, *Lares* jainkoei egiten zitzaien bezala.

BUCOLICON I

hic mihi responsum primus dedit ille petenti:
 «pascite ut ante boves, pueri; summittite tauros». 45

Meliboëus

Fortunate senex, ergo tua rura manebunt,
 et tibi magna satis, quamvis lapis omnia nudus
 limosoque palus obducat pascua iunco.
 Non insueta gravis temptabunt pabula fetas,
 nec mala vicini pecoris contagia laedent. 50
 Fortunate senex, hic inter flumina nota
 et fontis sacros frigus captabis opacum;
 hinc tibi, quae semper, vicino ab limite saepes
 Hyblaeis apibus florem depasta salicti,
 saepe levi somnum suadebit inire susurro; 55
 hinc alta sub rupe canet frondator ad auras,
 nec tamen interea raucae, tua cura, palumbes,
 nec gemere aëria cessabit turtur ab ulmo.

Tityrus

Ante leves ergo pascentur in aethere cervi
 et freta destituent nudos in litore piscis, 60
 ante pererratis amborum finibus exul
 aut Ararim Parthus bibet aut Germania Tigrim,
 quam nostro illius labatur pectore voltus.

59 pascentur P aethere] aequore *ps. Probus, Ribbeck et al.* || 63 labantur P²

(44) *responsum*: ez zaigu esaten zein galderari ematen zaion erantzuna: pentsa-
 tzekoa da bere familiaren lurak ez galtzeko erreguari buruz ari dela.

(45) *summittite*: *submitte ingo*, Servioaren ustez.

(46) *tua*: atributo zein predikatibotzat hartu izan da.

(49) *graves*: agian zentzu zabalenean, hau da, ez ernari egotearena («fetas» hi-
 tzak bailuke hemen esanahi hori, izenaren funtzioa betez).

nen erantzuna eskatu nuenean: «bazka itzazue lehen bezala
45 abelgorriak, mutilok, mendera itzazue zezenak».

Melibeo

Zorioneko agurea, beraz iraungo dute zure lurrek, eta asko
handiak zuretzat, harri gorriak eta aintzirak, ihi lohitsuaz, larre
denak estaltzen badituzte ere. Ohigabeko bazkek ez dituzte
ernari beteak pozoituko, ezta kalterik egingo ere auzoko ar-
50 taldearen kutsu gaiztoek. Zorioneko agurea, hemen, erreka
ezagun eta iturri sakratuen artean, gerizpeko hotza bilatuko
duzu; hemendik, auzoko mugako hesiak, betikoak, sahatza-
ren lorea hyblatar erleei ematen dienak, loa aholkatuko dizu
55 sarri zurrumuru arin batekin; hemendik, haitz altuaren az-
pian, inaustariak haizeetara abestuko du, eta bitartean ez uso
erlatsek —zure ardura—, ez, zumar goitik, usapalak, ez dio-
te intziri egiteari utziko.

Tityro

Beraz, lehenago zeruan bazkatuko dira orein arinak eta itsa-
60 soek biluzik utziko dituzte arrainak itsasertzetan, lehenago
—nork bestearen lurrak ibilita— parthiar erbestetuak Arar
edango du edo Germaniak Tigris, gure bihotzetik haren aur-
pegia itzuri baino.

(54) *depasta*: balio pasiboa izan dezake, eta orduan «flore» erlaziozko akusati-
boa litzateke; balio aktiboa ere izan lezake («jateko eman, eskaini»), eta orduan osa-
garri zuzena litzateke «flore». *Hyblaeis apibus*: Hyblako ezti (Sicilian, Etna mendia-
ren hegoaldean) oso famatua zen: Siciliaren zeharkako aipamen honek Theocritoren
poesia dakarkio burura irakurleari.

(61) *pererratis... finibus*: ablatibo absolutua. *exul*: «Parthus» nahiz «Germania».

(62) *Ararim*: gaurko Saône (Gallian zegoen, ez Germanian). *Parthus*: parthiarrak,
garai honetan Mesopotamia aldean bizi zen herri indartsua; hemen (hainbestetan be-
zala) erromatarrentzat muturrekoa (baina ezaguna) zen ekialdea ordezkatzen dute.

BUCOLICON I

Meliboeus

At nos hinc alii sitientis ibimus Afros,
 pars Scythiam et rapidum cretae veniemus Oaxen 65
 et penitus toto divisos orbe Britannos.
 En umquam patrios longo post tempore finis,
 pauperis et tuguri congestum cespite culmen,
 post aliquot mea regna videns mirabor aristas?
 Impius haec tam culta novalia miles habebit, 70
 barbarus has segetes: en, quo discordia civis
 produxit miseros; his nos consevimus agros!
 Inserere nunc, Meliboe, puros, pone ordine vitis!
 Ite meae quondam felix pecus, ite capellae.
 Non ego vos posthac viridi proiectus in antro 75
 dumosa pendere procul de rupe videbo;
 carmina nulla canam; non me pascente, capellae,
 florentem cytisum et salices carpetis amaras.

Tityrus

Hic tamen hanc mecum poteras requiescere noctem
 fronde super viridi: sunt nobis mitia poma, 80
 castaneae molles et pressi copia lactis,
 et iam summa procul villarum culmina fumant
 maioresque cadunt altis de montibus umbrae.

65 Cretae *Serv. Ecl. II, 24* || 72 perduxit *bdvvy*¹ his nos *PRaby* : en quis *ωγ*¹, *schol. Bern.*, en quos d *consuevimus Ran, corr. R*¹ agris *Ray, corr. γ*¹ || 74 quondam felix *Pfny, schol. Bern., Serv., DServ. Aen. IX, 86, Ribbeck* : felix quondam *Rw, Sabbadini, Mynors* || 78 calices *P, corr. P*² || 79 hanc... noctem *PRabdry*¹ : hac... nocte *P²ωγ, ps. Acro Hor. Carm. II, vii, 19* || 83 de] a *P, corr. P*²

(65) *Scythiam*: gaurko Errusiako iparraldea; hemen, gehienetan bezala, iparralde urrun eta mitikoa adierazteko modu bat. *Oaxen*: Serviok dioenez Mesopotamiako edo Scythiako ibaia da, baina inon gehiago ez da ibai honi buruzko aipamenik; badirudi, hala ere, ekialdeko ibaia izan behar duela, lehenago hegoaldea («Afros») eta iparraldea («Scythia») aipatu direlako eta beherago mendebaldea aipatuko delako («Britannos»):

Melibeo

Gu ordea, batzuk hemendik africar egartsuengana joango
 65 gara, zati bat Scythiara eta klera daraman Oaxesera etorriko
 gara, eta mundu osotik sakonki bereizitako britanniarrenga-
 na. Mirestuko al dut inoiz galbururik, denbora luzeren bu-
 ruan sorterriko lurrok eta nire txabola pobre honen gaina
 70 belarrez sarria —ene erreinuak— ikustean? Soldadu donge
 batek izango ditu soro hain landu hauek, barbaro batek alor
 hauek: hara nora eraman dituen liskarrak hiritar errukarriak;
 hauentzat erein genituen guk lurrok! Txerta itzazu orain,
 Melibeo, udarondoak, lerroka itzazu errenkadan mahatson-
 doak! Alde, alde nire antxumeok, behinolako artalde zorion-
 75 tsuori. Aurrerantzean ez zaituztet gehiago ikusiko, haitzulo
 berdean etzanda, haitz sasitsu batetik urrutian zintzilika; ez
 dut kanturik abestuko; ez duzue, antxumeak, nik bazkatzen
 zaituztedala, ez isats loretsurik ez sahats mikatzik jango.

Tityro

Hala ere, gaur hemen nirekin har zenezake atsedean, hosto
 80 berdeen ganean: baditugu fruta gozoak, gaztaina biguinak
 eta gazta berri ugari, eta ja, urrutian, baserrietako gainei kea
 darie, eta mendi tontorretatik itzalak luzeagoak erortzen dira.

baliteke *Oxus* ibaia izatea (antzinatego iturrietan ondo dokumentatua), gaurko Amu-
 darya, Aral itsasoan isurtzen dena: Virgiliorentzat ibai mitiko eta ezezaguna izango
 litzateke. (Arazo honekin lotuta dago *cretae* hitzaren esanahia: Servioek espresuki esan-
 ten du Oaxes izeneko ibairik ez dagoela Cretan eta, izan ere, badirudi izen honetako
 ibaiari buruzko gainerako aipamen guztiak Virgilioren pasarte honetatik datozela; ho-
 netaz gain, ez dago arrazoi bat ere *cretae* hitza *Cretae* bezala ulertzeko: ez testuingu-
 ruak ez antzinatego geografiari buruz dakigunak ez dute halakorik onartzen).

(66) *Britannos*: Britannia mundu ezagunaren mendebaldeko muturra zen.

(69) *post*: adberbioa (baita 67an ere). Hau da: *en umquam, videns postea patrios fi-
 nes et culmen tuguri, mea regna* (aposizioa alegia), *mirabor aliquot aristas?*

(71) *producit*: jatorrizko esanahiarekin: 'aurrera eraman'.

(72) *his*: datiboa.

II

Formosum pastor Corydon ardebat Alexin,
 delicias domini, nec quid speraret habebat.
 Tantum inter densas umbrosa cacumina fagos
 adsidue veniebat; ibi haec incondita solus
 montibus et silvis studio iactabat inani: 5

«O crudelis Alexi, nihil mea carmina curas?
 nil nostri miserere? mori me denique coges.
 Nunc etiam pecudes umbras et frigora captant,
 nunc viridis etiam occultant spineta lacertos,
 Thestylis et rapido fessis messoribus aestu 10
 alia serpullumque herbas contundit olentis;
 at me cum raucis, tua dum vestigia lustro,
 sole sub ardenti resonant arbusta cicadis.
 Nonne fuit satius tristis Amaryllidos iras
 atque superba pati fastidia? nonne Menalcan, 15
 quamvis ille niger, quamvis tu candidus esses?

II, 1-73 PR — POETA CORYDON PR || 1 Alexim P || 7 coges Raf : cogis
 Ρωγ, *Mynors* || 9 lacertos P²Ρωγ, *schol. Iuv. III, 231, Philarg.* : lacertas P, *Sabbadini*
 || 12 at ωγ, *Non. 335, 32, Serv.* : ag in ac corr. R, ad P me cum *Bentley* : me-
 cum *Sabbadini, Mynors*

Corydon artzaina beste norbaiten amorantea den Alexisekin maitemindu da. Servio eta antzinateko beste zenbaiten exegesietan, ekloga honetan ere oinarri autobiografiko bat legoke: Virgilio Pollionen etxekoa zen Alexandro izeneko jopu batekin maitemindu zen eta Pollionek hura oparitu zion. Lehenengo eklogaren kasuan ez bezala, ez dirudi exegesi zahar honek zuzena izateko aukerarik duenik. Edonola izanda ere, bigarren ekloga hau agian amodio homosexualaren sinbolo famatuena da garai guztietako literatur klasikozalean.

II

Corydon artzaina garretan zen Alexis ederrarengatik —jaunaren atsegina— eta ez zuen zer itxaron. Soilik pago sarrien artera, adaburu gerizpetsuak, maiz etortzen zen; han, 5 bakarrik, araugabeko hauek mendi eta basoei botatzen zizkien alferreko arretaz:

«Alexis ankerrori, ez al zara nire abestiez ezer ardura-
tzen? ez gutaz ezer errukitzen? hiltzera behartuko nauzu az-
kenean. Orain abereek ere gerizpe eta hotzak bilatzen dituzte,
orain elorriek ere musker berdeak ezkututzen dituzte, eta
10 Thestylisek bero oldarrak nekatu biltzaileentzat baratzuriak
eta sarpoila, belar usaindunak, ehotzen ditu; niri ordea,
zure arrastoa ibiltzen dudan bitartean, eguzki sutsu baten
pean zuhaixkek erantzuten didate txitxar erlatsekin batera.
Ez al zen hobe Amaryllisen haserrealdi tristeak eta erdeinu
15 arroak pairatzea? ez al zen hobe Menalcas pairatzea, nahiz
eta hura beltza, nahiz eta zu zuria izan? Oi mutil ederrori,

(1) *Corydon*: artzain izena Theocritorengan; *Alexis* ere izen greciarra da (Meleagrorengan irakurtzen da).

(2) *delicias domini*: «Alexin»-en aposizioa.

(3) *inter: quo galdera. umbrosa cacumina*: «densas fagos»-en aposizioa.

(10) *Thestylis*: neska baten izena Theocritorengan. *rapido: rapidus, qui rapit. aestu fessis*: «rapido aestu» «fessis»-en egilea da.

(11) *herbas... olentis*: «alia serpulumque»-ren aposizioa, baina bestela ere uler daiteke; Thestylisek prestatu duena *moretum* da (*Appendix Vergiliana*-n irakurtzen diren olerkietako baten izenburua), nekazarien janari tipikoa.

(13) *resonant (me)*: nire oihartzuna egiten dute. Geymonat-ek, gainerako editore gehienen aurka, «me cum raucis» irakurtzen du (besteek «mecum», eta «raucis... cicadis» instrumentala), hau da, 'txitxar erlatsekin batera'.

(14) Amaryllis neska izena da, Menalcas eta Alexis mutil izenak: ez da nahi gabe egindako aipamena (ikus *Ecl.* I, 5).

O formose puer, nimium ne crede colori:

alba ligustra cadunt, vaccinia nigra leguntur.

Despectus tibi sum, nec qui sim quaeris Alexi,
quam dives pecoris, nivei quam lactis abundans.

20

Mille meae Siculis errant in montibus agnae,
lact mihi non aestate novom, non frigore defit.

Canto, quae solitus, si quando armenta vocabat,
Amphion Dircaeus in Actaeo Aracyntho.

Nec sum adeo informis: nuper me in litore vidi,
cum placidum ventis staret mare; non ego Daphnin
iudice te metuam, si numquam fallit imago.

25

O tantum libeat mecum tibi sordida rura
atque humilis habitare casas et figere cervos
haedorumque gregem viridi compellere hibisco.

30

Mecum una in silvis imitabere Pana canendo
(Pan primum calamos cera coniungere pluris
instituit; Pan curat ovis oviumque magistros),
nec te poeniteat calamo trivisse labellum:

19 quis cfy¹ || 20 pecoris nivei *Serv., schol. Bern.* || 22 lact P : lac P²R, *Mynors*
desit de || 27 fallit Pc, *Philarg.* : fallat P²Rωγ, ps. *Acro Hor. Carm. III, xxvii, 40,*
schol. Bern., Serv., Heyne, fallet bf || 32 primum PRan : primus ωγ, ps. *Acro Hor.*
Carm. IV, xii, 10, Serv. Ecl. III, 25, Isid. III, xxi, 8

(17) *ne crede: ne + agintera, bakana da.*

(21) *Siculis... in montibus: aipamen hau ere, lehenengo eklogako Hyblarena be-
zala, Theocritoren poesiarren zeharkako aipamena da.*

(22) *aestate... frigore: alegia, ez udan ez neguan.*

(24) *Actaeo Aracyntho: hiatoa. Amphion: Hermesek oparitu zion lira jotzen zuenean,
harriak berez joaten ziren orduan eraikitzen ari ziren Thebaseko harresietan behar be-
zala jartzera; hemendik hur zegoen Dirce iturria, hortik Dircaeus. Ἀράκυνθος Beozia
eta Atticaren artean dagoen mendi bat da (baina izen bereko mendi bat dago Acarna-*

ez koloreari gehiegi sinets: zuhandor zuriak erori egiten dira, basaran beltzak bildu.

Arbuiatu egiten nauzu, eta ez duzu nor naizen galde-
 20 tzen, Alexis, zein aberats arditan, zein izandun elurrezko es-
 netan. Nire mila arkume alderrai dabilta siciliar mendietan,
 ez dut falta esne freskoa ez udan ez hotzeteen. Dircear
 Amphionek Acteko Aracynthon saldoari hots egiten zio-
 nean abestu ohi zituenak abesten ditut. Eta ez naiz horren
 25 zatarra: arestian neure burua ikusi dut itsasertzean, itsasoa
 haizeekin lasai zegoenean; ez naiz, zu epaile, Daphnisen
 beldur izango, irudiak inoiz engainatzen ez badu. Oi! atse-
 gin bekizula bakarrik lur zikin eta txabola apaletan nirekin
 30 bizitzea, eta oreinak ehizatzea eta antxumeen taldea ziguin
 berdera eramatea! Nirekin batera, basoetan, Pan antzera-
 tuko duzu abesten (Panek irakatsi zuen lehenen kanabera
 asko argizariz itsasten; Pan arduratzen da ardiez eta ardien
 zaintzaileez), eta ez penatu ezpaintxoak zakartu baduzu ka-

nian); Ἀκτῆῖ edo Ἀκταῖα Attica izendatzeko izen zaharrak dira: «Actaeus»-ek, beraz, 'atticarra' esan nahi luke.

(26) *ventis*: instrumentala. *Daphnis*: pertsonai erdi mitologikoa izateaz gain, poesia bukolikoan (hemen ere bai) artzain eder eta musikariaren arketipoa da.

(28) *tibi libeat tibi*.

(30) *viridi... hibisco*: norabide datiboa.

(31) *Pana*: artzainen jainkoa, poesia bukolikoarekin estu lotua.

(32-33) Panek poesia bukolikoan erakusten dituen bi alderdi nagusiak: bate-
 tik, artzain musikaren asmatzailea eta erakuslea («calamos cera coniungere pluris
 instituit»), bestetik, oro har, artaldean eta artzainen zaintzailea («curat ovis
 oviumque magistros»). Hemengo txirula hau argizariz elkartutako kanabera hodi
 askorekin (bakoitza aurrekoa baino motxagoa eta hurrengoa baino luzeagoa)
 egindakoa da: behe-rago (36-37) aipatzen den berbera: «disparibus septem com-
 pacta cicutis fistula» (kasu honetan zazpi hodikoa da; gehiagokoa ere izan zite-
 keen).

BUCOLICON II

haec eadem ut sciret, quid non faciebat Amyntas? 35
 Est mihi disparibus septem compacta cicutis
 fistula, Damoetas dono mihi quam dedit olim
 et dixit moriens: “te nunc habet ista secundum”.
 Dixit Damoetas; invidit stultus Amyntas.
 Praeterea duo, nec tuta mihi valle reperti, 40
 capreoli, sparsis etiam nunc pellibus albo,
 bina die siccant ovis ubera; quos tibi servo.
 Iam pridem a me illos abducere Thestylis orat,
 et faciet, quoniam sordent tibi munera nostra.
 Huc ades, o formose puer: tibi lilia plenis 45
 ecce ferunt Nymphae calathis; tibi candida Nais,
 pallentis violas et summa papavera carpens,
 narcissum et florem iungit bene olentis anethi;
 tum casia atque aliis intexens suavibus herbis
 mollia luteola pingit vaccinia caltha. 50
 Ipse ego cana legam tenera lanugine mala
 castaneasque nuces, mea quas Amaryllis amabat;
 addam cerea pruna (honos erit huic quoque pōmo),
 et vos, o lauri, carpam et te, proxuma myrte;
 sic positae quoniam suavis miscetis odores. 55

41 albo Pbenry, *schol. Bern., Serv., D.Serv. Georg. III, 56* : ambo Rω

(35) *Amyntas*: greciar izena; Theocritorengan benetakoa bide den pertsonai batena da, baina Virgiliok poesia bukolikoaren izen tipiko bat izango balitz bezala hartzen du eta asko erabiltzen du: hemendik aurrera bai bihurtzen da izen bukolikoa.

(39) *Damoetas*: Theocritorengandik hartutako artzain izena.

(40) *nec: nec tuta*.

(41) *sparsis... pellibus*: kalitatezko ablatibotzat har daiteke, baina baita absolutzat ere. *albo*: izen gisa erabilitako adjektiboa. *etiam nunc*: sei hilabetetik aurrera galdu egiten dituzte.

BUKOLIKAK II

35 naberarekin: hauek berauek ikasteko, zer ez zuen egiten Amyntasek? Zazpi hodi desberdinez osat utako txirula dut, Dametasek aspaldi oparitu, eta hiltzean esan zidan: ‘orain zu zaitu honek bigarren’. Esan egin zuen Dametasek; be-
 40 kaiztu zen Amyntas ergela. Gainera bi basahuntzek, ibar ez seguruan neuk aurkituak, oraindik larruak zuriz nabartuak, bina ardi titi lehortzen dituzte egunean; hauek zuretzat gor-
 detzen ditut. Aspalditik erregutzen dit Thestylisek haiek eramateko, eta egingo du, nazkatu egiten zaituzte-eta gure opariek.

45 Zatoz hona, mutil ederrori: hara, ninfek liliak dakartzate zuretzat otarre beteka; naiade zuriak bioleta zurpailak eta lo-belar garaiak biltzen ditu, lilipa eta usain oneko miluaren lorea zuretzat gehitzen ditu; orduan, izpiliku eta beste belar
 50 gozo batzuekin ehunez, aingeru-lore oriaz nabarmentzen ditu basaran biguinak. Nik neuk bilduko ditut bizar leuneko irasagar zuristak, eta gaztainak, nire Amaryllisek maite zituenak; gehi ditzadan argizarizko aranak (fruta honek ere izango du ohorea), eta zuek ere bai, erramuak, eta horien laguna zarena, mirtoa, zu ere har zaitzadan; honela jarrita usain
 55 gozoak nahasten dituzue-eta.

(46) *Nymphae*: mendi, baso, iturri eta zelaietako izpirituak, poesia bukolikoarekin estu lotuak: askotan, poesia honen gaia bera izateaz gain, artzainen zaintzaile, aholkulari eta eragile gisa agertzen dira. *Nais* (edo *Naias*): iturrietako ninfa (batzuetan bat baino gehiago agertzen dira: *Naiades*).

(50) *vaccinia*: «intexens» (49) eta «pingit»-en osagarria.

(51) *cana... mala: mala* hitzak (*malum*), berez, edozein fruta gogor izendatzeko balio du (μᾶλον, μῆλον); hemengo «tenera lanugine» honetatik irasagarriak izan behar dutela atera daiteke.

(53) *pruna bonos*: hiatoa. *cerea*: koloreagatik, seguruenik.

(54) *lauri... myrte*: erramua Apollorena da eta mirtoa Venusena: askotan agertzen dira biak batera aipatuak.

BUCOLICON II

Rusticus es, Corydon; nec munera curat Alexis,
nec, si muneribus certas, concedat Iollas.
Heu heu, quid volui misero mihi? floribus Austrum
perditus et liquidis immisi fontibus apros.
Quem fugis, a demens? habitarunt di quoque silvas 60
Dardaniusque Paris. Pallas quas condidit arces
ipsa colat; nobis placeant ante omnia silvae.
Torva leaena lupum sequitur, lupus ipse capellam,
florentem cytisum sequitur lasciva capella,
te Corydon, o Alexi: trahit sua quemque voluptas. 65
Aspice, aratra iugo referunt suspensa iuveni
et sol crescentis decedens duplicat umbras;
me tamen urit amor; quis enim modus adsit amori?
A Corydon, Corydon, quae te dementia cepit!
Semiputata tibi frondosa vitis in ulmo est; 70
quin tu aliquid saltem potius, quorum indiget usus,
viminibus mollique paras detexere iunco?
invenies alium, si te hic fastidit, Alexin».

56 es P²ωγ, Serv. : est PRa, CIL IV, 1527 || 57 certet Ra² || 61 quae Ra ||
70 est om. Py || 73 Alexin Philarg., Serv. : Alexim PRan, Alexis P²ωγ, schol. Bemb.
Ter. Eun. 56, Sacerd. 457, 20

(57) *Iollas*: bigarren lerroan aipatu *dominus*, seguruenik (hau da, Alexisen nagusia); edonola izanda ere, *dives amator* bat; izena ez da Theocritorengan azaltzen.

(58) *Austrum*: hego haizea.

(59) *floribus Austrum... et fontibus apros immittere*: modu askotara ulertu nahi izan da esaldi hau; badirudi nekazari atsoitz moduko bat izan daitekeela zerbait hankaz gora jarri dela adierazteko (alegia, nahastu behar ez diren gauzak nahastu direla).

(60) *habitarunt di quoque silvas*: Pan (eta honekin batera agertzen diren ninfak), Apollo, Silvano, Ceres edo Diana, esaterako.

Baserritarra zara, Corydon; Alexis ez da opariekin ardu-
 ratzen eta, opariz lehiatuko bazina, Iollas ez litzateke atzean
 geratuko. Ene ene, zer nahi nuen, errukarrionek? itsututa,
 Austroa lore artera eraman dut, eta basurdeak iturri garde-
 netara. Norengandik egiten duzu ihes, zoroori? Jainkoak ere
 60 basoetan bizi izan dira, baita Dardanotar Paris ere. Pallas,
 hiriak sortu zituen, bera bizi dadila horietan; guri basoak
 izan dakizkigula atsegin gauza guztien aurretik. Lehoi beto-
 kerra otsoari darraio, otsoa bera antxumeari, isats loretsuari
 antxume jolastia darraio, zuri, oi Alexis, Corydon: nor bere
 65 gurariak darabil. Begira, zekorrek uztaurretik zintzilik dakar-
 tzate goldeak, eta eguzkiak, erortzean, haziz doazen itzalak
 bikoizten ditu; ni ordea maitasunak erretzen nau; zein neurri
 leukake bada maitasunak?

Ai Corydon, Corydon, zein zoramenek hartu zaitu! Erdi
 70 inausita duzu zumar hostotsuan mahatsondoa; bada ere,
 zergatik ez zara saiatzen, hobe, beharreko zerbait zume eta
 ihi malguez ehuntzen? aurkituko duzu, honek erdeinatzen
 bazaitu, beste Alexis bat».

(61) *Dardanius Paris*: Paris, Trojako Priamoren semeetako bat (beraz, Darda-
 noren ondorengoa), artzaina zen, eta bereziki ederra (horregatik izan zen Athenea,
 Hera eta Aphroditaren arteko edertasun auziaren epailea eta baita horregatik ere
 Helena bahitu zuen eta Trojako gudua sorrarazi). Parisen adibidea oso adierazgarria
 da: artzaina, ederra eta aldi berean hiri ospetsu bateko printzea baita. *Pallas*: alegia
 Athenea, hirien babeslea (lerro berean agertzen den Parisi kontrajartia: Parisen
 erruagatik suntsitu zen Troja, eta Pallas πολιοῦχος da, hau da, 'hirien babeslea';
 bestetik, aipatu hiru jainkosen auzian Athenea Parisek gaitzetsitako bi jainkosetako
 bat da).

(65) *o Alexi*: hiatoa. *Corydon*: nominatiboa.

(66) *suspensa*: etxera etortzean (edo soroetara joatean) goldea uztaurretik zintzilik
 eramaten zutelako.

(70) *in ulmo*: zumarrekin elkartu ohi ziren, antzinatean, mahatsondoak.

(71) *aliquid eorum quorum indiget usus*.

III

Menalcas, Damoetas, Palaemon

Menalcas

Dic mihi, Damoeta, cuium pecus? an Meliboei?

Damoetas

Non, verum Aegonis; nuper mihi tradidit Aegon.

Menalcas

Infelix o semper, oves, pecus! ipse Neaeram
dum fovet ac, ne me sibi praeferat illa, veretur,
hic alienus ovis custos bis mulget in hora,
et sucus pecori et lact subducitur agnis.

5

Damoetas

Parcius ista viris tamen obicienda memento;
novimus et qui te, transversa tuentibus hircis,
et quo, set faciles Nymphae risere, sacello.

III, 1-26 PR — MENALCAS DAMOETAS PALAEMON PR || 3 oves] vis P, ovis P¹ω
(*praeter* a) γ, Ribbeck || 6 lact P, Sabbadini (*cf. Ecl. II, 22*) : lac P²R, Mynors || 8 hircis
Ansil. HI 167, alii *ap. Serv.* : hircis P²Rωγ, Quint. LX, iii, 59, Macr. IV, vi, 21, Probus
250, 25, Serv., Mynors

Bi artzainen arteko dema, kantu amebeo delakoaren tradizioan. Theocritoren moduari jarraitzen zaio ekloga honetan bereziki estu.

(1) *cuium*: izenorde adjektibo zaharra (*cuius, -a, -um*), Virgilioren garaian herrietako jendearen artean bakarrik erabilia ja.

III

Menalcas, Dametas, Palemon

Menalcas

Esaidazu, Dametas, noren artaldea da? Melibeorena?

Dametas

Ez, Egonena baizik; arestian eman zidan Egonek.

Menalcas

Oi ardiak, artalde beti dohakabea! hark Neera limurtu eta ni bera baino maiteago eduki nazan beldur den bitartean, zaintzaile arrotzak jezten ditu ardiak orduro bi biderrez, eta artaldeari zukua eta arkumeei esnea kentzen die.

Dametas

Horrelakoak kontu handiagoz bota behar zaizkie gizonei, gogoan izan; badakigu baita ere nork zu... akerrak oker begirutzen ari zirela, eta baita zein tenplutxotan..., baina ninfa errazek barre egin zuten.

(2) *Aegonis*: greciar izena; nabarmena da Egon izeneko pertsonaia hemen hitz egiten ari diren Dametas eta Menalcas baino maila altuagokoa dela. *tradidit*: zaintzeko alegia.

(3) *infelix*... *pecus*: «oves»-en aposizioa. *ipse*: Egon. *Neera*: bai Menalcasek bai Egonek maite duten artzaintsa (ninja izena da greciar testuetan).

(5) *bis mulget in hora*: gorago bezala, jabea ez den artzain batek artaldeari egin diezaiokeen kalteaz dihardu (hemen, Egonen kontra jarduteko aitzakia).

(6) *pecori et*: hiatoa.

(8) *qui te*: aditza falta da, hau da, Dametasek esan gabe uzten du. *transversa*: adberbio baten balioa du hemen.

BUCOLICON III

Menalcas

Tum, credo, cum me arbustum videre Miconis
atque mala vitis incidere falce novellas. 10

Damoetas

Aut hic ad veteres fagos, cum Daphnidis arcum
fregisti et calamos; quae tu, perverse Menalca,
et cum vidisti puero donata dolebas
et, si non aliqua nocuisses, mortuus esses. 15

Menalcas

Quid domini faciant, audent cum talia fures?
Non ego te vidi Damonis, pessime, caprum
excipere insidiis, multum latrante Lycisca?
et cum clamarem: «quo nunc se proripit ille?
Tityre, coge pecus!» tu post carecta latebas. 20

Damoetas

An mihi cantando victus non redderet ille,
quem mea carminibus meruisset fistula, caprum?
Si nescis, meus ille caper fuit; et mihi Damon
ipse fatebatur; sed reddere posse negabat.

(10) *cum me...*: ironia: berea balitz bezala kontatzen du Dametasek egindako gaiztakeriaren bat. *videre*: sc. *nymphae*. *Miconis*: Theocritorengan aurkitzen den izena.

(12) *Daphnidis*: artzain gazte bat (edozein artzain alegia, Vgarrean eta beste zenbait pasartetan ez bezala).

(14) *puero*: Daphnis.

BUKOLIKAK III

Menalcas

10 Miconen zuhaiztia eta mahatsondo berriak igitai gaiztoekin
mozten ikusi nindutenean, pentsatzen dut.

Dametas

Edo hemen, pago zaharretan, Daphnisen uztaia eta geziak
puskatu zenituenean; horiek mutilari oparituta ikusi zenitue-
nean, Menalcas zitalori, samindu egin zinen eta, nola edo
15 hala kalterik egin ez bazenio, hilda izango zinatekeen.

Menalcas

Zer egingo dute jaunek, lapurrak halakoetara ausartzen dire-
nean? Ez al zintudan nik ikusi, dongeori, Damonen akerra
zelatan harrapatzen, Lyciscak zaunka eta zaunka egiten zuen
bitartean? eta nik deiadarka egin nuenean: «nora sartzen da
orain hura? Tityro, bil ezazu artaldea!» zu ezkutaturik zeun-
20 den sesken atzean.

Dametas

Kantutan garaituta ez al zidan emango nire txirulak bere
doinuekin merezi izan zuen akerra? Baldin ez badakizu,
aker hura nirea zen; eta Damonek berak aitortzen zidan;
baina ezin zuela itzuli zioen.

(15) *aliqua*: adberbloa.

(17) *non*: *nonne*. *Damonis*: greciar izena, ez da lehenagoko poesia bukolikoa agertzen (bai, berriz, Virgilioren beraren VIIIgarren eklogan).

(18) *Lycisca*: zakur izena («lycisci sunt, ut etiam Plinius dicit, canes nati ex lupis et canibus, cum inter se forte misceantur», Serv.).

BUCOLICON III

Menalcas

Cantando tu illum? aut umquam tibi fistula cera 25
vincta fuit ? non tu in triviis, indocte, solebas
stridenti miserum stipula disperdere carmen?

Damoetas

Vis ergo inter nos quid possit uterque, vicissim
experiamur? ego hanc vitulam (ne forte recuses,
bis venit ad mulctram, binos alit ubere fetus) 30
depono; tu dic, mecum quo pignore certes.

Menalcas

De grege non ausim quicquam deponere tecum;
est mihi namque domi pater, est iniusta noverca,
bisque die numerant ambo pecus, alter et haedus;
verum id, quod multo tute ipse fatebere maius 35
(insanire libet quoniam tibi), pocula ponam
fagina, caelatum divini opus Alcimedontis,
lenta quibus torno facili superaddita vitis
diffusos hedera vestit pallente corymbos.
In medio duo signa, Conon et — quis fuit alter, 40
descripsit radio totum qui gentibus orbem,

25 haud cdv : haut e, *Philarg., om. n* || 26 vincta PRωγ, *Prisc. VIII, 49, schol. Bern., Serv. codd. HR* : iuncta *Rufin. 42, 3 et 61, 30, Serv., edd. nec non Mynors*

III, 27-52 PRV — 27 stipula miserum V, miserum stipula V¹, *schol. Veron.* || 38 facili ny¹, *schol. Ver., Serv. hic et Aen. II, 392* : facilis Vωγ, *Philarg., Don. ap. Serv., fragilis Ra*

(25) *fistula*: argizariz elkartutako kainaberez egiten den txirula mota, goi mailako musika egiteko —alegia atzainen artean ohikoa dena ez bezalakoa— erabilia; beheragoko «stipula» da (27), hain zuzen ere, artzainek izaten duten txirula simplea.

(28) *vicissim*: txandaka, kantu amebeoak eskatzen duen bezala.

(29) *vitulam*: antza, txahala (100garren lerroko zezena bezala) Dametasena da, ez Egonena.

BUKOLIKAK III

Menalcas

25 Kantutan zuk hura? izan al duzu bada inoiz zuk argizariz
itsatsiriko txirularik? ez al zenuen zuk, ezjakinori, kantu erru-
karri bat hondatzen bidagurutzeetan txilibitu zaratatsu batekin?

Dametas

Nahi al duzu bada proba dezagun gure artean, txandaka, nork
zer ahal duen? nik txahal hau jarriko dut (arbuia ez dezazun,
30 bi aldiz dator jetzi ontzira, bi ume hazten ditu bere errapee-
tan); esazu zuk zein bahiren gainean lehiatuko zaren nirekin.

Menalcas

Ez nintzateke ausartuko zurekin artaldeko ezer jartzen: ezen
aita dut etxean, amaorde zuzengabea dut, eta egunean bi bi-
der kontatzen dute biek artaldea, eta antxumeak bietako ba-
tek; baina hau bai jarriko dut, zerorrek ere (zorakeriak gus-
35 tatten zaizkizunez gero) askoz handiagotzat onartuko dužuna:
pagozko gopor hauek, Alcimedonte jainkozkoak landuak;
hautetan, aihen kiribil batek, tornu errazez gainetik gehitua,
huntz zurpailean han-hemenka dauden mahats-mordoak
40 jazten ditu. Erdian bi irudi, Conon eta... nor zen bestea,
bere makilaz zeru-lurrak irudikatu zituen a gizakientzat, zein

(32) *ausim*: *audeo*-ren perfekto zaharraren subjuntiboa.

(35) *id.*: 36-37garren lerroetako «pocula fagina» hain zuzen ere.

(37) *caelatum opus: caelo* 'zizelatu' da; sakonean edo azalean zizelatu daiteke, eta hortik 38garren lerroko «superaddita vitis»: alegia, maila desberdinetan dago zizelatua goporra. *Alcimedontis*: greciar izena, agian Virgiliok asmatua (ez baita lehenago aurkitzen).

(40) *Conon*: Samoseko astronomo famatua (K.a. III), Alexandrian bizi izana, Callimachoren laguna, eta, beste izar edo izar-multzo batzuen artean, *Coma Berenices* aurkitu zuena; bestea, Serviok dioenez, Cnidoko Eudoxo izango litzateke (K.a. IV), Φαιλόμεινα batzuen egilea (Virgiliok bere *Georgiketan* sarri eta sakon erabili zuen Aratoren liburuaren iturri nagusia); hortik 42garren lerroko «tempora». Baliteke baita ere Archimedes izatea, Cononen laguna.

BUCOLICON III

tempora quae messor, quae curvos arator haberet?
Necdum illis labra admovi, sed condita servo.

Damoetas

Et nobis idem Alcimedon duo pocula fecit
et molli circum est ansas amplexus acantho 45
Orpheaque in medio posuit silvasque sequentis.
Necdum illis labra admovi, sed condita servo.
Si ad vitulam spectas, nihil est quod pocula laudes.

Menalcas

Numquam hodie effugies; veniam, quocumque vocaris.
Audiat haec tantum — vel qui venit, ecce, Palaemon; 50
efficiam, posthac ne quemquam voce laccessas.

Damoetas

Quin age, si quid habes; in me mora non erit ulla,
nec quemquam fugio; tantum, vicine Palaemon,
sensibus haec imis (res est non parva) reponas.

Palaemon

Dicite, quandoquidem in molli consedimus herba, 55
et nunc omnis ager, nunc omnis parturit arbos;

III, 53-71 PR

(42) *curvos arator*: goldatzeko makurtu egin behar delako (*curvos*: nominatibo singularra da).

(45) *circum*: adberbioa. *ansas*: «*amplexus est*» adizkiaren osagarria.

(46) *Orphea*: Callioperen semea, greciar olerkarien prototipoa: basoak haren atzetik joaten ziren, hain ziren gozoak bere kantua eta musika (hortik lerro bereko «*silvasque sequentis*»).

BUKOLIKAK III

aldi behar zuen uzta-biltzaileak, zein aldi goldelari makurrak?
Ez dizkiet oraino ezpainak hurbildu, gordeta dauzkat baizik.

Dametas

45 Guri ere bi gopor egin zizkigun Alcimedonte berak eta kir-
tenak molorrika malguz inguratu zituen eta erdian Orpheo
ipini zuen eta basoak honi jarraitzen ziotela. Ez dizkiet
oraino ezpainak hurbildu, gordeta dauzkat baizik. Txahala-
ren itxaropenetan bazara, ez da zertan goporrak goretsi.

Menalcas

50 Gaur ez duzu ihes egingo; hots egiten didazunera etorriko
naiz. Entzun ditzala bakarrik hauek... esaterako hemen da-
torren honek berak, Palemonek; honen ondoren ez diozu
inori abesteko erronkarik egingo, hori lortuko dut.

Dametas

Ekin bada, baldin ezer baduzu; nigan ez da luzamendurik
izango, eta ez dut ihes egiten inorengandik; bakarrik, Pale-
mon auzoko, arreta handienaz begira diezaiozula honi, ez
baita gauza txikia.

Palemon

55 Hitz egizue, belar biguinean eserita gaudenez gero, eta orain
soro oro, orain arbola oro erditzen denez gero; orain ba-

(49) *numquam*: 'inola ere ez', hemen.

(50) *tantum*: «audiab»-ekin. *Palaemon*: izena ez da Theocritorengan agertzen ez
Bukoliketako beste inongo pasartetan; bestela, itsas-jainko baten izena da.

(53) *tantum*: esaten ez den (baina beharrezkoa den) aditz batekin doa: 'eska-
tzen dizut', 'erregutzen dizut' edo antzeko zerbaiz.

BUCOLICON III

nunc frondent silvae, nunc formonsissimus annus.
Incipe Damoeta, tu deinde sequere, Menalca;
alternis dicetis: amant alterna Camenae.

Damoetas

Ab Iove principium Musae: Iovis omnia plena;
ille colit terras, illi mea carmina curae.

60

Menalca

Et me Phoebus amat; Phoebosua semper apud me
munera sunt, lauri et suave rubens hyacinthus.

Damoetas

Malo me Galatea petit, lasciva puella,
et fugit ad salices et se cupit ante videri.

65

Menalca

At mihi sese offert ultro meus ignis, Amyntas,
notior ut iam sit canibus non Delia nostris.

Damoetas

Parta meae Veneri sunt munera; namque notavi
ipse locum, aëriae quo congessere palumbes.

(59) *alternis: alternis carminibus* edo *vicibus* ulertu behar da (edo antzeko zer bait); gorago bezala, kantu amebeoa da. *Camenae*: italiar *Camenae* Musekin berdintzen dira ja Livio Andronicorengan.

(60) *Ab Iove principium Musae*: Serviok ere dioenez, bi modutara uler daitezke: «vel Musae meae ab Iove est principium, vel, o Musae, sumamus ab Iove principium».

(62) *Phoebus*: Apollo alegia, poesiaren jainkoa.

(63) *lauri et*: hiatoa. *suave*: adberbio gisa. *lauri... hyacinthus*: erramua Apolloren arbola da eta moredina ere harekin dago lotuta Hyacinthoren mitoaren bitartez (bai Daphne bai Hyacintho Apolloren maitaleak izan ziren: lehenengo erramu bihurtu zen, bigarrena bere izena daraman lorea).

BUKOLIKAK III

soak hostoz beteta daude, orain da sasoirik ederrena. Has zaitetz, Dameta, ondoren zu, Menalcas, jarrai iezaiozu; txandaka hitz egingo duzue: txandakakoak maite dituzte Camenek.

Dametas

60 Jupiterrengandik hasiera, musak: dena da Jupiterrez bete; hark zaintzen ditu lurak, hura arduratzen da nire kantuez.

Menalcas

Ni Phebok nau maite; Phebok beti ditu nigan bere opariak, eramuak eta moredin argi-gorritua.

Dametas

Galateak, neska jolastia, sagar batekin limurtzen nau, eta
65 ihes egiten du sahatsetara eta lehenago ikusia izan nahi du.

Menalcas

Bada niri berez eskeintzen dit bere burua Amyntasek, nire garra, hainbat non Delia ez baita ja ezagunagoa gure zakurrentzat.

Dametas

Prest daude nire Venusentzako opariak: neuk markatu dut-eta basuso airetarrek kabia egin duten lekua.

(64) *malo*: sagarra (edo era horretako edozein fruta: irasagarra, etab.) amodioaren sinboloa da: sagar bat erakustea amodioa eskatzea edo eskaintzea bezainbat da (antzinatetan eta, neurri batean, baita gaur ere). *Galatea*: ikus *Ecl.* I, 30.

(67) *Delia*: seguruenik Menalcasen ohaidea; jopu izena da (Lesbia, Samia, Phrygia, etab. bezala). Antzinatek pentsatu izan da Delia, 'Deloskoa' baino esan nahi ez duen adjektiboa, Dianaren aipamena ere izan daitekeela: gainera, hurrengo lerroan Venus agertzen da, eta bi jainkosa hauek elkarrekin aipatu ohi dira maitasun kontuetan. (Askorentzat exegesi honек ez du inongo zentzurik).

(69) *congessere*: ia hapax bat objekturik gabe (*nidum* da burura datorrena).

BUCOLICON III

Menalcas

Quod potui, puero silvestri ex arbore lecta
aurea mala decem misi; cras altera mittam. 70

Damoetas

O quotiens et quae nobis Galatea locuta est!
partem aliquam, venti, divum referatis ad auras.

Menalcas

Quid prodest, quod me ipse animo non spernis, Amynta,
si, dum tu sectaris apros, ego retia servo? 75

Damoetas

Phyllida mitte mihi: meus est natalis, Iolla;
cum faciam vitula pro frugibus, ipse venito.

Menalcas

Phyllida amo ante alias; nam me discedere flevit
et longum: «formose, vale, vale!» inquit, «Iolla».

Damoetas

Triste lupus stabulis, maturis frugibus imbres,
arboribus venti, nobis Amaryllidis irae. 80

III, 72-111 γΡ — 77 vitula *Macr. III, ii, 15, GLK V, 643, 35, schol. Inv. IX, 117, Serv. : vitulam codd., Non. 313, 31, Prisc. quater, Philarg., Serv. Ecl. V, 75*

(71) *aurea mala decem*: zergatik urrezkoak eta zergatik hamar? Baliteke iturriak erantzutea bi galderei: ἤνιδε τοι δέκα μάλα φέρω· τῆνῶθε καθεῖλον / ὦ μ' ἐκέλευ καθελείν τῷ καὶ αὔριον ἄλλα τοι οἰσῶ (Theocrito, III, 10-11); agian αὔριον hitzak ('bihar') latinezko *aurum, aureus* ekarri dio burura Virgiliori.

(76) *Phyllida*: izena ez da lehenagoko poesia bukolikoan aurkitzen, baina sarri erabiltzen du Virgiliok. Iollas (honi zuzentzen baitizkio Dametasek Ierro hau eta hurren-

BUKOLIKAK III

Menalcas

70 Mutilari —ahal izan dudana— basa zuhaitz batetiko urrezko
hamar sagar bidali dizkiot; bihar beste horrenbeste bidaliko diot.

Dametas

Oi, zenbatetan eta nolakoak esan dizkigun guri Galateak!
zati bat, haizeok, eramazue jainkoen belarrietara.

Menalcas

Zer onik niri, Amyntas, ez nauzula mesprezitzen zeure
bihotzean, baldin eta, zuk basurdeei esesten diezun bitar-
75 tean, nik sareak gordetzen baditut?

Dametas

Phyllis bidaliezadazu: nire eguna da-eta, Iollas; txahala opal
dezadanean uztagatik, zatoz zerori.

Menalcas

Phyllis maite dut besteak baino lehenago; ezen negar egin zuen
nire joateagatik, eta «agur, agur, Iollas ederrori» zioen luzeki.

Dametas

80 Tristeia otsoa ukuluentzat, uzta helduentzat euriak, zuhai-
tzentzat haizeak, guretzat Amaryllisen haserrealdiak.

goa), seguruenik, nagusiren baten izena, *Ecl.* II, 57an bezala: baliteke Dametasen eska-
ria iraina izatea Iollasentzat.

(77) *faciam*: osagaririk gabe esamolde teknikoa da (*sacra* edo antzeko zerbaitekin supo-
satu beharko litzateke). *vitula*: instrumentala. *pro frugibus*: *Ambarvalia* izeneko festen aipa-
mena: festa hauetako elizkizunek irauntzen zuten bitartean ezin ziren sexu-harremanak
eduki: horregatik esaten dio Iollasi orduan etortzeko bera («ipse venito»), Phyllisen ordeztu.

(79) *vale inquit*: hiatoa.

(81) *Amaryllidis*: ikus *Ecl.* I eta, batik bat, II, 14.

BUCOLICON III

Menalcas

Dulce satis umor, depulsis arbutus haedis,
lenta salix feto pecori, mihi solus Amyntas.

Damoetas

Pollio amat nostram, quamvis est rustica, Musam:
Pierides, vitulam lectori pascite vestro.

85

Menalcas

Pollio et ipse facit nova carmina: pascite taurum,
iam cornu petat et pedibus qui spargat harenam.

Damoetas

Qui te, Pollio, amat, veniat, quo te quoque gaudet;
mella fluant illi, ferat et rubus asper amomum.

Menalcas

Qui Bavium non odit, amet tua carmina, Maevi,
atque idem iungat vulpes et mulgeat hircos.

90

84 est] sit bcd, *Serv.* || 91 mulceat γRa, *corr.* γ¹

(84) *Pollio*: Julio Cesarren taldeko politikoa (gero Marco Antonioren inguruko), kontsula K.a. 40an, garrantzitsua izan zen baita poeta eta historialari gisa ere. Virgilioren lehenengo urteetako babesle nagusia.

(85) *Pierides*: Musak, Thraciako Pieria izeneko lurraldearengatik (Olympo menditik hurr). *vitulam lectori pascite vestro*: bazka ezazue txahal bat Pollionentzat (hori baita, antza, «lector... vestro») egunen batean opaltzeko Pollionen beraren ohorean.

(86) *nova carmina*: agian 'era berriko bertsoak', hau da, neoterikoan modura egindakoak, baina ez da bat ere segurua. (Izan ere, nahiz eta bere gaztarroan poeta berrien aldekoa izan, egin zituen tragediek, berriz, zahar usaina zuten, Tacitok

BUKOLIKAK III

Menalcas

Gozoa ereintzentzat bustia, antxume titigetuentzat gurbitza, sahots malgua ardi ernariarentzat, niretzat Amyntas bakarrik.

Dametas

85 Pollionek gure musa maite du, baserritarra bada ere: Piero-tarrok, bazka ezazue txahal bat zuen irakurtzailearentzat.

Menalcas

Pollionek berak ere bertso berriak egiten ditu: bazka ezazue zezen bat, adarrarekin eraso eta hondarra apatxekin barreira dezan bat.

Dametas

Zu maite zaituena, Pollion, datorrela zu —zorionez— heldu zarenera; ezta itzur dadila harentzat, sasi zakarrak amomoa dakarrela.

Menalcas

90 Bavio gorroto ez duenak, maite ditzala, Mevio, zure bertsoak, eta beronek uztar ditzala azeriak eta jetzi ditzala akerrak.

dioenez behintzat, *Dial.* XXI, 7). *pascite taurum*: lehen txahala, orain zezena (berriz ere ulertu behar da opaltzeko dela).

(88) *quo te: quo te venisse* edo antzeko zerbait suposatu behar da («subaudis venisse» dio Serviok).

(89) Urrezko aroaren ezaugarriak. *amomum*: ekialdetik (Assyriatik, antza) etortzen zen oso urrin estimatua.

(90) Bavio eta Mevio: oso gutxi dakigu bi poeta hauen gainean: pentsatzekoa da olerkari bereziki pedanteak zirela eta gauza berri guztien etsaiak (badirudi Mevio hau Horaziok, *Epod.* X, 1-2 kritikatzan duen berbera dela).

(91) Hain ezjakina izan behar baita Bavio eta Mevio gustokoak izateko.

BUCOLICON III

Damoetas

Qui legitis flores et humi nascentia fraga,
frigidus, o pueri, fugite hinc, latet anguis in herba.

Menalcas

Parcite, oves, nimium procedere: non bene ripae
creditur; ipse aries etiam nunc vellera siccata.

95

Damoetas

Tityre, pascentes a flumine reice capellas;
ipse, ubi tempus erit, omnis in fonte lavabo.

Menalcas

Cogite oves, pueri; si lac praeceperit aestus,
ut nuper, frustra pressabimus ubera palmis.

Damoetas

Heu heu, quam pingui macer est mihi taurus in ervo!
idem amor exitium pecori pecorisque magistro.

100

Menalcas

His certe neque amor causa est, vix ossibus haerent;
nescio quis teneros oculus mihi fascinat agnos.

98 aestas Ra? || 100 ervo γcfhn, *GLK VIII, 218, 17, Philarg., Serv. Aen. II, 69* : arvo γ¹Rω || 101 est *post* exitium *add.* γ²Ra, *post* pecori γbh, *post* magistro γ¹cur, *schol. Bern., om. ω, GLK VIII, 205, 12, edd. nec non Mynors* || 102 his *pro nom. plur. Don. Ter. Eun. 269* : hi *Stephanus*

(96) *reice*: bisilabaduna (sinizesiagatik).

BUKOLIKAK III

Dametas

Loreak eta lurretik jaiotzen diren marrubiak hartzen dituzuenak: egin ihes hemendik, mutilok, suge hotza belarrean dago ezkutatua.

Menalcas

Ez, ardiok, gehiegi hurran: ez da ondo urbazterrari sinesten;
95 ahariak berak lehortzen du orain ilea.

Dametas

Tityro, alden itzazu ibaitik bazkatzen ari diren antxumeak; neronek, sasoiaren denean, garbituko ditut denak iturrian.

Menalcas

Bil itzazue ardiak, mutilak; beroak esnea zorutzen badie, lehengoan bezala, alferrik estutuko dizkiegu errapeak gure eskuekin.

Dametas

100 Ene ene, zein gihar dudan zezena txilar gurian! maitasun bera artaldearen eta artaldearen zaintzailearen hondamena da.

Menalcas

Hauen arrazoia ez da maitasuna, hezur eta azal daude; ez dakit zein begizkok dituen nire arkume samurrok.

(97) *erit*: azken silaba luzea da, *productio ob caesuram* batengatik.

BUCOLICON III

Damoetas

Dic, quibus in terris, et eris mihi magnus Apollo,
tris pateat caeli spatium non amplius ulnas.

105

Menalcas

Dic, quibus in terris inscripti nomina regum
nascantur flores, et Phyllida solus habeto.

Palaemon

Non nostrum inter vos tantas componere lites:
et vitula tu dignus et hic et quisquis amores
aut metuet dulcis, aut experietur amarus.
Claudite iam rivos, pueri: sat prata biberunt.

110

105 Caeli *Serv.*, *Ribbecke* || 107 nascuntur bdfn, *Probus* 213, 20 || 110 aut... aut
codd., *Serv.* : haud... haud *Graser*, *Hirtzel* amores γτ, *corr.* γ¹ : amarus aut
metuet, dulces aut experietur amores *Peerlkamp*, *Postgate* : amores... dulcis, aut expe-
dietur amaris *Karsten*

(104) *Apollo*: ikus beherago *Ecl.* IV, 10 eta V, 35.

(105) *tris... ulnas*: Serviok aipatzen dituen irtenbideak hauek dira: «sepulchrum
Caeli... qui... tantummodo sibi spatium reservavit quod sepulchro sufficeret, et
voluisse eum errorem facere ex caeli et Caeli similitudine»; «puteum... qui est in
Syene, parte Aegypti, quem ad hoc nimiae altitudinis philosophi effoderunt, ut pro-

BUKOLIKAK III

Dametas

Esazu —eta Apollo handia izango zara niretzat— zein lurre-
105 tan den zerua hiru ukondo baino ez zabalagoa.

Menalcas

Esazu, zein lurretan sortzen diren loreak erregeen izenak
dituztela —eta Phyllis zuk bakarrik izango duzu—.

Palemon

Ez dagokigu guri zuen arteko hain auzi handiak konpon-
tzea: bai zuk bai honek merezi duzue txahala, bai amodio
110 gozoen beldur izango den edota mikatzak pairatuko dituen
edonork. Itxi itzazue errekek, mutilak: nahikoa edan dute
zelaiek.

barent locum illum esse solum, quem recto intuitu sol irradiare»; baina Serviok be-
rak gaitzesten ditu: «sed neutrum horum convenit rustico: unde simpliciter intelle-
gendus est cuiuslibet loci puteus, in quem cum quis descenderit, tantum caeli cons-
picit spatium, quantum putei latitudo permiserit». Beste irtenbide asko proposatu
izan dira, horien artean zeruaren irudikapen bat, Archimedesek egin zuena bezala-
koa eta Virgilioren garaian zabaldu samar zegoena.

(106-107) *inscripti*: pasiboa. *nomina*: erlaziozko akusatiboa. *quibus... flores*: an-
zinatean esan ohi zen moredinaren lorearen hostoetan A eta I (edo Y) letrak
irakurtzen zirela (Αἴας erregearen izenaren lehenengo biak edo baita errege zen
Ἰάκινθος-enarengatik ere).

IV

Sicelides Musae, paulo maiora canamus!
 Non omnis arbusta iuvant humilesque myricae;
 si canimus silvas, silvae sint consule dignae.

Ultima Cymaei venit iam carminis aetas,
 magnus ab integro saeculorum nascitur ordo;
 iam redit et Virgo, redeunt Saturnia regna,
 iam nova progenies caelo demittitur alto.
 Tu modo nascenti puero, quo ferrea primum

5

IV, 1-51 γR — SAECULI NOVI INTERPRAETATIO γR || 7 demittitur γcentr : di-
 mittitur Rω

K.a. 40garren urtearen bukaeran idatzi bide zuen Virgiliok ekloga hau: K.a. 42an izan zen Philipposeko gudaldia hur zen oraindik (batetik Octavianok eta Marco Antoniok, bestetik Brutok eta Cassiok, Julio Cesar hil zutenak, parte hartu zuten: Cesarren oinordekoek garaitu zuten); 42-41 bitartean etengabeko borrokak izan ziren Italian batzuen eta besteen artean; K.a. 40aren irailean Brundisioko hitzarmena sinatu zen Octaviano eta Marco Antonioren artean eta Asinio Pollionen bitartekotzarekin. Giro honetan (itxura guztien arabera) idatzi zuen Virgiliok hain bake nahi handia erakusten duen ekloga hau, eta Pollioni eskaini zion, hain zuzen ere 40ko kontsula zenari eta Brundisioko hitzarmenean bitartekaria izan zenari. Testuinguru honetan ez da batera harritzekoa Virgiliok urrezko aroaren topikoa ekloga honen muin egitea, sarri lotzen baitzen Erroman topiko famatu hau gertakari politikoeekin; harrigarria zera da, urrezko aroa ekarriko duen umearen aipamena: umea (inoiz esan denaren kontra) ezin da sinbolo huts bat izan, aita jakin eta famatua duelako (ikus 17 eta 26-27 lerroak) eta mundua gobernatzeko jaioa izan dela argi eta garbi esaten delako (17garren lerroan eta beste pasarte batzuetan). Ez dago *consensus*-ik umea nor izan daitekeen; aukera gehien duten hautagaiak hauek dira: Asinio Pollionen seme bat, Marco Antonioren seme bat, garaian Scriboniak (Octavianoren orduko andreak) sabelean zeramana baina neska izan zena (Julia), Marcello (Octaviak lehendik zeukan semea eta geroago Octavianok semetzat hartu zuena), Octaviano bera (antzinatoko iruzkin askok dioten bezala), edo Jesukristo, antzinata berantiarrean eta erdi aroan askotan pentsatu izan den bezala. (Hain zuzen ere miragarriki erraz egin daitekeen irakurketa kristau honi zor dio laugarren ekloga honek izan duen ospe itzela: honi esker sartu izan da inoiz Virgilio profeten artean, esaterako. Hortik kanpo, saiatu izan da baita irakurketa horren azalpen his-

IV

Siciliar musak, handixeagoak kanta ditzagun! Zuhaiakak eta tamarindo apalak ez zaizkie guztiei laket; basoak kantatzen baditugu, izan daitezela basoak kontsul baten duin.

Heldu da ja cumastar kantua azken aroa, mendeen 5 errenkada handia jaiotzen ari da hasieratik; itzultzen ari da ja Birjina, itzultzen ari dira Saturnotar erreinuak, enda berria ari da ja zero altutik jaisten. Zu, Lucina garbia, jaiotzen ari

toriko bat ere: Asinio Pollion Herodesen laguna zen eta baliteke honen bitartez Pollionek Isaiasen hamaikagarren liburua ezagutzera, non honen oso antzekoa den iragarpen bat egiten baita).

(1) *Sicelides*: adjektiboak grekoan duen itxura, latinean ohikoa den *Siculae*-ren orde. (Hemen ere, siciliarrak dira Musak Theocrito siciliarra zelako jaiotzez). *paulo maiora*: poesia bukolikoan (baita Virgilioren eklogetan ere) ohikoa dena baino.

(3) *consule*: behegarago argituko den bezala, Pollion (kontsula K.a. 40garrenean).

(4) *Cymaei... carminis*: Cumasko sibilari atxikitako iragarpen bat. *ultima... aetas*: iragarpen horretan, ematen duenaren arabera, gizadiaren historiaren aroak aipatzen ziren eta hauetako azkena zen hoberena. (Era honetako aro hurrenkerak ohikoak ziren antzinatean eta baita gaur ere: joan daitezke txarretik onera, alderantziz, edo onetik txarrera eta berriz onera. Antzinateko famatuena Hesiodok aipatzen duena da: urrezko aroa, zilarrezkoa, brontzezkoa, heroiena eta burnizkoa).

(5) *magnus... saeculorum... ordo*: gehienek ustez, pitagorikoen eta estoikoen *magnus annus* delakoa: *magnus annus* hau zehazten zuten antzinatean ezagutzen ziren planeta denak (gehi eguzkia) erreferentzizko puntutzat hartuta; honela, izar guztiek kokapen jakin batera itzultzeko behar zuten denbora zen urte mota horren iraupena: Serviorek kalkuluen arabera, 12.954 eguzki urte.

(6) *Virgo*: Astrea edo Δίκη; urrezko aroan lurlean bizi zen, eta azkena izan zen gizonengandik alde egiten: haren itzultzeak urrezko aroaren itzultzea esan nahi luke. *Saturnia regna*: urrezko aroan Saturno zen errege (Chronosekin berdindu zen Italiako jainkoa) eta, tradizio baten arabera, Lazion izan zuen bere egoitza aro zoriontsu hark iraun zuen bitartean. (Asko dira, bestalde, Saturno Laziorekin eta, oro har, Italiarekin lotzen duten tradizioak: horregatik esaten zitzaion Italiari *Saturnia tellus*).

(7) *nova progenies*: enda berri bat, behegaroko (9garren lerroan) *gens aurea caelo... alto*: baliteke loturaren bat izatea, esaterako, Lucrezioren lerro hauekin (II, 1153-1154): «haud, ut opinor, enim mortalia saecula superne / aurea de caelo demisit funis in arva».

(8) *Tu*: Lucinari hitz egiten dio (cf. 10garren lerroa). *tu modo fave* da ulertu behar dena. *nascenti puero*: 10eko «fave»-ren osagarria (datiboa). *quo: quo nascente*.

BUCOLICON IV

| | |
|---|----|
| desinet ac toto surget gens aurea mundo, casta fave Lucina; tuus iam regnat Apollo. | 10 |
| Teque adeo decus hoc aevi, te consule, inibit, Pollio, et incipient magni procedere menses; te duce, si qua manent sceleris vestigia nostri, inrita perpetua solvent formidine terras. | |
| Ille deum vitam accipiet, divisque videbit permixtos heroas et ipse videbitur illis, pacatumque reget patriis virtutibus orbem. | 15 |
| At tibi prima, puer, nullo munuscula cultu errantis hederas passim cum baccare tellus mixtaque ridenti colocasia fundet acantho; | 20 |
| ipsa tibi blandos fundet cunabula flores. | 23 |
| Ipsae lacte domum referent distenta capellae | 21 |
| ubera, nec magnos metuent armenta leones; | 22 |
| occidet et serpens, et fallax herba veneni | 24 |
| occidet; Assyrium volgo nascetur amomum. | 25 |

18 ac Ran, *Güthling* || 20 fundit γ (corr. γ^1), *Macr. VI, vi, 18* || 23 ante v. 21 colloc. *Klouček, Mountford, Campbell, Snell, Duckworth* : post v. 22 codd., *Eus. XX (183, 17)*, edd. nec non *Mynors* || 21 referant γ , corr. γ^1

(9) *ferrea... ac... gens aurea*: Hesiodoren (eta beste askoren) hurrenkeraren aipamena: jakina, *gens ferrea* burnizko arokoa da eta *gens aurea* urrezko arokoa.

(10) *Lucina*: Virgilioren garaian erditzearekin lotzen zen Dianaren deiera (lehenago Junorekin lotzen zen). *tuus... Apollo*: Diana (eta, beraz, Lucina) Apolloren arreba da; antzinateko egileek aipatzen dituzten aro hurrenkeretako batean hamargarren eta azken aroko nagusia Apollo da.

(11) *Tē... te consule*: ablatibo absolutua, 13ko «te duce» bezala.

(12) *magni... menses*: gorago aipatu *magnus annus* horrenak. *incipient... procedere*: berriz, alegia. (Pollioni buruz ikus *Ecl. III, 84* eta ekloga honen sarrera).

(13) *sceleris... nostri*: gure gizaldia egin dituen eta urrezko aro baten duin ez diren ekintzak.

(14) *inrita*: «vestigia»-ren aposizioa.

(15) *Ille*: sc. *puer*.

den ume horren aldekoa izan zaitez bakarrik, zeinekin bukatuko baita lehenbizi burnizko arraza eta urrezkoa sortuko mundu osoan; zure Apollo errege da ja. Eta garai honen ohore hau, Pollion, zu kontsul zarela helduko da hain zuzen ere, eta hil handiak hasiko dira ibiltzen; zu buruzagi zarela, gure pekatuaren edonolako arrastok badirau, ezdeustuta, lurrak betiereko beldurretik askatuko ditu. Hark jainkoen bizitza izango du, eta jainkoekin nahastuta ikusiko ditu heroiak eta hura ere ikusiko dute haiek, eta aitaren bertuteekin zuzenduko du mundu paketua.

Baina zuretzat, ume, lurrak, batere lantzerik gabe, nonahi emango ditu —lehenengo oparitxoak— huntz ibildanak basakararekin, eta barre dagien molorrikarekin errebelarrak; sehaskak berak emango ditu zuretzat lore zurikatzaileak. Antxumeek berez eramango dituzte etxera errapeak esnez hanpatuak, eta saldoak ez dira lehoi handien beldur izango; sugea ere hilko da, eta pozoiaren belar gezurtia ere hilko da; amomo assyriarra arrunki sortuko da.

(16) *videbitur*: pasiboa: 'ikusiko dute'. *illis*: uler daiteke egile gisa, baina baita beste modu honetara ere: *ille videbitur permixtus illis* (azken hau soziatiboa, 15eko «*divisque*» bezalaxe).

(17) *patriis virtutibus*: uler daiteke «*pacatum*»-ekin, «rege»-ekin edo biekin batera; edonola izanda ere, bi datu berri dakartza umea zein den jakin ahal izateko: batetik, umeak mundua («*orbem*») gobernatuko du; bestetik, edo umearen aitak mundua baketu du edo gobernatzeko dohain bereziak izan ditu. (Umearen aita berriz aipatzen da 26-27 lerroetan).

(18-25) Urrezko aroaren ezaugarri topikoak: lanaren beharrik ez da izango (lurrak eta animaliek berez emango dutelako denetik), gauza gaiztorik ere ez da izango (lehoiak otzanak izango dira, ez sugerik ez pozoinik ez da egongo), eta gauza estimatu eta sofistikatuenak ere edonon lortu ahal izango dira (assyriar amomoa, etab.).

(24) *fallax herba veneni*: «*veneni*» ez da, pentsa litekeen bezala, *genitivus epexegeticus* («*herba*»-rena, *arbor fici* motakoa), erlaziozkoa baizik («*fallax*»-ena: belarrak duen pozoinaz engainatzen du, halakorik ez duela ematen duelako).

(25) *anomum*: ikus *Ecl.* III, 89.

At simul heroum laudes et facta parentis
 iam legere et quae sit poteris cognoscere virtus,
 molli paulatim flavescet campus arista
 incultisque rubens pendebit sentibus uva
 et durae quercus sudabunt roscida mella. 30
 Pauca tamen suberunt priscae vestigia fraudis,
 quae temptare Thetin ratibus, quae cingere muris
 oppida, quae iubeant telluri infindere sulcos.
 Alter erit tum Tiphys et altera quae vehat Argo
 delectos heroas; erunt etiam altera bella 35
 atque iterum ad Troiam magnus mittetur Achilles.
 Hinc, ubi iam firmata virum te fecerit aetas,
 cedet et ipse mari vector, nec nautica pinus
 mutabit merces, omnis feret omnia tellus:
 non rastros patietur humus, non vinea falcem, 40
 robustus quoque iam tauris iuga solvet arator.
 Nec varios discet mentiri lana colores,
 ipse sed in pratis aries iam suave rubenti
 murice, iam croceo mutabit vellera luto;
 sponte sua sandyx pascentis vestiet agnos. 45

26 at γω, *Non. 331, 34* : ac Ran, ad c parentis γω, *Non. 331, 34, Eus. XX (184, 20), RLM 598, 14, Philarg., Serv.* : parentum γ¹Ra || 28 flavescet γ¹ω, *Lact. Inst. VII, 24?*, *schol. Bern.* : flavescit γRabf || 33 tellurem infindere sulco Ra

(26) *simul: simul ac.*

(28) *campus:* hau da, landu gabe dagoen lurra.

(30) *roscida:* ezta ihintza bezala agertzen edo erortzen zen zerbait zela uste zuten antzinatetan, gero erleek garraiatu baino egiten ez zutena.

(31) *priscae vestigia fraudis:* 13ko «sceleris vestigia nostri»; hau da, naturaltasunaren aurkakoak eta urrezko aro batean erabat alferrikakoak: itsasoan ibiltzea, hiriak harriesz babestea eta lurra lantzea.

(32) *Thetin:* Nereoren alaba eta Achillesen ama, hemen itsasoaren ordez.

(34) Dena hasiko da berriz hasieratik, gorago esan den bezala, beraz beste Argo bat izango da eta Trojako beste gudu bat. *Tiphys:* Argo izeneko itsasontziko lemazaina. *Argo:*

Eta heroien goresmenak eta aitaren egitandiak ja irakur ditzakezunean eta adorea nolakoa den jakin, landak galburu biguinez horailduko dira pixkanaka eta mahats gorria sasi basatietatik egongo da zintzilika eta haritz gogorrek ihintzezko eztiz izerdituko dira. Iraungo dute ordea oker zaharraren arrasto gutxi batzuek, Thetis ontziaz haztatzea aginduko dutenak, hiriak hormez inguratzea, lurrari ildoak irekitzea. Bigarren Tiphys bat izango da orduan eta aukeratu heroiak eramango dituen bigarren Argo bat; izango dira
 30 baita beste gudu batzuk ere, eta berriz izango da eramana Trojara Achilles handia. Gero, adin sendoak gizon egin zaitzanean, marinela bera gibelatuko da itsasotik, eta pinu itsastarrak ez du salgairik trukatu, lur orok oro emango
 35 du: lur azalak ez du eskuarerik pairatuko, ez mahatsondoak igitairik, eta goldelari gogorrek ere uztarria askatuko die ja zezenei. Eta artileak ez du ikasiko kolore nabarrak gezurtarutzen, baina ahariak berak aldatuko du ilea zelaian nahiz murex argi-gorrituaz nahiz aza fraizko horiaz; sandixak berez
 40 jantziko ditu arkumeak bazkatzen diren bitartean.
 45

argonautak zeramatzan itsasontzia. (Argonautak: Iasoni laguntzen urrezko ardi-larruaren bila Colchidera joan zirenak Argo itsasontzian: 35garren lerroko «delectos heroas»).

(36) *mittetur*: antzinateko zenbait tradizioren arabera (ez ordea Homerorengan) Achilles, Trojako guduan hil egingo zela jakinik, neskez jantzi zen eta Lycomedesen jauregian ezkutatu zen honen alaben artean; baina Ulisesek Achilles gabe Troja ez zela garaituko jakin zuen, eta bilatu eta aurkitu egin zuen: saltzailez jantzi zen eta Lycomedesen alaben gelara sartu zen: neskek oihalak eta brodatzeko tresnak hartu zituzten, eta Achillesek iskiluak. Honengatik hemengo «mittetur» eta ez besterik gabe 'joan' bezalako aditz bat.

(38) *vector*: Serviok dioenez, «tam is qui vehitur quam qui vehit». *nautica pinus*: itsasontzia. *ne... mutabit merces*: ez da salerosketa gehiagorik egongo.

(43) *suave*: adberbio baten balioa du hemen.

(45) *sandyx*: antzinatean bertan eztabaidatu izan da (Virgilioren aipamen hau dela eta) ea minerala ala belarra den; Plinio Zaharraren lekukotasuna da garrantzitsuena eta eztabaida horren abiapuntua: «[Cerussa] si torreatur aequa parte rubrica admixta, sandycem facit, quamquam animadverto Vergilium existimasse herbam id esse illo versu...» (*Nat.* XXXV, 40). Baina ez da seguru Virgiliok belarra dela uste duenik: baliteke *sandyx* hitza kolorearen beraren izena den neurrian erabili izana.

BUCOLICON IV

«Talia saecla» suis dixerunt «currite» fusis
 concordēs stabili fatorum numine Parcae.
 Adgredere o magnos (aderit iam tempus) honores,
 cara deum suboles, magnum Iovis incrementum!
 Aspice convexo nutantem pondere mundum, 50
 terrasque tractusque maris caelumque profundum;
 aspice, venturo laetentur ut omnia saeclo!
 O mihi tum longae maneat pars ultima vitae,
 spiritus et quantum sat erit tua dicere facta!
 Non me carminibus vincet nec Thracius Orpheus, 55
 nec Linus; huic mater quamvis atque huic pater adsit,
 Orphei Calliopea, Lino formosus Apollo.
 Pan etiam, Arcadia mecum si iudice certet,
 Pan etiam Arcadia dicat se iudice victum.
 Incipe, parve puer, risu cognoscere matrem: 60
 matri longa decem tulerunt fastidia menses.
 Incipe, parve puer: quoi non risere parentes,
 nec deus hunc mensa, dea nec dignata cubilist.

IV, 52-63 PR — 52 laetantur Ran, *Wagner, Sabbadini* || 53 longae Rw, *Serv.* : longe Pny, *Porpb. Hor. Carm. IV, ii, 45* || 55 vincet P²Rwγ, *Mynors* : vincat Pγ¹, *Serv., Ribbeck, Sabbadini* || 59 Arcadiae Ra : Arcadie P, Arcadia P² dicet P², *Macr. V, xiv, 6, Castiglioni* || 61 matri PRwγ¹, *schol. Bemb. Ter. Ad. 475, Don. Ter. Eun. 20, Probus 259, 8, schol. Stat. Theb. I, 576* : matris P²γ tulerum P, *corr. P²*, tulerant den, tulerint *recc.*, abstulerint *alii ap. Serv.* || 62 cui (quoi *recc., Sabbadini, Ernout, Maguinness*) non risere parentes *codd., Ens. XXI (187, 8), Serv., codd. Quint. IX, iii, 8, Ribbecke, Echave-Sustata* : qui non risere parenti *Schrader, Bonnel, Postgate, Norden, Stewart, Stuart, Stégen, Mynors*, qui non risere parentes *Politianus, Scaliger*

(46) *Talia saecla*: antza, «currite»-ren osagarria, baina baliteke bokatiboa izatea.

(47) *Parcae*: Clotho, Lachesis eta Atropos (grekozko Μοῦσαι), gizon bakoi-tzaren patuaren ikurra den hari bat iruten dute: haria mozten denean, gizon horren bizia bukatu egiten da.

- «Irun itzazue halako mendeak» esan zieten Parkek beren ardatzei, patuen borondate iraunkorrarekin bat. Har itzazu —heldu da sasoia— ohore handiak, jainkoen leinu maitea, Jupiterren kimu handia! Begira iezaiozu bere pisu borobila-
 50 rekin koloka dagoen munduari, eta lurrei, eta itsas zatiei, eta zeru sakonari; begira ezazu nola pozten diren gauza guztiak datorren mendearekin! Helduko al zait bizitza luze baten azken partea, arnasa eta zure egitandiak esateko nahikoa da-
 55 tekeena! Bertsotan ez nau garaituko ez Orpheo thraciarrak ez Linok, hari ama, honi aita lagun bazaie ere, Orpheori Calliopea, Linori Apollo ederra. Panek ere, nirekin lehiatuko balitz Arcadia izanik epaile, Panek ere esango luke garaitua izan zela Arcadia izanik epaile.
- 60 Has zaitez, ume txikiori, ama barreaz ezagutzen: amari nahigabe luzeak ekarri zizkioten bederatzai hilek. Has zaitez, ume txikiori: aita-amek barre egin ez zioten umea ez du jainkok mahaira onesten, ez jainkosak ohera.

(51) *terrasque*: azken silaba luzea da: Homerorengan ikusten den bitxikeria prosodiko baten imitazioa da.

(55) *Orpheus*: ikus *Ecl.* III, 46.

(56) *Linus*: Apolloren semea, urrezko aroarekin lotu izan dena.

(57) *Orphei*: datiboa eta bisilabaduna (sinizesiagatik).

(58) *Arcadia... indice*: ablatibo absolutua (eta berdin hurrengo lerroan). Pani buruz ikus *Ecl.* II, 31.

(60) *risu*: ez dakigu norena den barrea, umearena ala amarena.

(61) *tulerunt*: azken aurrekoa laburra da (adizkiaren forma zaharra da), gehiengotan gertatzen denaren kontra. *decem... menses*: hamar ilargi-hilabeteko haurdunaldi normala, lerro honen gainean asko eztabaidatu den arren (cf., adibidez, Plauto, *Stich.* 159: «nam illa me in alvo menses gestavit decem»).

(62) *quoi... parentes*: oso pasarte zaila testu kritikaren aldetik: hala ere, zein zentzu duen irakurketa bakoitzak argi dago.

V

Menalcas, Mopsus

Menalcas

Cur non, Mopse, boni quoniam convenimus ambo,
tu calamos inflare levis, ego dicere versus,
hic corylis mixtas inter consedimus ulmos ?

Mopsus

Tu maior; tibi me est aecum parere, Menalca,
sive sub incertas Zephyris motantibus umbras,
sive antro potius succedimus. Aspice, ut antrum
silvestris raris sparsit labrusca racemis.

5

Menalcas

Montibus in nostris solus tibi certat Amyntas.

Mopsus

Quid, si idem certet Phoebum superare canendo?

V, 1-16 PR — MENALCAS MOPSUS PR || 3 considimus cdeny¹, *schol. Bern.*,
Heinsius, Heyne || 8 certet Py, *Arus. 459, 2, Rufin. 56, 10*

Zuzen edo oker, antzinatetik bertatik ekloga honen exegesiaren gakoia Daphnis izenaren azpian ezkuta daitekeena izan da. Hemen ere hautagaiak asko izan dira baina Julio Cesar izan da beti aukera gehien izan duena: 65garren lerroak eta hurrengoek (eta handik eta hemendik barreiatutako beste aipamen batzuek) triumviroek K.a. 42an Cesarrentzat erabakitako apoteosia gogorarazten dute.

V

Menalcas, Mopso

Menalcas

Mopso, biok bildu garenez gero, zu txirula arinari putz egiten ona, ni bertsoak esaten, zergatik ez gara eseri hemen, hurritzekin nahasitako zumarren artean?

Mopso

Zu zara zaharrena; nik zuri obeditzea da lege, Menalcas, 5 dela gerizpe geldigaitzetara —Zephyroek astintzen dituzte-
la— jotzen dugula, dela, hori baino, haitzulora goazela. Be-
gira, nola barreiatu dituen haitzuloan mahats-mordo bakan
batzuk basamahatsak.

Menalcas

Amyntas bakarrik lehiatzen da zurekin gure mendietan.

Mopso

Eta zer, hori Phebo kantutan garaitzen ere lehiatuko litzate-
ke-eta?

(1) *Mopse*: ez da lehenagoko bukolikan agertzen.

(2) *calamos*: ikus *Ecl.* I, 10.

(5) *Zephyris*: mendebaldetiko haizea.

(6) *antro*: norabide datiboa («succedimus») ek bi osagarri ditu: «sub umbras» eta «antro», *variatio* eginez). *antrum*: «sparsio»-en osagarri zuzena.

(7) *raris... racemis*: «sparsio»-en mendean dagoen ablatiboa.

BUCOLICON V

Menalcas

Incipe, Mopse, prior, si quos aut Phyllidis ignes 10
aut Alconis habes laudes aut iurgia Codri;
incipere: pascentis servabit Tityrus haedos.

Mopsus

Immo haec, in viridi nuper quae cortice fagi
carmina descripsi et modulans alterna notavi,
experiar: tu deinde iubeto ut certet Amyntas. 15

Menalcas

Lenta salix quantum pallenti cedit olivae,
puniceis humilis quantum saliuca rosetis,
iudicio nostro tantum tibi cedit Amyntas.
Sed tu desine plura, puer; successimus antro.

Mopsus

Exstinctum Nymphae crudeli funere Daphnin 20
flebant; vos coryli testes et flumina Nymphis,
cum complexa sui corpus miserabile nati
atque deos atque astra vocat crudelia mater.

Non ulli pastos illis egere diebus
frigida, Daphni, boves ad flumina; nulla neque amnem 25
libavit quadrupes, nec graminis attigit herbam.

15 iubeto Pwy, *Sabbadini, Nilson, Wieland*: iubeto ut Raby¹, *Wagner, Ribbeck, Mynors*
V, 17-34 PR11₁

(11) *Alconis, Codri* (eta 10eko *Phyllidis*): genitibo objektiboak; ez dira lehenago-ko poesia bukolikoan aurkitzen.

(14) *modulans*: 'erritmoa markatu' edo, besterik gabe, 'abestu'. *alterna notavi*: edo 'txirula eta ahotsaren aldaketak markatu' edo 'doinua eta hitza, lerro edo modu desberdinetan, markatu'.

BUKOLIKAK V

Menalcas

- 10 Has zaitez, Mopso, lehenena, baldin Phyllisenganako garrik edo Alconen aldeko goresmenik edo Codroren aurkako lis-karrik baduzu; has zaitez: Tityrok zainduko ditu antxumeak, bazkatzen diren bitartean.

Mopso

- Hori baino gehiago, oraintsu pago baten azal berdean idatzi eta kanturako markatu ditudan aldizkako bertso hauek saia-
15 tuko ditut: gero agin iezaiozu Amyntasi lehiatzeko.

Menalcas

Sahats malgua olibondo zurpailari gibelatzen zaion adina, ardi-belar apala purpurazko arrosei adina, horrenbeste —gure iritzian— gibelatzen zaizu zuri Amyntas. Baina nahikoa da, mutil; heldu gara haitzulora.

Mopso

- 20 Heriotza ankerrez hildako Daphnisengatik egiten zuten negar ninfek (zuek, hurriz eta ibaiak, ninfen lekuko zarete), amak, bere semearen gorpu errukarria besarkatuta, jainkoei eta izar ankerrei hots egiten dien bitartean.

- Egun haietan, Daphnis, inork ez zituen abelgorri bazka-
25 tuak ibai hotzetara eraman; lauoinekok ez zuen errekarik dastatu, ez zelaiko belarrrik ukitu. Daphnis, zure heriotza

(17) *punicæis*: 'purpurazkoa', purpura Pheniciatik zetorrelako (*punicæus*: hitzez hitz, 'pheniciarra').

(19) Ikus 6garren lerroa.

(24) *ulli*: nominatibo plurala (*non ulli = nulli*).

(25) *Daphni*: bokatiboa (27an bezala).

(26) *nulla... quadrupes*: elkarrekin doaz biak.

Daphni, tuum Poenos etiam ingemuisse leones
interitum montesque feri silvaeque locuntur.

Daphnis et Armenias curru subiungere tigris
instituit, Daphnis thiasos inducere Bacchi 30
et foliis lentas intexere mollibus hastas.

Vitis ut arboribus decori est, ut vitibus uvae,
ut gregibus tauri, segetes ut pinguibus arvis,
tu decus omne tuis. Postquam te fata tulerunt,
ipsa Pales agros atque ipse reliquit Apollo. 35

Grandia saepe quibus mandavimus hordea sulcis,
infelix lolium et steriles nascuntur avenae;
pro molli viola, pro purpureo narcisso
carduos et spinis surgit paliurus acutis.

Spargite humum foliis, inducite fontibus umbras, 40
pastores: mandat fieri sibi talia Daphnis;
et tumulum facite et tumulo superaddite carmen:
«Daphnis ego in silvis, hinc usque ad sidera notus,
formosi pecoris custos, formosior ipse».

27 gemuisse Ra || 28 feri RΠ₁ωγ, *Ansil. MO 337, schol. Bern., Serv.* : ferunt
P silvaeque P, *corr.* P², montesque feros silvasque *Markland ad Stat. Silv. II, v,*
13, Heyne

V, 35-85 PR — 38 viola P²ωγ : violae P, viola et Ra purpureo P² (pureo P)
Rωγ : purpurea *Diom. 453, 36, Ribbeck* || 40 umbras] aras Ra

(27) *Poenos... leones*: pheniciarrak, hau da, carthagoarrak (beraz, africanarrak: *Africa*, zehazki, gaurko Tunisia zen).

(28) *montesque feri silvaeque*: subjektua.

(29) *curru*: datiboa. *Armenias... tigris*: antzinateko zenbait egileren arabera, Bacchok menderatu eta bere gurdia uzartu zituen (kontuan izan, honekin batera, Baccho aipatzen dela hurrengo lerroan).

(30) *thiasos* (*thiasus*, θιάσος): Bacchoren ohorean egiten zen dantza eta segizioa; *thiasos inducere* zera da, θιάσους ἀγειν, hau da, bakanteen koroak zuzendu. (Beste batzuek honela ulertzen dute: Bacchoren ohorean egiten diren segizio horiek

puniar lehoiek ere deitoratu zutela diote mendi basatiek eta basoek.

Daphnisek irakatsi zigun armeniar tigreak ere gurdiari
 30 uztartzen, Daphnisek Bacchoren tiasoak gidatzen eta makila
 malguak orri biguinekin elkartzen. Mahatsondoa zuhaitzen-
 tzat edergarri den bezala, mahatsondoentzat mahats-aleak
 bezala, saldoei zezenak bezala, uztak soro jorientzat bezala,
 zara zu zeurentzat edergarri oro. Patuek eraman zaituzte-
 35 netik, Palesek berak eta Apollok berak laga dituzte landak.
 Garagar-ale handiak hainbestetan uzten genituen ildoetan
 zorigaiztoko iraka eta olo antzuak jaiotzen dira; bioleta bi-
 guinaren ordeztu, purpurazko liliparen ordeztu, kardabera eta
 arantza zorrotzeko elorria sortzen da.

40 Barreia itzazue orriak lurrean, eramaizkiezue gerizak iturriei,
 artzainok: Daphnisek halakoak egin dakizkiola agintzen du;
 hilobi bat egizue eta hilobiari gainera iezaiozue bertso hau:
 «ni, Daphnis, basoetakoa, hemendik izarretaraino ezaguna,
 artalde ederreko zaintzailea, ni neu ederragoa».

lurralde berri batean sartu, hau da, irakatsi). *Bacchi*: Dionysoren deiera, ardoaren eta, oro har, zorotasun mistikoaren jainkoa.

(31) *foliis... hastas*: Bacchoren θύσος, *thyrsus*: milu makil bat (hemengo «has-tas»), muturrean huntz edo mahatsondo hosto mordo bat duela («foliis») eta, batzuetan, baita pinaburu bat ere.

(32) *Vitis ut arboribus*: mahatsondoak arbola batzuen ondoan landatzen zirelako, haien enborrei helduta hazteko.

(35) *Pales*: artzainen italiar jainkosa (Apollo ere artzainen jainkoa ere bazen, eta baita musikarena ere: bi alderdi hauek daude hemen indarrean).

(37) *infelix* (adiera honetan): «felices arbores Cato dixit quae fructum ferunt, infelices quae non ferunt» (Paulo Festo, 81 Lindsay).

(40) *humum*: «spargite»-ren osagarri zuzena. *foliis*: instrumentala; exegeta batzuen ustez, «foliis» hemen ez dira hostoak, loreak baizik (Theocr. IX, 4 eta XI, 26 lerroetako φύλλα bezala).

(43-44) Ohikoa zen hilobietako epigrafeak lehenengo pertsonan egotea idatzita.

BUCOLICON V

Menalcas

Tale tuum carmen nobis, divine poeta,
 quale sopor fessis in gramine, quale per aestum
 dulcis aquae saliente sitim restinguere rivo. 45
 Nec calamis solum aequiperas, sed voce magistrum:
 fortunate puer, tu nunc eris alter ab illo.
 Nos tamen haec quocumque modo tibi nostra vicissim 50
 dicemus, Daphninque tuum tollemus ad astra,
 Daphnin ad astra feremus: amavit nos quoque Daphnis.

Mopsus

An quicquam nobis tali sit munere maius?
 et puer ipse fuit cantari dignus et ista
 iam pridem Stimichon laudavit carmina nobis. 55

Menalcas

Candidus insuetum miratur limen Olympi
 sub pedibusque videt nubes et sidera Daphnis.
 Ergo alacris silvas et cetera rura voluptas
 Panaque pastoresque tenet Dryadasque puellas.
 Nec lupus insidias pecori, nec retia cervis 60
 ulla dolum meditantur; amat bonus otia Daphnis.
 Ipsi laetitia voces ad sidera iactant
 intonsi montes, ipsae iam carmina rupes,
 ipsa sonant arbusta: «deus, deus ille, Menalca!».

46 fessis] lassis Ra || 49 ab illo] Apollo Ra || 52 Daphnim P, Daphnin R

(48) *magistrum*: Daphnis.

(49) *alter ab illo*: haren (sc. Daphnisen) oinordekoa, edo agian bigarrena haren-gandik hasita kontatzen (kantutan, bertsoan, noski).

(54) *puer*: Daphnis. *ista*: Menalcasek esan behar dituenak (50eko «haec... nostram»).

(55) *Stimichon*: ez da lehenago agertzen izen hau.

Menalcas

45 Zure bertsoak guretzat, poeta jainkotiarrori, nekatuentzat zelaian loa bezala, beroan ur gozoko erreka jauzkarian egarría asetzeta bezala. Maisuaren parekoa zara ez bakarrik txirulaz, baita ahotsarekin ere: zorioneko mutila, orain hura bezalako
50 bigarren bat izango zara. Guk ordea, nolanañi ere, geure hauek esango dizkizugu geure aldetik, eta zure Daphnis izarretaraino jasoko dugu, Daphnis izarretaraino eramango dugu: gu ere maite gintuen Daphnisek.

Mopso

Honelakoa baino opari handiagorik ba al da guretzat? mutilak berak merezi zuen kantatua izatea eta bertso horiek aspaldi goraipatu zizkigun Stimichonek.
55

Menalcas

Daphnisek, distiratsu, Olympoko ataburu ohitugabea mires-ten du, eta oinen azpian lainoak eta izarrek dakuski. Hortik, atsegin alai batek basoak eta gainerako lurak dauzka eta Pan eta artzainak eta driada neskak.

60 Otsoak ez du zelatarik asmatzen artaldearentzat, ez sareek atziperik oreinentzat; atsedetak maite ditu Daphnis onak. Inausigabeko mendiek, berez, beren deiadarrak botatzen dituzte, pozak, izarretara, haitzek, berez, beren bertsoak dagitzate ja, zuhaixkek, berez, soinu hau: «jainkoa, jainkoa da hura, Menalcas!».

(58) *Ergo*: Daphnisen apoteosiarengatik (56-57garren lerroetan aipatzen dena): haren heriotzagatik triste zegoen guztia orain, jainko bihurtu dela ikustean, poztu egiten da. *alacris*: nominatiboa, «alacris... voluptas» (baina izan liteke baita akusati-
bo plurala ere, «silvas»-ekin batera).

(59) *Dryadas*: basoetako ninfak.

(60-61) Urrezko aroaren zantzuak.

Sis bonus o felixque tuis! En quattuor aras: 65
 ecce duas tibi, Daphni, duas altaria Phoebo.
 Pocula bina novo spumantia lacte quotannis
 craterasque duo statuam tibi pinguis olivi,
 et, multo in primis hilarans convivium Baccho,
 ante focum, si frigus erit, si messis, in umbra, 70
 vina novum fundam calathis Ariusia nectar.
 Cantabunt mihi Damoetas et Lyctius Aegon;
 saltantis Satyros imitabitur Alpheisiboeus.
 Haec tibi semper erunt, et cum sollemnia vota
 reddemus Nymphis et cum lustrabimus agros. 75
 Dum iuga montis aper, fluvios dum piscis amabit,
 dumque thymo pascentur apes, dum rore cicadae,
 semper honos nomenque tuum laudesque manebunt.
 Ut Baccho Cererique, tibi sic vota quotannis
 agricolae facient; damnabis tu quoque votis. 80

Mopsus

Quae tibi, quae tali reddam pro carmine dona?
 nam neque me tantum venientis sibilus Austri,

68 duos cfr. *Ansil. CR 38, schol. Bern., Wagner* || 80 voti Ra?, *corr. R*⁶

(66) *altaria*: predikatiboa (batzuentzat, «aras»-en aposizioa).

(68) *duo*: zaharra, *duas* klasikoaren ordez. *pinguis olivi*: edutezko genitiboa.

(69) *multo... Baccho*: oso metonimia arrunta.

(71) *novum... nectar*: aposizioa («vina... Ariusia»-rena). *Ariusia*: Chioseko lurraldea: han egiten omen zen greciar ardorik onena.

(72) *Lyctius*: cretarra: *Lyctus* edo *Lyctos*, Cretako hiria, antza denez Apolloren gurpenarekin lotua (inguruan Egeon mendia dago, non Rhea Zeusez erdi baitzen: baliteke honengatik egitea Virgiliok Egon hau lyctoarra).

(73) *satyros*: erdi gizonak erdi akerrak (batzuetan erdi zaldiak), dantza egiten dute basoetan (askotan Dionysoren segizioan) eta ninfei jarraitzen zaizkie etengabe.

BUKOLIKAK V

65 Izan zaitezela ona eta zorionekoa zeurentzat! Hona lau
aldare: bi hauek, Daphnis, zuretzat; bi, opalmahai gisa, Phe-
borentzat. Urtero bi gopor apartsu esne berri eta bi morko
olio guri ipiniko dizkizut, eta batez ere, bazkariak Baccho
askorekin alaituz, ariusioar ardoak —nektar berri bat— isu-
70 riko ditut katiluetan, sutondoaren aurrean hotz bada, geriz-
pean uzta bada.

Dametasek eta Egon lyctoarrak abestuko dute niretzat;
Alphesibeok satiro jauzkariak antzeratuko ditu. Beti izango
dituzu hauek, bai ninfei egindako urteroko botoak bete-
75 tzean, bai soroen garbikuntza egitean.

Basurdeak mendi gainak eta arrainak ibaiak maite ditza-
ten bitartean, erleak ezkaiz eta txitxarrak ihintzez bazka dai-
tezen bitartean, beti iraungo dute zure ohoreak eta izenak
eta goresmenek. Baccho eta Ceresi bezala, horrela egingo
dizkizute zuri ere botoak urtero nekazarietik; zuk ere behar-
80 tuko dituzu haien botoez.

Mopso

Zein, zein opari eman diezazuket halako kantu batengatik?
ezen ez zait horrenbeste gustatzen Austroaren txistua, hur-

Alphesiboens: ez da lehenagoko bukolikan irakurtzen (ἀλφεσβόιος: 'idiak lortzen edo erakartzen dituen', metaforikoki baita neskei buruz ere erabilia).

(75) *cum lustrabimus agros*: garbiketa errito bat, hemen seguruenik *Ambarvalia* izeneko jaietan egiten zena (soroak inguratuz egiten zen, gaitzak uxatzeko eta uzta onak lortzeko).

(77) *roro cicadae*: txitxarrak ihintzez elikatzen zirela uste zuten antzinatean.

(79) *Cereri*: Ceres, Demeterren erromatar izena, lur landu eta emankorrenen jainkosa (hari esker hartzen dira, beraz, edozein motatako uztak) eta, hortaz, baita elikadurarena ere.

(80) *damnabis tu quoque votis*: zerbait lortzeko botoak egiten zituenean batek eta zerbait hori lortu egiten zuenean, behartuta gelditzen zen boto horiek betetzera: hau da, jainkoak behartzen zuen (*damnare*, hemen duen adieran) horretara.

BUCOLICON V

nec percussa iuvant fluctu tam litora, nec quae
saxosas inter decurrunt flumina valles.

Menalcas

Hac te nos fragili donabimus ante cicuta; 85
haec nos: «formosum Corydon ardebat Alexin»,
haec eadem docuit: «cuium pecus? an Meliboei?».

Mopsus

At tu sume pedum, quod, me cum saepe rogaret,
non tulit Antigenes (et erat tum dignus amari),
formosum paribus nodis atque aere, Menalca. 90

V, 86-90 PRV — 86 Alexim RV || 89 tum RVωγ, ps. *Acro Hor. Carm. II, iv, 3, Arus. 463, 24* : nunc P, tunc P^{3b}

(85) *ante*: adberbioa. *cicuta*: ikus *Ecl. II, 32-33*.

BUKOLIKAK V

biltzen denean, ez olatuek jotako itsasertzak, ez ibar har-
kaizdunen artean doazen ibaiak.

Menalcas

85 Guk oparituko dizugu lehenago txirula hau; honek irakatsi
zigun «Corydon garretan zen Alexis ederrarengatik», eta ho-
nek ere «noren artaldea da? Melibeorena?».

Mopso

Baina zuk hartazazu makila hau, askotan eskatu bazidan ere
Antigenesek eraman ez zuena —eta maitatua izateko duin
zen orduan—, ederra bere adabegi berdinekin eta bere
90 brontzearekin, Menalcas.

(86) *formosum Corydon ardebat Alexin: Ecl. II, 1, ia-ia hitzez hitz.* Honela (eta hurrengo lerrokoarekin) Menalcasek IIgarren eta IIIgarren eklogen egilea izango balitz bezala hitz egiten du.

(87) *cuium pecus? an Meliboei?: Ecl. III, 1* lerroaren azken hitzak.

(88) *pedum*: artzainen makila, hemengo hau bereziki dotorea.

VI

Prima Syracosio dignata est ludere versu
 nostra neque erubuit silvas habitare Thalea.
 Cum canerem reges et proelia, Cynthus aurem
 vellit et admonuit: «pastorem, Tityre, pinguis
 pascere oportet ovis, deductum dicere carmen». 5
 Nunc ego (namque super tibi erunt qui dicere laudes,
 Vare, tuas cupiant et tristia condere bella)
 agrestem tenui meditabor harundine Musam.
 Non iniussa cano. Si quis tamen haec quoque, si quis
 captus amore leget, te nostrae, Vare, myricae, 10
 te nemus omne canet; nec Phoebus gratior ullast,
 quam sibi quae Vari praescipsit pagina nomen.
 Pergite, Pierides. Chromis et Mnasyllus in antro
 Silenum pueri somno videre iacentem,
 inflatum hesterno venas, ut semper, Iaccho; 15

VI, 1-20 PRV — FAUNORUM SATYRORUM (ET *add.* R) SILENORUM DILECTATIO
 (DELECTATIO R) PR || 2 neque Ρωγ, *schol. Bern.* : nec RVaf silvis Ra
 Thalea PRVa, *schol. Veron.* : Thalia ωγ, *Serv.* || 5 diductum P || 10 legat d, *Prisc.*
XVIII, 87 || 11 ullast V : ulla est PR, *Mynors* || 12 prescripsit P (*corr.* P²), praes-
 cripsit V, perscripsit bfy

Laugarren eklogaren kasuan bezala, hemen ere Virgilio urrundu egiten da asko
 poesia bukolikoan ohikoa denetik. Bi gai nagusi igertzen zaizkio: hasierako *recusatio*
 (poesia epikoan iharduteari uko egiten dionean, *recusatio* hitzak uko egitea baino ez
 baitu esan nahi) eta Silenoren kantua. Eztabaidatu egin da Silenoren kantuan sar-
 tzen diren gaien hurrenkeraren arrazoia, batez ere harrigarri gertatzen den Galloren
 aipamenarengatik.

(1) *Syracosio*: esan bezala, Theocrito Syracusakoa zelako («Syracosio' autem
 Graece ait, nam Latine 'Syracusanus' dicimus», *Serv.*). Bi modutara ulertu izan da:
 edo 'nire Musak syracusar bertsoan ihardun du lehenen (eta ez beste generoren
 batean)' edo 'nire Musa lehenena izan da (Erroman) genero bukolikoan iharduten'.

(2) *nostra*: Virgiliorena. *Thalea*: baserriko eta mendiko biziarekin nola edo hala
 loturiko Musa; gero komediarekin eta bukolikarekin berdinduko da.

VI

Syracusar bertsoan jardutea aintzat hartu zuen, lehena, gure Thaleak, eta ez zen basoetan bizitzeaz lotsatu. Erregeak eta gudaldiak kantatzen nituenean, cynthoarrak tira egin zidan belarritik eta gaztigatu: «artzainari, Tityro, 5 ardi guriak bazkatzea dagokio, kantu apala esatea». Orain nik (ezen nahikoak izango dituzu zure goresmenak esatea desira dezatenak, Varo, eta gudu tristeak kantatu) basa musa saiaturiko dut kanabera xehearekin. Ez dut agindugabe-rik abesten. Baina norbaitek hauek ere irakurriko baditu, 10 maitasunak jotako norbaitek, gure tamarindoek kantatuko zaituzte, Varo, oihan guztiak kantatuko zaitu; eta Phebo-rentzat ez da atseginagorik Varoren izena goian idatzita daraman orria baino.

Aurrera, Pierotarrok. Chromis eta Mnasylo gazteek Si-
leno ikusi zuten haitzulo batean lotan etzanik, bezperako
15 Iacchok, beti bezala, zainak puztuta; lore-koroa, burutik

(3) *reges et proelia*: gai epikoak. *Cynthius*: Apollo, *Cynthus* izeneko mendian (Delosen) jaio zelako eta han ohoratzen zelako arreta bereziarekin.

(6) *super... erunt*: tmesia.

(7) *Varo*: ez da seguru Publio Alfeno Varo ala Publio Quinctilio Varo den.

(8) *meditabor: meditor* aditzari buruz ikus *Ecl.* I, 2. *harundine*: hodi askotako txirula.

(9) *Non iniussa cano*: seguruenik Apollori buruz ari da (gutxienekoa da «non iniussa»-rekin doan ala «cano»-rekin).

(11-12) *nec... ullast quam... pagina: nulla pagina est gratior Phoebō quam quae sibi nomen Vari praescripsit*.

(13-14) *Chromis et Mnasylos... pueri*: Chromis Theocritorengan agertzen da, Mnasylos ez (bai ordea, femeninoan, beste era bateko testuetan); beharbada bi satiro edo bi fauno, agian, besterik gabe, bi artzain. (Pierotarrei buruz ikus *Ecl.* III, 85).

(14) *Silenum*: σιληνοί satiro zahartuak bide dira; izen berezi bezala pertsonai itsusi, mozkorti (ikus hemengo 16-17 lerroak) eta zaharra da, jakinduria handikoa, eta behartuta bakarrik esaten die gizonei dakiena.

(15) *Iaccho*: «vino, a Libero patre, qui etiam Iacchus vocatur» (Serv.).

BUCOLICON VI

serta procul tantum capiti delapsa iacebant
 et gravis attrita pendebat cantharus ansa.
 Adgressi (nam saepe senex spe carminis ambo
 luserat) iniciunt ipsis ex vincula sertis;
 addit se sociam timidisque supervenit Aegle, 20
 Aegle, Naiadum pulcherrima, iamque videnti
 sanguineis frontem moris et tempora pingit.
 Ille dolum ridens: «quo vincula nectitis?» inquit;
 «solvite me, pueri; satis est potuisse videri.
 Carmina quae voltis cognoscite; carmina vobis, 25
 huic aliud mercedis erit». Simul incipit ipse.
 Tum vero in numerum Faunosque ferasque videres
 ludere, tum rigidas motare cacumina quercus;
 nec tantum Phoebos gaudet Parnasia rupes,
 nec tantum Rhodope miratur et Ismarus Orphea. 30
 Namque canebat, uti magnum per inane coacta
 semina terrarumque animaeque marisque fuissent
 et liquidi simul ignis; ut his ex omnia primis,
 omnia et ipse tener mundi concreverit orbis;
 tum durare solum et discludere Nerea ponto 35
 coeperit et rerum paulatim sumere formas;

VI, 21-47 PR — 23 inridens P² || 30 miratur Ρωγ (cf. *Aen. II, 317*): mirantur Raden, *Rufin. 48, 5, Sabbadini* || 33 ex omnia P, *schol. Bern., Peerlkamp* (cf. *Lucr. I, 61*): exordia Ρωγ, *Macr. VI, ii, 22, comm. Lucan. I, 642, schol. Bern., DServ., Ribbecke*, ex ordia *Nettleship*, prima *Haebelin* || 34 omnia Ρωγ, *Serv.*: omnisa P

(16) *tantum capiti delapsa*: koroa ez zegoen puskatuta edo deseginda, burutik eroria bakarrik. *capiti*: beste inon dokumentatzen ez den ablatibo zaharra da agian.

(18) *ambo*: dual zaharra, *ambos* klasikoaren ordeez.

(19) *iniciunt vincula (facta) ex ipsis sertis*.

(20) *Aegle*: naiade izen ohikoa.

(21) *Naiadum*: iturri eta ibaietako ninfak (ikus *Ecl. II, 46*). *videnti*: Sileno.

(23) *quo*: ‘zertarako?’

eroria baino ez, urruti zegoen, eta pitxer pisua zintzilik zegoen kirten eskuztatu batetik. Hurbilduta (ezen agureak askotan atzipetu zituen biak kanta baten itxaropenarekin) lore-koroa-
 rekin berarekin lotzen dute; Egle gehitzen zaie lagun gisa eta
 20 bildurtuei elkartu ere, Egle, naiadeetan ederrena, eta ja ikusten
 ari zenari bekokia eta lokiak odol antzeko masustekin margo-
 tzen dizkio. Hark, ziriagatik barrez, «zertarako lotu nauzue?»
 zioen; «aska nazazue, mutilak; nahikoa da ahal izana ematea.
 25 Entzun itzazue nahi dituzuen kantuak; zuentzat kantuak, ho-
 nentzat beste sari bat egongo da». Berehalaxe hasten da bera.
 Eta orduan faunoak eta piztiak neurrira dantzatzen ikusiko
 zenituzkeen, orduan haritz zurrunak beren adaburuak mugit-
 zen; ez da horrenbeste pozten Pheborekin parnasoar haitza,
 30 ez dute Orpheo horrenbeste miresten Rhodopek eta Ismarok.

Eta kantatzen zuen nola huts handian zehar elkartu zi-
 ren lurren eta airearen eta itsasoaren haziak, eta baita su
 isurkariarenak ere; nola guztia hazi zen lehenengo hauetatik,
 guztia eta munduaren biribil samur bera; nola hasi zen or-
 35 duan lurra gogortzen eta Nereo itsasoan hersten eta piska-
 naka gauzen itxurak hartzen; nola harritzen diren ja lurrak

(26) *huic*: Eglerentzat («*Nymphae minatur stuprum latenter, quod verecunde dixit Vergilius*», Serv.).

(27) *Faunos*: jatorriz, erdi gizonak erdi otsoak ziren basajainkoak (hortik «*Faunosque ferasque*»), gero erdi ahuntzak (agian akerrak) erdi gizonak: nolabait greciar Silenoren italiar bertsioa.

(29) *Parnasia rupes*: Parnaso mendia, Phociden (Delphosetik iparraldera), Musen eta Apolloren egoitza.

(30) *Rhodope, Ismarus*: Thraciako mendiak (non Orpheoren historia gertatzen baita; ikus orobat *Georg.* II, 37). *Orphea*: bisilabaduna (sinizesiagatik).

(31-32) *canebat... uti... coacta... fuissent*.

(32-33) *terrarumque animaeque marisque... ignis*: lau lehengaiak.

(35-36) *durare*: iragangaitza, ohituraren kontra. *solum*: «durare», «discludere» eta «sumere»-ren subjektua, gehienen interpretazioan. *Nerea*: Nereo, itsasoko jainko garrantzitsuena Neptunoren salbuespenarekin («discludere»-ren osagarri zuzena). *ponto*: lekuzkoa.

iamque novum terrae stupeant lucescere solem,
 altius atque cadant summotis nubibus imbres,
 incipiant silvae cum primum surgere cumque
 rara per ignaros errent animalia montis. 40

Hinc lapides Pyrrhae iactos, Saturnia regna,
 Caucasiaeque refert volucres furtumque Promethei.
 His adiungit, Hylan nautae quo fonte relictum
 clamassent, ut litus: «Hyla, Hyla» omne sonaret;
 et fortunatam, si numquam armenta fuissent, 45
 Pasiphaën nivei solatur amore iuvenci:

a, virgo infelix, quae te dementia cepit?
 Proetides inplerunt falsis mugitibus agros;
 at non tam turpis pecudum tamen ulla secuta
 concubitus, quamvis collo timuisset aratrum 50
 et saepe in levi quaesissent cornua fronte.

A, virgo infelix, tu nunc in montibus erras;
 ille, latus niveum molli fultus hyacintho,
 ilice sub nigra pallentis ruminat herbas
 aut aliquam in magno sequitur grege. «Claudite, Nymphae, 55

38 utque Ra, Ribbecke || 40 ignaros Ra : ignotos Pwy, Castiglioni || 41 hic Py, corr. γ¹

VI, 48-86 MPR — 49 secuta MP : secuta est Rωγ, Macr. IV, vi, 3 || 50 timuissent Ra || 51 quesissent P, quaesissent schol. Bern., Ribbecke, Sabbadini : quaesisset MRωγ, Mynors

(41) *Pyrrhae*: datibo egilea. *lapides Pyrrhae iactos*: Deucalionek eta Pyrrhak, uholdean hil ez ziren bakarrak, harriak lepotik atzera botaz jendeztatu zuten lurra. *Saturnia regna*: uholdea baino lehenago izan zen urrezko aroa, non Saturno baitzen lurreko nagusia (ikus *Ecl.* IV, 6).

(42) *Promethei*: hirusilabaduna (sinizesiagatik); Zeusek Caucason lotu zuen eta arrano batek gibela jaten zion etengabe: hortik «Caucasiae... volucres». *furtum*: esandako zigorraren arrazoia: Prometheok sua lapurtu zuen gizonen emateko.

eguzki berriaren argitzeaz, eta nola erortzen diren euriak gorago urrutiratu lainoetatik, basoak sortzen hasten direnean eta animalia bakanak alderrai dabiltzanean mendi ez-jakinetatik.

40 Ondoren Pyrrhak botatako harriak aipatzen ditu, Saturnotar erreinuak, eta caucasoar hegaztiak eta Prometheoren lapurreta. Hauei gehitzen die zein iturritan hots egiten zioten marinelek Hylas galduari, nola itsasertz guztiak «Hylas,
45 Hylas» oihartzuna itzultzen zuen; eta Pasiphae, zorionekoa inoiz saldorik izan ez balitz, kontsolatzen du elurrezko zekoraren amodioaz: ai, neskatxa dohakabeori, zein erotasunek hartu zintuen? Pretotarrek gezurrezko makakorroez bete zituzten soroak, baina haietako inork ez zituen abereen
50 hain elkartze lizunak bilatu, lepoan goldeari beldur bazion ere eta maiz adarrak bilatzen bazituzten ere adondo leunean. Ai, neskatxa dohakabeori, zu orain alderrai zabiltza mendietan; hark, elurrezko saihetsa moredin biguinean bermatuta, belar zurpailak hausnartzen ditu arte beltz baten azpian,
55 edo baten bati jarraitzen dio saldo handian. «Itxi itzazue,

(43) *Hyla Hyla omen*: bi hiato, bata prosodikoa (hau da, lehenengo bokalaren laburpenarekin) eta bestea ez. *quo fonte*: «quo» hau da hemen menderatzailea. *Hyla*: Herculesen lagun gazte ederra, Argo itsasontzitik bere burua uretara bota zuena, ninfek erakarrita (Argori buruz ikus *Ecl.* IV, 34). *relictum*: utzi egin baitzuten bere lagunek, aurkitzen ez zutelako.

(46) *solatur*: subjektua historia hauek kontatzen ari den Sileno da (eta berdin ondoren datozen aditzei dagokienez: «circumdat», «erigit»). *Pasiphaen*: Cretako erregearen andrea, zezen zuri batekin (hortik «nivei» eta 53ko «niveum») maitemindu zen.

(47) *virgo*: edozein neska gazte, nahiz ezkondua edo ama izan.

(48) *Proetides*: Argoseko erregea zen Pretoren hiru alabak, txahalak bihurtu zirela uste izan zuten (horregatik «falsis mugitibus»).

(49-50) *tam turpis... concubitus*: Pasiphaerenak bezain lizunak, alegia.

(52) *tu: Pasiphae*.

(53) *faltus*: azken silaba luzea da, *productio ob caesuram* batengatik.

(55) *aliquam: aliquam iuvenam*.

Dictaeae Nymphae, nemorum iam claudite saltus,
 si qua forte ferant oculis sese obvia nostris
 errabunda bovis vestigia; forsitan illum,
 aut herba captum viridi aut armenta secutum,
 perducant aliquae stabula ad Gortynia vaccae». 60

Tum canit Hesperidum miratam mala puellam;
 tum Phaëthontiadat musco circumdat amarae
 corticis atque solo proceras erigit alnos.
 Tum canit, errantem Permessi ad flumina Gallum
 Aonas in montis ut duxerit una sororum, 65
 utque viro Phoebi chorus adsurrexerit omnis;
 ut Linus haec illi divino carmine pastor,
 floribus atque apio crinis ornatus amaro,
 dixerit: «hos tibi dant calamos, en accipe, Musae,
 Ascraeo quos ante seni, quibus ille solebat 70
 cantando rigidas deducere montibus ornos;
 his tibi Grynei nemoris dicatur origo,
 ne quis sit lucus, quo se plus iactet Apollo».

73 nec P²Rad

(56) *Dictaeae*: Dictekoak, Cretako mendia, Pasiphae Cretakoa zelako. *saltus*: «saltus est ubi silvae et pastiones sunt» (Festo, 392 Lindsay).

(57) *qua*: adberbioa.

(60) *Gortynia*: Gortynakoa, Cretako hiria.

(61) *Hesperidum*: mendebal muturrekoenean Hesperotarren baratzea zaintzen dute, non Lurrak Herari oparitutako urrezko sagarrak gordetzen baitziren. *puellam*: Atalante, mendian hazitako neska; ezkontza saihesteko asmoarekin korrikan bera irabazten zuenarekin bakarrik ezkonduko zela esan zuen; Hippomenesek ordea, biak lasterketan ari zirela, Hesperotarren urrezko sagar batzuk bota zituen Atalantaren aurrera eta, hau sagarrak biltzera gelditurik («Hesperidum miratam mala puellam»), garaitu egin zuen.

(62) *Phaethontiadat*: Phethonteren arrebak: Phethontek bere aita zen Eguzkiaren gurdia gidatzea lortu zuen, asko erregutu ondoren, baina aitak kiskali egin behar izan zituen semea eta gurdia, lurrak eta zerua erre ez zitzan; arrebek anaiaren gorpua hartu zuten eta hainbeste negar egin zuten non haltz (beste batzuen arabera lertxun) bihurtu baitziren (-as, -adis eta -is, -idis atzizkiek semetasuna edo bilobatasuna adierazi ohi dute, baina ez beti, hemen bezala).

ninfak, ninfa dictearrak, itxi itzazue ja oihanetako soilguneak, ea zezenaren arrasto ibildaunak gure begietara agertzen zaizkigun; hura, beharbada, belar berdeak erakarria edo saldoari darraiola, behi batzuek eramango dute gorty-
60 niar ukuiluetara».

Gero Hesperotarren sagarrak mirestu zituen neska kantatzen du; gero Phethondarrak azal mikatz baten goroldioaz inguratzen ditu eta lurretik jasotzen ditu haltz luzeak bailiran. Kantatzen du gero nola Ahizpetako batek Gallo, Permessoren ibaietatik ibildauna, aoniar mendietara eraman zuen, eta nola jarri zitzaion zutik gizonari Pheboren koru osoa; nola Linok, jainkozko kantua duen artzaina, tximak lorez eta irribelar mikatzez apainduta, hauek esan zizkion:
65 «lehenago ascratar agureak izan zituen txirula hauek musek ematen dizkizute, har itzazu; hauetaz jaitsarazten zituen mendietatik, kantatzen, lizar tenteak; hauetaz esan ezazu gryniar oihanaren jatorria, Apollo ez dadin beste oihanez honetaz baino gehiago harrotu».

(64) *Permessi*: Beoziako ibaia, Heliconen inguruan zuen iturbegia, hau da, Musen egoitzan. *Gallum*: C. Cornelio Gallo, neoterikoen jarraitzailea, militar eta politikari ospetsua eta Virgilioren adiskidea (haren ohorean idatzi zuen Virgiliok, antzinateko lekukotasun baten arabera, *Georgiken* azken zatia, gero, Augustok gaitzetsi egin zuelako Gallo, aldatu behar izan zuena).

(65) *Aonas in montis*: Heliconera alegia (*Aonia*: Beozia adierazteko sinekdokea). *sorores*: Musak, hainbat lekutan bezala (beste batzuetan Parkak edo Furiak).

(66) *adsurrexerit*: norbaiti egiten zaion ohorea.

(67-69) *ut Linus haec... dixerit*. (Linori buruz ikus *Ecl.* IV, 56).

(69) *calamos*: ikus *Ecl.* I, 10.

(70) *Ascræo... seni*: Hesiodo (Beozian zegoen Ascrakoa zen): Θεογονίᾱ-ren hasieran Heliconen agertarazten du bere burua, atzain gisa, non Musek beren abegi ona erakusten baitiot.

(71) *cantando rigidas deducere... ornos*: beste Orpheo bat izango balitz bezala (ikus *Ecl.* III, 46).

(72) *tibi*: egilea. *Grynei*: *Grynum*, Eoliako hiria: Apolloren baso sakratu bat zegoen inguruetan, bereziki famatua.

Quid loquar aut Scyllam Nisi, quam fama secutast
 candida succinctam latrantibus inguina monstribus 75
 Dulichias vexasse rates et gurgite in alto,
 al' timidos nautas canibus lacerasse marinis;
 aut ut mutatos Terei narraverit artus,
 quas illi Philomela dapes, quae dona pararit,
 quo cursu deserta petiverit et quibus ante 80
 infelix sua tecta super volitaverit alis?
 Omnia quae, Phoebus quondam meditante, beatus
 audiit Eurotas iussitque ediscere lauros,
 ille canit; pulsae referunt ad sidera valles,
 cogere donec ovis stabulis numerumque referre 85
 iussit et invito processit Vesper Olympo.

74 aut] ut Ra?, *edd.* secutast R : secuta est PR⁵, *Mynors* || 79 pararet P
 (corr: P²) df || 81 supra Ra || 85 referri M²P²cy, *Ribbecke*

(74) *fama... vexasse (et... lacerasse)*: eraso egin izanaren fama. *Scyllam*: Virgiliok, antzinateko beste poeta askok bezala, nahastu egiten ditu dauden bi Scyllak: bata da Messinako itsasartekoa, Ulisesen sei lagun desegin zituena («Dulichias rates») eta bestea Megarako errege zen Nisoren alaba; baliteke nahasketa hau nahita egin-dakoa izatea edota alexandriar poesian jada egotea eta honen aipamen gisa ipintzea hemen Virgiliok.

(75) *candida succinctam latrantibus inguina monstribus: candida... inguina*: erlaziozko akusatibo («succinctam»-ekin); Messinako Scyllak zakurrez («latrantibus... monstribus») inguratua zuen gerria edo, oro har, gerritik beheragoko gorputz atalak («candida... inguina»), eta zakur horiek ahal zuten guztia harrapatu eta jan egiten zuten (esaterako aipatu Ulisesen lagunak).

(76) *Dulichias*: Dulichiokoa, ioniar irletako bat, ustez Ulisesen erreinuepekoa (ikus goragoko 74garren lerroa). *Dulichias rates*: nahiz eta Ulisesek itsas-ontzi bakarria izan. *gurgite in alto*: Messinako itsasarte.

(78) *Terei*: bisilabaduna (sinizesiagatik). Tereo, Thraciako errege, Athenaseko errege ere zen Pandionen alaba Procnerekin ezkondu zen baina bere koinata Philomelarekin maitemindu zen: bortxatu egin zuen eta, ezer esan ez zezan, mingaina

Etā zer esango dut Scylla Nisorenari buruz, mamu zaun-
 75 kariez inguratuta bere iztarte zurietan, dulichioar ontziei
 eraso omen ziena eta, leize sakonean, ail, marinel beldurtiak
 txikitu omen zituena itsas zakurrez; edo nola aipatu zituen
 Tereoren gorputz-zati antzaldatuak, zein orrits prestatu zion
 80 Philomelak, zein opari, zein lasterketatan abiatu zen mor-
 tuetara eta zein hegoz egin zuen hegan lehenago, zorigaiz-
 tokoa, bere teilatuen gainetik?

Eurotas zorionekoak aditu zituenak —behinola Phebok
 saiātutakoak—, eta erramuei ikasteko agindu zizkienak,
 abesten ditu hark; ibarrek, oihartzuna eginez, izarretara
 85 itzultzen dituzte, Artizarrak ardiak artegiatara biltzea eta
 zenbatzea agindu zuen arte eta, Olympok nahi gabe, joan
 egin zen arte.

moztu zion. Philomelak oihal batean brodatu zuen gertatutakoa eta andreak, men-
 dekatzeko, bien seme Itys hil eta jateko eman zion senarrari («quas... dapes») eta
 ondoren, zer jan zuen ikus zezan, umearen burua («quae donaa»); Procnek, gero,
 ihes egin zuen ahizparekin batera. Tereo jarraitu egin zitzaien eta jainkoek, gupida-
 tuta, Procne urretxindor egin zuten, Philomela enara eta Tereo basoilar («muta-
 tos... Terei artus»). Erromatar gehienentzat (hemen Virgiliorentzat bezala) Philo-
 mela da, ez Procne, Tereoren andrea eta urretxindor bihurtzen dena.

(80-81) *ante*: adberbioa. *super sua tecta* (anastrofea, baina batzuen ustez «super-
 volitaverit» ulertu behar da): mortuetara ihes egin baino lehenago Procne (hemen
 Philomela) bere ordura arteko etxeko teilatuaeren gainean egon zen hegan egiten
 («quibus alis» hitzek Procne edo Philomelaren metamorfosia gogorarazten dute).

(82) Apollok Hyacintho maite zuen (Spartako erregearen semea) eta Eurotas
 ibaiaren inguran (ikus hurrengo lerroa) ibiltzen zen abesten Hyacinthori atsegin iza-
 teko.

(83) *Eurotas*: Laconiako ibaia (hau da, Sparta dagoen lurraldekoa).

(84) *ille*: Sileno (osagarri zuzena «omnia», agian «omnia quae»).

(85) *stabulis*: norabide datiboa.

(86) *invito*... *Olympo*: «invito», ez zuelako kantu hori entzuteari utzi nahi
 (Olympo izenak, hemen, 'zerua' esan nahi du, askotan bezala). *Vesper*: gaua iragar-
 tzen duen izarra.

VII

Meliboeus, Corydon, Thyrsis

Meliboeus

Forte sub arguta consererat ilice Daphnis,
 compulerantque greges Corydon et Thyrsis in unum,
 Thyrsis ovis, Corydon distentas lacte capellas,
 ambo florentes aetatibus, Arcades ambo,
 et cantare pares et respondere parati. 5
 Huc mihi, dum teneras defendo a frigore myrtos,
 vir gregis ipse caper deerraverat; atque ego Daphnin
 aspicio. Ille ubi me contra videt: «ocius» inquit
 «huc ades, o Meliboe; caper tibi salvus et haedi;
 et, si quid cessare potes, requiesce sub umbra. 10
 Huc ipsi potum venient per prata iuveni,
 hic viridis tenera praetexit harundine ripas
 Mincius, eque sacra resonant examina quercu».
 Quid facerem? neque ego Alcippen nec Phyllida habebam,
 depulsos a lacte domi quae clauderet agnos, 15
 et certamen erat Corydon cum Thyrside magnum;
 posthabui tamen illorum mea seria ludo.
 Alternis igitur contendere versibus ambo

VII, 1-11 MPa — MELIBOEUS CORYDON THYRSIS MPa || 6 huc Mhy, *Serv.* :
 hic Paw, *Serv. Aen. X, 709* || 11 veniunt a, *Castiglioni*

VII, 12-37 MPaV

Poesia bukoliko hutsezko ekloga da hau, kantu amebeco zenbaiten gainean eraikia eta berriz ere artzainen arteko dema bat erakusten duena.

(1) *arguta*: hostoek, haizea ibiltzean, egiten duten hotsagatik.

(2) *Thyrsis*: Theocritorengan irakurtzen den izena.

(4) *Arcades ambo*: adjektiboaren greciar forma; artzain hauek arcadiarrak dira kantatzeko zaletasuna duten neurrian, ekloga hau espresuki Mantuaren inguruan gertatzen baita.

VII

Melibeo, Corydon, Thyrsis

Melibeo

Halabeharrez, arte ozen baten azpian zegoen eserita Daphnis, eta Corydonek eta Thyrsisek batean zituzten bilduta artaldeak, Thyrsisek ardiak, Corydonek esnez hanpatutako antxumeak, biak adinaren lorean, biak arcadiarrak, binaka abestu eta erantzuteko prest. Honantz hurrandu zitzaidan, mirto samurrak hotzetik zaintzen ditudan bitartean, artaldeko gizona, akerra bera; eta Daphnis dakusat nik. Hark, bere aldetik, ikusten nauenean «zatoz arinago hona, Melibeo» diost; «akerra salbu duzu, eta antxumeak ere bai; eta, pixka batean pausa bazaitezke, atsedean ezazu gerizpean. Zekorrak berez etorriko dira hona, zelaietan zehar, edatera, hemen urbazter berdeak kanabera samurrez jantzi ditu Minciok eta haritz sakratutik zarata egiten du erlekumeak». Zer egin nezakeen? ez nuen ez Alcippe ez Phyllis titigetu arkumeak etxean gordetzeko, eta lehia handia zen, Corydon Thyrsisekin; hala ere nire eginbeharrak haien jolasaren atzetik ipini nituen. Hasi ziren beraz biak txandakako bertsoekin elkarren aurka; musek txandakakoak saia zitzaten nahi

(5) *respondere*: kantu amebeoarengatik.

(6) *dum teneras defendo a frigore myrtos*: seguruenik enborrak lastoz biltzen.

(13) *Mincius*: Poren ibaiadarra, Mantuaren ingurukoa, Garda aintzira (*Jacus Benacus*, antzinateko erromatarrentzat) egiten duena. *ex sacra quercu*: haritza sakratua da Jupiterren arbola delako.

(14) *Alcippen, Phyllida*: Alcippe izena Theocritorengan irakurtzen da. Itxura guztien arabera, Thyrsisen eta Corydonen andreak edo lagunak dira, hauek bezala esklabuak (ezin baitzen bestela izan).

(16) *Corydon cum Thyrside*: dena da subjektua.

(18) *alternis... versibus*: bertso amebeoak (ikus hurrengo lerroa).

coepere; alternos Musae meminisse volebant.
Hos Corydon, illos referebat in ordine Thyrsis.

20

Corydon

Nymphae, noster amor, Libethrides, aut mihi carmen,
quale meo Codro, concedite (proxima Phoebi
versibus ille facit), aut, si non possumus omnes,
hic arguta sacra pendebit fistula pinu.

Thyrsis

Pastores, hedera nascentem ornate poetam,
Arcades, invidia rumpantur ut ilia Codro;
aut, si ultra placitum laudarit, baccare frontem
cingite, ne vati noceat mala lingua futuro.

25

Corydon

Saetosi caput hoc apri tibi, Delia, parvos
et ramosa Micon vivacis cornua cervi.

30

19 volebam *multi ap. Serv.* || 22 Phoebos V || 23 possumus M¹P²aw^γ¹, *Diom.* 418, 15, *Dosith.* 423, 18, *Serv.* : possimus MPVcry || 24 pendebis γ?, *DServ.*, *corr.* γ¹ || 25 nascentem Vb, *Serv.* : nascente M, *Conway, Funaioli*, crescentem M²Paw^γ, *ps. Acro Hor. Carm. I, i, 29, Philarg., Serv. Ecl. IV, 19, Stégen, Mynors* || 29 apri] capri *multi ap. DServ.*

(19) *meminisse*: kantu amebeoak buruz esan, hau da, artzainek buruz kanta zitzaten beren kantu amebeoak (baina batzuen ustez «meminisse»-ren subjektua Musak berak izango lirateke).

(21) *Nymphae*: «secundum Varronem ipsae sunt nymphae quae et musae» (*Serv.*). *Libethrides*: *Libethrum* edo *Libethra*-rengatik, Heliconetik hurrean dagoen herria, Orpheoren hilobia omen zegoen lekutik oso gertu; bada baita *Libethrium* izeneko Helicon mendiko gailur bat ere (eta beste azalpen batzuk ere eman izan dira: ikus, adibidez, *Serviok dioena*).

(22) *proxima*: «versibus»-ekin. *meo Codro*: askok (antzinatean eta gaur) pentsatu izan dute Codroren izenaren pean benetako poeta baten izena ezkututzen dela: «Codrum plerique Vergilium accipiunt, alii Cornificium, nonnulli Helvium Cinnam putant...» (*Schol. Ver.*).

(23) *facit*: azken silaba luze neurtzen da hemen, *productio ob caesuram* batengatik.

zuten. Honako hauek Corydonek esaten zituen errenkadan,
20 horrako horiek Thyrsisek.

Corydon

Ninfa libethrostarrak, gure maiteak, emaidazue kantu bat, nire
Codrori eman zenietena bezalakoa (hark Pheboren bertsoeta-
tik gertu daudenak egiten baititu), edo, guztiok ezin badugu,
hemen geldituko da txirula sarkorra, pinu sakratutik zintzilik.

Thyrsis

25 Artzain arcadiarrak, huntzez apain ezazue jaiotzen ari den
poeta, Codrori erraiek leher degioten bekaitzez; edo, laket
dena baino harantzago gorestuko balu, ingura iezaiozue be-
kokia basakaraz, mingain gaiztoak ez diezaion kalterik egin
izango den poetari.

Corydon

Basurde latz baten buru hau, Delia, Micon txikiak ematen
30 dizu, eta baita orein biziluzedunaren adar abartuok ere. Hau

(24) *sacra... pinu*: sakratua Panen arbola delako (eta baita Panena ere da *fistula*);
lanbide bat utzi egiten zenean lanbide horri ekiteko balio zuen lanabesa zintzilik la-
gatzen zen zegokion jainkoaren tenpluan.

(25) *hedera*: Bacchorena, poetentzako koroak egiteko erabiltzen zen. *nascetem...
poetam*: Thyrsis bera.

(26) Thyrsisen ahoan jartzen diren hitz hauek oso arruntak dira: pertsonaiaren
nolakotasuna erakusten dute.

(27) *si ultra placitum laudari*: alegia, Codrok; «quicquid autem ultra meritum lau-
datur, dicitur fascinari» (Serv.), eta agian horregatik aipatzen da «baccare»: «herba est
ad depellendum fascinum» (Serv.); zer uxatu behar den 28garren lerroan esaten da).

(28) *vati... futuro*: Thyrsis bera.

(29) *Delia*: Diana. *parvos*: nominatibo singularra (seguruenik Micon izena eti-
mologia oker batez azaltzeko: μικρός, μικρός, μικρός); aditza falta da, era honeta-
ko eskaintzetan ohikoa den bezala: 'bidaltzen dizu' edo antzeko zerbait izan behar
du. (Corydonek Micon ehiztaria izango balitz bezala hitz egiten du eta Dianari ba-
surde buru bat eskaintzen dio).

(30) *vivacis... cervi*: oreinak oso biziluzedunak zirela uste zuten antzinatean.

BUCOLICON VII

Si proprium hoc fuerit, levi de marmore tota
puniceo stabis suras evincta coturno.

Thyrsis

Sinum lactis et haec te liba, Priape, quotannis
expectare sat est; custos es pauperis horti.
Nunc te marmoreum pro tempore fecimus; at tu,
si fetura gregem suppleverit, aureus esto.

35

Corydon

Nerine Galatea, thymo mihi dulcior Hyblae,
candidior cycnis, hedera formosior alba,
cum primum pasti repetent praesaepia tauri,
si qua tui Corydonis habet te cura, venito.

40

Thyrsis

Immo ego Sardoniis videar tibi amarior herbis,
horridior rusco, proiecta vilior alga,
si mihi non haec lux toto iam longior annost.
Ite domum pasti, si quis pudor, ite iuvenci.

Corydon

Muscosi fontes et somno mollior herba,
et quae vos rara viridis tegit arbutus umbra,

45

VII, 38-70 MPa — 43 annost Ma : anno est M²Pa¹, *Mynors*

(32) *puniceo... coturno*: estatuak margotu egiten zirelako (*coturnus*-erako ikus *Ecl.* VIII, 10). *suras*: erlaziozko akusatiboa edo, agian hobeto, partizipioaren osagarria. *stabis*: 'tente egongo zara', estatua bat egingo dudalako zure iruditara.

(33) *Priape*: Priapo, baratzeetako jainko xelebrea (ikus *Georg.* IV, 111).

(35) *marmoreum*: agian ironia (Priaporen estatuak zur merkekoak izaten ziren), batez ere «pauperis horti» batekoa dela esan badu.

betiko bada, marmol finez egongo zara osoa, hanketan purpurazko koturnoak jantzita.

Thyrsis

Nahikoa duzu, Priapo, urtean pitxar bat esne eta opil hauek itxarotea; txiro baten baratzearen zaintzailea zara. Oraingoz
35 marmolezkoa egin zaitugu; baina urrezkoa izango zara zu sabelaldi batek artaldea ugaltzen badu.

Corydon

Nereotar Galatea, niretzat Hyblako ezkaia baino gozoagoa, beltxargak baino distiratsuagoa, huntz zuria baino ederra-
goa, zezen bazkatuak ukuiluetarantz abiatu bezain laster,
40 zure Corydonen ardurarik baduzu, zatoz.

Thyrsis

Ni, aitzitik, irudi nakizula sardoniar belarrak baino mikatza-
goa, erkalatza baino latzagoa, botatako alga baino ezdeusagoa,
egun hau ez bada ja niretzat urte osoa baino luzeagoa. Zoazte
etxera bazkatu eta gero, zoazte zekorrak, lotsarik baduzue.

Corydon

45 Iturri goroldiotsuak, eta belarra, logura baino biguinagoa,
eta bere geriza urriaz estaltzen zaituzten gurbitz berdea: al-

(37) *Nerine* (Νηρίνη): nereida, nereotarra, Nereoren alaba alegia (hitza greziar formarekin, latinean ohikoa den *Neris*-en ordeez). *Galatea*: Polyphemok maite izan zuen nereida. (Galatea hau, batzuen ustez, ez litzateke izango I eta IIIgarren eklogetakoa).

(39) *cum primum*...: arrats beheran.

(41) *Sardonis*... *herbis*: Sardinian (gaurko Sardegnan) hazten ziren belar po-zointsuak, barre dardarati bat eragiten zutenak.

(45) *fontes*... *herba*: bokatiboak.

(46) *vor*: 45garren lerroko «fontes» eta «herba». *viridis*... *arbutus*: subjektua.

BUCOLICON VII

solstitium pecori defendite; iam venit aestas
torrida, iam lento turgent in palmitae gemmae.

Thyrsis

Hic focus et taedae pingues, hic plurimus ignis
semper et adsidua postes fuligine nigri; 50
hic tantum Boreae curamus frigora, quantum
aut numerum lupus, aut torrentia flumina ripas.

Corydon

Stant et iuniperi et castaneae hirsutae,
strata iacent passim sua quaeque sub arbore poma,
omnia nunc rident; at si formosus Alexis 55
montibus his abeat, videas et flumina sicca.

Thyrsis

Aret ager, vitio moriens sitit aëris herba,
Liber pampineas invidit collibus umbras;
Phyllidis adventu nostrae nemus omne virebit,
Iuppiter et laeto descendet plurimus imbri. 60

Corydon

Populus Alcidae gratissima, vitis Iaccho,
formosae myrtus Veneri, sua laurea Phoebos;

48 lento M²P, *interpretari videtur Serv.* : laeto Μαωγ || 51 hinc γ, *corr.* γ¹, *nonnulli ap. DServ.* || 54 quaque b¹c¹, *Bentley* || 56 abeat *Philarg.* : aberitur in aberit *corr.* P², habeat γ

(51) *Boreae*: iparraldetiko haizea (hemen, sinekdokea: negua).

(52) *numerum*: «subauditur ovium vel similibum» (Serv.); hau da: otsoa ez du beldurtzen artaldean dauden arden zenbakiak.

BUKOLIKAK VII

dendu iezaiozue artaldeari udaburua; badator uda errea,
muskilak bete egiten dira ja aihen malguan.

Thyrsis

Hemen dira sutondoa eta zuzi gantzatsuak, hemen da beti
50 sua eurrez eta zutabeak ohiko kedarrak belztuak; hemen
Boreasen hotzez otsoa zenbakiaz beste edo ibai lasterrak
urbazterraz beste arduratzen gara.

Corydon

Ipuruak ere badaude eta gaztainondo latzak, botata dautza
nonahi frutak, zein bere arbolaren azpian, denek egiten
55 dute farre orain; baina Alexis ederra mendi hauetan ez bale-
go, ibaiak ere agor ikusiko zenituzke.

Thyrsis

Lurra lehor da, belarra, haizearen gaitzaz hiltzen, egarri da,
Liberrek aihenen gerizak ukatu dizkie mendi-muinoei; oihan
osoa berdatuko da gure Phyllisen etorreraz, eta Jupiter opa-
60 ro jaitsiko da euri alaiez.

Corydon

Zumarra atseginena Alceotarrantzat, mahatsondoa Iaccho-
rentzat, mirto ederrak Venusentzat, Pheborentzat bere erra-

(53) *iuniperi et, castaneae hirsutae*: bi hiato.

(54) *strata iacent*: oparotasun irudia.

(55) *Alexis*: ikus *Ecl.* II osoa eta V, 86 eta VII, 55.

(58) *Liber*: Bacchorekin berdintzen zen Italiako jainkoa.

(61) *Alcida*: Hercules, Alceoren biloba; izan ere, zumarra hari eskaintzen zi-
tzaion. *Iaccho*: ikus *Ecl.* VI, 15.

BUCOLICON VII

Phyllis amat corylos; illas dum Phyllis amabit,
nec myrtus vincet corylos, nec laurea Phoebi.

Thyrsis

Fraxinus in silvis pulcherrima, pinus in hortis, 65
populus in fluviis, abies in montibus altis;
saepius at si me, Lycida formose, revisas,
fraxinus in silvis cedat tibi, pinus in hortis.

Meliboeus

Haec memini, et victum frustra contendere Thyrsin. 70
Ex illo Corydon Corydon est tempore nobis.

64 corylos] Veneris in *Hebri exemplare ap. D.Serv.* || 68 cedet P, *schol. Bern., interpretari videtur Serv.*, caedet c || 69 concedere a, *corr. a*¹

(67) *Lycida*: poesia bukolikoan behin baino gehiagotan agertzen den izena.

BUKOLIKAK VII

mua; Phyllisek hurritzak ditu maite; Phyllisek hauek maite dituen bitartean, mirtoa ez zaie hurritzei garaituko ezta Pheboren erramua ere.

Thyrsis

65 Lizarra ederrena basoetan, pinua baratzeetan, zumarra ibaie-
tan, izaia mendi handietan; baina sarriago, Lycidas ederrori,
bisitatuko baninduzu, gibelatuko litzaizuke basoetan lizarra,
baratzeetan pinua.

Melibeo

Hauekin gogoratzen naiz, eta Thyrsis, garaituta, alferrik
70 lehiatzen zela. Corydon sasoi hartatik da Corydon guretzat.

(70) *ex illo... tempore*: dena batera. *Corydon Corydon*: bietako bata subjektua da eta bestea predikatua (hau da, ordutik Corydon izenak zerbait esan nahi du: olerkari bikaina, etab.).

VIII

Pastorum Musam Damonis et Alphisiboei,
 immemor herbarum quos est mirata iuvenca
 certantis, quorum stupefactae carmine lynces,
 et mutata suos requierunt flumina cursus,
 Damonis Musam dicemus et Alphisiboei.

5

Tu mihi, seu magni superas iam saxa Timavi,
 sive oram Illyrici legis aequoris, — en erit umquam
 ille dies, mihi cum liceat tua dicere facta?
 en erit, ut liceat totum mihi ferre per orbem
 sola Sophocleo tua carmina digna coturno?
 A te principium, tibi desinam: accipe iussis
 carmina coepta tuis, atque hanc sine tempora circum
 inter victrices hederam tibi serpere lauros.

10

Frigida vix caelo noctis decesserat umbra,
 cum ros in tenera pecori gratissimus herba;
 incumbens tereti Damon sic coepit olivae:

15

VIII, 1-18 MPa — DAMONIS ET ALPHESIBOEI CERTAMEN (CERTATIO M) MPa
 || 4 requierunt] linquerunt γ, liquerunt γ¹ || 6 tum P, *Herrmann*, corr: P² || 11 de-
 sinam Pγ : desinet Μαωγ¹, ps. *Acro Hor. Epist. I, i, 1, Philarg., schol. Bern., DServ.*,
 desinit br

Batzuen ustez, parthiarren kontra borrokatzetik (eta horretan garaitzeagatik eman
 zaion triunfoa ospatzera) datorren Pollioni dago eskainita ekloga hau; beste batzuen
 ustez, Octavianoren ohorean dago idatzita. Ohiko kantu amebeoaren ordeiz, bi kantu
 luze jartzten dira hemen bata bestearen ondoan: Damonena eta Alphisibeorena.

(1) *Alphisiboei*: ikus *Ecl. V, 73*.

(3) *lynces*: lintzeek Bacchorekin, Panekin eta Apollorekin dute zerikusia.

(4) *suos... cursus*: «requierunt»-en osagarria, aditz honen ohituraren kontra (bat-
 zuen arabera, berriz, «mutata»-rena).

(6) *Tu*: batzuen ustez Pollion, beste batzuen iritzian Octaviano. *Timavi*: Vene-
 zia eta Istria bereizten dituen ibaia, Triesteko golkoan isurtzen dena itsasora: mendi
 handietan du iturburua, horregatik hemengo aipamena.

VIII

Damon eta Alpheisibeo artzainak, txahalak, belarrekin ahaztuta, elkarrekin lehiatzen mirestu zituenak, zeinen kantuz harriturik baitzeuden lintzeak, eta ibaiek, aldatuta, beren urak geldiarazi baitzituzten, Damon eta Alpheisibeoren
5 musa esango dugu.

Zu, ja Timavo handiko harkaitzak gaintitzen badituzu, edo illyriar itsasbazterra inguratzen ari bazara... helduko al da inoiz egun hura zeinetan zilegi izango baitzait zure egitandiak esatea? helduko al da, zilegi izan dakidan zure bertsoak
10 mundu osoan zehar eramatea, Sophoclestar koturnoaren duin diren bakarrak? Zugandik hasiera, zuretzat bukatuko dut: har itzazu zure aginduz hasitako bertsook, eta utz eza-zu huntz hau zure lokien inguruan erramu garaileen artean heda dakizun.

Gauaren geriza hotza ozta zen aldeginga zerutik, ihintza
15 belar samurrean atseginen denean artaldearentzat; olibondo leun batean bermatua, honela hasi zen Damon:

(10) *coturno*: tragediak antzezten zituztenek erabiltzen zuten zapata mota; 'tragedia' hitzaren balioarekin erabiltzen da; Pollionek tragediak idazten zituen eta, Suetoniok dioenez (LXXXV, 2), Octavianok *Ajax* izeneko bat hasi zuen gogo handiz: hortik Sophoclesek in egiten den konparaketa.

(11) *desinam: accipe*: hiatoa.

(11-12) Pollionek (ala Octavianok?) bultzatu zuelako Virgilio poesia bukolikoa idaztera.

(12) *circum tempora*.

(13) *hederam... lauros*: biak izan dira poesiaren sinboloak, baina hemen bezala bata bestearen ondoan agertzen direnean, huntza da berez poesiarena eta erramua gudu irabazten duenarena («nam victores imperatores lauro, hedera coronantur poetæ», Serv.).

(16) *tereti... olivæ*: datiboa (batzuen ustez «olivæ» genitiboa izango litzateke: «alii tereti olivæ baculum de oliva accipiunt», Serv.).

BUCOLICON VIII

Damon

Nascere, praeque diem veniens age, Lucifer, alnum,
coniugis indigno Nysae deceptus amore
dum queror et divos, quamquam nil testibus illis
profeci, extrema moriens tamen adloquor hora. 20

Incipe Maenalios mecum, mea tibia, versus.
Maenalus argutumque nemus pinosque loquentis
semper habet, semper pastorum ille audit amores
Panaque, qui primus calamos non passus inertis.

Incipe Maenalios mecum, mea tibia, versus. 25

Mopso Nysa datur; quid nos speremus amantes?
iungentur iam grypes equis, aevoque sequenti
cum canibus timidi venient ad pocula dammae.

Incipe Maenalios mecum, mea tibia, versus. 28^a

Mopse, novas incide faces: tibi ducitur uxor;
sparge, marite, nuces: tibi deserit Hesperus Oetan. 30

Incipe Maenalios mecum, mea tibia, versus.

VIII, 19-44 MPaV — 20 adloquor M²aVωγ : adloquor P, adloquar MP²d || 22 pinusque Py, *Mynors, corr.* P²γ¹ || 24 primum Mb (*cf. Ecl. II, 32*), *evan. in V* || 28 timidi a¹Vωγ, *Quint. IX, iii, 6, Char. 269, 2, Prisc. V, 7, Porpb. Hor. Carm. I, xxxix, 12, ps. Acro Hor. Carm. I, ii, 9, Philarg. hic et Georg. I, 183, Serv. hic et Georg. I, 183 et Aen. VIII, 641* : timidae Ma, *Serv. Aen. V, 122*, timidet P, timidit P², timide c || 28a v. *habet γ, ita ut respondeat v. 76, om. cet.* || 30 Oetan V, *schol. Ver.* : Oetam Ma, *Mynors*, Hoeta P

(17) *praeque... veniens*: tmesia («diem» «age»-ren osagarri zuzena da, «prae... veniens»-ena bezala ere uler badaiteke ere); «ordo est nascere, Lucifer, praeveniensque age diem clarissimum» (Serv.). *Lucifer*: Venus, goizeko izarra, Artizarra: goizean lehenen agertzen dena.

(18) *Nysae*: Virgilio baino lehenagoko literaturan, Dionyso (Nysa izeneko mendian) zaindu zuen ninfairen izena bakarrik.

(19) *illis: divos* alegia («nil testibus illis profeci»): jainko horiek elkarren arteko maitasun zin baten lekukoak izan zirelako).

BUKOLIKAK VIII

Damon

Sor zaitetz, Artizarra, eta, aitzinatuz, ekar ezazu egun hazlea, Nysa andrearenganako maitasun ez elkarrekikoaz nahigabetua kexatzen naizen bitartean eta jainkoei —hauek lekukoak izatetik onurarik batere atera ez banuen ere— nire
20 azken orduan hitz egiten diedan bitartean.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Menalok beti ditu oihana berritsu eta pinuak hizlari, beti aditzen ditu hark artzainen amodioak eta Pan, kanaberek antzegabe pairatu ez zituen lehenena.

25 Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Nysa Mopsori ematen zaio; zer ez dugu itxarongo maitaleok? grifoak behorrekin elkartuko dira ja, eta datorren garaian orkatz beldurtiak zakurrekin batera etorriko dira edatera.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Mopso, lant itzazu zuzi berriak: ezkondu egiten zara-eta;
30 barreia itzazu intxaurrak, senar: Hesperok Eta uzten di-
zu-eta.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

(21) *Maenaios*: Menalokoak: Arcadiako mendia, Panen egoitzetako bat. *tibia*: txirula mota bat, elizkizunetan eta antzerkian erabiltzen zena.

(22) *argutumque*: ikus *Ecl.* VII, 1.

(24) *qui primus calamos non passus inertis*: Panek asmatu zuelako kanabera hodiez egindako txirula, hau da, kanabera hodiak horretarako erabiltzea.

(26) *datur*: sc. *nuptum*.

(27) *grypes*: lehoiaren gorputza eta arranoaren hegoak eta burua zituen mitologi animalia. Lerro honetan eta hurrengoan, berriz ere, *adynaton* pare bat agertzen da.

(29) *novas incide faces*: senargaiaren etxera zihoan andregaiaren segiziokoek zuzi piztuak eramaten zituzten.

(30) *sparge... nuces*: ezkondu berriak intxaurrak botatzen zizkien umeci. *Hesperus*: arratsaldeko izarra (latinezko *Vesper*-en greciar ordezkoa). *Oetan*: Eta, Thessaliatik sortaldean ikusten den mendia (hemen oro har ekialdea adierazteko).

O digno coniuncta viro, dum despicias omnis,
 dumque tibi est odio mea fistula dumque capellae
 hirsutumque supercilium promissaque barba,
 nec curare deum credis mortalia quemquam. 35

Incipe Maenlios mecum, mea tibia, versus.

Saepibus in nostris parvam te roscida mala
 (dux ego vester eram) vidi cum matre legentem.
 Alter ab undecimo tum me iam acceperat annus,
 iam fragilis poteram a terra contingere ramos. 40
 Ut vidi, ut perii, ut me malus abstulit error!

Incipe Maenlios mecum, mea tibia, versus.

Nunc scio, quid sit Amor: nudis in cotibus illum
 aut Tmaros aut Rhodope aut extremi Garamantes
 nec generis nostri puerum nec sanguinis edunt. 45

Incipe Maenlios mecum, mea tibia, versus.

Saevus Amor docuit natorum sanguine matrem
 commaculare manus. Crudelis tu quoque, mater.
 Crudelis mater magis, an puer improbus ille?
 improbus ille puer, crudelis tu quoque, mater. 50

Incipe Maenlios mecum, mea tibia, versus.

Nunc et ovis ultro fugiat lupo, aurea durae
 mala ferant quercus, narcisso floreat alnus,

34 promissaque *etiam schol. Veron.* : demissaque P, *Serv.* || 43 nudis Paby, *Ansil. CO 2401, Sabbadini* : duris MP²a¹Vωγ¹, *schol. Bern., Ribbecke, Mynors (cf. Aen. IV, 366)* cautibus a, *Mynors, corr.* a¹ || 44 aut maros MPad, *Probus 226, 16, DServ.* : aut tmarus a¹V, aut marus b²φ²γ, aut tmaros nrt, ismarus ω, *Philarg.*, aut ismarus *Serv.*

VIII, 45-109 MPa

(39) *Alter ab undecimo... annus*: hamabigarrena.

(41) *Ut vidi*: denborazkoa; ondoren datozen bi *ut*-ak, berriz, moduzkoak. *perii ut*: hiatoa.

Oi, duin den gizonarekin ezkondua, denak mesprezatzen dituzunori, nire txirula gorrotatzen duzuna eta nire antxumeak, nire bekain latza eta nire bizar luzea, jainkoetarik
 35 inor ez dela hilkorrez arduratzen uste duzunori.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Txikia zinenean, gure hesi-barruetan ikusi zintudan ihintzatutako sagarrak zure amarekin biltzen (neu nintzen zuen gidaria). Hamaikagarrenaren hurrengo urteak hartua ninduen
 40 ja ni orduan, ja uki nitzakeen lurretik abar hauskorrak. Ikusi zintudanean, nola galdu nintzen, nola harrapatu ninduen oker gaizto hark!

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Orain badakit zer den Amodioa: haitz gorrietan hazten dute Tmarok edo Rhodopek edo azkenak diren garamanteek
 45 gure endakoa ez odolekoa ez den ume hura.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Amodio ankerrak irakatsi zion amari seme-alaben odolarekin eskuak orbantzen. Ankerra zu ere, ama. Ankerragoa ama ala
 50 ume gaizto hura? Gaiztoa ume hura, ankerra zu ere, ama.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Are orain ihes egin diezaiela otsoak ardiei, haritz gogorrekin urrezko sagarrak eman ditzatela, lilipaz lora dadila haltza,

(43) *scio*: laburketa ianbikoa.

(44) *Tmaros*: Epiroko mendia. *Rhodope*: Thraciako mendia. *Rhodope aut*: hiatoa. *extremi Garamantes*: Afriko Getulian (gaurko Fezzan-en) bizi zen herria, erromatarrentzat munduaren muturretako bat (hiriburua Garama zen, gaurko Gherina).

(45) *nec generis nostri puerum nec sanguinis*: 43garren lerroko «illum»-en aposizioa.

(47) *matrem*: seguruenik Medeaaren aipamena: lasonekin izandako umeak hil zituen (agian Procnerena: ikus *Ed.* VI).

(52 hh.) Berriz ere urrezko aroaren topikoa. («Aurea... mala»-ri buruz ikus *Ed.* III, 71).

pinguia corticibus sudent electra myricae,
certent et cynnis ululae, sit Tityrus Orpheus, 55
Orpheus in silvis, inter delphinas Arion.

Incipe Maenalios mecum, mea tibia, versus.

Omnia vel medium fiat mare. Vivite, silvae:
praeceps aërii specula de montis in undas
deferar; extremum hoc munus morientis habeto. 60

Desine Maenalios, iam desine, tibia versus.

Haec Damon; vos, quae responderit Alphesiboeus,
dicite, Pierides; non omnia possumus omnes.

Alphesiboeus

Effer aquam, et molli cinge haec altaria vitta
verbenasque adole pinguis et mascula tura, 65
coniugis ut magicis sanos avertere sacris
experiar sensus; nihil hic nisi carmina desunt.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

58 fiat MPbfꝛꝛy¹, *schol. Bamb. Ter. Ad. 790, Don. Ter. Ad. 790, schol. Bern., D.Serv.* : fiant αωγ, *Don. Ter. Andr. 695, Prisc. IX, 26, Pbilarg., Vablen* || 63 possumus ex (*cf. Ecl. VII, 23*)

(54) *sudent electra*: erromatarrentzat, anbarra zenbait arbolari zerion zerbait zen, adibidez haltzei eta zumarrei, baina ez tamarindoei.

(55) *cynnis ululae*: antzinatekoen gusturako, beltzargek ateratzen duten soina oso polita izan daiteke eta hontzena, aldiz, desatsegina da. *Tityrus*: hemen, artzain hutsaren ordezkaria, hau da, Orpheoren ondoan gaizki kantatzen duena. (Orpheo buruz ikus *Ecl. III, 46* eta *VI, 30*).

(56) *Arion*: Lesboseko musikaria, itsasora bota zuten itsasontzi berean zihoa-zen lapur batzuek, baina delfinak erakarri zituen bere musikarekin eta hauek eraman zuten Greciara.

tamarindoak anbar lodiaz izerdi daitezela azalean, hontzak
 55 ere beltxargekin lehia daitezela, Tityro Orpheo izan dadila,
 basoetan Orpheo, izurdeen artean Arion.

Has itzazu nirekin, ene txirula, bertso menaloarrak.

Bada ere, bihur dadila dena itsas-zabal. Bizi zaitezte, ba-
 soak: mendi goi baten ikusgunetik botako dut neure burua
 uretara; har ezazu hau hiltzen ari denaren azken oparia
 60 bezala.

Buka itzazu, txirula, buka itzazu ja bertso menaloarrak.

Hauek Damonek; zuek, Pierotarrok, esaitzue Alphisibeok
 erantzun zituenak; dena ezin dugu denok.

Alphisibeo

Atera ezazu ura, eta ingura ezazu aldare hau galartzu
 65 malgu batekin, eta erre itzazu berdan-belar guriak eta in-
 tsentsu arra, andrearen zentzu ona sorginkeriez aldentzen
 saia nadin; bertsoak baino ez dira falta hemen.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

(58) *fiat*: predikatuarekin komunztatzen du. *Omnia vel medium fiat mare*: 'desager dadila zorigaiztoko mundu hau' esango balu bezala (alegia uholdeak mundua garbitu zuen bezala).

(59) *aërii specula de montis*: anastrofea.

(60) *extremum... munus*: beharbada bere buruaren hilketa, agian egin duen kantua.

(63) *Pterides*: ikus *Ecl.* III, 85.

(64 hh.) Daphnis berreskuratu nahi duen maitale eme batek Amaryllyis neska-meñari hitz egiten dio.

(65) *mascula tura*: intsentsu arra.

(67) *nihil hic nisi carmina desunt*: dena prest dago bete behar den erritoea egiteko: falta den bakarra sorgin hitzak dira (hurrengo lerroetan aipatuko direnak hain zuzen ere).

(68) Pentsatu behar da Daphnis (hitz egiten ari denak maite duena alegia) hirian dagoela eta baserrian gelditu denaz (hitz egiten duenaz alegia) ahaztu egin dela.

BUCOLICON VIII

Carmina vel caelo possunt deducere lunam,
 carminibus Circe socios mutavit Ulixi, 70
 frigidus in pratis cantando rumpitur anguis.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

Terna tibi haec primum triplici diversa colore
 licia circumdo, terque haec altaria circum
 effigiem duco; numero deus impare gaudet. 75

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

Necte tribus nodis ternos, Amarylli, colores;
 necte, Amarylli, modo et: «Veneris» dic «vincula necto».

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

Limus ut hic durescit et haec ut cera liquescit 80
 uno eodemque igni, sic nostro Daphnis amore.
 Sparge molam et fragiles incende bitumine lauros:
 Daphnis me malus urit, ego hanc in Daphnide laurum.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

Talis amor Daphnin, qualis, cum fessa iuvenum 85
 per nemora atque altos quaerendo bucula lucos

70 Ulixi MP, *Ansil. CI 235* : Ulixis αωγ, *Philarg.*, Olixis tit. *Pomp. CIL IV, 1982*

(70) Circek era desberdinetako animalia bihurtu zituen Ulisessen lagunak, *Odyssean* irakur daitekeenez.

(71) *cantando rumpitur anguis*: marsoarrei buruz esaten zen sugeak kantuz leher-tzen zekitela (marsoarrak, Italiako hegoaldeko herria, Circeren semea zen Marsoren ondorengoak omen zirenak).

(73) *tibi*: Daphnis edo, zehazkiago, hitz egiten duenak aurrean duen Daphni-sen irudia.

(74) *haec altaria circum*: anastrofea.

Bertsoek ilargia ere jaitsi dezakete zerutik, bertsoez antzaldatu zizkion Circek Ulisesi lagunak, bertsoak esaten leher-tzen da zelaietan suge hotza.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

Lehenengo, kolore hirukoitzeko hiruna hari desberdin hauek inguratzen ditut, eta hiru bider daramat zure antzirudia alda-re hauen inguruan; zenbaki bakoitiarekin pozten da jainkoa.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

Lot itzazu, Amaryllis, hiru korapiloz hiruna kolore; lot itza-zu berehala eta «Venusen lokarriak lotzen ditut» esazu.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

Lokatz hau gogortzen den bezala eta argizari hau urtzen den bezala su bakar eta berberaz, honela ere Daphnis gure maitasunaz. Barreia ezazu irina eta pitz itzazu bikez erramu hauskorrok: Daphnis gaiztoak erretzen nau ni, nik erramu hau Daphnisen ordeztu.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

Eduki dezala Daphnis halako amodio batek nolakoak bi-gantxa baitauka ur errekaaren ondoan etzaten denean, gorbel

(75) *impare: metri causa*, bestela *impari* izan behar luke.

(80-81) Modu desberdinetan ulertu izan dira bi lerro hauek: agian zera esan nahi du, Daphnis gogortu egingo dela gainerako maitaleekin eta bigundu egingo dela hitz egiten ari denarekin.

(81) *eodem: bisilabaduna* (sinizesiagatik).

(82) *molam: gatza eta irina, sakrifizioetan opalgaien buruen gainean ipintzen zena.*

(83) *in Daphnide: Daphnisen ordeztu, hau da, Daphnisekin berarekin egingo balu bezala.*

(85) *Talis amor Daphnin: sc. teneat* (89garren lerroan dagoen aditz bera). *qualis...: hemen anakoluto handi baina erraz bat dago: qualis buculam tenet cum procumbit...*

propter aquae rivom viridi procumbit in ulva,
perdita nec serae meminit decedere nocti,
talís amor teneat nec sit mihi cura mederi.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin. 90

Has olim exuvias mihi perfidus ille reliquit,
pignora cara sui, quae nunc ego limine in ipso,
Terra, tibi mando; debent haec pignora Daphnin.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

Has herbas atque haec Ponto mihi lecta venena 95
ipse dedit Moeris; nascuntur plurima Ponto.
His ego saepe lupum fieri et se condere silvis
Moerim, saepe animas imis excire sepulchris
atque satas alio vidi traducere messis.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin. 100

Fer cineres, Amarylli, foras rivoque fluenti
transque caput iace. Nec respexeris! His ego Daphnin
adgrediar; nihil ille deos, nil carmina curat.

Ducite ab urbe domum, mea carmina, ducite Daphnin.

87 procumbit MP²ωγ¹, *Macr.* VI, ii, 20 : concumbit Pay

(87) *propter aquae rivom*: *propter* preposizioak bere balio zaharra du: 'ondoan'.

(88) Lerro hau, osorik, Variorena da: Macrobiok aipatzen duelako jakin deza-kegu (VI, ii, 20).

(91) *exuvias*: kasu honetan Daphnisek lagatako arropak edo antzeko gauzak.

(92) *pignora*: «pignus est quod propter rem creditam obligatur cuius rei possessionem solam ad tempus consequitur creditor. Ceterum dominium penes debitorem est» (Isid., *Orig.* V, xxv, 22).

(95) *mibi*: hurrengo lerroko «dedit»-ekin (ez honetako «lecta»-rekin). *herbas atque... venena*: seguruenik *bendiadyoin*. *Ponto*: beharbada Ponto izena zuen lurraldetik oso hur zegoelako Medearen sorterría (Colchide) eta, edonola izanda ere, Ponto Euxi-

berdean, zekorra baso eta oihan sakonetatik bilatzen nekatuta denean, galduta denean, gau beranduaren aurrean gibelatzeaz gogoratzen ez denean: halako amodio batek eduki dezala eta ez dadila nire ardura izan haren zaintzea.

90 Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

Hondakin hauek utzi zizkidan zital hark behinola, bere bahi maiteak, orain zuri, lur, ataburuan bertan ematen dizkizudanak; bahi hauek Daphnis zor didate.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

95 Belar hauek eta Ponton bildutako pozoi hauek Merisek berak eman zizkidan; ugari sortzen dira Ponton. Askotan ikusi dut Meris hauekin otso bihurtzen eta basoetan ezkututzen, askotan arimei hilobien sakonetik deitzen eta ereindako uzta beste norabait eramaten.

100 Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

Atera itzazu kanpora errautsak, Amaryllis, eta bota itzazu erre kara burutik atzera. Eta ez begira! Hauekin erasoko diot Daphnisi; ez da ezertarako jainkoez arduratzen, ezertarako ez bertsoez.

Eramazue hiritik etxera, ene bertsook, eramazue Daphnis.

no izeneko itsasoaren ekialdeko aldean zegoelako; dena den, Pontok berak ere pozoinekin lotutako fama zuen, baita Mithridatesengatik ere, noski.

(96) *Moeris*: ez da lehenagoko bukolikan agertzen (bai IXgarren eklogan baina, itxura guztien arabera, hemengo pertsonai honekin zerikusirik ez duen bati jarria).

(97) *fieri*: sc. *vidi* (99garren lerroan dago aditza).

(99) *alio*: adverbioa; bildugabeko uzta alor batetik bestera sorginkeriekin pasa zitekeela uste izaten zen antzinatean (XII tauletako legeak, esaterako, halakoen kontrako zigorrak aurreikusten ditu).

(101) *rivoque fluenti*: norabide datiboa.

«Aspice: corripuit tremulis altaria flammis
 sponte sua, dum ferre moror, cinis ipse. Bonum sit!»
 Nescio quid certest et Hylax in limine latrat.
 Credimus? an, qui amant, ipsi sibi somnia fingunt?
 Parcite, ab urbe venit, iam parcite carmina Daphnis.

107 certest Pa : certe est MP²a¹, *Mynors*, certi est M¹ Hylax *ed. Ascensiana*
 a. 1500-1501 (ὕλαξ) : Hylas *codd., Fulg. 84 (139)* || 109 carmina (carmine c) parcite
 Mcer

BUKOLIKAK VIII

105 «Begira: errautsak berak, ateratzen luzatu naizenez gero, berez hartu du aldarea sugar dardaratiez. Onerako biz!». Ez dakit zehatz zer den, eta Hylax zaunka ari da ataburuan. Sinenetsiko al dugu? ala maite dutenek ametsak asmatzen dituzte beraiek beren buruentzat?

Nahikoa da, Daphnis dator hiritik, nahikoa da ja, bertsook.

(107) *Hylax*: ὑλακτεῖν, 'zaunka egin'.

(108) *qui amat*: hiatoa.

IX

Lycidas, Moeris

Lycidas

Quo te, Moeri, pedes? an, quo via ducit, in urbem?

Moeris

O Lycida, vivi pervenimus, advena nostri,
quod numquam veriti sumus, ut possessor agelli
diceret: «haec mea sunt; veteres migrate coloni».
Nunc victi, tristes, quoniam Fors omnia versat,
hos illi, quod nec vertat bene, mittimus haedos.

5

Lycidas

Certe equidem audieram, qua se subducere colles
incipiunt mollique iugum demittere clivo,
usque ad aquam et veteres, iam fracta cacumina, fagos,
omnia carminibus vestrum servasse Menalcan.

10

Moeris

Audieras, et fama fuit; sed carmina tantum
nostra valent, Lycida, tela inter Martia, quantum

IX, 1-67 MPa — LYCIDA MOERIS M, LYCIDAS MOERIS P, DE QUESTIONE POETAE DE AMISSO AGRO LICIDA MOERIS a || 1 orbem P, corr. P² || 6 vertat bene MPawγ¹ : bene vertat P²fhvy, Non. 348, 25, Don. Ter. Phorm. 678, Serv. hic et Aen. VI, 641 || 8 incipiant P, corr. P² dimittere bedefr, Quint. VIII, vi, 46, DServ., demittere a, corr. a¹ || 9 veteres... fagos My¹ : veteris... fagi Pawγ, Quint. VIII, vi, 46, Porph. Hor. Epist. II, ii, 170, Philarg. || 11 audiera M, audierat P, corr. M²P²

Lehenengo eklogak bezala, honek ere Virgiliok edo Virgilioren familiak pairatu zituen desjabetzeekin (K.a. 40) du zerikusirik: eklogaren haria bera da eta inguru

IX

Lycidas, Meris

Lycidas

Nora, Meris, zaramatzate oinek? bideak daramanera, hirira?

Meris

Oi Lycidas, bizirik heldu gara arrotz batek, gure lurtxoaren jabe —ez gara inoiz horren beldur izan—, hau esateko: «hauek nireak dira; alde egizue, laborari zaharrok». Orain, etsita, triste, Halabeharrak dena iraultzen duelako, antxume hauek hari daramazkiogu —ez diezaiola honek onik egin—.

Lycidas

Entzunda nengoen, hala ere, muinoak goratu eta beren gaina aldapa biguinez apaltzen hasten diren lekutik ur eta pago zaharretaraino —adaburu ja hautsiak—, dena gorde ahal izan zuela bere bertsoekin zuen Menalcasek.

Meris

Entzun zenuen, eta horren zurrumurrua ibili zen; baina, Lycidas, Martetar geziaren artean gure bertsoek arranoa datorre-

geografikoa ere berbera da. Agian gehien eztabaidatu dena lehenengoaren eta bederatzigarren honen arteko lehenetasuna izan da: izan ere, ez da kontu hutsala Virgilioren biziaren berreraiketakako.

(1) *in urbem*: Mantua, 27 eta 59 lerroetatik ateratzen denez.

(2) *vivi pervenimus... ut... diceret. nostri*: «agelli»-rekin (3garren lerroan).

(3) *possessor*: 2ko «advena»-ren aposizioa. *agelli*: ager-en txikigarria.

(6) *nec non*-en balioa duen forma zaharra. *illi*: arrotzari.

(12-13) *quantum... dicunt*: sc. *valere*.

BUCOLICON IX

Chaonias dicunt aquila veniente columbas.
 Quod nisi me quacumque novas incidere lites
 ante sinistra cava monuisset ab ilice cornix, 15
 nec tuus hic Moeris nec viveret ipse Menalcas.

Lycidas

Heu, cadit in quemquam tantum scelus? heu, tua nobis
 paene simul tecum solacia rapta, Menalca!
 Quis caneret Nymphas? quis humum florentibus herbis
 spargeret aut viridi fontis induceret umbra? 20
 vel quae sublegi tacitus tibi carmina nuper,
 cum te ad delicias ferres, Amaryllida, nostras:
 «Tityre, dum redeo, brevis est via, pasce capellas,
 et potum pastas age, Tityre, et inter agendum
 occursare capro, cornu ferit ille, caveto». 25

Moeris

Immo haec, quae Varo necdum perfecta canebat:
 «Vare, tuum nomen — superet modo Mantua nobis,
 Mantua vae miserae nimium vicina Cremonae! —
 cantantes sublime ferent ad sidera cycni».

17 cadit Mawry, *Don. Ter. Andr. 245, schol. Bern., Serv.* : cadet Pb || 29 ferant P^{2y}

(13) *Chaonias*: Chaoniakoak (Epiroko lurralde bat): Chaonian zegoen Dodona-ko santutegia (batzuen iritzian, berriz, Thesprotian zegoen) eta honekin lotuta zeuden usoak, ez dakigu ziur ez nola ez zergatik; edonola izanda ere, alexandriar poesian behin baino gehiagotan agertzen dira chaoniar usoak.

(15) *ante*: adberbioa («monuisset»-ekin). *sinistra... cornix*: beleari ezkerretik entzuten zitzaionean bakarrik balio zuen igarpenak; igarpen hau arbola huts batetik gertatu izanak kezkarria egiten zuen.

(16) *hic*: izenorde nahiz adberbioa, bietara uler daiteke ondo.

(17) hh.) Menalcasekin arituko balitz bezala hitz egiten du.

(18) *paene*: «rapta»-rekin. (*tua...*) *solacia*: «tua carmina, quibus consolamur» (Serv.).

(19) *humum*: 20ko «spargeret»-en osagarri zuzena.

nean chaoniar usoek beste —diotenez— ahal dute. Zeren
 eta lehenago, ezkerretiko beleak arte hutsetik aholkatu izan
 15 ez balit auzi berriak edonola hauts nitzala, ez litzateke bizi-
 ko ez zure Meris hau ez Menalcas bera.

Lycidas

Ene, hain erru handia izan al daiteke norbaitengan? ene,
 ia-ia kendu zaizkigu, zeurekin batera, zugandiko atseginal-
 diak, Menalcas! Nork abestuko lituzke ninfak? nork barreia-
 tuko lituzke lurrean belar loratuak, edo nork emango iturri-
 20 geriza berdea? edo oraintsu isil-isilik harrapatu dizkizudan
 bertsoak, Amaryllis gure atseginarengana zindoazenean:
 «Tityro, itzul nadin arte —bidea laburra da—, bazka itzazu
 antxumeak, eta bazkatuta edatera eramaitzazu, Tityro, eta
 eramaten dituzun bitartean, akerrarekin topo egitetik begira
 25 zaitez, hark adarrez jotzen du-eta».

Meris

Edo beste hauek, oraindik bukatzeke Varori kantatzen ziz-
 kionak: «Varo, zure izena —baldin Mantua gu baino gehia-
 go biziko bada, Mantua, Cremona errukarritik hurregi—
 beltxargek, abestean, izarretaraino eramango dute gorenki».

(20) *fontes induceret umbra*: egitura hau (*inducere aliquid aliqua re*, ohiko *inducere aliquid alicui*-ren ordez) hemen baino ez da irakurtzen.

(23-25) hiru lerro hauek Theocritoren hirugarren idilioaren hasieraren (III, 3-5) hitzez hitzeko itzulpena dira.

(26) *Immo haec*: «Quis caneret... quis...» (19), «vel quae...» (21), «immo haec». (Varori buruz ikus *Ecl.* VI, 7).

(28) *Mantua vae miserae nimium vicina Cremonae!*: Mantuak, berez, ez zuen arris-
 kuan egoteko arrazoirik, Octavianoren alde egon zelako; handik hur zegoen Cre-
 mona Bruto eta Cassioren aldekoa izan zen, baina hemengo lurrak ez ziren nahikoak
 izan eta desjabetzak Mantuara ere zabaldu ziren.

(29) *sublime*: edo adberbioaren baliokoa edo «nomen»-en (27) predikatiboa.

BUCOLICON IX

Lycidas

Sic tua Cyrneas fugiant examina taxos, 30
 sic cytiso pastae distendant ubera vaccae;
 incipe, si quid habes. Et me fecere poetam
 Pierides, sunt et mihi carmina, me quoque dicunt
 vatem pastores; sed non ego credulus illis:
 nam neque adhuc Vario videor nec dicere Cinna 35
 digna, sed argutos inter strepere anser olores.

Moeris

Id quidem ago et tacitus, Lycida, mecum ipse voluto,
 si valeam meminisse; neque est ignobile carmen.
 «Huc ades, o Galatea; quis est nam ludus in undis?
 hic ver purpureum, varios hic flumina circum 40
 fundit humus flores, hic candida populus antro
 imminet, et lentae texunt umbracula vites.
 Huc ades; insani feriant sine litora fluctus».

Lycidas

Quid, quae te pura solum sub nocte canentem
 audieram? numeros memini: si verba tenerem! 45

30 Cyrneas Μαω, *Serv. hic et Georg. IV, 47* : Cryneas M²M⁵, Grynacas P, Cyri-
 neas fs, Gryneas γ, *schol. Bern.*, Grineas ce, *Ansil. GR 191, Anth. X, 3, Philarg.*, Gry-
 nes τ || 35 Vario ay¹ (*om. γ*), *Serv.* : Varo MPa¹ω, *ps. Acro Hor. Carm. I, vi, 8, schol.*
Bern., nonnulli ap. DServ. || 38 nec a, *corr. a¹* || 45 tenebam P, *corr. P²*

(30) *Cyrneas*: Cyrne edo Cyrno Corsicaren greciar izena da; hango eztiak gustu
 mikatza zuen. *taxos*: 'haginak'; erleek horietatik jaten badute eztiak zapore txarra
 hartzen du.

(33) *Pierides*: Musak.

BUKOLIKAK IX

Lycidas

30 Zure erlekumeek ihes egin dezatela cyrnear hagnetatik, zure
behiek, isatsez bazkatuta, hanpa ditzatela errapeak; has zai-
tez, ezer baduzu. Ni ere egin ninduten poeta Pierotarrek,
neuk ere badituz bertsoak, niri ere poeta esaten didate ar-
tzainek; baina ez natzaie sineskor: ezen ez zait iruditzen ez
35 Vario ez Cinnaren duin den ezer diodanik oraindik, beltzar-
ga sarkorren artean karranka dagien antzara naizela baizik.

Meris

Hori ari naiz bada egiten, Lycidas, eta, isilik, buruan dara-
bilt, ea gogoratzeko gai naizen; eta ez da kantu ezezaguna.
«Zatoz hona, Galatea; zein jolas da hori uretan? hemen
40 purpurazko udaberi bat duzu, lurrak hemen lore nabarrak
ematen ditu ibaiaren inguruan, hemen zumar zuria haitzuloa-
ren gainean altxatzen da, eta mahatsondo malgukeriz-
peak ehotzen dituzte. Zatoz hona; utz ezazu olatu zentzu-
gabeek urbazterrak jo ditzaten».

Lycidas

Zer, gau garbian bakarrik abesten ari zinela aditu nizkizu-
45 nak? doinuarekin gogoratzen naiz: hitzak baneuzka!

(35) *Vario... Cinna*: L. Vario Rufo, Virgilio baino pixka bat zaharragoa, garai-
ko poeta hoberenetakoa zen: haren lagun mina, *Eneidaren* edizioaz arduratu zen
Virgilio hil zenean; C. Helvio Cinna, Catulloren garaikidea, *Zmyrna* izeneko poema
ospetsuaren egilea.

(36) *anser*: baliteke hemen Anser olerkariari buruzko aipamen bat egotea (Mar-
co Antonioaren laguna bide zen).

(37) *Id quidem ago*: 32ko «incipi, si quid habes»-en erantzuna.

(39) *quis... nam*: tmesia. *ludus*: «voluptas» (Serv.). Galateari buruz ikus *Ecl.* VII, 37.

(40) *circum flumina*.

(43) *feriant sine litora: sine ut feriant*.

BUCOLICON IX

Moeris

«Daphni, quid antiquos signorum suspicis ortus?
ecce Dionaei processit Caesaris astrum,
astrum, quo segetes gauderent frugibus et quo
duceret apricis in collibus uva colorem.
Insere, Daphni, piros; carpent tua poma nepotes». 50
Omnia fert aetas, animum quoque: saepe ego longos
cantando puerum memini me condere soles;
nunc oblita mihi tot carmina, vox quoque Moerim
iam fugit ipsa; lupi Moerim videre priores.
Sed tamen ista satis referet tibi saepe Menalcas. 55

Lycidas

Causando nostros in longum ducis amores.
Et nunc omne tibi stratum silet aequor et omnes,
aspice, ventosi ceciderunt murmuris aurae;
hinc adeo mediast nobis via; namque sepulchrum
incipit apparere Bianoris. Hic, ubi densas 60
agricolae stringunt frondes, hic, Moeri, canamus;
hic haedos depone, tamen veniemus in urbem.
Aut si, nox pluviam ne colligat ante, veremur,

46-50 Moe in mg. P¹aw (*haec Moeris non ut sua, sed Vergilii refert, in honorem Augusti composita* DServ.), Sabbadini, Stégen : *Lycidae continuant* My, Ribbeck, Mynors, numeros... tenerem *Moeridi*, cetera *Lycidae* tribuit Cartault || 59 hic P mediast] mediaesit M, mediaestest a, media est M²a¹, cet. nec non Mynors

(47) *Dionaei*: Juliotarrek Venusen leinukotzat zituzten beren buruak eta Dione Venusen ama zen. *Caesaris astrum*: seguruenik, Cesarren ohorean egindako jokoetan zeruan agertu omen zen kometa (K.a. 44ko uztailean, *sidus Iulium* esan zioten) eta haren apoteosisaren frogatzat hartu izan zena.

Meris

«Daphnis, zertarako begiraten diezu izar-multzoen jaiotza zaharrei? hara non ageri den Cesar Dionetarraren izarra, izarra zeinekin soroak beren uztekin poz daitezen, eta zeinekin mahats-aleak muino eguzkitsuetan bere kolorea har
 50 dezan. Txerta itzazu, Daphnis, udarondoak; bilobek hartuko dituzte zure frutak». Oro darama adinak, baita oroimena ere: gogoratzen naiz umea nintzenean askotan eguzki luzeak ezkutatzen nituela kantatzen; orain, hainbeste bertso ahaztuta, ahotsak berak ere ihes egin dio ja Merisi; otsoek lehenago ikusi zuten Meris. Baina hala ere Menalcasek sarri asko
 55 esango dizkizu horiek.

Lycidas

Aitzakiak jartzen luzatu egiten dituzu gure amodioak. Eta orain lau guztia isil duzu, etzanda, eta, begira, marmar hai-zetsuaren boladak gelditu egin dira; hemendik oraindik bide
 60 erdia dugu, ezen Bianorren hilobia hasi da agertzen. Hemen, nekazariak hostotza sarria biltzen duten lekuan, hemen kanta dezagun, Meris; utz itzazu hemen antxumeak, helduko gara-eta hirira. Edo lehenago gauak euria ekarriko duen beldur bagara, ondo da, goazen —gutxiago gogaitzen

(50) Cf. *Ecl.* I, 73.

(51) *animum quoque*: «etiam memoriam» (Serv.).

(52) *condere soles*: eguzkiak azkeneraino eraman, hau da, egun osoak pasatu.

(53) *mibi*: datibo egilea («oblita»: pasiboa).

(54) *lupi... priores*: antzinateko jendearen ustea zen otsoarekin topo egitean otsoak lehenago ikusten bazuen gizona honek hura baino, gizona ahotsik gabe gelditzen zela.

(58) *ventosi... murmuris*: genitiboa.

(60) *Bianoris*: Servioren ustez Mantuaren fundatzailea.

BUCOLICON IX

cantantes licet usque (minus via laedet) eamus;
cantantes ut eamus, ego hoc te fasce levabo.

65

Moeris

Desine plura, puer, et, quod nunc instat, agamus;
carmina tum melius, cum venerit ipse, canemus.

64 laedet $\alpha\omega\gamma^1$, *schol. Bern. Georg. I, 293, Serv.* : ledet P, laedit M $\eta\gamma$, *Stegen*, laedat f, *Güthling* || 66 puer et quod nunc M²P² $\alpha\omega\gamma$: puer quod nunc M, puer nunc quod nunc M¹Pcde, puer et nunc quod a

BUKOLIKAK IX

du bideak— abesten; abesten joan gaitezen, nik arinduko
65 zaitut azao honetaz.

Meris

Nahikoa da, mutil, eta egin dezagun orain derrigor dena;
bertsoak orduan, bera datorkeenean, abestuko ditugu hobeto.

(66) *puer*: azken silaba *productio ob caesuram* batengatik luzatzen da.

(67) *ipse*: Menalcas.

X

Extremum hunc, Arethusa, mihi concede laborem:
 pauca meo Gallo, sed quae legat ipsa Lycoris,
 carmina sunt dicenda; neget quis carmina Gallo?
 sic tibi, cum fluctus supterlabere Sicanos,
 Doris amara suam non intermisceat undam. 5
 Incipe; sollicitos Galli dicamus amores,
 dum tenera attendent simae virgulta capellae.
 Non canimus surdis, respondent omnia silvae.

Quae nemora aut qui vos saltus habuere, puellae
 Naides, indigno cum Gallus amore peribat? 10
 nam neque Parnasi vobis iuga, nam neque Pindi
 ulla moram fecere neque Aonie Aganippe.
 Illum etiam lauri, etiam flevere myricae,
 pinifer illum etiam sola sub rupe iacentem
 Maenalus et gelidi fleverunt saxa Lycaei. 15

X, 1-9 MPa — CONQUESTIO CUM GALLO POETA DE AGRIS M, CONQUESTIO DE AGRIS CUM GALLO CORNELIO P, INCIPIT EGLOGA DECIMA DE DESIDERIO GALLI CIRCA VOLUMINIAM CUTHCIDEM (*Cytheridem*) MERETRICEM QUM (*quam*) LICORIDEM DICIT CONQUESTIO CUM GALLO DE AGRIS a || 1 laborum P (*corr.* P²), *Ribbeck*

X, 10-77 MPR — 10 peribat M²PRanry : periret Mωγ¹ || 12 Aonie ω : Aoinie Rab, Aoniae MPdery, *Char.* 13, 33 et 14, 23 || 13 *alt.* etiam] illum Ray (*etiam* γ¹)

Gallo, Virgilioren lagun mina, bere maitalea den Lycorisek (Cytherisek alegia edo, benetako izenez, Volumniak) utzi egin du militar bati jarraitzeko: Gallo eta Lycoris izan zirena badakigu, eta baita Gallo Virgilioren oso laguna izan zena ere; hortik aurrera ezer gutxi ziurta daiteke.

(1) *extremum... laborem*: bildumako azken ekloga delako. *Arethusa*: nereida, nereotarra; bere izena zuen iturri bat zegoen Syracusan (Theocritoren sorterrian alegia).

(2) *Lycoris*: Gallok (ikus *Ecl.* VI, 64) elegia bilduma bat idatzi zuen (beharbada Erromako lehenengoa) non bere (eta, antza, Marco Antonioaren) maitea zen Cytheris (benetako izenez Volumnia) Lycorisen izenaren pean kantatu baitzuen.

(4) *tibi*: Arethusa, berriz.

(4-5) *Sicanos, Doris*: Alpheo, Elideko ibaia, Arethusarekin maiteminduta, itsasoaren azpitik jarraitu zitzaion honi Siciliaraino (badirudi antzinatzen Alpheo ibaia eta

X

Emaidazu, Arethusa, azken lan hau egitea: bertso gutxi batzuk esan beharra dago nire Gallorentzat, baina Lycorisek berak irakur ditzanak; nork ukatuko dio bertsorik Gallori? honela, sicaniar olatuen azpian murgil zaitezenean, ez dieza-
 5 zula bere ura nahas Doris mikatzak. Has zaitez; kanta ditzagun Galloren amodio estuak, antxume mutur motzek kimu samurrak muskiltzen dituzten bitartean. Ez dugu gorrentzat abesten, orori erantzuten diote basoek.

Zein oihanek edo zein basok zintuzteten, naiade neskek,
 10 Gallo maitasun ez elkarrekiko batengatik hiltzen ari zenean? ezen ez Parnasoko gainek ez Pindokoek ez zizueten atzerapenik eragin, ezta Aganippe aoniarrek ere. Harengatik erramuek ere negar egin zuten, baita tamarindoek ere, harengatik, haitz bakarti baten azpian zetzala, Menalo pinudunak
 15 eta Lyceo izoztuaren harkaitzek ere negar egin zuten. Ar-

Arethusa iturria lur azpitik batuta zeudela uste zela): Doris Arethusaren eta nereida guztien ama da, beraz itsasoa da (hortik «Doris amara»), eta *Sicanos* hitzak, hemen, 'siciliarra' esan nahi du.

(6) *amores*: beharbada Galloren elegia liburuaren izenburuari buruzko aipamen bat (*Amores* baitzen honen izenburua, Serviok dioenez).

(9) *saltus*: ikus *Ecl.* VI, 56.

(10) *Naidēs*: ikus *Ecl.* II, 46; hemen, 11garren lerroan ikusiko denaren arabera, Musak.

(11) *Parnasi... iuga*: Parnaso mendiak gailur bat baino gehiago du (ikus, oro har Parnasori buruz, *Ecl.* VI, 29). *Pindi*: Thessalia eta Epiro banantzen dituen mendikatea (ez da agertzen Musen gurpenarekin lotuta Virgilioren aipamen hau baino lehenago). *ulla*: sc. *iuga*.

(12) *Aonie Aganippe*: hiatoa. *Aonie* (nominatiboa eta adjektiboa, ohikoa den *Aonia*-ren ordeztu, ondarki epikoarekin): Aoniakoa, hau da, Beoziakoa. *Aganippe* (ohiko *Aganippa*-ren ordeztu, ondarki epikoarekin hemen ere): Heliconeko iturria, Musei opaldua.

(13) *lawri etiam*: hiatoa; erramuari buruz ikus *Ecl.* II, 54, III, 63 eta VIII, 13.

(15) *Maenalus*: ikus *Ecl.* VIII, 21. *Lycæi*: τὸ Λύκαλον, Arcadiako mendia, ustez Panen jaiolekua eta, edonola izanda ere, Panen egoitzetako bat.

BUCOLICON X

Stant et oves circum; nostri nec paenitet illas,
 nec te paeniteat pecoris, divine poeta;
 et formosus ovis ad flumina pavit Adonis.
 Venit et upilio, tardi venere subulci,
 uvidus hiberna venit de glande Menalcas. 20
 Omnes: «unde amor iste» rogant «tibi?». Venit Apollo:
 «Galle, quid insanis?» inquit; «tua cura Lycoris
 perque nives alium perque horrida castra secutast».

Venit et agresti capitis Silvanus honore
 florentis ferulas et grandia lilia quassans. 25
 Pan deus Arcadiae venit, quem vidimus ipsi
 sanguineis ebuli bacis minioque rubentem:
 «ecquis erit modus?» inquit, «Amor non talia curat;
 nec lacrimis crudelis Amor nec gramina rivis,
 nec cytiso saturantur apes nec fronde capellae». 30

Tristis at ille: «tamen cantabitis, Arcades», inquit,
 «montibus haec vestris, soli cantare periti
 Arcades. O mihi tum quam molliter ossa quiescant,
 vestra meos olim si fistula dicat amores!
 Atque utinam ex vobis unus, vestri que fuisset 35
 aut custos gregis aut maturae vinitor uvae!
 Certe sive mihi Phyllis sive esset Amyntas
 seu quicumque furor (quid tum, si fuscus Amyntas?

16 ovis P (corr. P²), *Sabbadini* (nom. plur.) || 19 upilio MRabnty, *Ter. Maur.* 1191, *Serv.* : utiilio P, opilio P²ωγ¹, *Ansil. OP 124, schol. Bern.*, opulio *Philarg.* tarde Pef || 20 huvidus P, umidus Ra || 23 castra] saxa P (corr. P²), *Sonntag* secutast MR : secuta est M²R²P, *Mynors* || 28 ecquis MP, *schol. Bern.* : et quis P²Rωγ non] nec Ra, *schol. Bern. Ecl. X, 60* || 29 ripis M, corr. M² || 32 vestris MP²Rωγ : nostris Pb, vestrīs *Ribbeck*

(16) *circum*: adberbioa.

(18) *Adonis*: edertasun handiko gazte gizonezkoa, artzaina izanik Aphroditaren maitasuna izan zuena.

diak ere haren inguruan daude; ez dira gutaz lotsatzen haiek, ez zaitez zu ere artaldeaz lotsa, poeta jainkozkoori; Adonis ederrak ere ardiak bazkatu zituen ibaietan. Artzaina ere etorri zen, etorri ziren zerrizain motelak, Menalcas etorri
 20 zen neguko ezkurrez bustita. Denek «nondik zuri amodio hau?» galdetzen dute. Heldu zen Apollo: «Gallo» diotso «zer erokeria da hau? zure ardura den Lycorisek beste bati jarraitu dio elur eta kanpamendu latzetan zehar». Silvano
 25 ere heldu zen, buruko ohore basatiarekin, zotz loratuak eta lili handiak astinduz. Pan ere, Arcadiako jainkoa, heldu zen, guk geuk ikusi genuen anduraren odolezko aleez eta minioz gorritua: «neurririk izango al da?», dio, «Maitasuna ez da halakoez arduratzen; ez da malkoez asetzen Maitasun ankerra,
 30 ez zelaia errekez, ez isatsez erleak, ez hostoez antxumeak.

Baina hark, triste, «hala ere», dio, «hauek abestuko dizkiezue, arcadiarrok, zeuen mendiei, arcadiarrok, abesten trebe bakarrak. Zein biguinki atsedengo luketen nire hezurrek, baldin
 35 zuen txirulak, noizpait, nire maitasunak kantatuko balitu! Eta zuetako bat izan banintz, zuen artaldearen zaintzailea edo mahats helduaren biltzailea! Benetan, Phyllis edo Amyntas edo beste edozein grina banu (zer bada, Amyntas beltzarana

(20) *hiberna... de glande*: ezkurak udazkenaren bukaera aldean biltzen dira eta abereentzako neguko janaria dira; *avidus... Menalcas*: seguenik ezkurak uretan sartuta gordetzen zirelako.

(21) *Venit Apollo*: artzainen eta poeten jainkoa den neurrian (ikus *Ecl.* IV, 10 eta V, 35 batik bat).

(24) *agresti... bonore: ablativus descriptionis. Silvanus*: Faunoren oso antzekoa zen jainkoa, basoetan bizi zen eta artzainen eta nekazarien lanekin zegoen lotuta (askotan adarrez eta lorez egindako koroa batekin deskribatzen da).

(26) Pani buruz ikus *Ecl.* II, 31 eta VIII, 24.

(31) *Arcades*: ikus *Ecl.* VII, 4.

(37) *Phyllis*: emakume izena. *Amyntas*: gizon izena.

(38) *quid tum...*: baserrietako Amyntas eta Phyllis hirian aurki ditzakeen maitaleak (edo Lycoris bera) baino beltzagoak direlako, zalantzarik gabe.

BUCOLICON X

et nigrae violae sunt et vaccinia nigra),
 mecum inter salices, lenta sub vite iaceret; 40
 serta mihi Phyllis legeret, cantaret Amyntas.

Hic gelidi fontes, hic mollia prata, Lycori,
 hic nemus; hic ipso tecum consumerer aevo.
 Nunc insanus amor duri me Martis in armis 45
 tela inter media atque adversos detinet hostis:
 tu procul a patria, nec sit mihi credere tantum!
 Alpinas, a! dura nives et frigora Rheni
 me sine sola vides. A! te ne frigora laedant!
 a! tibi ne teneras glacies secet aspera plantas!

Ibo et, Chalcidico quae sunt mihi condita versu 50
 carmina, pastoris Siculi modulabor avena.
 Certum est in silvis inter spelaea ferarum
 malle pati tenerisque meos incidere amores
 arboribus; crescent illae, crescetis, amores.
 Interea mixtis lustrabo Maenala Lymphis 55
 aut acris venabor apros; non me ulla vetabunt
 frigora Parthenios canibus circumdare saltus.
 Iam mihi per rupes videor lucosque sonantis
 ire; libet Partho torquere Cydonia cornu
 spicula, tamquam haec sit nostri medicina furoris, 60
 aut deus ille malis hominum mitescere discat.

40 iaceret P²Rωγ¹ : iaceres MPγ, Castiglioni, Herrmann || 55 Lymphis M, «lustrabo Maenala Lymphis, alii verius Nymphis» schol. Bern. : Nymphis Ρωγ, schol. Bern. 62, D^Serv. hic et 62, edd. nec non Mynors, silvis Ra? (cf. 52 et Ecl. VIII, 22) || 59 Rhodonea M, Cydonea M²P²R, Sabbadini || 60 sint M

(40) *inter salices*: hemen, mahatsondoak sahatsetan daude jarrita, ez, ohi bezala, zumarretan. *iaceret*: subjektua Phyllis edo Amyntas (37) edo *quicumque furor* (38) dira.

(48) *sine me*.

(50) *Chalcidico... versu*: Chalcisko Euphorion, alexandriar olerkari handia, Erromako neoterikoen artean oso estimatua (Chalcis: Eubeako mendebaldeko hiria).

bada? bioletak ere beltzak dira eta beltzak basaranak ere), ni-
 rekin letzake sahasen artean, mahatsondo malguaren azpian;
 40 Phyllisek lore koroak bilduko lizkidake, Amyntasek abestu
 egingo lidake.

Hemen iturri izoztuak, hemen zelai biguinak, Lycoris, he-
 men oihana; hemen zahartzeaz beraz ahituko nintzateke zure-
 kin batera. Orain, amodio zentzugabe batek gezi en darian eta
 45 etsai aurkari en artean nauka Marte gogorraren armetan: zuk,
 sorterritik urruti —bada ere sinisterik ez banu!—, bakarrik, ai
 gogorrori! ni gabe, alpear elurrak eta Rhenoko hotzak ikusten
 dituzu. Ai! hotzek ez diezazutela minik eman! Ai! izotz za-
 karrak ez diezazkizula oin azpi leunak ebaki!

50 Joan egingo naiz, eta chalcistar bertsotan atonduta dauzka-
 dan kantuak joko ditut artzain siciliarraren txirulaz. Erabakia
 dut nahiago izatea basoetan, piztien zuloen artean, sofritzea eta
 arbola samurretan nire amodioak idaztea; haziko dira haiek,
 55 haziko zarete, amodiok. Bitartean, ninfekin nahasia, Menaloak
 ibiliko ditut edo basurde zakarrak ehizatuko ditut; inongo ho-
 tzek ez didate galaraziko baso parthenioarrak zakurrekin ingu-
 ratzea. Ja ari naiz neure burua ikusten haitz eta oihan zarata-
 tsuetatik ibiltzen; laket zait parthiar uztaiaz cydondar geziak
 60 jaurtikitzea, hau gure grinaren sendagaia balitz bezala edo jain-
 ko hark gizonen gaitzekin beratzen ikas balezake bezala.

pastoris Siculi: seguruenik, Theocrito, hau ere, noski, poesia alexandriarraren ordezkaria.

(53) *pati*: iragangaitza hemen.

(55) *Lymphis*: *Lymphæ*, *Nymphæ*.

(57) *Parthenios*... *saltus*: Partheniokoak alegia, Arcadiako mendi bat.

(59) *Partho*... *cornu*: parthiarrak beren uztai eta geziengatik famatuak ziren (ikus *Ecl.* I, 62).

(60) *Cydonia*... *spicula*: Cydon, Cretako hiria, hau ere bertako arkulariengatik famatua.

(61) *deus ille*: Maitasuna.

BUCOLICON X

Tam neque Amadryades rursus nec carmina nobis
 ipsa placent; ipsae rursus concedite silvae.
 Non illum nostri possunt mutare labores,
 nec si frigoribus mediis Hebrumque bibamus 65
 Sithoniasque nives hiemis subeamus aquosae;
 nec si, cum moriens alta liber aret in ulmo,
 Aethiopum versemus ovis sub sidere Cancri:
 omnia vincit Amor, et nos cedamus Amori».

Haec sat erit, divae, vestrum cecinisse poetam, 70
 dum sedet et gracili fiscellam texit hibisco,
 Pierides; vos haec facietis maxima Gallo,
 Gallo, cuius amor tantum mihi crescit in horas,
 quantum vere novo viridis se subicit alnus.
 Surgamus; solet esse gravis cantantibus umbra, 75
 iuniperi gravis umbra; nocent et frugibus umbrae.
 Ite domum saturae, venit Hesperus, ite capellae.

62 neque] nec Rab Amadryades M²P²R : Amatdryades M, Amaryadus P
 || 67 aret Liber Conington || 69 vincit P²ωγ, Macr. V, xiv, 5 et V, xvi, 7, Gramm.,
 Serv. Aen. III, 464 et IV, 697, D.Serv. : vincet M, vinct P, vicit Ra || 73 hora P (corr. P²),
 Sonntag || 74 subducit Ra, subrigit rec., Valesius

P. VERGILI MARONIS BUCOLICA EXPLICIT G, P. VERGILI MARONIS BUCOLICON
 LIBER EXPLICIT M, BUCOLICON P, VERGILI MARONIS BUCOLICA EXPLIC. FELICITER R

(62) *Amadryades*: basoetako ninfak (zehazki, haritzetakoak).

BUKOLIKAK X

- Berriz ere, ez zaizkigu ja atsegin ez hamadriadak ez bertsoak berak; zuek ere, basook, egizue atzeraka berriz ere.
- 65 Gure lanek ezin dute hura aldatu, hotzen erdian Hebrotik edaten badugu ere edo negu urtsuaren elur sithoniarrek jasaten baditugu ere, ezta, zumar altuan azal zuria —hiltzean— lehortzen denean, ethiopiarren ardiak Cancarren izar-multzoaren pean bazkatuko bagenitu ere: orori garaitzen zaio Maitasuna, gibela gakizkiola gu ere Maitasunari».
- 70 Nahikoa izango da, jainkosak, zuen poetak hauek kantatu izana, eserita dagoen bitartean eta ziguin mehez otarretxo bat ehotzen duen bitartean, Pierotarrok; zuek egingo duzue hauek Gallorentzat handienak izatea, Gallorentzat, zeinenganako maitasuna ordu oro hazten baitzait haltz berdea udaberria hastean goratzen den bezainbat. Zuti gaitzen:
- 75 zen: gerizpea pisua ohi da abeslarienzat, ipuruaren gerizpea pisua ohi da; uztei ere kalte egiten diete gerizpeek. Zoazte etxera, ase eginda, Hespero dator-eta, zoazte antxumeok.

(64) *illum*: Maitasuna.

(65) *Hebrum*: Thraciako ibai nagusia (gaurko Maritza).

(66) *Sithoniasque nives*: hemen 'Thraciakoak' esan nahi du: jatorriz Σιθωνίη Chalciseko erdiko penintsula da, baina berehala aipatu esanahi zabalagoa hartzen du; bestalde, Σιθώνιοι Thraciako kostaldean bizi zen tribu bat zen.

(68) *sub sidere Canori*: uda betean sartzen da eguzkia izar-multzo honetan.

(69) *amor*: azken silaba luzea da *productio ob caesuram* batengatik.

(72) *Pierides*: Musak (ikus *Ecl.* III, 85).

(77) *Hesperus*: ikus *Ecl.* VIII, 30.

P. VERGILI MARONIS
GEORGICON LIBRI IV

P. VIRGILIO MARON
GEORGIKAK

I

Quid faciat laetas segetes, quo sidere terram
 vertere, Maecenas, ulmisque adiungere vitis
 conveniat, quae cura boum, qui cultus habendo
 sit pecori, apibus quanta experientia parcis,
 hinc canere incipiam. Vos, o clarissima mundi 5
 lumina, labentem caelo quae ducitis annum;
 Liber et alma Ceres, vestro si munere tellus
 Chaoniam pingui glandem mutavit arista
 poculaque inventis Acheloia miscuit uvis;
 et vos, agrestum praesentia numina, Fauni, 10
 ferte simul Faunisque pedem Dryadesque puellae:
 munera vestra cano; tuque o, cui prima frementem
 fudit equom magno tellus percussa tridenti,
 Neptune; et cultor nemorum, cui pingua Ceae
 ter centum nivei tondent dumeta iuveni; 15

INCIPIT GEORGICA LIBER I. G, INCIPIT GEORGICON LIB. I FELICITER M, GEORGICON LIB. I P, INCIPIT GEORGIC(A) R

I, 1-40 MPR — 6 lumina] «numina fuit, sed emendavit ipse» *DServ.* || 7 si munere] sit munere M, si numine M¹, sim munere γ || 13 fundit Pb, *DServ. Aen. I, 1*

Mecenasen, nekazaritzaren jainkoen eta Augustoren aipamena. Nekazaritza: lurrrak noiz eta nola landu. Izarrak, izar-multzoak, eguraldia. Augustoren aldeko eskariak.

(1) *quo sidere*: 'zein sasoitán'.

(2) *Maecenas*: Octavianoren adiskide eta laguntzailea, Virgilioren (eta beste askoren) babeslea. *ulmisque adiungere vitis*: mahatsondoak zumarrekin elkartu ohi ziren antzinatean (ikus *Ecl.* II, 70 et alibi).

(4) *pecori apibus*: hiatoa.

(7) *Liber*: mahatsondoaren jainkoa (ikus *Ecl.* VII, 58; *Liber* italiar izena da: beste pasarte batzuetan izen greciarrek ematen dizkio: *Bacchus, Lyaenus, Lenaeus*). *Ceres*: laborearen jainkoa (ikus *Ecl.* V, 79).

(8) *Chaoniam... glandem*: antzinatekoen ustez, gizonek laborantza asmatu baino lehenago zuten elikadura (Chaoniari buruz ikus *Ecl.* IX, 13). *pingui... arista*: instrumentala.

I

Zerk egiten dituen soroak emankor, zein izar-multzotan komeni den, Mecenas, lurra iraultzea eta mahatsondoak zumarretara bildu, nolakoa behar duen idiekiko ardurak, nolakoa artaldea zaintzekoak, zein handia erle zuhurrekiko trebetasunak, hemendik hasiko naiz kantatzen. Zuek, munduko
 5 izar argitsuenak, urtea zerutik irristatzean gidatzen duzue-
 nak, Liber eta Ceres hazleori —baldin lurra zuen dohainez
 trukatu bazuen chaoniar ezkurra galburu guriaz eta achelooar
 goporrak zeuek asmatutako mahatsekin nahastu bazituen—;
 10 baita zuek ere, baseritarren jainko ongileak, faunoak, zatozte
 batera faunoak eta driada neskak: zuen opariak kantatzen
 ditut; eta zu, oi Neptuno, zeinentzat lurra, zure hiruhortz
 handiak jota, zaldi irrintzilaria sorrarazi baitzuen lehenen-
 goz; eta oi hanetan bizi zarenori, zeinentzat hirutan ehun
 15 zekor elurrez kok muskiltzen baitituzten Ceako sasiarte gu-

(9) *poculaque... Acheloa*: Acheloo ibaia Etolian dago, aurreko lerroan aipatutako Chaonia bezala (badirudi hor ipini nahi duela Virgiliok zibilizazioaren jatorria): «pocula Acheloiā», beraz, urez betetako goporrak dira. (Arrazoi asko egon daiteke ibai hau hemen aipatzeko: batzuentzat munduko ibai zaharrena zen; beste batzuentzat ardoaren asmaketarekin lotuta zegoen). *inventis... uvis*: ardoa Pindon, Locriden edo Etolian asmatu zen, antzinatekoen arabera. *miscuit*: antzinatean ardo urarekin nahastua edaten zen.

(10) *agrestum: agrestium, metri causa* (izen gisa eta «praesentia»-ren genitibo objektiboa: 'baserritareki ondo egiten diezuenak'). *praesentia*: 'ongileak' (ikus *Ecl.* I, 41). *Fanni*: ganaduaren eta basoetako jainkoak (ikus *Ecl.* VI, 27).

(11) *Dryadesque puellae*: basoetako ninfak (ikus *Ecl.* V, 59).

(14) *Neptune*: Posidonekin berdintzen den erromatar jainkoa, itsasoko eta, oro har, ur guztietako jauna; beronek sorrarazi zuen zaldia lurretik. (Attica gizonen opari onena egiten zienari emango ziotela erabaki zuen jainkoek: Neptunok zaldia sortu zuen lurretik, Minervak, hau da Pallas Atheneak, olibondoa: honela, Pallasek eman zion bere izena Atticako hiriburuari). *cultor nemorum*: Aristeo (ikus *Georg.* IV, 17). *Caeae*: Cycladeetako bat, Aristeok gosete batetik askatu zuena; han zen bereziki gurtua.

ipse nemus linquens patrium saltusque Lycaei,
 Pan, ovium custos, tua si tibi Maenala curae,
 adsis, o Tegeaeae, favens, oleaeque Minerva
 inventrix unciq̄ue puer monstrator aratri
 et teneram ab radice ferens, Silvane, cupressum; 20
 dique deaeque omnes, studium quibus arva tueri
 quique novas alitis non ullo semine fruges
 quique satis largum caelo demittitis imbrem;
 tuque adeo, quem mox quae sint habitura deorum
 concilia incertum est, urbisne invisere, Caesar, 25
 terrarumque velis curam et te maxumus orbis
 auctorem frugum tempestatumque potentem
 accipiat cingens materna tempora myrto;
 an deus immensi venias maris ac tua nautae
 numina sola colant, tibi serviat ultima Thyle 30
 teque sibi generum Tethys emat omnibus undis;

17 s̄ij seu Schrader || 22 nonnullo achntvy, Serv. || 25 urbisne Πρωγ, Probus ap. Gell. XIII, xcxi, 4, Serv. : urbesne Μαβcαrv

(16) *ipse*: sc. Pan (17garren lerroan). *nemus... patrium*: baso hau Arcadia bera izan daiteke, Panen aitaren (hau da Mercurioren) sorterriari buruzko aipamena baldin bada hemen dagoena, Serviok nahi duen bezala (Pan bera ez baita arcadiarra, Ithacakoa baizik). *Lycaei*: Lyceo, Arcadiako mendia (ikus *Ecl.* X, 15).

(17) *Pan*: ikus *Ecl.* II, 31. *Maenala*: Arcadiako mendia (ikus *Ecl.* VIII, 21).

(18) *Tegeaeae*: «ipse... Pan»-ekin doa; Tegea edo Tegeekoa (Arcadiako herria edo, sinekdokea eginez, Arcadia bera), bertan zuelako Panek bere egoiztetako bat. *oleaeque Minerva inventrix*: Minervak olibondoia eman zien gizonei.

(19) *unciq̄ue puer monstrator aratri*: Triptolemo, gizonei garia creiten irakatsi zien eta, zehazki, goldea erabiltzen.

(20) *Silvane*: ikus *Ecl.* X, 24. *teneram ab radice ferens... cupressum*: Silvano eskuan adar bat daramala irudikatzen da, ez dago argi zergatik.

(23) *satis*: datiboia (*sero*-ren partizipioa).

(24-25) *Tuque... Caesar*: Octaviano.

(24-42) Honela ulertu behar da esaldi luze hau: guztiaren ardatza *tu, quidquid eris* (36), *da facilem cursum* (et *annue et ingredere et assuesce*) da; esaldi nagusi honetan mendeko batzuk tartekatzen dira: «tu»-ri dagokion erlatibozko bat: «quem incertum

- riak; zu ere bai, Pan, ardien zaintzailea, zure Menaloak ar-
dura bazaizkizu, zatozkit, tegearra, nire alde, sorterriko ba-
soa eta Lyceoko oihanak lagata; eta Minerva, olibondoaren
asmatzailea, eta zu, mutil, golde kakotuaren erakuslea, eta
20 Silvano, sustraitik ateratako altzipres gaztea daramazuna;
jainko eta jainkosa guztiak, soroak zaintzeko arreta duzue-
nak, eta uzta berriak hazirik gabe elikatzen dituzuenak, eta
zerutik euri oparoa ereintzei bidaltzen diezuenak; eta batez
ere zu, zein zalantzazkoa baita jainkoen zein batzarrek
25 hartuko zaituen laster, Cesar: nahi al zenuke hiriak ikustera
etorri eta lurren ardura hartu, eta bira handienak uzten era-
gile eta ekaitzen ahaldun har zaitzan, lokiak amaren mirtoaz
inguratzen dizkizula? ala nahiago duzu itsaso eskergaren
jainko etorri eta marinelek zu bakarrik ohora zaitzaten eta
30 Thyle azkenak zuri zerbitza diezazun eta Tethysek, bere
olatu guztien truke, suhi eros zaitzan zu? ala, izar berri bat

est quae concilia deorum sint habitura» (non «quem» «habitura»-ren osagarri zuzena baita); erlatibozkoaren ondoren galdera hautakari batez osaturiko parentesi bat hasten da («urbesne invisere... iusta plus parte reliquit»): 1. *velis invisere urbes et curam terrarum* (hau da: «velis»-en osagarri zuzenak, lehenengo zati honetan, «invisere» eta «curam» dira; suposa daiteke baita ere «curam» objektutzat izango lukeen infinitibo bat: 'hartu' et («velis» oraindik ere) *maximus orbis te accipiat* («auctorem» eta «potentem» predikatiboak), *cingens* (aposizioa) *tempora myrto*; 2. *an venias ac colant et serviat et amat*; 3. *anne addas* (eta azken honi erlatibozko bat gehitzen zaio eta, honen ondoren, beste parentesi bat: «ipse tibi... reliquit»). Azkenik, 36ko «quidquid eris»-ek aurreko dena jasotzen du, eta «da», «annue», «ingredere» eta «assuesce» aditz nagusiak dira. Pasarte honetan munduko lau zatiak aipatzen dira: batetik lurra, itsasoa eta zerua, eta bestetik infernua (azken hau ez aukeratzeko erreguarekin: «nec sperant Tartara... nec... veniat tam dira cupido...»).

(25) *urbisne*: akusatibo plurala.

(28) *myrto*: mirtoa Venusen landarea da, eta Juliotarrek Venusen ondorengotzat zituzten beren buruak (hortik «materna myrto»).

(30) *ultima Thyle*: antzinatekoek iparralde mendebaldean kokatzen zuten uharte bat, munduaren azken lekutzat zutena.

(31) *Tethys*: Oceanoren andrea eta ninfen ama (honekin lotzen da «teque sibi generum... emab»).

anne novum tardis sidus te mensibus addas,
 qua locus Erigonen inter Chelasque sequentis
 panditur (ipse tibi iam bracchia contrahit ardens
 Scorpios et caeli iusta plus parte reliquit); 35
 quidquid eris (nam te nec sperant Tartara regem,
 nec tibi regnandi veniat tam dira cupido,
 quamvis Elysios miretur Graecia campos
 nec repetita sequi curet Proserpina matrem),
 da facilem cursum atque audacibus adnue coeptis 40
 ignarosque viae mecum miseratus agrestis
 ingredere et votis iam nunc adsuesce vocari.

Vere novo, gelidus canis cum montibus umor
 liquitur et Zephyro putris se glaeba resolvit,
 depresso incipiat iam tum mihi taurus aratro 45
 ingemere et sulco attritus splendescere vomer.
 Illa seges demum votis respondet avari
 agricolae, bis quae solem, bis frigora sensit;
 illius immensae ruperunt horrea messes.
 Ac prius ignotum ferro quam scindimus aequor, 50

35 reliquit MRy : relinquit Pω, ps. *Probus, Ter. Maur. 1147* || 36 nec] ne M,
 corr. M¹ sperant MPRabcfn : sperent M²P²ωy, ps. *Probus, Serv., DServ.*
 I, 41-228 AMPR — 50 at γ, *Ribbecke* ignotum] immensum *DServ., schol. Bern.*

(32) *novum... sidus*: 31ko «te»-ren predikatiboa (Julio Cesar jada izar bihurtua zen: ikus *Ecl. IX, 47*). *tardis*: udako hilabeteak 'astitsuak' dira egunak luzeagoak direlako. *mensibus*: izan ere, Julio Cesarren ohorean esan zitzaion *mens Iulius* ordura arte *mens Quinctilis* izan zenari, eta Octavianoren ohorean *mens Augustus* ordura arteko (K.o. 8an) *mens Sextilis*-i.

(33) *Erigonen inter Chelasque sequentis*: *inter Erigonen et Chelas*. *Erigonen*: zodiakoko *Virgo* izeneko ikurra (ikus *Ecl. IV, 6*); *Erigone* *Icarioren* alaba zen, ardoaren ezagueria *Atticatik* zabaldu zuena: aita hil zenean *Erigonek* ere bere burua hil zuen eta izar-multzoz bihurtu zen (*Astraea* izenez ere ezaguna da). *Chelas*: berez, arrabioaren besoak (χτλαί). *sequentis*: ikur hau *Virgori* (*Erigoneri*) jarraitzen zaiolako.

(36) *Tartara*: hildakoen erreinua.

bezala, zeure burua gehi diezaiezun hil astitsuei, Erigone eta honi jarraitzen dioten Chelasen artean zabaltzen den to-
 kian? —Arrabioak berak, irrikan, besoak estutzen ditu ja,
 35 eta lege den baino zati handiagoa utzi dizu zeruan—; izan-
 go zarena izango zarela —ezen ez zaituzte errege itxaroten
 Tartaroek, eta ez dakizula etor errege izateko hain desio as-
 turugaitzekoa, Greciak elysioar zelaia miresten baditu ere
 eta Proserpina, deituta, bere amari jarraitzeaz arduratzen ez
 40 bada ere—, emaidazu bide erraza eta onets itzazu hasiera
 ausart hauek: zatoz hona, bidea ezagutzen ez duten baserri-
 tarrez errukitua, nirekin batera, eta ohi zaitetz hemendik aurre-
 ra otoitzetan deitua izaten.

Udaberria hastean busti izoztua mendi zuristetatik ur-
 tzen denean eta mokor banakatua Zephyroarekin desegiten
 45 denean, orduan has bedi ja orroka, goldea sartuta, zezena,
 eta golde-muturra, ildoak andegatua, distiratzten has bedi.
 Lur harexek erantzungo die azkenean nekazari zekenaren
 nahiei, eguzkia bi bider, hotzak bi bider sentitu dituenak;
 haren uzta eskergek lehertu dituzte aletegiak. Eta lau ezeza-
 50 guna burniarekin urratu baino lehenago, izan dadila ardura

(38) *Elysios... campos*: Tartaroan, hildako heroien eta gizon onen egoitza.

(39) *Proserpina*: erromatarrentzat, infernuetako jainkosa. *nec repetita sequi curet... matrem*: Proserpina Plutonek bahitu zuen emaztetzat hartzeko, eta bere erreinua zen infernura eraman zuen; Proserpinaren amak (Ceresek) bere alaba berreskuratu nahi zuen baina hark ez zuen amarengana joan nahi ez bazen urtearen zati baterako bakarrik.

(44) *Zephyro*: mendebaldetik haizea, udaberriaren seinaleztat hartzen zen (otsailaren hasieran hasten delako ibiltzen); kausazko ablatiboa edo, oro har, instrumental.

(45) *taurus*: idiaren ordezt, nekazariaren bizimodua eta lanabesak diren baino gogorragoak izango balira bezala.

(47) *demum*: «dilla seges»-ekin.

(48) *bis quae solem, bis frigora sensit*: askoren ustez, lugorria lau biderrez goldatzen zen, bi udan eta bi neguan.

(49) *illius*: sc. *segetis*.

(50) *prius... quam priusquam. ferro*: goldea alegia.

GEORGICON I

ventos et varium caeli praediscere morem
 cura sit ac patrios cultusque habitusque locorum
 et quid quaeque ferat regio et quid quaeque recuset.
 Hic segetes, illic veniunt felicius uvae,
 arborei fetus alibi atque iniussa virescunt 55
 gramina. Nonne vides, croceos ut Tmolus odores,
 India mittit ebur, molles sua tura Sabaei,
 at Chalybes nudi ferrum virosaque Pontus
 castorea, Eliadum palmas Epiros equarum?
 Continuo has leges aeternaque foedera certis 60
 imposuit natura locis, quo tempore primum
 Deucalion vacuum lapides iactavit in orbem,
 unde homines nati, durum genus. Ergo age, terrae
 pingue solum primis extemplo a mensibus anni
 fortes invortant tauri, glaebasque iacentis 65
 pulverulenta coquat maturis solibus aestas;
 at si non fuerit tellus fecunda, sub ipsum
 Arcturum tenui sat erit suspendere sulco:
 illic, officiant laetis ne frugibus herbae,
 hic, sterilem exiguus ne deserat umor harenam. 70

56 Tmolus M²ω, ps. *Probus, Serv.* : Molus AMefrv, Molos P, *Porph. Hor. Sat. II, iv, 68*, Imolus R, moles γ || 57 mittit AMP²Rωγ, *Sen. Epist. 87, 20, ps. Acro Hor. Carm. I, xxxi, 6, GLK VIII, 177, 1, ps. Probus, Serv., DServ.* : mittet P, mittat M¹ (*corr. M²*) cr || 60 alternaque P || 64 a om. Abcr || 66 solibus] frugibus R, ex v. 69

(56) *Tmolus*: Lydiako mendia; azafraia ordea Cilician dagoen Coryco mendian ematen zen gehienbat: edo Virgilioren hutsa da aipamen hau edo, antzinateko zenbait iruzkinlarik nahi zuten bezala, «vinum Tmoleiticum crocei odoris» (Serv.) esan nahi du (Tmolo ardoagatik zelako famatua).

(57) *Sabaei*: Sabakoak, alegia Arabiako hego-mendebaldekoak. *molles*: erromatarrentzat asiarrak guztiak ziren bezala (edota gauza leunak ematen dituen lurrekoak ere leunak izan behar dutelako).

haizeak eta zeruaren jokaera aldakorra aldez aurretik ezagutzeko, eta lekuen berezko lantze eta izaerak, eta lurralde bakoitzak zer ematen duen eta bakoitzak zer onartzen ez. Hemen alea dator ugariago, han mahatsak; beste nonbait
 55 arboletako fruituak eta zelai agindugabeak berdatzen dira. Ez al duzu ikusten Tmolok azafrai usainak bidaltzen dituela, Indiak marfila, sabar biguinek beren intsentsuak, chalybear biluziek aldiz burnia eta Pontok kastorki kiratsak, Epirok
 60 behor elidearren palmak? Lege hauek eta itun betiraun hauek ezarri zizkien izadiak leku jakinei, Deucalionek lehenengo aldiz harriak mundu hutsera bota zituenetik bertatik, zeinetik gizonak —enda gogorra— jaio baitziren. Beraz ekin, iraul dezatela berehala lur lodia zezen indartsuek urteko
 65 lehenengo hiletatik, eta egin diren mokorrrak egos ditzala uda hausdunak bere eguzki ongarriekin; baina lurra joria ez balitz, nahikoa izango da Arcturoren beraren mendean ildo mehe bat egitea: han, uzta emankorrrak ez ditzaten belarrek
 70 ito; hemen, busti urriak ez dezan hondar antzutik ihes egin.

(58) *Chalybes*: Ponto Euxinoko hego ekialdeko kostaldean bizi zen herria; biluzik daude burdingintzan aritzen direlako. *virosaque... castorea*: kastorren gorputzaren zerbaitekin egindako sendagaiak, oso kirats txarrekoak.

(59) *Eliadum*: *Elias*, *-adis*, Elidekoa, Peloponnesoko mendebaldeko hiria eta lurraldea, non Olympia baitzegoen; hemen, beraz, berdin 'olympiarra' edo 'Olympiako jokoetan parte hartzen duena'. *palmas*: Olympiako jokoetan lortzen zen garai-penaren ikurra. *Epiros*: nominatibo singularra; Greciako ipar mendebala, non zaldi bereziki onak hezitzen baitziren.

(60) *Continuo*: 61eko «quo tempore»-rekin doa. (Zentzua hau da: urrezko aroa bukatu zenetik).

(62) *Deucalion*: ikus *Ecl.* VI, 41.

(65) *tauri*: ikus, gorago, *Georg.* I, 45.

(67) *at si non fuerit tellus fecunda*: 64ko «pingue solum»-i kontrajarria.

(68) *Arcturum*: Itzainaren izar-multzooan dagoen oso izar distiratsua: irailaren 5ean eta otsailaren 13an sortzen da eta urriaren 29an eta maiatzaren 22an sartu.

(69) *illic*: «pingue solum» (64) dagoenean.

(70) *hic*: «si non fuerit tellus fecunda» (67).

GEORGICON I

Alternis idem tonsas cessare novalis
 et segnem patiere situ durescere campum;
 aut ibi flava seres mutato sidere farra,
 unde prius laetum siliqua quassante legumen
 aut tenuis fetus viciae tristisque lupini 75
 sustuleris fragilis calamos silvamque sonantem.
 Urit enim lini campum seges, urit avenae,
 urunt Lethaeo perfusa papavera somno;
 sed tamen alternis facilis labor, arida tantum
 ne saturare fimo pingui pudeat sola neve 80
 effectos cinerem immundum iactare per agros.
 Sic quoque mutatis requiescunt fetibus arva,
 nec nulla interea est inaratae gratia terrae.
 Saepe etiam sterilis incendere profuit agros
 atque levem stipulam crepitantibus urere flammis: 85
 sive inde occultas viris et pabula terrae
 pingua concipiunt, sive illis omne per ignem
 excoquitur vitium atque exsudat inutilis umor,
 seu pluris calor ille vias et caeca relaxat
 spiramenta, novas veniat qua sucus in herbas, 90
 seu durat magis et venas adstringit hiantis,
 ne tenues pluviae rapidive potentia solis
 acrior aut Boreae penetrabile frigus adurat.

73 sidere] semine R || 81 effectos Ry || 82 requiescent R

(71) *alternis*: sc. *vicibus*.

(71-72) *patiere cessare et durescere*.

(73-74) *ibi... unde*.

(74) *siliqua quassante*: kalitatezko ablatiboa.

(75) *aut*: ez doa 73ko «aut»-ekin batera. *tristisque*: seguruenik 'mikatzat'.

(76) *fragilis calamos silvamque sonantem*: *bendiadyoin* (*silvam calamorum*-en zentzuarekin).

GEORGİKAK I

Aldizka, lugorri moztuak atsedeten eta landa alferra egonean gogortzen sofrituko dituzu; edo, izar-multzoa aldatu denean, gari horailak ereingo dituzu lehenago leka arrakalaridun barazki ugari hartu zenuen lekuan edo ilarraren fruitu txikiak edo hostatxa tristearen kanabera hauskorrak eta baso zaratatsua. Izan ere, lihoaren aleak erre egiten du landa, erre egiten du oloarenak, erre egiten dute lethear loguran bustitako lo-belarrek, txandakakoekin ordea erraza da lana, lotsarik ez bada lur lehorrak simaur lodiaz asetzeko edo soro agortuetatik errauts zikina botatzeko. Horrela, uzta aldatur, alorrek ere atsedean hartzen dute, eta bitartean ez da goldatu gabeko lurraren etekin eza. Askotan onerako izan da baita soro antzuei su ematea ere eta galtzu arina sugar zapartariekin erretzea: dela lurrek indar ezkutuak eta bazka guriak hartzen dituztela hortik, dela suaren bitartez gaitz gutzia ateratzen zaiela eta busti behargabea lurrindu, dela bero horrek bide gehiago eta haizebide itsuak zabal-tzen dituela zeinetik zukua etor baitakien belar berriei, dela gehiago gogortzen duela eta zain zabalduak estutzen dituela, euri meheek kalte egin ez diezaieten edo eguzki lasterraren ahalmen zorrotzegiak edo Boreasen hotz sarkorrak erre ez di-

(78) *Lethaeo*: Lethekoa, infernuko ibaia, dena ahantzaztzen zion handik edaten zuenari.

(79) *alternis*: sc. *frugibus* edo antzeko zerbait. *tantum*: hurrengo lerroko «ne... pudeat... neve (pudeat)»-ekin.

(84-93) 84ko «*profuit*»-en arrazoiak hauek dira: «*sive*» (86), «*sive*» (87), «*seu*» (89), «*seu*» (91).

(86) *inde*: su ematetik.

(91) *durat*, *adstringit*: 89ko «*calor*» da subjektua.

(92) *ne tenues pluviae*: 93ko «*adurat*» ez den aditz bat suposatu behar da hemen: zentzuak 'kalte egin' edo antzeko zerbait izan behar du. *rapitive*: *rapidus*, *qui rapit* (cf. *Ecl.* II, 10).

Multum adeo, rastris glaebas qui frangit inertis
 vimineasque trahit cratis, iuvat arva, neque illum 95
 flava Ceres alto nequiquam spectat Olympo,
 et qui, proscisso quae suscitatur aequore terga,
 rursus in obliquom verso perrumpit aratro
 exercetque frequens tellurem atque imperat arvis.
 Umida solstitia atque hiemes orate serenas, 100
 agricolae; hiberno laetissima pulvere farra,
 laetus ager. Nullo tantum se Mysia cultu
 iactat et ipsa suas mirantur Gargara messes.
 Quid dicam, iacto qui semine comminus arva
 insequitur cumulosque ruit male pinguis harenae, 105
 deinde satis fluvium inducit rivosque sequentis
 et, cum exustus ager morientibus aestuat herbis,
 ecce supercilio clivosi tramitis undam
 elicit? illa cadens raucum per leviam murmur
 saxa ciet scatebrisque arentia temperat arva. 110
 Quid qui, ne gravidis procumbat culmus aristis,
 luxuriam segetum tenera depascit in herba,
 cum primum sulcos aequant sata, quique paludis
 collectum umorem bibula deducit harena?

102 Mysia MPRab?rtv, *Maer.* V, xx, 1, *Non.* 340, 33, ps. *Probus* : Misia γ, Moe-
 sia AP³ω, *schol. Bern.*, *DServ. hic et Aen.* I, 140 || 103 iactet *DServ. Aen.* I, 140, ps.
Probus miratur P¹, mirentur ps. *Probus* || 106 sequentis] fluentes R || 114 di-
 ducit A, *Bossler*

(94-98) *multum iuvat arva qui frangit... et trahit... et qui verso aratro* (absolutua
 nahiz instrumental) *in obliquom perrumpit rursus terga quae suscitatur aequore proscisso.*

(97) *proscisso... aequore:* lehenengo goldaketa.

(97-99) *et qui... perrumpit... exercetque... atque imperat:* «iuvat arva»-ren subjek-
 tuak hauek ere.

(100) *solstitia:* baliteke 'uda', besterik gabe, esan nahi izatea hemen.

tzaten. Batez ere, asko laguntzen die soroei eskuareekin mo-
 95 kor alferrekoak puskatzen dituenak eta zumezko arrasteluak
 herrestatzen dituenak —honi Ceres horailak ez dio alferrik
 begiratzen Olympo goitik— eta, laua arrailatuta goldeak al-
 txatzen dituen bizkarrak birrintzen dituenak goldea berriz
 zeharka itzulita, eta lurra sarri lantzen duenak, eta alorrei
 agintzen dienak.

100 Udaburu bustiak eta negu garbiak eska itzazue, nekaza-
 riok; neguko hautsak dakartza gari oparoenak, lur oparoa.
 Lantzerik gabe dago hain harro Mysia, eta Gargarok berak
 miresten ditu bere uztak. Zer esan, hazia botata soroei hurre-
 105 tik jarraitzen dienaz eta hondar tontorrek —nekez joriak—
 apaltzen dituenaz, gero ibaia eta honi jarraitzen dizkioten
 errekak ereintzetara zuzentzen dituenaz eta, lur kiskalia —be-
 larrak hiltzen daudela— bero denean, bide-zidor aldapatsu
 baten goialdetik ura dakarrenaz? Honek, harri lauetatik eror-
 110 tzean, marmar erlatsa sortzen du eta bere jauziekin soro le-
 horrak lasaitzen ditu. Zer, uzten gehiegikeria —belar samurra
 deino— bazkarazten duenaz, lastoa ez dadin etzan galburu
 pisuengatik, ereindakoek ildoak berdintzen dituzten bezain
 laster, eta aintzira batean bildu bustia hondar edalez ateratzen

(101-102) Esaldi nominalak: «hiberno pulvere» «laetissima» eta «laetus»-ekin
 doa (instrumentala).

(102) *Mysia*: Asia Txikiko ipar mendebaldeko lurraldea, non Troja eta Gargara
 mendia (Ida mendiaren gailur bat) baitzeuden. *Nulla tantum se Mysia cultu*: honen
 zentzua (antzinatetik izan da eztabaidatuta) honelako zerbait izan daiteke: eguraldi
 egoki batekin bakarrik oso emaitza ikusgarriak lor daitezke, Mysian, batere lantzerik
 gabe, gertatzen omen den bezala.

(104) *Quid dicam... qui*: sc. *quid dicam de eo qui...* (edo, batzuen ustez, *quid dicam eum*).

(105) *male pinguis*: *pinguis* ez dena.

(106) *satis*: datüboa. *fluvium... rivosque sequentis*: *bendiadyoin*.

(111) *Quid qui*: sc. *quid de eo qui. gravidis... aristis*: kausazkoa.

(114) *bibula... arena*: instrumentala.

praesertim incertis si mensibus amnis abundans 115
 exit et obducto late tenet omnia limo,
 unde cavae tepido sudant umore lacunae.
 Nec tamen, haec cum sint hominumque boumque labores
 versando terram experti, nihil improbus anser
 Strymoniaeque grues et amaris intiba fibris 120
 officiant aut umbra nocet. Pater ipse colendi
 haud facilem esse viam voluit primusque per artem
 movit agros, curis acuens mortalia corda
 nec torpere gravi passus sua regna veterno.
 Ante Iovem nulli subigebant arva coloni; 125
 ne signare quidem aut partiri limite campum
 fas erat; in medium quaerebant, ipsaque tellus
 omnia liberius nullo poscente ferebat.
 Ille malum virus serpentibus addidit atris
 praedarique lupos iussit pontumque moveri 130
 mellaque decussit foliis ignemque removit
 et passim rivis currentia vina repressit,
 ut varias usus meditando extunderet artis
 paulatim et sulcis frumenti quaereret herbam,
 ut silicis venis abstrusum excuderet ignem. 135
 Tunc alnos primum fluvii sensere cavatas;
 navita tum stellis numeros et nomina fecit

133 extruderet P², extuderet fhγ, excuderet br || 135 ut] et A, *Wagner*

(118-119) *Nec... nihil* (119): baiezkoa, beraz (121eko «officiunt» eta «nocet»-ekin).
cum sint... experti: cum experti sint, subjektua «labores» dela.

(120) *Strymoniaeque*: Strymonekoa, Thraciako ibaia; han gelditzen ziren hegoal-
 detik iparraldera (eta alderantziz) zihoazen kurrilo asko.

(121) *Pater*: Jupiter: ja Hesiodorengan lan egin beharra Zeusen mendekua da.

115 duenaz? batik bat zalantzazko hiletan ibai batek, beteta, gainez egiten baldin badu eta zabal barreiatutako lokatzez hartua baldin badauka dena, nondik putzu sakonak busti epelez izerditzen baitira.

Hala ere, gizonen eta ganaduen lanek guzti hauek jasan badituzte ere lurra iraultzean, antzara gaiztoak eta strymondar kurriloek eta zuntz mikatzak dituzten txikoriek ere oztopo egiten dute, edo gerizak egiten du kalte. Aitak berak nahi izan zuen nekazaritzaren bidea erraza izan ez zedin, eta, lehenena, lurrak antzearen bitartez mugitu zituen, hilkorren bihotzak ardurekin zorrotzuz eta bere erreinuak astuntasun pisu batez baldar zitezen pairatzeke. Jupiter baino
125 lehenago ez zen alorrak lantzen zituen nekazaririk; ez zen zilegi ezta landa zedarritzea ere edo muga baten bidez zati-tu; erkidean irabazten zuten, eta lurrak, berez, inork eskatu gabe, eskuzabalago ematen zuen denetik. Hark gehitu zien
130 pozoï gaiztoa suge beltzei eta otsoei harrapatzeko agindu eta itsasoari mugitzeko, eta ezta hostoetatik erauzi eta sua gorde, eta alde guztietatik ibaietan zebiltzan ardoak gelditu, beharrak, aritzean, antze askotarikoak asma zitzaizkion piskaka eta gariaren belarra ildoetan bila zezan eta suharri-mehatzetan
135 ezkututatuko sua atera zezan. Ibaiek orduan sentitu zituzten lehenengoz haltz hustuak; marinelak orduan ipini zizkien ize-

(122) *per artem*: laborantzarena alegia.

(125) *Ante Iovem*: hau da, Saturnoren garaian edo, gauza bera dena, urrezko aroan.

(131) *mellaque decussit foliis*: ikus *Ecl.* IV, 30.

(133) *usus*: χρέετα.

(136) *alnos... cavatas*: lehenengo itsasontziak nonbait (haltzak ibai ertzetan hazten dira).

Pleiadas, Hyadas claramque Lycaonis Arcton;
 tum laqueis captare feras et fallere visco
 inventum et magnos canibus circumdare saltus; 140
 atque alius latum funda iam verberat amnem
 alta petens, pelagoque alius trahit umida lina;
 tum ferri rigor atque argutae lammina serrae
 (nam primi cuneis scindebant fissile lignum),
 tum variae venere artes. Labor omnia vicit 145
 improbus et duris urgens in rebus egestas.
 Prima Ceres ferro mortalis vertere terram
 instituit, cum iam glandes atque arbuta sacrae
 deficerent silvae et victum Dodona negaret.
 Mox et frumentis labor additus, ut mala culmos 150
 esset robigo segnisque horreret in arvis
 carduus; intereunt segetes, subit aspera silva,
 lappaeque tribolique, interque nitentia culta
 infelix lolium et steriles dominantur avenae.
 Quod nisi et adsiduis herbam insectabere rastris 155
 et sonitu terrebis aves et ruris opaci
 falce premes umbras votisque vocaveris imbrem,

139 tunc M (corr. M¹) c, *Sen. Epist.* 90, 11 || 145 vincit cd || 146 urgens M¹P²Rωγ, *Serv.* : surgens AMPa || 155 herbam Mωγ : terram APRadn, *ex v.* 119 || 157 umbram MRfy, *Non.* 365, 26, *Serv. hic et Ecl. X,* 76, *Sabbadini, Funaioli* : umbras APω, *schol. Bern., Ansil. RU 189, Ribbeck, Mynors*

(138) *Pleiadas, Hyadas claramque... Arcton*: 137ko «nominā»-ren aposizioak. *Pleiadas*: lau silaba ditu hemen (eta azken silaba, greciar akusatibo plural bati laburra badagokio ere, luzea da *productio ob caesuram* batengatik): Zezenaren bizkarraren gainean dauden zazpi izarrak; izar-multzo hau goizean igotzen zenean (apirilaren 22tik maiatzaren 10era) itsasketarako sasoi egokiena hasten zen, eta goizean beharutzen zenean (urriaren 28tik azaroaren 9ra) bukatu egiten zen; ikus behegera, *Georg.* I, 221. *Hyadas*: Zezenaren buruaren gainean dauden zazpi izarrak; hauen mugimenduen arabera euria igartzen saiatzen ziren antzinatean. *claramque Lycaonis Arcton*: sc. *Lycao-*

nak eta zenbakiak izarrei: Pleiadeak, Hyastarrak eta Lycaonen
 Hartz argia; orduan asmatu zen piztiak artez harrapatzen eta
 140 likaz engainatzen eta baso handiak zakurrez inguratzen; eta
 batek erreka zabala zigortzen du sarearekin, hondoa bila-
 tzen, eta beste batek itsasotik dakartza liho bustiak; orduan
 etorri ziren burniaren zurruntasuna eta zerra berritsuaren
 hostoa (ezen lehenengoek ziriez arrailatzen zuten egur pi-
 145 tzagarria), orduan antze askotarikoak. Oro bentzutu zuen
 lan tematsuak eta gauza gogorretako gabezia estugarriak.

Ceresek lehenena irakatsi zien hilkorrei lurra burniz iraul-
 tzen, ezkurrak eta gurbitzak ja eskas zituztenean baso sa-
 kratuek eta Dodonak janaria ukatzen zuenean. Gariei ere
 150 laster gehitu zitzairen gaitz bat, herdoil gaiztoak lastoak jaten
 zituela eta kardabera alferra lastu egiten zela soroetan; gal-
 tzen dira uztak, hurrantzen da baso lakarra, lapatzak eta la-
 parrak, eta landutako lur apainen artean zorigaiztoko iraka
 eta olo antzuak nagusitzen dira. Horregatik, belarrari ez ba-
 155 diozu erasotzen eskuare sarritakoekin eta txoriak ez baditu-
 zu zaratarekin bildurtzen eta landa gerizpetsuaren itzala ez
 baduzu igitaiarekin estutzen eta euriari ez badiozu otoitze-

nis filiam; Callisto, Lycaonen alaba, Hartz Handia: itsasketa dena honen arabera antolatzen zen.

(140) *inventum: inventum est*, eta honen subjektuak dira «captare», «fallere» eta «circumdare».

(147) *Ceres*: ikus *Ecl.* V, 79.

(149) *silvae*: ulertu izan da nominatibo plurala izango balitz bezala, genitibo singularra edo datibo singularra. *Dodona*: alegia, Dodonako arbolak, hau da, haritzak edo arteak.

(150) *ut*: «dabon»-en azalpena.

(153) *lappaeque tribolique*: 152ko «silva»-ren aposizioa; *lappaeque*: azken silaba luzea da, Homerorengan aurkitzen den bitxikeria prosodikoko baten imitazioa den *productio ob caesuram* batengatik (cf. *Ecl.* IV, 51).

(154) Lerro hau ia-ia *Ecl.* V, 37 bera da.

heu magnum alterius frustra spectabis acervom
 concussaue famem in silvis solabere quercu.

Dicendum et quae sint duris agrestibus arma, 160
 quis sine nec potuere seri nec surgere messes:
 vomis et inflexi primum grave robur aratri
 tardaue Eleusinae matris volventia plaustra
 tribulaue traheaeque et iniquo pondere rastri,
 virgea praeterea Celei vilisque supellex, 165
 arbuteae crates et mystica vannus Iacchi;
 omnia quae multo ante memor provisa repones,
 si te digna manet divini gloria ruris.

Continuo in silvis magna vi flexa domatur
 in burim et curvi formam accipit ulmus aratri; 170
 huic a stirpe pedes temo protentus in octo,
 binae aures, duplici aptantur dentalia dorso.
 Caeditur et tilia ante iugo levis altaue fagus
 stivaue, quae currus a tergo torqueat imos,
 et suspensa focus explorat robora fumus. 175

Possum multa tibi veterum praecepta referre,
 ni refugis tenuisque piget cognoscere curas.
 Area cum primis ingenti aequanda cylindro

161 messes MR, *Mynors* : messis (*nom. plur.*) AP, *Geymonat* || 164 traheaeque PRbdnr, *Non.* 228, 28, *Serv.*, *DServ.* : trahaeque AM²ω, *Philarg.*, traheque May || 166 vannus AMPωγ, *Philarg.* : vallus R, *Sabbadini*, *Ansil. VA 149* || 175 explorat MPRωγ, *Non.* 294, 17, *Philarg.*, *Serv.* : exploret AM¹chn || 178 primum a¹cefh colindro ex colindri A, cylindro est P²

(161) *quis sine: sine quibus.*

(163) *Eleusinae matris*: Ceres; «Eleusinae» *Eleusinae*-ren ordez, azken hau ez baita lerroan sartzen; Eleusisen ziren Demeterren (erromatar Ceresen) ohorean egi-ten ziren misterioak.

(164) *tribulaue*: azken silaba luzea da: ikus, gorago, *Georg.* I, 153.

kin hots egiten, ene, alferrik ikusiko duzu beste baten meta handia, eta gosea haritz astindu batez hilko duzu basoetan.

- 160 Esan behar da halaber zein arma duten baserritar gogorrek, zein gabe uztak ezin baitziren ez erein ez hazi: lehenengo, golde-muturra eta golde kakotuaren egur astuna, eta astiro dabiltzan ama eleusistarraren gurdiak, trailuak eta sardak eta pisu desorekatuko eskuareak, baita Celeoren zumezko tresna apala ere, gurbitezko arrasteluak eta Iacchoren bahe mistikoa; gogoratuko zara hauek guztiak askoz lehenago izaten prestatuta, baldin jainkozko lurraren loriak merezituta itxaroten bazaitu. Lehenik, zumar bat menderatzen da basoan, indar handiz kakoaren modura malgututa,
- 170 eta golde okertuaren itxura hartzen du; oinarritik eusten zaizkio honi giderra, zortzi hankako luzerakoa, bi belarriak eta bizkar bikoitzeko golde-zura. Ezki bat ere ebakitzen da lehenago, arina, uztarriarentzat, eta pago altu bat, endaitza, honek gurdiaren azpialdeak bira ditzan atzetik, eta keak frogatzen ditu sukaldean zintzilikatutako egurrak.

Zaharren gomendio asko aipa diezazuket, ardura txiki hauek ezagutzea ez baduzu saihesten eta ez bazara asperetzen. Larraina, ezer baino lehenago, alper eskerga batekin

(165) *Celei*: Celeo, lurretik jaiotako Eleusisen semea eta bertako lehenengo erregea, Triptolemoren aita: Ceresek laborantza irakatsi zion (beste iturri batzuen arabera Triptolemo izan zen Ceresengandik ikasi zuena).

(166) *mystica vannus*: bahea mistikoa da Bacchoren (hau da, Iacchoren) ohorean egiten ziren segizioetan eramaten zelako, garbiketaren ikur gisa. *Iacchi*: Iacchoren irudi bat egoten zen Athenasetik Eleusisera zihoan segizioaren buruan.

(167) *multo ante*: horien beharra izan baino.

(171) *huic*: zumarrari.

(172) *duplici... dorso*: kalitatezko ablatiboa, «dentalia»-rekin.

(173) *ante*: adberbioa. *ingo*: datiboa.

(174) *stivaque*: edo 173ko «altaque fagus»-en aposizioa edo, beronekin batera, *bendiadyoin*.

(178) *cum primis*: «cumprimis» dicebant pro eo quod est 'imprimis' (Aulo Gellio, XVII, ii, 14).

et vertenda manu et creta solidanda tenaci,
 ne subeant herbae neu pulvere victa fatiscat, 180
 tum variae inludant pestes: saepe exiguus mus
 sub terris posuitque domos atque horrea fecit,
 aut oculis capti fodere cubilia talpae,
 inventusque cavis bufo et quae plurima terrae
 monstra ferunt, populatque ingentem farris acervom 185
 curculio atque inopi metuens formica senectae.
 Contemplator item, cum se nux plurima silvis
 induet in florem et ramos curvabit olentis:
 si superant fetus, pariter frumenta sequentur
 magnaque cum magno veniet tritura calore; 190
 at si luxuria foliorum exuberat umbra,
 nequiquam pinguis palea teret area culmos.
 Semina vidi equidem multos medicare serentis
 et nitro prius et nigra perfundere amurca,
 grandior ut fetus siliquis fallacibus esset 195
 et quamvis igni exiguo properata maderent.
 Vidi lecta diu et multo spectata labore
 degenerare tamen, ni vis humana quotannis
 maxima quaeque manu legeret; sic omnia fatis
 in peius ruere ac retro sublapsa referri, 200
 non aliter quam qui adverso vix flumine lembum

181 inludant MPRωγ, *schol. Bern.* : inludunt M²P²c, *Serv.*, ludunt A || 187 nux
 se A, se nox P (*corr.* P²) || 188 induit γ, *Arus.* 479, 17, *Rufin.* 57, 14 || 192 paleae
schol. Bern., *quidam ap. DServ.* terpt P (*corr.* P²), terit Rb || 200 ac AMRωγ, *Co-*
lum. II, ix, 12 et III, x, 18, *Gell.* X, xxxix, 4 (*ut Aen.* II, 169) : et Pbcfhr

(183) *oculis capti*: satorrak itsuak zirela uste zuten.

(184-185) *quae plurima terrae monstra ferunt*: monstra quae terrae ferunt plurima.

GEORGIKAK I

berdindu behar da, eta eskuz irauli eta klera itsaskorrez go-
 180 gortu, ez daitezen belarrak sor eta ez dadin arraila hautsak
 garaitua eta orduan askotariko gaitzek iseka egin ez diezazu-
 ten: askotan sagu txikiak etxea ipintzen du lurraren azpian
 eta aletegiak egiten ditu, edo sator itsuek habiak zulatzen
 dituzte, eta apoa ere aurkitzen da hutsuneetan eta lurrek
 185 ematen duten zomorro asko, eta gari-meta eskerga honda-
 tzen du zedenak eta zahartzaro txiroari beldurra dion txin-
 durriak. Begira ezazu halaber almendroa basoetan lorez
 ugari jar dadinean eta adar usaintsuak makur ditzanean:
 fruituak gehiago baldin badira, berdintsu jarraituko diete ga-
 190 riek eta etorriko da, bero handiarekin, eultzi handi bat; bai-
 na geriza oparo bada hostoen gehiegikeriagatik, alferrik joko
 ditu larrainak galtzu lastoz joriak. Asko ikusi ditut baita ere
 ereintzean haziak tratatzen eta lehenago gatzuz bustitzen
 eta olioaren hondar beltzez, fruitua handiagoa izan dadin
 195 leka gezurtietan eta, su urriekin bada ere, azkar biguin dai-
 tezen. Luzaro aukeratuak eta lan askorekin zainduak ikusi
 ditut endekatzen hala ere, gizonaren indarrak ez bazituen
 urtero handienak eskuz apartatzen; horrela, gauza guztiak
 200 txarrera oldartzen dira halabeharrez eta, erorita, atzeraka
 egiten dute. Ez zaio bestela gertatzen ibai-lasterraren aurka
 txalupa bat arraunekin ozta daramanari, besoak ustekabean

(186) *inopi... senectae*: datiboa.

(187) *silvis*: ablatibo lokatiboa.

(192) *pinguis... culmos*: elkarrekin doaz (biak akusatiboak dira). *palea*: ablatiboa, «pinguis»-en mendean dago, 'lastoz joriak' (ironiaz).

(195) *siliquis fallacibus*: edo ablatibo lokatiboa edo edutezko datiboa.

(199) *fatis*: kausazkoa edo, oro har, instrumentala.

(200) *ruere... referrri*: edo *infinitivus admirantis* edo *narrationis* (hau da, historikoak), edo agian 197ko «vidi»-ren mendekoak.

remigiis subigit, si bracchia forte remisit,
atque illum in praecipis prono rapit alveus amni.

Praeterea tam sunt Arcturi sidera nobis
Haedorumque dies servandi et lucidus Anguis, 205
quam quibus in patriam ventosa per aequora vectis
Pontus et ostriferi fauces temptantur Abydi.
Libra dies somnique pares ubi fecerit horas
et medium luci atque umbris iam dividit orbem,
exercete, viri, tauros, serite hordea campis 210
usque sub extremum brumae intractabilis imbrem;
nec non et lini segetem et Cereale papaver
tempus humo tegere et iamdudum incumbere aratris,
dum sicca tellure licet, dum nubila pendent.
Vere fabis satio; tum te quoque, Medica, putres 215
accipiunt sulci, et milio venit annua cura,
candidus auratis aperit cum cornibus annum
Taurus et averso cedens Canis occidit astro.
At si triticeam in messem robustaque farra
exercebis humum solisque instabis aristis, 220

203 in *om.* P, *Ribbeck*, prono inceptus R, prono in preceptus R⁴, in praecipis prono *Gell.* X, xxxix, 4, *Non.* 530, 6, *ps. Acro Hor. Carm. III, xxxix, 34, D.Serv. hic et Aen. IV, 424* || 208 dies b, *quidam ap. Gell. IX, xiv, 7* : die AMPωγ, *Gramm., Don. Ter. Andr. 430, adn. Lucan. VIII, 467, schol. Pers. V, 47, Philarg., Serv. hic et Aen. I, 156 et 470, diei Rr, ps. Probus, dii M^l, Auson. VII, vii, 31 (cf. Aen. I, 636, Char. 126, 31, Cic. Sest. XII, 28)* || 209 dividet Rbry || 213 aratris MPωγ : rastris AM²P⁴Rbd || 215 putres MPR, *Mynors* : putris (*nom. plur.*) A, *Geymonat* || 218 averso APRωγ, *ps. Probus* : adverso Mn, *Macr. Somn. I, xviii, 15, alii ap. Serv., Heyne*

(204) *Arcturi*: ikus *Georg. I, 68.*

(205) *Haedorum*: Antxumeak, bi izar, apirilaren 25ean eta irailaren 27tik 29ra sortzen dira, ekaitzen iragarpentzat hartzen dira. *Anguis*: Herensugea, bi Hartzen artean dagoen izarra.

(206) *quam quibus*: quam iis (dat.) quibus... temptantur (207).

(207) *fauces... Abydi*: Hellesponto alegia. *Abydi*: Abydo, Hellespontoren ekialdeko kostaldean dagoen herria.

laxatzen baditu: ibai-hondoak herrestatu egiten du bere ur amilduan behera.

Honetaz landa, Arcturoko izarrei eta Antxumeen egunei
 205 eta Herensuge argitsuari begiratu behar diegu, sorterrira
 itsaso haizetsuetan gandi ekarrita Ponto eta Abydoko ez-
 tarri ostradunak haztatzen dituztenek adina. Librak egunak
 eta lotarako orduak berdinak egin ditzanean eta zero-lurrak
 argiarentzat eta gerizentzat erdi bana zati, ibilarazi itzazue,
 210 gizonok, zezenak, erein itzazue garagarrak soroetan neguburu
 jasanezineko lehenengo euriraino; sasoiak da halaber li-
 hoaren alea eta Cerestar lo-belarra lurrekin estaltzeko eta ja
 goldeen gainean makurtzeko, lur lehorrarekin ahal den bi-
 tartean, lainoak zintzilika dauden bitartean. Udaberrian da
 215 ereintza babentzat; orduan zu ere, mediarra, hartuko zaituz-
 te ildo ustelduek, eta artatxikiari datorkio urteroko zainketa,
 Taurok, bere urre koloreko adarrekin distiratsu, urtea has-
 ten duenean eta Zakurra, izarra biratuta gibelatuz, hiltzen
 denean. Baina gari-uztarako eta alaga gogorretarako landu
(490) *Philippi*: Macedoniako hiria, hemen borrokatu zuten, K.a. 42garren urte-
 ko urriaren 23an, alde batetik Octavianok eta Marco Antoniok eta, bestaldetik,
 Brutok eta Cassiok (Julio Cesar hil zutenak).

(491) *superis*: seguruenik *dativus indicantis*. *bis*: lehenengo aldia Pharsaloko gudal-
 dia izan zen (K.a. 48an, Julio Cesar eta Pompeioren artean), Pharsalo ere, nahiz eta
 Philipposetik oso gertu ez egon, Macedonian dagoelako. (Eta «bis» hau 490eko
 «iterum» hura 'bigarrenez' bezala ulertzearen aldeko datua da). Batzuen ustez, he-
 men aipatzen diren bi gudaldiak Philipposekoak dira, bi borrokaldi egon baitziren:
 Augustok berak horrela aurkezten du kontua bere *Res gestae*-etan (II): «...vici bis»,
 honetaz ari delarik.

(492) *Emathiam*: Macedoniako kostaldeko lurraldea (sinekdokea). *Haemi*:
 Hemo mendia, Thracian.

(494) *terram*: «molitus»-en osagarri zuzena.

Di patrii, Indigetes et Romule Vestaque mater,
 quae Tuscum Tiberim et Romana Palatia servas,
 hunc saltem everso iuvenem succurrere saeclo 500
 ne prohibete! Satis iam pridem sanguine nostro
 Laomedontae luimus periuria Troiae;
 iam pridem nobis caeli te regia, Caesar,
 invidet atque hominum queritur curare triumphos,
 quippe ubi fas versum atque nefas: tot bella per orbem, 505
 tam multae scelerum facies; non ullus aratro
 dignus honos; squalent abductis arva colonis
 et curvae rigidum falces conflantur in ensem.
 Hinc movet Euphrates, illinc Germania bellum;
 vicinae ruptis inter se legibus urbes 510
 arma ferunt; saevit toto Mars impius orbe,
 ut, cum carceribus sese effudere quadrigae
 addunt in spatia et frustra retinacula tendens
 fertur equis auriga neque audit currus habenas.

503 caeunobis *in caelinobis corr.* R³ || 511 impius γ, improbus *Serv. Ecl. IV, 13*
 || 513 in spatia M⁷γ¹abdhnt, *Quint. VIII, iii, 78, Serv. (cf. Sil. XVI, 373)* : spatio
 My, spatia Rf, se in spatia cev, se in spatio rs, in spatio *DServ. schol. Bern.*, se spa-
 tia *Wagner*

P. VERGILI MARONIS GEORGICON LIB. I EXPL. M., EXPLICIT LIBER I γ, VERGI-
 LI MARONIS GEORGICA LIB. I EXPLIC. R

(498) *Di patrii*: Erromako jainkoak, kanpotik etorri ez zirenak (Jupiter, Marte, Quirino, Vesta, etab.). *Indigetes*: itxura denez (ez baitago honetan adostasun osotik) eginbehar jakin eta, oro har, txikiak zituzten jainkotxoak. *Romule*: Errepublikaren bukaeran Quirino Romulo jainko bihurtuta zela uste zuten. *Vesta*: Virgilioren ustez, Eneasek Trojatik ekarritako jainkosa.

(499) *Tuscum Tiberim*: Etrurian duelako sorburua eta bere ibilbidearen zati handi bat. *Palatia: mons Palatinus*, han bizi izan ziren Evandro eta Romulo eta han zuen bere jauregia Octavianok.

(500) *hunc saltem... iuvenem*: gazte hau egiten ari dena egin zezakeen bakarra, hau da Julio Cesar, hiltzen utzi zutelako. *iuvenem*: Octaviano; Julio Cesar hil zutenean hamazortzi urte zituen (63 K.a.-14 K.o.). *everso... saeclo*: «succurrere»-ren osagarria.

Sorterriko jainkook, Indigeteak eta Romulo eta Vesta
 ama, Tiberis etruriarra eta erromatar Palatinoa gordetzen di-
 500 tuzunori, ez ezazue behintzat eragotz gazte honek erauzia
 izan den gizaldi honi lagun diezaion! Aski garbitu genituen
 aspaldi gure odolarekin Laomedontetar Trojaren zin-haus-
 teak; zeruko jauregia aspaldi dago guganako bekaitzez zuga-
 tik, Cesar, eta gizonen triunfoekin arduratzen zarelako kexa-
 505 tzen da, gizonak, zeinen artean, izan ere, haizu eta debeku
 direnak iraulita baitira: hainbeste gudu dira munduan zehar,
 hainbeste aurpegi dira gaiztakeriarenak; goldeak ez du inon-
 go ohorerik merezi; laborariez gabetuak, soroak lantzeke
 daude eta igitai okerrekin ezpata zurruna galdatzen da. He-
 mendik Euphratesek egiten du gudua, handik Germaniak;
 510 elkarren auzo diren hiriek, legeak hautsita, armak hartzen
 dituzte; Marte dongea zeru-lur guztiakin sumintzen da: lau-
 zaldidunak kartzeletatik barreiatzen direnean lasterrari ema-
 ten diren bezala, eta gurdizaina —alferrik tiraka uhaletatik—
 zaldiek daramaten bezala, eta gurdiak hedeak sentitzen ez di-
 tuen bezala.

(502) *Laomedontaeae... periuria Troiaae*: Trojako errege (eta Priamoren aita) zen Laomedontek Apollori eta Poseidoni deitu zien hiriko harresiak eraikitzeko, baina ez zien agindutakoa ordaindu; gauza bera egin zuen Herculesi bere alaba Hesione salbatzeko hots egin zionean. Hauek dira, bada, Laomedonteren «periuria»: erromatarrek trojarren ondorengotzat zituzten beren buruak eta, honen arabera, haien zorrak garbitzera behartuta zeuden.

(504) *invidet*: iragankorra («te» da osagarri zuzena; honekin doa baita 503ko «nobis» datiboa ere). *curare*: subjektua aipatzen ez den *te* bat da.

(505) *ubi*: 504ko «hominum» edo «hominum... triumphos» jasotzen du nola-bait: 'gizonak... zeinen artean...'.

(509) *Euphrates*: parthiarrak, beste batzuekin batera, Euphratesen inguruan bizi ziren; bai parthiarrak bai germaniarrek etengabe sorrarazten zituzten erromatarren kontrako borrokaldiak.

II

Hactenus arborum cultus et sidera caeli;
nunc te, Bacche, canam nec non silvestria tecum
virgulta et prolem tarde crescentis olivae.
Huc, pater o Lenaeae (tuis hic omnia plena
muneribus, tibi pampineo gravidus autumno
florete ager, spumat plenis vindemia labris),
huc, pater o Lenaeae, veni nudataque musto
tingue novo mecum direptis crura coturnis.

5

Principio arboribus varia est natura creandis.
Namque aliae nullis hominum cogentibus ipsae
sponte sua veniunt camposque et flumina late
curva tenent, ut molle siler lentaeque genistae,
populus et glauca canentia fronde salicta;
pars autem posito surgunt de semine, ut altae
castaneae nemorumque Iovi quae maxima frondet
aesculus atque habitae Graeis oracula quercus.
Pullulat ab radice aliis densissima silva,
ut cerasis ulmisque; etiam Parnasia laurus
parva sub ingenti matris se subicit umbra.

10

15

INCIPIT LIB. II FELICITER M, INCIP. LIBER II GEORGICON γ, INCIP. LIB. II R
II, 1-52 My — 8 direptis Myω, *DServ. Aen. XII, 358* (cf. *Aen. I, 211 et IV, 593*) : dereptis adf, *schol. Bern., Heinsius, Ribbeck, Mynors* || 19 subicit γω, *Prisc. V, 19, Serv. Aen. XII, 209* : subigit M

Zuhaitzak. *Laudes Italiae*. Mahatsondoea eta olibondoa. Baserriko bizimoduaren goraipamenak.

(2) *Bacche*: mahatsondoen babeslea.

(3) *virgulta*: hemen, Columellak dioenez (III, i, 2), «[arbores] quae non ope humana gignuntur, silvestres ac ferae».

(4) *Lenaeae*: Ληνάϊος, ληνός-etik, mahatsa zapaltzen zen upel modukoa. *hic*: mahats-biltzean.

II

Honaino soroen lantzea eta zeruko izar-multzoak; orain zu kanta zaitzadan, Baccho, eta zurekin batera basa-zuhaitzak eta astiro hazten den olibondoaren umealdia. Zatoz hona, oi aita Lenoarra (dena dago hemen zure opariez be-
5 tea, lurra —udazken mahats-adaskadunez ernari— zuretzat loratzen da, mahatsak aparra egiten du kupel beteka), zatoz hona, oi aita Lenoarra, eta koturnoak erantzita, busti itzazu muztio berrian zure anka biluziak nirekin batera.

Hasteko, askotarikoa da izadia zuhaitzak hazten. Ezen
10 batzuk berez datoz, inongo gizonek behartzeke, eta landak eta ibai okerrak zabal hartzen dituzte, oilakaran biguinak eta erratz malguk bezala, zumar zuriak eta hosto berdaxkadun sahas zuriak bezala; sail bat, aldiz, sartutako hazi batetik sortzen da, gaztainondo altuak eta oihanetan gehien hosto-
15 tzen den Jupiterrentzako indigaztaina eta greciarrek orakulutzat dituzten haritzak. Batzuei sustraitik jaiotzen zaie baso sarri bat, gereziondoei eta zumarrei bezala; erramu parna-soarrak ere, txikia, amaren geriza handiaren pean irtetzen du.

(5) *gravidus*: azken silaba luzea da, *productio ob caesuram* batengatik.

(8) *direptis... coturnis*: coturnoak tragediaren zapatak direlako, eta Baccho (edo Dionyso) tragediaren jainkoa (coturnoei buruz ikus, bestalde, *Ecl.* VIII, 10).

(10) *aliae*: 14ko «pars» eta 17ko «alii»-ekin doa. *hominum*: «nullis» mugatzen duen genitibo partitiboa.

(13) *glauca canentia fronde salicta*: sahasaren hostoek alde bat txuri eta bestea berde dutelako.

(15) *maxima*: 16ko «aesculus»-ekin.

(16) *habitae Graiis oracula quercus*: Dodonako Zeusen orakulua du buruan Virgiliok (ikus *Ecl.* IX, 13). *Graiis*: datibo egilea. *oracula*: «quercus»-en predikatiboa.

(18) *Parnasia laurus*: Parnaso mendia Apollorekin lotuta dago modu askotan; erramua ere Apollorena da.

GEORGICON II

Hos natura modos primum dedit, his genus omne 20
 silvarum fruticumque viret nemorumque sacrorum.
 Sunt alii, quos ipse via sibi repperit usus:
 hic plantas tenero abscindens de corpore matrum
 deposuit sulcis, hic stirpes obruit arvo
 quadrifidasque sudes et acuto robore vallos. 25
 Silvarumque aliae pressos propaginis arcus
 expectant et viva sua plantaria terra;
 nil radices egent aliae, summumque putator
 haud dubitat terrae referens mandare cacumen.
 Quin et caudicibus sectis (mirabile dictu) 30
 truditur e sicco radix oleagina ligno.
 Et saepe alterius ramos impune videmus
 vertere in alterius mutataque insita mala
 ferre pirum et prunis lapidosa rubescere corna.
 Quare agite o proprios generatim discite cultus, 35
 agricolae, fructusque feros mollite colendo,
 neu segnes iaceant terrae. Iuvat Ismara Baccho
 conserere atque olea magnum vestire Taburnum.
 Tuque ades inceptumque una decurre laborem,
 o decus, o famae merito pars maxima nostrae, 40
 Maecenas, pelagoque volans da vela patenti.
 Non ego cuncta meis amplecti versibus opto,
 non, mihi si linguae centum sint oraque centum,

22 alii quos M²γω, *schol. Bern.* : alie quos M (alie quas M¹) || 36 cultusque M
 (corr. M²), *Macr. VI, vi, 17*

(20) *his*: sc. *modis*.

(21) *silvarum fruticumque viret nemorumque sacrorum*: «fruticumque» eta «nemorum»
 «silvarum»-en aposizioak dira.

(22) *Sunt alii*: sc. *modi*.

(23-34) Sei modu aipatzen ditu: 1. «hic...» (23); 2. «hic...» (24); 3. «aliae...» (26);
 4. «aliae...» (28); 5. «Quin et...» (30); 6. «Et saepe...» (32).

GEORGİKAK II

20 Bide hauek izadiak eman zituen lehenbizi, hauetaz berdatzen dira baso mota guztiak, zuhaixkak eta oihan sakratuak.

Badira beste batzuk usadioak berak, bere bidetik, aurkitu dituenak: honek, amen gorputz samurretik ebakita, kimuak ipini zituen ildoetan, honek erroak sartu zituen lurrean eta
 25 lautan ebakitako zotzak eta egur zorrotzuko adarrak. Eta basoetako batzuek morrioaren uztai lurperatuak itxaroten dituzte eta kimu biziak beren lurrarekin; beste batzuek ez dute sustraien batere beharrik, eta inautariak ez du dudarik egiten gailur gorena, berriz, lurrari emateko. Eta are enbor
 30 ebakietan ere (esateko miragarria) oliba-erroa ateratzen da egur lehorretik. Eta askotan baten adarrak ikusten ditugu beste batenetara gaitzik gabe aldatzen eta udarondo antzaldatua sagar txertatuak ematen eta zuhandor harritsuara aronondoetan gorritzen.

35 Beraz, ekiozue, oi nekazariok, ikas itzazue sailka bakoitzaren lantze-moduak eta, landuz, leun itzazue fruitu basatiak, eta lurrak ez daitezela alfer etzan. Laket da Bacchorekin Ismaroak ereintzea eta Taburno handia olibondoaz jaztea. Zatoz zu ere eta ibil ezazu nirekin batera hasi dudan
 40 lan hau, oi ohorea, oi gure ospearen zati bidez handiena, Mecenasa, eta egizu bela, hegaz, itsas zabalean. Nik ez dut dena hartu nahi nire bertsoetan, ez, ezta ehun mingain izango banitu ere, ehun aho, burnizko ahotsa. Zatoz eta inguru-

(28) *radicis*: genitibo partitiboa, «nil» mugatzen du.

(33) *in alterius*: sc. *ramos*.

(34) *pirum*: «ferre»-ren subjektua; osagarri zuzena «insita mala» da (33).

(35) *generatim*: bakoitzaren *genus*-aren arabera alegia.

(37) *Ismara*: Thraciako mendia, non maronear ardoa ematen baitzen (Maronea, bertako herri bat), Homerorentzat ere famatua.

(38) *Taburnum*: Samnioko mendikatea.

(41) *Maecenas*: ikus *Georg.* I, 2.

GEORGICON II

ferrea vox. Ades et primi lege litoris oram;
 in manibus terrae. Non hic te carmine ficto 45
 atque per ambages et longa exorsa tenebo.

Sponte sua quae se tollunt in luminis oras,
 infecunda quidem, sed laeta et fortia surgunt;
 quippe solo natura subest. Tamen haec quoque, si quis 50
 inserat aut scrobibus mandet mutata subactis,

exuerint silvestrem animum cultuque frequenti
 in quascumque voles artes, haud tarda sequuntur.
 Nec non et, sterilis quae stirpibus exit ab imis,
 hoc faciat, vacuos si sit digesta per agros; 55
 nunc altae frondes et rami matris opacant

crescentique adimunt fetus uruntque ferentem.
 Iam quae seminibus iactis se sustulit arbos
 tarda venit seris factura nepotibus umbram,
 pomaque degenerant sucos oblita priores,
 et turpis avibus praedam fert uva racemos. 60

Scilicet omnibus est labor inpendendus, et omnes
 cogendae in sulcum ac multa mercede domandae.
 Sed truncis oleae melius, propagine vites
 respondent, solido Paphiae de robore myrtus,
 plantis edurae coryli. Nascuntur et ingens 65
 fraxinus Herculeaeque arbos umbrosa coronae

47 oras My, *Philarg.* : auras M²γ¹ω || 52 voles My¹ : voces γω, *Serv.*
 II, 53-91 M(γ²) — *vv.* 53-260 *om.* γ, *vv.* 53-211 *add.* γ² *post v.* 293 || 54 faciat
 Mbdrs : faciet M²γ²ω, *Serv.* || 65 edurae d, *alii ap. Serv.* : et durae My²ω nas-
 centur dt

(45) *terrae*: subjektua.

(48) *infecunda*: ez ematen ez dutelako, ematen dutenak ezertarako balio ez due-
 lako baizik.

ra ezazu lehenengo itsasbazterraren ertza: eskuetan ditugu
 45 lurrak. Ez zaitut hemen edukiko gezurrezko kantu batekin
 ezta itzulinguru eta sarrera luze batzuetatik ere.

Argiaren ertzetara berez jaikitzen direnak agorrek dira
 benetan baina oparo eta indartsu hazten dira, ezen naturale-
 zak laguntzen dio lurrari. Hala ere baita hauek ere, norbai-
 tek txertatzen baditu edo, aldatuta, hortarako egindako
 50 zuloetan ipintzen baditu, izaera basatia erantziko dute eta,
 lantze sarriarekin, berandu gabe moldatuko dira nahi ditu-
 zun arauetara. Sustrai sakonenetatik irtetzen duen antzuek
 ere hori egin lezake soro hutsetan zehar bereizten baduzu:
 55 orain hostotza altuek eta amaren adarrek gerizpetzen dute
 eta hazten ari denean fruituak kentzen dizkiote eta ematen
 ari denean erre egiten dute. Bestalde, botatako hazietatik
 jaikitzen den arbola astitsu dator biloba berandutarrei geriza
 egiteko, eta frutak, lehenengo zukuekin ahaztuta, endekatu
 60 egiten dira, eta bere mahats-mordo zatarrak txoriei ematen
 dizkie mahatsak harrapakin. Hau da, guztien gainean lanak
 egon behar du, eta denak behartu behar dira ildora eta, or-
 dain handiaren truke, menderatu. Baina olibondoek en-
 borrekin erantzuten dute hobeto, mahatsondoek morrioa-
 rekin, paphostar mirtoek egur sendoarekin, hurriz gogorrek
 65 kimuekin. Jaiotzen dira baita lizar handia eta Herculestar
 koroaren arbola gerizpetsua eta chaoniar aitaren ezkurrak

(54) *hoc: sc. exuere silvestrem animum.*

(59) *sucos... priores: «oblita»-ren osagarri zuzena.*

(64) *respondent: nekazariaren nekeei alegia. Paphiae... myrtus: mirtoa Venusena zen eta Paphos (edo Paphus), Cyproko herria, Venusen egoitza famatuenetako bat.*

(65) *Nascuntur: sc. plantis.*

(66) *Herculeaeque... coronae: Herculesek, infernuetatik Cerbero menderatuta ir-
 ten zuenean, zumarrezko koroa bat zeraman (ikus *Ecl.* VII, 61).*

Chaoniique patris glandes; etiam ardua palma
 nascitur et casus abies visura marinos.
 Inseritur vero et fetu nucis arbutus horrida,
 et steriles platani malos gessere valentis, 70
 castaneae fagos; ornusque incanuit albo
 flore piri glandemque sues fregere sub ulmis.

Nec modus inserere atque oculos imponere simplex.
 Nam, qua se medio trudunt de cortice gemmae
 et tenuis rumpunt tunicas, angustus in ipso 75
 fit nodo sinus; huc aliena ex arbore germen
 includunt udoque docent inolescere libro.

Aut rursus enodes trunci reseantur, et alte
 finditur in solidum cuneis via, deinde feraces
 plantae immittuntur; nec longum tempus, et ingens 80
 exiit ad caelum ramis felicibus arbos
 miratastque novas frondes et non sua poma.

Praeterea genus haud unum nec fortibus ulmis
 nec salici lotoque neque Idaeis cyparissis,
 nec pingues unam in faciem nascuntur olivae, 85
 orchades et radii et amara pausia baca,
 pomaque et Alcinoi silvae, nec surculus idem

67 Chaoniique $\gamma^2\omega$, *ps. Probus Georg. I, 7, schol. Bern., Serv.* : Chaonieque M || 69
 et M ω : ex γ^2d , *Probus 228, 9, Victorinus, 222, 18* || 71 fagos M $\gamma^2\omega$: fagus *Prisc.*
VIII, 85, Wagner, Sabbadini || 78 alta ad || 81 exilit *Non. 302, 5 (sed exit 339, 22),*
Ribbecke, exit Lachmann || 82 miratastque M¹, *Serv.* : mirataeque M, miraturque
 M¹en, *ps. Acro Hor. Epod. XVI, 46, mirata estque γ^2ad , miratasque ω , Philarg. Georg. I,*
54, mirataque Serv. Georg. I, 103, Philarg., mirata usque Wagner

(67) *Chaoniique patris*: Jupiter (Chaoniari buruz ikus *Ecl. IX, 13*). *glandes*: sinek-
 dokea, haritzaren ordez.

(68) *nascitur*: sc. *plantis*, berriz ere.

ere; eta palmondo goia ere jaiotzen da eta itsasoko gora-beherak ikusiko dituen izaia. Gurbitz latzean ere, berriz, in-
 70 txaurraren kimua txertatzen da, eta platanondo antzuek sa-
 garrondo kementsuak eraman izan dituzte, eta gaztainondoek
 pagoak; eta lizarra udarondoaren lore zuriarekin argitzen da
 eta zerriek zumarren pean kraşkatu izan dute ezkurra.

Txertatzea eta begiak ipintzea ez da modu bakar bat.
 75 Ezen, azalaren erdian, kimuek irtetzen duten eta mintz me-
 heak urratzen dituzten gunean, begian bertan ebakidura
 estu bat egiten da; hemen beste zuhaitz batetiko ernamuina
 sartzen dute eta azalaren zuri hezean hazten irakasten diote.
 Edo, aldiz, adabegirik gabeko enborrak ebakitzen dira eta
 ziriekin bide bat pitzatzen da, sakon, gogorrera eta gero
 80 kimu emankorrek tartekatzen dira; ez denbora luzeren bu-
 ruan adar ugariko zuhaitz handi batek irten du zeruraino
 eta hosto berriak eta bereak ez diren frutak miresten ditu.

Gainera, ez dira sail bakarrekoak ez zumar indartsuak ez
 sahatsa ez lotoa ez idar altzipresak, eta oliba guriak ere ez
 85 dira itxura bakarrarekin jaiotzen, orchadak eta luzeak eta
 pausia ale mikatzduna, ez sagarrak ez Alcinooren basoak,
 eta ez da kimu bera crustumerioar eta syriar udarena ezta

(69) Hipermetroa: ikus *Georg.* I, 294.

(84) *Idaeis*: Idakoak, Cretako mendia, altzipresetan bereziki aberatsa omen zen (ez da Phrygiako izen bereko mendiarekin nahastu behar: ikus *Georg.* III, 450 eta IV, 41); horregatik agertzen da altzipresaren izenaren greciar forma, eta ez latinezkoa (*cupressus*).

(86) *orchades*: azken silaba laburra, hitz greciarra delako (ὄρχάδες); «genus oleae ductum ex graeco quod testicularum sit instar magnitudinis» (Festo, 194 Lindsay). *radii et*: hiatoa. *amara*... *baca*: kalitatezko ablatiboa. *pausia*: 'ale mikatzdunak' dira olio egiteko heldu gabe hartzen direlako.

(87) *Alcinoi silvae*: Alcino, pheaciarren erregea; bere baratzak bertan zeuden fruta arbolengatik ziren famatuak antzinateko literaturan.

Crustumii Syriisque piris gravibusque volemis.
 Non eadem arboribus pendet vindemia nostris
 quam Methymnaeo carpit de palmite Lesbos; 90
 sunt Thasiae vites, sunt et Mareotides albae,
 pinguibus hae terris habiles, levioribus illae,
 et passo psithia utilior tenuisque lageos
 temptatura pedes olim vincturaque linguam,
 purpureae preciaeque et, quo te carmine dicam, 95
 Rhaetica? nec cellis ideo contende Falernis.
 Sunt et Aminneae vites, firmissima vina,
 Tmolius adsurgit quibus et rex ipse Phanaeus,
 Argitisque minor; cui non certaverit ulla
 aut tantum fluere aut totidem durare per annos. 100
 Non ego te, dis et mensis accepta secundis,
 transierim, Rhodia, et tumidis, Bumaste, racemis.
 Sed neque quam multae species nec nomina quae sint

II, 92-117 M(γ²)V — 97 et] etiam a'cehny || 98 Molius M (corr. M⁷), Mollius γ², *evan. in V* (Tmolius legit Ribbeck)

(88) *Crustumii*: Crustumiokoa, sabiniar lurraldeko iparraldea. *Syriisque piris*: Syriakoak, 'Tarentokoak' ere deitzen zirenak, itxura guztien arabera (Crustumio eta Syriako madariak antzinateko famatuenak ziren). *volemis*: *vola*-tik, 'ahurra': «quod volam complent magnitudine, hoc est mediam manum» (Isid., *Orig.* XVII, vii, 67).

(90) *Methymnaeo... de palmite*: Methymna, Lesboseko hegoaldean, bertan egiten zen ardoagatik famatua. *Lesbos*: Egear Itsasoko uhartea; bertako ardoa, oro har, Greciako famatuenetakoa zen.

(91) *Thasiae vites*: Thasokoa, Thraciaren parean dagoen Egear Itsasoko uhartea. *Mareotides*: azken silaba laburra da, hitz greciarra delako; Mareota-koa, Egyptoko herria eta aintzira, Alexandriatik gertu.

(93) *passo*: sc. *vino*; datiboa, «utilior»-en mendean. *psithia*: greciar ardo mota bat (ψίθτος edo ψύθτος). *lageos*: nominatibo singularra eta femeninoa, λάγειος, agian λαγώς-etik, 'erbia' («quae latine leporaria dicitur», Serv.; «uva leporini coloris... vel quia leporis ultra alias adpetunt», *Schol. Veron.*).

(96) *Rhaetica*: Rhetiakoak, gutxi gora behera Po eta Danubioren artean dagoen lurraldea (ardoari buruz ari dela, seguruenik *ager Veronensis*-ekoa). *Falernis*: falerno,

volema pisuena ere. Ez da gure zuhaitzetatik zintzilik Les-
 90 bosek methymnar aihenetik hartzen duen mahats berbera;
 badira thasostar mahatsondoak, badira mareotistar zuriak
 ere, hauek lur lodientzat egokiak, haiek arinagoentzat, eta
 psithia, mahats-pats-ardorako erabilgarriagoa, eta lageos sar-
 korra, inoiz hankei erasoko diena eta mingaina lotuko due-
 95 na, purpurazkoak eta goiz-mahatsak, eta zu, rhetiarrak: zein
 bertsotan abes zintzaket? ez horregatik falernoar upeltegie-
 kin lehia. Badira baita aminnear mahatsondoak ere, ardo
 ondo sendoak, zeinen aurrean tmoloarra jaikitzen baita eta
 phanear erregea bera eta Argitis txikiagoa; honekin ez liteke
 100 bat ere lehiatuko, edo horrenbeste jariatzen edo hainbeste
 urtetan irauntzen. Nik ez zintzaket, rhodostarra, jainkoen
 artean eta azken plateretan ongi etorria, aipatzeke lagako,
 ezta zu ere, bumasto, mahats-mordo puztudunori. Konta-
 tzerik ez dago zenbat mota diren ezta izenak zein diren ere,

Campaniako Massico mendiaren inguruetan ematen zen ardoa, Italiako onene-
 tkoa.

(97) *Aminneae*: Campaniako lurralde batekoa.

(98) *Tmolius*: Tmolokoa, Lydiako mendia (maskulinoa, 97an «vites», femeninoan,
 aipatzen badira ere: grezierakada, Τμώλλιος [ὄϊνος] delako hemen suposatzen
 dena). *adsurgit*: egiten zaion ohorearen seinale (honen mendean dago «quibus».
Phanaeus: Phanekoa, Chiosko mendia.

(99) *Argitisque minor*: Ἀργίτις, edo ἀργός-etik, ardo zuria ematen duelako,
 edo ἄργος-etik, Peloponnesoko hiria; bi *argitis* mota zeuden, bata handia eta bes-
 tea txikia (hemen aipatzen dena).

(100) *fluere, durare*: 99ko «certaverit»-en mendean.

(101) *dis et mensis accepta secundis*: «dis» beharbada elizkizunetan erabiltzen zelako
 (ez dakigun gauza) edo, «mensis... secundis»-ekin batera, postrectan egin zitezkeen
 libazioetan isurtzen zelako. Baliteke, bestalde, «secundis» hitzak zentzu bikoitza izat-
 ea: «dis»-ekin ere baldin badoa, 'aldeko jainkoak' esan nahi luke, eta «mensis»-ekin,
 berriz, 'bigarren platerak' edo, *de facto*, 'azken platerak'.

(102) *Bumaste*: βούς gehi μαστός-etik, hau da, 'behi-errapeak', oso mahats-
 mordo handiak («tumidis... racemis») dituelako («uva in mammae bovis similitudi-
 nem», Serv.; «tument vero mammarmum modq bumasti», Plinio, *Nat. XIV*, 15).

GEORGICON II

est numerus, neque enim numero comprehendere refert;
 quem qui scire velit, Libyci velit aequoris idem 105
 discere quam multae Zephyro turbentur harenae
 aut, ubi navigiis violentior incidit Eurus,
 nosse quot Ionii veniant ad litora fluctus.

Nec vero terrae ferre omnes omnia possunt.
 Fluminibus salices crassisque paludibus alni 110
 nascuntur, steriles saxosis montibus orni;
 litora myrtetis laetissima; denique apertos
 Bacchus amat colles, Aquilonem et frigora taxi.
 Aspice et extremis domitum cultoribus orbem
 Eoasque domos Arabum pictosque Gelonos: 115
 divisae arboribus patriae. Sola India nigrum
 fert hebenum, solis est turea virga Sabaeis.
 Quid tibi odorato referam sudantia ligno
 balsamaque et bacas semper frondentis acanthi?
 quid nemora Aethiopum molli canentia lana, 120
 velleraque ut foliis depectant tenuia Seres?
 aut quos Oceano propior gerit India lucos,
 extremi sinus orbis, ubi aëra vincere summum
 arboris haut ullae iactu potuere sagittae?
 et gens illa quidem sumptis non tarda pharetris. 125
 Media fert tristis sucos tardumque saporem

106 discere dev, *Colum. III, ii, 29, Annm. XXXI, iv, 6* : dicere Mγ²Vω, *ps. Acro Hor. Carm. I, xxviii, 1* || 108 quod Vγ²a

II, 118-138 M(γ²) — 121 «alii depectat legunt, quod si est, Seres posuit pro Ser»
Serv. || 122 propior ω, *Serv.* : propior Mγ²abnv || 124 aut Mγ²br, *Probus 260, 23*
 ullo *Non. 241, 26* (ullae 418, 23)

(105) *Libyci... aequoris*: 106ko «harenae» mugatzen du.

(108) *Ionii*: Ioniar Itsasoa, Tarento, Sicilia eta Greciaren artean dagoena.

baina zenbakian hartzeak ere ez du garrantzirik; jakin nahi
 105 lukeenak nahi luke ikasi zenbat hondar-ale eragiten duen
 Zephyroak libyar lauan edo, Euroak itsas-ontziak bortizkien
 jotzen dituenan, zenbat olatu ioniar datorren itsasertzera
 ezagutu.

110 Lur denek ezin dute ordea dena eman. Sahatsak ibaietan
 jaiotzen dira eta haltzak aintzira lodietan, lizar antzuak men-
 di harkaizdunetan; urbazterrak alaienak dira mirtoentzat;
 Bacchok, azkenik, muino zabalak maite ditu, haginek Aquil-
 on eta hotzak. Begira iezaiozu baita azken biztanleek hezi-
 115 tako lurrari ere, arabiarren etxe eostarrei eta gelonoar mar-
 gotuei: zuhaitzek beren sorterriak dituzte. Indiak bakarrik
 ematen du ebano beltza, sabarrek bakarrik dute intsentsua-
 ren zotza. Zertarako aipatuko dizkizut egur usaindudun
 baltsamo izerditsuak eta beti hostotuta den molorrikaren
 120 aleak? zertarako, artile leunez zurizatzen diren ethiopianen
 oihanak, eta sertarrek nola orrazten dituzten kalpar meheak
 hostoetatik? edo Oceanotik hurren dagoen Indiak, azken
 lurraren golkoa, dituen oihanak, zeinetan inongo gezik ezin
 izan baitu garaitu bere jaurtiketan zuhaitzen aire gorena? eta
 125 herri hura ez da astitsua, egiatan, buiraka hartuta. Mediak
 bere sagar ongariaren zuku tristea eta zapore astitsua da-

(112) *myrtetis*: instrumentala.

(115) *Eoasque domos*: Eoskoa, hau da, ekialdekoa. *Gelonos*: Geloni, Scythiako herria («pictos», izaten zituzten tatuajeengatik).

(117) *Sabaais*: Sabakoak, hau da, Arabiako hego-mendebaldekoak.

(121) *velleraque ut foliis depectant tenuia Seres*: antzinatean seda intsektu batek egindakoa zela uste zuten. *tenuia*: hiru silaba ditu. *Seres*: Indiako ekialdeko herria, batzuen arabera txinatarrak.

(122) *Oceano propior... India*: Ganges ibaia itsasoratzen den lekua.

(123) *extremi sinus orbis*: 122ko «India»-ren aposizioa.

(126) *Media*: Persia.

felicis mali, quo non praesentius ullum,
 pocula si quando saevae infecere novercae,
 [miscueruntque herbas et non innoxia verba] 130
 auxilium venit ac membris agit atra venena.
 Ipsa ingens arbos faciemque simillima lauro
 et, si non alium late iactaret odorem,
 laurus erat: folia haut ullis labentia ventis,
 flos ad prima tenax; animas et olentia Medi
 ora fovent illo et senibus medicantur anhelis. 135
 Sed neque Medorum silvae, ditissima terra,
 nec pulcher Ganges atque auro turbidus Hermus
 laudibus Italiae certent, non Bactra neque Indi
 totaque turiferis Panchaia pinguis harenis.
 Haec loca non tauri spirantes naribus ignem 140
 invertere satis immanis dentibus hydri,
 nec galeis densisque virum seges horruit hastis;
 sed gravidae fruges et Bacchi Massicus umor
 implevere; tenent oleae armentaque laeta.
 Hinc bellator equus campo sese arduus infert, 145
 hinc albi, Clitumne, greges et maxima taurus

129 v. (= *Georg. III, 283*) exhibent M^sγ²ω, Non. 345, 19, interpretantur Serv., schol.
 Bern. : om. M, Heyne, Ribbeck miscuerantque aev || 136 terra] regna M²
 II, 139-214 MP

(131) *faciemque*: erlaziozko akusatiboa.

(136) *Medorum*: Mediakoak, persiarak alegia.

(137) *Hermus*: Asia Txikiko ibaia, urre aleak omen zeramatzana.

(138) *Italiae*: datiboa, «certent»-en osagarria («laudibus» ablatiboa da). *Bactra*: Bactrianako hiriburua.

(139) *Panchaia*: lau silaba ditu; Euhemerok aipatzen duen uharte mitikoa (Itsaso Gorrian kokatzen du, Arabiatik gertu; inoiz Arabiaren beraren beste izen bat izango balitz bezala erabili izan da).

(140) *Haec loca*: Italiako lurak.

(140-142) Urrezko ardi-larruaren mitoaren aipamena: Iasonek muso-zuloetatik sua botatzen zuten bi zezen uztartu behar izan zituen («tauri spirantes naribus ig-

kartza, zein baino bat ere ez ongileagorik, amaorde krudelek kopak pozoindu eta belarrak eta hitz ez errugabeak nahastu dituztenez: lagungarri dator eta pozoin beltzak gorputz-ataletatik irtenarazten ditu. Zuhaitza bera handia da eta, itxuran, erramuaren oso antzekoa eta, beste usain bat urrutira botako ez balu, erramua izango zen: hostoak ez ditu inongo haizek itzurazten, lorea beste edozein baino harkorragoa; harekin hatsa eta aho kirasdunak zaintzen dituzte mediarrek eta arnasestua duten zaharrei sendabide ematen diete.

Baina ez mediarren basoak, lur ondo aberatsa, ez Ganges ederra ez Hermo, urrez arrea, ez daitezela goresmentan Italiarekin lehia, ez Bactra ez indiarak ez Panchaia osoa, guria, intsentsua daramaten bere hondarrekin. Toki hauek ez zituzten irauli, herensuge eskergaren hortzak ereinda, musu-zuloetatik sua botatzen zuten zezenek, ez zituen lastu kasko eta azkon sarridun gizonen uzta batek: baizik ale ernariek eta Bacchoren massicoar bustiak bete zituzten, olibondoek eta saldo alaiak dauzkate. Hemendik oldartzen da zelaietara, tente, zaldi gudaria; hemendik, Clitumno, artalde zuriek eta, opalgai handiena, zezenak, asko-

nem») eta hauekin lur zati bat goldatu («invertere») eta bertan herensuge baten hortzak erein («satis immanis dentibus hydri»); hortz horietatik gizon armatu uzta bat («virum seges») sortu zen.

(141) *satis immanis dentibus hydri*: ablatibo absolutua seguruenik (ez nahitaez).

(142) *densis*: seguruenik ἀπὸ κοινῶς «galeis» eta «hastis»-ekin.

(143) *Massicus umor*: italiar ardo mota bat (ikus *Georg.* II, 96).

(144) *implevere, tenent*: aditz hauen osagarri zuzena 140ko «haec loca» dira, hau da, Italia. *oleae armenta*que: hiatoa.

(145) *Hinc*: alegia Italiatik (146ko «hinc» bezala).

(146) *Clitumne*: Clitumno, Umbriako erreka; bertan sartzen ziren abereak zuri bihurtzen omen ziren (hortik «albi... greges»); beste batzuen arabera, bertatik edaten zutenak ziren zuri egiten zirenak.

GEORGICON II

victima saepe tuo perfusi flumine sacro
 Romanos ad templa deum duxere triumphos.
 Hic ver adsiduum atque alienis mensibus aestas;
 bis gravidae pecudes, bis pomis utilis arbor. 150
 At rabidae tigres absunt et saeva leonum
 semina, nec miseros fallunt aconita legentis,
 nec rapit immensos orbis per humum neque tanto
 squameus in spiram tractu se colligit anguis.
 Adde tot egregias urbes operumque laborem, 155
 tot congesta manu praeruptis oppida saxis
 fluminaque antiquos supter labentia muros.
 An mare quod supra memorem quodque adluit infra?
 anne lacus tantos? te, Lari maxime, teque,
 fluctibus et fremitu adsurgens Benace marino? 160
 An memorem portus Lucrinoque addita claustra
 atque indignatum magnis stridoribus aequor,
 Iulia qua ponto longe sonat unda refuso
 Tyrrhenusque fretis immittitur aestus Avernis?
 Haec eadem argenti rivos aerisque metalla 165
 ostendit venis atque auro plurima fluxit.
 Haec genus acre virum, Marsos pubemque Sabellam

148 ad M²ω² : at MP || 151 rapidae Pb, *Philarg*, *Servi codd. quidam*

(147) *tuo... flumine sacro*: ibai denak ziren sakratuak; Clitumnok gurpen berezia zeukan.

(148) *Romanos... ducere triumphos*: opalgaiaik («greges et... taurus») triunfoa lortu zutenak zeramatzan gurdiaaren aurrean zihoazen (horregatik «duxere»); gurdia zaldí zuriek eramaten zuten (146ko «albi... greges», hauek bai zentzu hertsia goan «duxere»). *ad templa deum*: Capitoliara, han bukatzen baitziren triunfoak.

(158) *mare quod supra: mare superum*, Adriatikoa. *quodque... infra: mare inferum*, Tyrrhenoa.

tan zure ibai sakratuan bustita, erromatar triunfoak zuzendu zituzten jainkoen tenpluetara. Hemen udaberria jarraitua da eta bereak ez diren hiletan ere uda da; ganaduak bi bider egoten dira ernari, zuhaitza bi bider izaten da onuragarria bere frutekin. Ez da tigre eme amorraturik ez lehoien hazi krudelik, eta irabelarrek ez dituzte berak hartzen dituzten errukarriak engainatzen, eta suge ezkatatsuak ez ditu bere bira eskergak herrestatzen lurretik ez kiribilean hain une handitan biltzen.

150 Gehi itzazu hainbeste hiri aparta eta hainbeste lanen nekea, hainbeste herri harkaitz latzetan eskuz eraikita eta antzinako hormen behealdetik irristatzen diren ibaiak. Gogoratu behar al dut goitik bainatzen duen itsasoa eta behetikoa? edo hain handiak diren aintzirak? zu, Lario, handiena, eta zu, 160 Benaco, olatuekin eta orro itsastarrarekin jaikitzen zarenori? Gogoratu behar al ditut portuak eta Lucrinori gehitutako kaiak eta zarata handiekin asaldatzen den itsasoa, ur Juliarak itsasoa eragotzita urrutitik hots egiten duen eta tyrrheniar goraldia putzu avernoarretara sartzen den aldetik? Bero- 165 nek erakutsi izan ditu bere zainetan zilarrezko errekek eta kobre-meatzeak eta urretan ugari jario zaio. Honek gizon enda zakarra eman du, marsoak eta sabelliak gazteria eta

(159) *Lari*: Lario aintzira, gaurko Como; Italiako sakonena baina ez handiena («maxime» esaten badu ere).

(160) *Benace*: Benaco aintzira, gaurko Garda.

(161) *portus Lucrinoque addita claustra*: Agrippak (K.a. 37an) egindako *portus Iulius* (Julio Cesarren ohorean), Pozzuolitik gertu (Campanian): *Lucrinus* izeneko itsas aintzira bat egin zuten lurreen barrenago zegoen *Avernus* aintzirarekin; itsasoaren eta Lucrinoren arteko lurra indartu egin zuten, kaia baten gisa («addita claustra»).

(163) *Iulia qua... qua* (adberbioa) *Iulia unda...*

(165) *Haec eadem*: Italia alegia.

(167) *Marsos pubemque Sabellam*: Marsi, Lazioko herria, eta Sabelli, sabiniarren-gandik hur bizi zen beste herri bat.

adsuetumque malo Ligurem Volcosque verutos,
 extulit, haec Decios, Marios magnosque Camillos, 170
 Scipiadas duros bello et te, maxime Caesar,
 qui nunc extremis Asiae iam victor in oris
 inbellem avertis Romanis arcibus Indum.
 Salve, magna parens frugum, Saturnia tellus,
 magna virum: tibi res antiquae laudis et artem
 ingredior sanctos ausus recludere fontis 175
 Ascræumque cano Romana per oppida carmen.
 Nunc locus arborum ingeniis, quae robora cuique,
 quis color et quae sit rebus natura ferendis.
 Difficiles primum terrae collesque maligni,
 tenuis ubi argilla et dumosis calculus arvis, 180
 Palladia gaudent silva vivacis olivae;
 indiciost tractu surgens oleaster eodem
 plurimus et strati bacis silvestribus agri.
 At quae pinguis humus dulcique uligine laeta
 quique frequens herbis et fertilis ubere campus 185
 (qualem saepe cava montis convalle solemus

174 artem P, *Ribbecke, Mynors* : artis Mωγ², *Sabbadini* || 178 qui *in* quis *corr.* P¹
 || 181 gaudent Pγ² : gaudet Mω, *Ter. Maur.* 1222 || 184 at quae M²Pbdnt : atque
 Mωγ² || 186 solemus] videmus P

(168) *Ligurem*: Liguriakoa, Genova inguruetako lurralde menditsua eta, beraz, nekazaritza neketsukoa (hortik «adsuetumque malo»). *Volcosque*: Volsci, Lazioko herria (haiena zen *Velitrae*, Octavianoren sorteria, edo *Arpinum*, Ciceronena, edo *Cereatae*, Mariorena); *veru* izeneko ezpata motz bat erabili ohi zuten (hortik «verutos»).

(169) *Decios*: hiru izan ziren famatuenak, bakoitza belaunaldi batekoa, K.a. IV eta IIIgarren mendeetan; lazioarrendandik defendatu zituzten erromatarrak. *Marios*: plurala erabat erretorikoa da; C. Mariok cimbriarrendandik babestu zuen Erroma. *Camillos*: hemen ere plural erretorikoa; M. Furio Camillok galliarrez salbatu zituen erromatarrak.

gaitzera ohitutako liguriarra eta volscoar azkondunak, honek
 Deciotarrak, Mariotarrak eta Camillotar handiak eman ditu,
 170 guduak gogortu Scipiondarrak eta zu, Cesar, handiena,
 orain ja Asiako azken bazterretan garaile, erromatar gaineta-
 tik indiar gudugabea aldentzen duzunori. Agur, uzta-hazle
 handiori, Saturnotar lurra, gizon-hazle handia: zure ohorean
 hasten naiz antzinako goresmeneko gai eta antzeekin, iturri
 175 sakratuak irekitzera ausartuta, eta ascratar kantua abesten
 dut erromatar hirietan zehar.

Hau da lekua soroen berezkotasunentzako, zein indar
 duen bakoitzak, zein kolore eta zein izaera emaitzak izate-
 ko. Hasteko, lur zailak eta muino zekenak, non buztina me-
 180 hea baita eta soro sasitsuetan harria baitagoen, olibondo
 bizi-luzearen Pallastar basoarekin pozten dira; zantzua iza-
 ten da zati berean basoliondoa eurrez haztea eta basa-olibe-
 kin estalitako alorrak izatea. Baina lodia den lurra eta heze-
 185 tasun gozoak poztua eta belarretan sarria den landa eta
 ugaritasunean joria (mendiaren magal sakonean askotan iku-

(170) *Scipiadas: Scipiones*, latinez normala den forma, ez litzateke hexametroan sartuko; carthagoarrengandik babestu zuten Erroma. *te...* *Caesar: Octaviano*.

(171-172) Ez dirudi hemen gudaldi zehatzik duenik buruan Virgiliok.

(172) *Romanis arcibus*: Erromako zazpi muinoak (ikus *Georg. II*, 535). *Indum*: oro har Asiako herriak adierazteko.

(173) *Saturnia tellus*: Italia; Italiako errege zen Saturno urrezko aroan (ikus *Ecl. IV*, 6).

(174) *antiquae laudis*: kalitatezko genitiboa. *artem*: laborantza.

(176) *Ascræumque... carmen*: Hesiodo zen Ascrakoa (Beozian).

(177) *ingenii*: datiboa.

(178) *rebus... ferendis*: datiboa, *ad res ferendas* alegia.

(180) *tenuis*: bisilabaduna.

(181) *Palladia... silva*: Pallasen basoa, hau da, olibondoak, ondoren datorren genitibo epexegetikoak («vivacis olivæ») argitzen duen bezala.

(184) *At quæ pinguis humus dulcique ulgine laeta: at humus quæ est pinguis et laeta...*

(185) *quique frequens herbis et fertilis ubere campus: et campus qui est frequens et fertilis...* (eta berdin 188an duen jarraipenarekin).

despicere; huc summis liquuntur rupibus amnes
 felicemque trahunt limum) quique editus Austro
 et filicem curvis invisam pascit aratris:
 hic tibi praevalidas olim multoque fluentis 190
 sufficet Baccho vitis, hic fertilis uvae,
 hic laticis, qualem pateris libamus et auro,
 inflavit cum pinguis ebur Tyrrhenus ad aras
 lancibus et pandis fumantia reddimus exta.
 Sin armenta magis studium vitulosque tueri 195
 aut ovium fetum aut urentis culta capellas,
 saltus et saturi petito longinqua Tarenti
 et qualem infelix amisit Mantua campum
 pascentem niveos herboso flumine cynos:
 non liquidi gregibus fontes, non gramina derunt, 200
 et quantum longis carpent armenta diebus
 exigua tantum gelidus ros nocte reponet.
 Nigra fere et presso pinguis sub vomere terra
 et cui putre solum (namque hoc imitamur arando)
 optima frumentis (non ullo ex aequore cernes 205
 plura domum tardis decedere plaustra iuvcncis)

187 dispicere $\text{dfs}\gamma^2$, *Heinsius* hoc P (*corr.* P²), *Ribbeck* || 190 multosque M, *corr.* M⁷ || 194 pandis] patulis M, *corr.* M² || 196 fetum Pdn : fetus M $\omega\gamma^2$, *Prisc.* V, *sub fin.*, *Non.* 206, 5 || 200 derunt MPabr (*cf.* *CIL* VI, 1527, 58) : decrunt M², desunt $\omega\gamma^2$ || 202 reponit Mbc || 204 qui P (*cf.* *Ecl.* IV, 62) imitatur M, *corr.* M², imitantur *rec.*

(187) *huc*: sc. in convallem.

(188) *Austro*: hegoaldetiko haizea.

(191) *uvae*: genitibo objektiboa (edo, batzuen arabera, erlaziozkoa).

(192) *pateris... et auro*: *bendiadyoin*.

(193) *ebur*: metafora, 'txirula'-ren ordez (beharbada metafora bikoitza, hezurrezkoak izaten baitziren). *Tyrrhenus*: Tyrrheniakoa, Etruriaren greciar izena; eskaintzetan egoten ziren txirula-jotzaileak Etruriakoak izan ohi ziren. (Ez dago argi, aldiiz, «pinguis» horren zergatikoa).

si ohi duguna bezalakoa: hona isurtzen dira errekek haitza
 altuenetatik eta hona zabaltzen dute lokatz emankorra) eta,
 jaso, Austrora begira dena eta golde okertuek gorroto du-
 ten garoa hazten duena, honek ekarriko dizkizu inoiz oso
 190 mahatsondo gogorrak eta Baccho askorekin jarioko dire-
 nak, hau izango da emankorra mahatsetan, hau pattarretan,
 urrezko pateretan edaten duguna bezalakoa tyrrheniar lo-
 diak marfila aldareen inguruan puztu duenean eta kea da-
 rien erraiak azpil sakonetan opaltzen ditugunean. Baina zure
 195 gogoia gehiago baldin bada saldoak eta zekorrak zaintzea
 edo ardien sabelaldia edo soroak erretzen dituzten ahuntzak,
 abia zaitez Tarento oparoko baso urrutietara eta Mantua do-
 hakabeak galdu zuen landa bezalako batera, ibai belartsu ba-
 tez elurrezko beltzargak bazkatzen dituen landa batera: ez
 200 iturri gardenak ez zelaiak ez zaizkie faltako artaldeei, eta sal-
 doek egun luzeetan jaten duten beste berrituko du gau
 urrian ihintz izoztuak. Gehienetan, lur beltza eta, golde-
 mur sakatuaren azpian, lodia eta zoru harroa duena (ezen
 205 hau bilatzen dugu goldatzean) onena da garientzat (ez duzu
 inongo lautatik gurdi gehiago ikusiko zekor astitsuekin etxe-

(195) *Sin... studium: sc. est tibi. armenta... vitulosque: agian bendiadyoin.*

(197) *saturi: zentzu aktiboa (horrela ulertu behar baldin bada, Servio bestea ukera bat ere aipatzen duelako: «aut fecundi aut quod est iuxta oppidum Satorum; Tarentum enim et Satorum vicinae sunt sibi Calabriae civitates»; eta Danielis Servius-ek: «fertilis, quia regio eius herbosa est. Alii dicunt agrum, in quo condita est Tarentus, Satorum vocari»). longinqua Tarenti: longinquum Tarentum esango balu bezala (ez da, beraz, partitiboa). Tarenti: Tarento, Italiako hegoaldean, artaldeengatik (batik bat artilearengatik) famatua.*

(198) *qualem infelix amisit Mantua campum: Virgiliok lehenengo eta bederatzigarren eklogetan aipatzen dituen desjabetzeengatik.*

(199) *flumine: Mincio ibaia.*

(200) *derunt: bisilabaduna.*

(201) *longis... diebus: udan.*

(206) *tardis... iuvenis: instrumentala.*

GEORGICON II

aut unde iratus silvam devexit arator
 et nemora evertit multos ignava per annos
 antiquasque domos avium cum stirpibus imis
 eruit: illae altum nidis petiere relictis, 210
 at rudis enituit inpulso vomere campus.
 Nam ieiuna quidem clivosi glarea ruris
 vix humilis apibus casias roremque ministrat,
 et tofus scaber et nigris exessa chelydris
 creta negant alios aequae serpentibus agros 215
 dulcem ferre cibum et curvas praebere latebras.
 Quae tenuem exhalat nebulam fumosque volucris
 et bibit umorem et, cum volt, ex se ipsa remittit
 quaeque suo semper viridi se gramine vestit
 nec scabie et salsa laedit robigine ferrum, 220
 illa tibi laetis intextet vitibus ulmos,
 illa ferax oleo est, illam experiere colendo
 et facilem pecori et patientem vomeris unci:
 talem dives arat Capua et vicina Vesaevo
 ora iugo et vacuis Clanius non aequos Acerris. 225
 Nunc, quo quamque modo possis cognoscere, dicam.
 Rara sit an supra morem si densa requires

212-260 *deest omnino* γ

II, 215-273 MPR — 219 viridi semper ω (*praeter* bnr) || 220 et] aut M², *Servi codd. quidam* || 221 intexit Pc || 222 oleo PRadhrs, *Arus. 473, 18, Non. 500, 28* : oleae Mω || 225 ora] «*est hoc emendavit, quia Nolam posuerat*» DServ. (*idem Gell. VI, 88, 1*) || 227 requires M¹Pbfr : relquires M, requiras M²Rω

(207) *aut unde iratus silvam devexit arator*: sc. *aut cernes non plura planstra domum de- cedere quam ex illo aequore unde iratus arator... iratus*: basoak («silvam») eta 208ko oihan alferrek («nemora ignava») ezer ez dutelako ematen.

(211) *rudis*: egin berria delako, oraindik ia-ia landu gabea. *enituit*: azken silaba luzea da *productio ob caesuram* batengatik.

(213) *roremque*: «rorem, quem marinum vocant, dicit. Et est humile virgultum, quod in exilibus agris nascitur» (Serv.); hau da, *ros marinus* edo *marinum* da, ez 'haintza'.

GEORGIKAK II

ratzen) edo beste hura, zeinetik goldelari haserretuak basoa
 bota baitzuen eta urte luzeetan alferrak izandako oihanak
 irauli eta txorien aintzinako etxeak sustrai sakonenekin bate-
 210 ra amildu: txoriek, habiak utzita, gora jo zuten, baina lur
 landugabea, golde-muturra sartuta, hasi da distiratzten. Ezen
 lur aldapatsu bateko legar barautuak, izan ere, ozta dakar-
 kie erleei izpiliku apalak eta erromeroa, eta arbel latzak eta
 215 suge beltzek jandako klerak ukatu egiten dute beste inongo
 lurrek narraztientzako hain jan gozoa ematen duenik eta
 hain ezkutu bihurriak eskaintzen dituenik. Lurrin mehea eta
 hegan dagiten keak botatzen dituen, eta bustia edaten due-
 na eta, nahi duenean, bere barrutik bertatik laxatzen duena,
 eta beti bere belar berdeaz janzten dena, eta burnia laztasun
 220 eta herdoil gaziz galtzen ez duena, hark elkartuko dizkizu
 zumarrak mahatsondo alaiekin, hura da oparoa oliotan, hura
 lantzean artaldearentzat egokia dela probatuko duzu eta gol-
 de okertua pairatzen duela: halakoxea goldatzen du Capua
 aberatsak eta Vesevo mendiaren inguruko bazterrak eta Cla-
 225 niok, Acerras hutsarekin zuzengabea.

Orain bakoitza nola ezagut zenezakeen esango dizut. Ja-
 kin nahi baduzu arina ala ohi baino gizenagoa den (bata ga-

(214) *nigris... chelydris*: datibo egilea («exess»-rena). *chelydris*: berez ur sugeak (χέλυδρος) baina hemen sugeak oro har.

(216) *ferre, praebere*: 215eko «negant»-en mendean dauden infinitibozko bi esal-
 dien aditzak (subjektu bakarra 215eko «alios... agros» da).

(217) *Quae*: sc. *terra. volucris*: akusatiboa, hemen adjektibo baten funtzioarekin
 («fumosque» izena delarik).

(220) *ferrum*: goldea, seguruenik.

(224) *Capua*: Campaniako hiri handia. *Vesaevo*: *Vesaeuus* edo *Vesuvius* sumendia,
 Napolesetik hur.

(225) *Clanius, Acerris*: Campaniako erreka, *Acerrae* herritik pasatzen dena: uhol-
 deetan kalte handia egin ohi zion Acerrasi (eta horregatik gelditu zen «vacuis»,
 'hutsik', uholdeengatik hain zuzen ere).

(226) *quamque*: sc. *terra*.

(227) *Rara sit an supra morem si densa requires: si requires utrum rara sit an densa...*

(altera frumentis quoniam favet, altera Baccho,
 densa magis Cereri, rarissima quaeque Lyaeo),
 ante locum capies oculis alteque iubebis 230
 in solido puteum demitti omnemque repones
 rursus humum et pedibus summas aequabis harenas.
 Si derunt, rarum pecorique et vitibus almis
 aptius uber erit; sin in sua posse negabunt
 ire loca et scrobibus superabit terra repletis, 235
 spissus ager: glaebas cunctantis crassaque terga
 exspecta et validis terram proscinde iuvenis.
 Salsa autem tellus et quae perhibetur amara
 (frugibus infelix ea, nec mansuescit arando
 nec Baccho genus aut pomis sua nomina servat) 240
 tale dabit specimen. Tu spisso vimine quallos
 colaque prelorum fumosis deripe tectis;
 huc ager ille malus dulcesque a fontibus undae
 ad plenum calcentur: aqua eluctabitur omnis
 scilicet et grandes ibunt per vimina guttae; 245
 at sapor indicium faciet manifestus et ora
 tristia temptantum sensu torquebit amaro.
 Pinguis item quae sit tellus, hoc denique pacto
 discimus: haut umquam manibus iactata fatiscit,
 sed picis in morem ad digitos lentescit habendo. 250
 Umida maiores herbas alit ipsaque iusto
 laetior. A, nimium ne sit mihi fertilis illa,

237 expecta MP, exerce Ra¹ || 247 sensus t, *Hyginus ap. Gell. I, xxi, 2*
 amaro MPRω, *plerique ap. Gell. loc. cit., Macr. VI, i, 47, multi ap. Serv., Mynors* : amaror
 M⁹bnt, *Hyginus ap. Gell. I, xxi, 2, Serv., PAC III, 62, 15, Ribbecke, Sabbadini, Svennung*

(229) *Lyaeo*: Baccho bera, λυαῖος, antzinatekoen etimologiaren arabera λύω-tik, beraz 'askatzailea'.

rientzat delako ona, bestea Bacchorentzat, gizona Ceresentzat gehiago, hagitx arina den guztia Lyeorentzat) lehenengo
 230 begiz joko duzu toki bat eta gogorrean zulo sakon bat egin
 dadila aginduko duzu eta berriz lur guztia sartuko duzu eta
 oinekin berdinduko dituzu gainaldeko hondarrak. Falta egi-
 ten bada, arina da eta artalde eta mahatsondo hazleentzako
 egokiagoa, ugaria; baina bere tokira joan daitekeela ukatuko
 235 badu eta, zuloak beteta, lurra sobera izango bada, soroa gi-
 zena da: itxaron itzazu mokor tinkoak eta bizkar lodiak eta
 zekor indartsuekin arraila ezazu lurra. Lur gaziak, aldiz, eta
 mikatza esaten zaionak (uztentzat ez emankorra hau, ez da
 ematzen goldatzean, eta ez dio Bacchori bere izaera gor-
 240 detzen ez frutei beren izenak) honako zantzu hau emango
 du. Har itzazu teilape ketuetatik zume sarriko otarreak eta
 prentsetako irazkiak; ondo beteta zapal bitez hemen lur
 gaizto hura eta iturrietatiko ur gozoak: ur guztia aterako da,
 245 jakina, eta tanta handiak joango dira zumeetatik; baina zan-
 tzua emango du zapore nabariak eta dastatzen ari direnen
 aurpegi tristeak bihurrituko ditu sentsazio mikatzarekin.
 Orobat zein lur den lodia honela ikas dezakegu azkenik: es-
 kuetan erabilia ez da inoiz puskatzen, baizik, bikearen mo-
 250 dura, edukitzean itsatsi egiten zaie behatzei. Hezeak belar
 handiegiak hazten ditu eta bera ere zuzen dena baino
 emankorragoa da. Ai, ez dezadala nik izan bat oparoegia eta

(230) *ante*: adberbioa. *alteeque*: 231ko «puteum»-ekin batera ulertu behar da.

(233-234) *rarum*, *aptius*, *uber*: aipatzen ez den subjektuaren predikatua hirurak.

(213) *oppositum*: zezenen eta behien artean alegia (eta gauza berbera «trans flumina lata»-ri dagokionez).

(215) *videndo*: zentzu pasiboa du hemen edo, bestela esanda, zezenei atxiki behar zaie eta ez «urit»-en subjektuari, hau da, behiari.

atseginagotzat eduki batek. Eta horregatik bereizten dituzte zezenak urrutira eta larre bakartietara, tartean datekeen mendi baten bestaldean eta ibai zabal baten handiko aldean, edo gordetzen dituzte barruan, itxita, aska asean ondoan.

215 Emeak, izan ere, indarrak kentzen dizkie piskaka eta erre egiten ditu ikusia izatean eta, bere lilura gozoekin, ez die ametitzen ohianekin edo belarrarekin gogora daitezen, eta askotan maitale harroak haien artean adarka borrokatzera behartzen ditu.

Sila handian txahal eme eder bat bazkatzen da: haiek, al-

220 dizka, indar handiz nahasten dituzte gudukak zauri sarriekin; odol beltzak gorputzak bustitzen ditu eta orro luze batekin bultza egiten dute bi tematsuek elkarren aurka zuzendutako adarrekin; erantzun egiten dute basoek eta Olympo zabalak. Ez da ohikoa ukuiluan batera egotea borrokalaria, baizik besteak, garaituak, alde egiten du eta,

225 urruti, bazter ezezagunetan erbestetzen da, ondo deitoratzen bere lotsa eta garaile harroaren kolpeak, eta baita ere mendekatzeke galdu zituen amodioak: eta ukuiluei begiratzten irten du arbasoen erreinuetatik. Beraz, arreta guztiarekin saiatzten ditu indarrak eta, gauaz, harkaitz gogorren artean

230 datza estali gabeko ohean, hosto latzez eta seska zorrotzaz bazkatuta, eta bere burua probatzen du, eta haserrea adarretan biltzen ikasten du zuhaitz baten enborrari jotzen, eta

(219) *Sila*: Calabriako mendikatea, baso sarriak eta larre zabalak ditu.

(220) *illi*: 218ko «amantis» haiek, hau da, zezenak.

(223) *Olympus*: hemen 'zerua' esan nahi du.

(224) *bellantis*: akusatiboa da (inoiz genitibotzat hartu izan bada ere).

(226) *gemens*: transitiboa da («*dignominiam plagasque*» eta 227ko «*quos amisit... amores*» dira bere osagarri zuzenak; «*multa*»-k adberbio baten balioa du).

(229-230) ...*inter dura... saxa*.

GEORGICON III

arboris obnixus trunco ventosque lacessit
 ictibus et sparsa ad pugnam proludit harena.
 Post, ubi collectum robur viresque relectae, 235
 signa movet praecepsque oblitum fertur in hostem,
 fluctus uti, medio coepit cum albescere ponto,
 longius ex altoque sinum trahit utque volutus
 ad terras immane sonat per saxa neque ipso
 monte minor procumbit; at ima exaestuatur unda 240
 verticibus nigramque alte subiectat harenam.
 Omne adeo genus in terris hominumque ferarumque
 et genus aequoreum, pecudes pictaeque volucres
 in furias ignemque ruunt: amor omnibus idem.
 Tempore non alio catulorum oblita leaena 245
 saevior erravit campis nec funera volgo
 tam multa informes ursi stragemque dedere
 per silvas; tum saevos aper, tum pessima tigris;
 heu, male tum Libyae solis erratur in agris.
 Nonne vides, ut tota tremor pertemptet equorum 250
 corpora, si tantum notas odor attulit auras?
 Ac neque eos iam frena virum neque verbera saeva,
 non scopuli rupesque cavae atque obiecta retardant
 flumina correptosque unda torquentia montis.

235 post] ast M, *Sabbadini* (ex *Aen. III, 410*) relectae MPb?ny, *DServ.* : re-
 ceptae Rωγ¹ || 236 oblicum Mb? || 237 uti PRωγ¹ : ut in Mdn, *Serv.*, uti in b, ut
 M³ medio] primo M³ (ex *Aen. VII, 528*) || 241 subiectat Pωγ : subvectat
 MRn, *schol. Bern.* || 248 silvam ω (*praeter bnr*) || 249 arvis ω (*praeter bnr*)

(235) *Post*: adberbio da. *ubi*: denborazkoa.

(239) *immane*: barne akusatibo gisa uler daiteke (*immanem sonitum* esan balu bezala) edo, bestela, adberbio baten baliokoa izango balitz bezala.

(242) *Hipermetroa*: ikus *Georg. I, 294*.

GEORGİKAK III

haizeei erasotzen die bere ukaldiekin, eta hondarra barreia-
 235 tuta borrokarako prestatzen da. Gero, kemena berbildu-
 ta eta indarrak berrituta, gudaldira abiatzen da eta, buruz
 aurrera, ahaztuta dagoen etsaiarengana doa, olatuak, itsasoa-
 ren erdian zuritzen hasten denean, magala zabalean eta sa-
 konetik harrotzen duen bezala, lurretara harkaitzen artean
 iraulita soinu handi bat egiten duen bezala eta, mendi bat
 240 baino ez txikiagoa, etzan egiten den bezala; eta azpiko urak
 zurrunbilota irakiten du eta hondar beltza gorantz botatzen du.

Horrenbestearaino amiltzen da suaren zoramenetan lurre-
 ko gizonen eta piztien enda oro eta itsastarren enda, abe-
 reak eta txori margotuak: berbera da denentzat maitasuna.
 245 Ez beste garai batean ibili da krudelago landetatik alderrai
 lehoi emea, kumeeekin ahaztuta, ez dute hartz zatarrak hain-
 beste hiltze eta sarraski egin arrunki basoetatik; orduan da
 ankerra basurdea, orduan gaiztoa tigrea; ai, gaizki ibiltzen
 da orduan Libyako zelai bakartsuetan. Ez al duzu ikusten
 250 nola hartzen dituen zaldien gorputz osoak ikara batek, usai-
 nak bere haize-bolada ezagunak bidaltzearekin bakarrik? Eta
 ja ez dituzte gelditzen ez gizonen ipinitako ahokoek ez zi-
 gor ankerrek, ez haitzek eta harkaitz hutsek, ez oztopo dau-
 den eta erauzitako mendiak beren uretan bihurritzen dituz-

(248) *saeuos*: nominatibo singularra.

(249) *Libyae*: oro har Africako iparraldea, *Africa* izeneko probintziaren eta Egiptoren artean; tigre ugari zeudelako bertako basamortuetan («solis... in agris») aipatzen du hemen Virgiliok. *erratur*: pertsona gabea.

(251) *si... auras*: «hypallage est pro 'si aerae odorem adportaverint notum'» (Serv.).

(252) *virum: virorum*.

(254) *flumina*: honekin doaz 253ko «objecta» eta 254ko «torquentia».

Ipse ruit dentesque Sabellicus exacuit sus 255
 et pede prosubigit terram, fricat arbore costas
 atque hinc atque illinc umeros ad volnera durat.
 Quid iuvenis, magnum cui versat in ossibus ignem
 durus amor? nempe abruptis turbata procellis
 nocte natat caeca serus freta, quem super ingens 260
 porta tonat caeli, et scopulis inlisa reclamant
 aequora; nec miseri possunt revocare parentes
 nec moritura super crudeli funere virgo.
 Quid lynces Bacchi variae et genus acre luporum
 atque canum? quid quae inbelles dant proelia cervi? 265
 Scilicet ante omnis furor est insignis equarum,
 et mentem Venus ipsa dedit, quo tempore Glauci
 Potniades malis membra absumpsere quadrigae.
 Illas ducit amor trans Gargara transque sonantem
 Ascanium; superant montis et flumina tranant. 270
 Continuoque, avidis ubi subdita flamma medullis
 (vere magis, quia vere calor redit ossibus), illae

257 umeros Mry, *Prisc.* VIII, 30 : umerosque PRωγ¹ || 263 supra P || 265 quid
 quae] quidque ω inbelles MP, *Mynors* : inbellis (*nom. plur.*) R, *Geymonat* || 272 redit
 calor R

(255) *Sabellicus*: bere barnean Lucania eta, seguruenik, Italiako hegoaldeko beste lurralde batzuk hartzen ditu (hau da, *Sannium* izenak baino gehiago hartzen duela dirudi). *sus*: «dicit autem suem domesticum... Hoc enim vult probare, non tantum feras, sed et mansueta animalia amore in furorem moveri» (Serv.); hala ere batzuek basurdeari buruz ari dela diote.

(258-263) Hero eta Leandroren historiari ari da, izenik aipatzeke, lerro hauek: Leandro, Herorekin maiteminduta, Helleponto pasatzen zuen igerian eginez, Abydotik (Asiako aldean) Sestora (Europakoan) eta alderantziz; Herok pizten zuen argi bati esker asmatzen zuen Leandrok Sestoraino heltzen: gau batean argia ekaitz batek itzali zuen eta Leandro ezin izan zen iritsi; biharamunean itsasoak Heroren etxe ondoraino eramane zuen Leandroren gorpua eta neskak, honen aurrean, etxeoko dorretik behera bota zuen bere burua.

255 ten ibaiak. Sabelliar zerria bera oldartu egiten da eta hortzak zorrozten ditu eta lurra aztakatzen du hankarekin, saihetsak hazkatzen ditu zuhaitz batean, eta handik eta hemendik bizkarra gogortzen du zaurietarako. Zer ez ote du egingo maitasun gogorak hezurretan su handi bat iraultzen dion gazteak? bai, berantiarra, tormenta lakarrek nahastutako
 260 uretatik igerian egiten du gau itsuan, zeruko ate eskergak trumoiak jotzen ditu haren gainean, eta haitzetan astindu itsasoek deitu egiten diote; ezin dute berriz etorriarazi, ez bere aita-ama errukariek ez hiltze krudelez hilko den neskatxak ere. Zer, Bacchoren lintze nabarrek eta otsoen eta
 265 zakurren enda zakarrak? zer, orein gudugabeek ematen dituzten gudaldiak?

Guztien artean nabarmendua da, jakina, behorren grina, eta Venusek berak eman zien gogo hori, potniastar lauzaldiek Glaucoren gorputz-atalak beren matrailezurrekin txikitu zituzten garaian. Gargaroren eta Ascanio zaratatsuaren
 270 bestaldera eramaten ditu haiek maitasunak: mendiak gainditzen dituzte eta ibaiak igerian igaro. Berehala, sugarra errai gosetietan sartua denean (udaberrian gehiago, udaberrian itzultzen zaielako beroa hezurrei), haiek denak, musua

(260) *quem super*: anastrofea.

(263) *super*: adberbioa da seguruenik (baina preposizioa ere izan daiteke).

(264) *lynce*: Bacchoren gurdia eramaten zuten (ikus *Ecl.* V, 29). *variae*: lintzeen larruaren koloreari dagokio adjektiboa.

(267-268) Ipuinaren hiru edo lau aldaera badaude ere, hau da seguruenik Virgiliok hemen aipatu nahi duena: Glauco ez zien bere behorrei estaliak izaten uzten, lasterketetan azkarragoak izan zitezen; behorrek, Venusek haizatuta, jan egin zuten Glauco.

(269) *Gargara*: Ida mendiko gailur bat, Trojatik hur, Asia Txikian.

(270) *Ascanium*: *flumen Ascanium* alegia, Bithyniako ibaia, Asia Txikiko ipar mendebaldean.

(271) *ubi subdita*: sc. est.

ore omnes versae in Zephyrum stant rupibus altis
 exceptantque levis auras et saepe sine ullis
 coniugiis vento gravidae (mirabile dictu) 275
 saxa per et scopulos et depressas convallis
 diffugiunt, non, Eure, tuos neque solis ad ortus,
 in Borean Caurumque aut unde nigerrimus Auster
 nascitur et pluvio contristat frigore caelum.
 Hic demum, hippomanes vero quod nomine dicunt 280
 pastores, lentum destillat ab inguine virus,
 hippomanes, quod saepe malae legere novercae
 miscueruntque herbas et non innoxia verba.
 Sed fugit interea, fugit inreparabile tempus,
 singula dum capti circumvectamur amore. 285
 Hoc satis armentis; superat pars altera curae,
 lanigeros agitare greges hirtasque capellas;
 hic labor, hinc laudem fortes sperate coloni.
 Nec sum animi dubius, verbis ea vincere magnum
 quam sit et angustis hunc addere rebus honorem; 290
 sed me Parnasi deserta per ardua dulcis
 raptat amor; iuvat ire iugis, qua nulla priorum

273 in Πωγ, *Serv.* : om. M, ad M²R, *Colum.* VI, xxvii, 6 || 274 exceptantque M²Rωγ¹, *Colum.* VI, xxvii, 6, *schol. Bern.*, *Serv.*, *DServ.* : expectantque Mbry, exspectantque P || 279 frigore] sidere R, *schol. Bern.*

III, 285-348 FMPR — 286 superat est M, *del.* est M²

(273) *Zephyrum*: hego mendebaldetiko haizea.

(275) *vento gravidae*: Virgilioren garaian (eta geroago eta, noski, lehenago) benetan uste izaten zen hau gerta egin zitekeela.

(276) *saxa per*: anastrofea.

(277-279) Ez dira ez ekialderantz ez mendebalderantz abiatzen, iparralderantz edo hegoalderantz baizik.

(277) *Eure*: hego ekialdetiko haizea. *tuos*: sc. *ad ortus*.

Zephyrora begira dutela, haitz altuetan jartzen dira eta haize-bolada arinak hartzen dituzte eta, askotan inongo estal-
 275 tzerik gabe haizearekin geldituta ernari (esateko miragarria),
 ihes egiten dute harri eta harkaitz eta ibar sakonetatik, ez,
 Euro, zure sorburuetara ezta eguzkiarenetara ere, Boreasera
 eta Caurora, edo Austro beltz-beltza jaiotzen den eta beronek
 280 zerua hotz euritsuarekin goibeltzen duen lekura. Orduan
 bakarrik, artzainek izen zehatzez *hippomanes* esaten dutena,
 isurkari likatsu bat, iztartetik darie, *hippomanes*, askotan
 amaorde gaiztoek hartu izan dutena eta belarrekin eta hitz
 ez errugabeekin nahastu.

Baina ihes dagi bitartean denborak, ihes dagi lehengoratu
 285 ezinik, banan-banakoen inguruan ari garela, maitasunak
 hartuta. Ganaduei buruz nahikoa da honekin; arduraren beste
 zatia falta da, saldo artiledunak eramatea eta antxume latzak:
 hau da lana, itxaron ezazue hemendik goresmena, nekazari
 290 indartsuok. Dударik ez dut zein handia den hauek hitzekin
 garaitzea eta ohore hau gai estuoi ematea, baina maitasun
 gozoak narama ni Parnasoko goi mortuetatik: laket zait
 mendi-gainetatik joatea, nondik aitzindarien inongo

(278) *Borean Caurumque aut... Auster*: Boreas iparraldetiko haizea da, Cauro ipar mendebaldetikoa eta Austro hegoaldetikoa. *unde*: honen mendean daude 279ko «nascitur» eta «contristat».

(280) *hippomanes*: grezierazko ἵππομανές: «re vera autem hippomanes dicit esse virus, defluens ex equarum inguinibus quo tempore feruntur amoris furore, ut sit hippomanes virus natum ἀπὸ τῆς μανίας τῆς ἵππου» (Serv.).

(286) *armentis*: abere larrien saldoak bakarrik: izan ere, behiei eta zaldiei buruz jardun du orain arte; hemendik aurrera abere xheei buruz hitz egingo du, ardiei eta ahuntzei buruz alegia (287ko «danigeros... greges» eta «hirtasque capellas»).

(289) *animi: genitivus relationis. ea*: gai hauek. *magnum*: 289ko «vincere»-ren eta 290eko «addere»-ren predikatua da.

(291) *Parnasi*: Parnaso mendia, Musen eta Apolloren egoitza.

(292) *amor*: batzuentzat Musenganakoa.

Castaliam molli devertitur orbita clivo.

Nunc, veneranda Pales, magno nunc ore sonandum.

Incipiens stabulis edico in mollibus herbam 295
 carpere ovis, dum mox frondosa reducitur aestas,
 et multa duram stipula felicumque manipulis
 sternere subter humum, glacies ne frigida laedat
 molle pecus scabiemque ferat turpisque podagras.
 Post hinc digressus iubeo frondentia capris 300
 arbuta sufficere et fluvios praebere recentis
 et stabula a ventis hiberno opponere soli
 ad medium conversa diem, cum frigidus olim
 iam cadit extremoque inrorat Aquarius anno.
 Hae quoque non cura nobis levioere tuendae, 305
 nec minor usus erit, quamvis Milesia magno
 vellera mutantur Tyrios incocta rubores;
 densior hinc suboles, hinc largi copia lactis:
 quam magis exhausto spumaverit ubere mulctra,
 laeta magis pressis manabunt flumina mammis. 310
 Nec minus interea barbas incanaque menta
 Cinyphii tondent hircui saetasque comantis

297 duram F⁴Mωγ, *Non. 389, 14, Serv. Ecl. I, 15* : dura F (dura in F¹), durum PR felicumque FMPrn, *Non. 389, 18, Ribbeck* : filicumque ωγ, *Serv. Ecl. I, 15, Sabbadini, Mynors* || 305 hae Pdnγ, *Mynors* : haec FMRωγ¹, *Ribbeck, Sabbadini* leviora bc tuendae FPRadfy : tuenda Mω || 307 rubores] colores R, *schol. Bern.* || 309 quo R, *schol. Bern.* ubera MRcy, *corr. M¹γ¹* || 310 flumina FMachnvγ : ubera PRω, *Non. 341, 3* || 312 hircui PFγ (*cf. Ecl. III, 8*) : hirci F¹Mωγ¹, *Mynors, hircis R*

(293) *Castaliam*: Parnaso mendian dagoen iturria, Apollori opaldua; erromatar tradizioan, handik edateak poesiarako etorria zekarren.

(294) *Pales*: artzainen italiar jainkosa.

(295) *edico*: bi infinitibo ditu bere mendean subjektu desberdin banarekin, 296ko «carpere» («ovis» izanik subjektua) eta 298ko «sternere» (eta adierazten ez den *te* bat da haren subjektua).

arrastorik ez baitoa, aldapa biguinean, Castaliara. Orain, Pales gurgarriori, orain abestu behar da ahots handiarekin.

- 295 Hasteko, ardiek belarra artegi biguinetan bazka dezatela manatzen dut, uda hostotsua laster itzuli arte, eta, azpian, lur gogorra galtzu askorekin eta garo-azaoekin estal dadila, izotz hotzak ez diezaion minik egin artalde leunari ez ugerra ez hezueri itsusiak eman. Ondoren, hemendik aurrera egi-
 300 nez, ahuntzei gurbitz hostotsuak ematea agintzen dut eta ibai freskoak eskeintzea eta artegiak neguko eguzkiari begira, haizeei bizkarra emanez, jartzea, eguerdi-alderantz zuzenduak, Aquario hotza ja erortzen den unean eta, neguaren muturrean, ihinzatu egiten duenean. Hauek ez ditugu
 305 ardura arinagoarekin zaindu behar, eta beren emaitza ez da, ezta ere, txikiagoa izango, miletoar kalparrak, gorritasun tyroarretan egosita, garesti saltzen badira ere; sarriagoa da hemendikako hazia, nasaia hemendikako esnearen ugaritasuna: zenbat eta apar gehiago egin jetzi-ontzietan, errapeak agortuta, oparogo jarioko zaizkie ibaiak titi estutuci. Gainera,
 310 ez dira gutxiago mozten cinypstar akerraren bizarrak eta kokots urdinuak eta buru-gaineko zurdak, kanpamentueta-

(300) *digressus*: kontaktari berari buruz ari da, ez kontatzen dituen gauzen hurrenkerari buruz.

(304) *Aquarius*: zodiakoko ikurra, urtarrilean sortzen da eta otsailean sartzen.

(305) *Hae*: hurrengo lerroetan ahuntzak ardiekin erkatzen ditu (horrela ulertzen dira baita 308ko bi «hinc» ere).

(306-307) *Milesia... veller*: Miletokoa, Asia Txikiko hiria, bertako ardiak eta artillea famatuak ziren antzinatean. *Tyrios... rubores*: Tyrokoak, Pheniciako hiria, han egiten ziren mundu osoan erabiltzen ziren purpurazko tinduak; tindatzeko egosi egiten zen oihala: horregatik «incocta».

(307) *Tyrios incocta rubores*: «incocta» aditz medioa da hemen eta «Tyrios... rubores» erlaziozko akusatiboa.

(310) *laeta magis... manabunt flumina: tam laeta...* esango balu bezala.

(312) *Cinyphii*: Cinypsekoa, Lybiako ibaia; lurralde horietakoek oihalak ehuntzen zituzten ahuntzen ileekin. *tendent*: alegia motzaileek, «hirci» genitibo singularra izanik.

usum in castrorum et miseris velamina nautis.
 Pascuntur vero silvas et summa Lycaei
 horrentisque rubos et amantis ardua dumos 315
 atque ipsae memores redeunt in tecta suosque
 ducunt et gravido superant vix ubere limen.
 Ergo omni studio glaciem ventosque nivalis,
 quo minor est illis curae mortalis egestas,
 avertes victumque feres et virgea laetus 320
 pabula nec tota claudes faenilia bruma.
 At vero Zephyris cum laeta vocantibus aestas
 in saltus utrumque gregem atque in pascua mittet,
 Luciferi primo cum sidere frigida rura
 carpamus, dum mane novum, dum gramina canent 325
 et ros in tenera pecori gratissimus herba.
 Inde, ubi quarta sitim caeli collegerit hora
 et cantu querulae rumpent arbusta cicadae,
 ad puteos aut alta greges ad stagna iubebo
 currentem ilignis potare canalibus undam; 330
 aestibus at mediis umbrosam exquirere vallem,
 sicubi magna Iovis antiquo robore quercus
 ingentis tendat ramos, aut sicubi nigrum
 ilicibus crebris sacra nemus accubet umbra;

314 silvae P || 316 immemores *ex* inmemores M¹, *corr.* M² || 323 mittet M :
 mittes FM²PRωγ, *Serv.*, *cet.*, mittis *codd.* Non. 348, 16 || 329 at puteos FP, aut puteos
 br aut] adque R iubebo FPra¹, *schol. Bern.* : iubeto F¹MRωγ, Non. 216,
 37, *alii ap. schol. Bern.* || 331 at F¹Mω : ad Raγ, aut FPbr

(314) *Pascuntur*: hemen transitiboa da. *Lycaei*: Arcadiako mendia.

(315) *ardua*: «ardua» (izen baten balioarekin) «amantis»-en osagarri zuzena da (zeina, noski, akusatibo plurala baita).

(322) *Zephyris... vocantibus*: udaberriko haizea da-eta.

ko beharretarako eta estalkitzat marinel errukarrientzat. Eta basoetan bazkatzen dira eta Lyceoko gailurretan eta sasi la-
 315 zetan eta goiak maite dituzten laharretan, eta berez itzul-
 tzen dira, gogoratuta, teilapeetara, eta beren umeak gidatzen
 dituzte eta, errapeak beteta dituztenean, nekez pasatzen
 dute ataburua. Beraz, arreta guztiarekin aldenduko dizkiezu
 izotza eta elur-haizeak, zaintza hilkorren behar gutxiago
 320 duten neurrian, eta janaria emango diezu eta, ugari, zumez-
 ko bazkak, eta ez dituzu belartegiak itxiko negu guztian.

Baina uda alaiak, Zephyroek deituta, saldo bata eta bes-
 tea baso eta larreetara eramán ditzanean, Artizarraren lehe-
 nengo izarrarekin ibil ditzagun lur izoztuak, goiza berria
 325 deino, zelaiak zuri eta ihintza, atsegina oso artaldearentzat,
 belar samurrean den bitartean. Hortik, eguneko laugarren
 orduak egarria berritu duenean eta txitxar negartiek zuhaix-
 kak puskatzen dituztenean beren kantuarekin, aginduko dut
 artaldeek ur lasterra edan dezatela putzuen edo aintzira
 330 altuen inguruetako artezko hodietan; bero betetan ordea
 ibar gerizpetsu bat bila dezatela, non ere Jupiterren haritz
 handiak bere enbor zaharretik adar eskergak zabaltzen baiti-
 tu edo non ere oihan bat, arte sarriek belztua, bere gerizpe
 sakratuarekin etzaten baita; orduan eman atzera ur xortak

(323) *mittet*: subjektua «laeta... aestas» da eta «utrumque gregem» osagarri zu-
 zena. *utrumque gregem*: ahuntzak eta ardiak.

(324) *Luciferi*: Lucifer edo Venus, Artizarra. *primo cum sidere*: 'irtetzen duen be-
 zain laster' alegia.

(325) *dum gramina canent*: ihintzagatik.

(329) *iubebo*: honen mendean daude 330eko «potare», 331ko «exquirere» eta
 335eko «dare» eta «pascere».

(332) *Iovis*: azken silaba luzea da, *productio ob caesuram* batengatik. *magna Iovis...*
quercus: haritza Jupiterrena da: esaterako, Dodonako haritz basoaren erdian Jupi-
 terren tenplo bat zegoen (horregatik 334ko «sacra»).

tum tenuis dare rursus aquas et pascere rursus 335
 solis ad occasum, cum frigidus aëra Vesper
 temperat et saltus reficit iam roscida luna
 litoraque alcyonen resonant, acalanthida dumi.

Quid tibi pastores Libyae, quid pascua versu
 prosequar et raris habitata mapalia tectis? 340
 saepe diem noctemque et totum ex ordine mensem
 pascitur itque pecus longa in deserta sine ullis
 hospitii: tantum campi iacet. Omnia secum
 armentarius Afer agit, tectumque laremque
 armaque Amyclaeumque canem Cressamque pharetram; 345
 non secus ac patriis acer Romanus in armis
 iniusto sub fasce viam quom carpit, et hosti
 ante exspectatum positus stat in agmine castris.

At non, qua Scythiae gentes Maeotiaque unda,
 turbidus et torquens flaventis Hister harenas 350
 quaque redit medium Rhodope porrecta sub axem.
 Illic clausa tenent stabulis armenta, neque ullae
 aut herbae campo apparent aut arbore frondes;

335 tunc tenues R || 345 gressamque FM (*corr.* M¹), crassamque c (*cf.* *Serv. Ecl. III, 12*) || 347 invito F hosti FM²Rabhnty¹, *Vegetius I, 19, DServ.* : hostem M^ω, hostis Py || 348 in *om.* R, *comm. Lucan. V, 436* agmina P, *Ribbeck III, 349-350 MPR*
 III, 351-402 MPRV — 352 nec R

(335) *dare, pascere*: oraindik 329ko «iubebo»-ren mendean, baina orain subjektua artzainak dira (baina baita, seguruenik, 331ko «exquirere»-ren kasuan ere).

(339) *Libyae*: ikus gorago, *Georg. III, 249*.

(340) *raris habitata mapalia tectis*: *mapalia* zer den ez dago argi: horregatik da zaila «*raris... tectis*» ablatiboaren balioa zehaztea.

(343) *campi*: partitiboa.

(345) *Amyclaeumque canem*: Amyclas Laconiako hiria da, hau da, Spartakoa; bertako zakurrak bereziki estimatuak ziren. *Cressamque pharetram*: Cretako uztailariak fatuatuak ziren antzinatean.

335 eta bazkatu atzera eguzkiaren sartzera arte, Artizar hotzak
 airea epeltzen duenean eta ilargi garodunak basoak indarberri-
 tzen dituenean eta urbazterrek ur-txoriari, sasiek kardantxiloari
 erantzuten diotenean.

Zertarako jarraituko natzaie, zuretzako nire bertso hone-
 tan, Libyako artzainei, zertarako hauen larreei eta bizi diren
 340 —teilatut bakanak— txabolei? bazkatzen ibiltzen dira asko-
 tan egunaz eta gauaz eta hil osoaz, jarraian, eta artaldea
 aterperik gabeko basamortu zabaletara joaten da: hainbeste
 landa baitago. Abeltzain africarrak dena darama berarekin,
 345 teilatua eta sukaldea eta armak eta amyclastar zakurra eta
 cretar buiraka; ez bestela erromatar adoretsua, bidea ibiltzen
 duenean aberriko armetan hatu zuzengabeen azpian, eta
 etsaiak uste baino lehenago gudal-ilaran jartzen denean, kan-
 pamentua jasota.

Ez ordea Scythiako jendea eta meotiar ura diren lekue-
 350 tan, Histro arreak hondar horailak daramatzan lekuan, eta
 Rhodope —iparraren erdialdera luzatuta— itzultzen den le-
 kuan. Han artaldeak artegietan sartuta gordetzen dituzte, eta
 ez da zelaian inongo belarrik agertzen ez zuhaitzean hosto-

(347) *hosti*: 348ko «*expectatum*»-en datibo egilea. (Baina esaldia bestela ere
 uler daiteke: esaterako, «*hosti*» 348ko «*stat*»-en osagarri gisa).

(349) *At non*: ez da aditza adierazten: 'gauzak ez dira horrelakoak' edo antzeko
 zerbait suposatu behar da. *Scythiae gentes*: iparralde ia-ia mitiko bateko biztanleak.
Maeotiae unda: erromatarren *Maeotica palus*, hau da, Azoven Itsasoa.

(350) Erlatibozko esaldi bat suposatu behar da: nahi izanez gero 349ko «*qua*»
 berriz; eta bai 349ko erlatibozkoan bai 350ekoan aditza falta da. *Hister*: Danubio
 ibaiaren azken zatiaren izena.

(351) *redit*: erromatar edo greciar baten ikuspuntutik: Rhodope mendiak hegoal-
 detik iparraldera doaz eta, mendikatearen bukaeran (beti aipatu ikuspuntutik ikusi-
 ta), itzuli egingo balitz bezala egiten du, hau da, berriz hegoalderantz okertzen da.
Rhodope: Thraciako mendikatea.

(352) *tenent*: sc. artzainek.

(353) *campo, arbore*: ablatibo lokatiboak.

GEORGICON III

sed iacet aggeribus niveis informis et alto
 terra gelu late septemque adsurgit in ulnas. 355
 Semper hiemps, semper spirantes frigora Cauri;
 tum Sol pallentis haut umquam discutit umbras,
 nec cum invectus equis altum petit aethera nec cum
 praecipitem Oceani rubro lavit aequore currum.
 Concrescunt subitae currenti in flumine crustae, 360
 undaque iam tergo ferratos sustinet orbis,
 puppibus illa prius, patulis nunc hospita plaustris,
 aeraque dissiliunt volgo, vestesque rigescunt
 indutae, caeduntque securibus umida vina,
 et totae solidam in glaciem vertere lucunae, 365
 stiriaque inpexis induruit horrida barbis.
 Interea toto non setius aëre ninguīt:
 intereunt pecudes, stant circumfusa pruinis
 corpora magna boum confertoque agmine cervi
 torpent mole nova et summis vix cornibus extant. 370
 Hos non immissis canibus, non cassibus ullis
 puniceaeve agitant pavidos formidine pinnae,
 sed frustra oppositum trudentis pectore montem
 comminus obruncant ferro graviterque rudentis
 caedunt et magno laeti clamore reportant. 375
 Ipsi in defossis specubus segura sub alta

357 tunc P || 365 in solidam Rγ lucunae M, Ribbeck : lacunae
 M¹PRVωγ, Prisc. XVIII, 120, Sabbadini, Mynors || 366 v. om. R || 369 confecto-
 que RVb? || 372 puniceaeque V || 373 set M, et R || 374 rudentes M²V¹, ruen-
 tes Vγ (corr. γ¹)

(354) *iacet*: sc. *terra*.

(356) *Cauri*: iparraldetik datozen haize hotzak.

(357) *pallentis... umbras*: lainoak alegia.

(359) *rubro... aequore*: gorria eguzkiaren sartzeagatik.

rik; baizik zabalki datza lurra, elur-metek eta izotz sakonak
 355 zatartua, eta zazpi beso dago jasota. Beti da negua, beti
 hotza putz egiten dute Cauroek; Eguzkiak, bada, inoiz ez
 ditu garbitzen itzal zurpailak, ezta bere zaldiek eramanda
 zeru altura jotzen duenean ere, ez bere gurdi amildua Ocea-
 360 noren itsaso gorrian garbitzen duenean. Ur lasterraren gai-
 nean azala egiten da bat-batean eta urak burnizko gurpilak
 sustengatzen ditu ja bizkarrean, lehen popen ostalaria orain
 gurdi zabalena da hura, brontzeak lehertu egiten dira arrun-
 ki, arropa jantziak zurrundu egiten dira, ardo isurkariak aiz-
 korekin ebakitzen dituzte eta potzu osoak bihurtzen dira
 365 izotz gogor, eta izotz-kozkor latza orraztu gabeko bizarre-
 tan gogortzen da. Bitartean, eta hau ez da gutxiagorako,
 elurra egiten du zeru guztian: hiltzen dira ganaduak, abel-
 gorrien gorputz handiak tente daude elurrez inguratuak eta
 oreinak, ilara estuan, baldartuta daude elur-pila berriaren
 370 azpian eta adarren muturrengatik ikusten dira ozta-ozta.
 Hauek ez dituzte ez zakur ziztatuekin ehizatzen ez inongo
 sarerekin, ez dituzte purpurazko luma batek ematen dien
 beldurrarekin —izutuak— haizatzen, baizik aurrean duten
 mendiari alferrik bultza egiten diotela burniarekin zintzurra
 egiten diete hurretik eta marru latza egiten dutela hil egiten
 375 dituzte eta, pozak, berekin eramaten dituzte iskanbila han-
 diarekin. Hauek atsedean seguruan bizi dira lurrean sakon

(364) *caedunt*: bertako biztanleek. *umida vina*: hau da, normalean isurkariak diren ardoak.

(365) *vertere*: sc. *se*.

(368) *pecudes*: abere xeheak.

(373) *oppositum... montem*: elurrezkoa alegia. *trudentis*: osagarri zuzenaren (371ko «Hos») predikatiboa, 374ko «rudentis» bezala.

(375) *reportant*: sc. *domum*.

(376) *Ipsi*: scythiarak. *sub alta*: 377ko «terra»-rekin.

otia agunt terra, congestaque robora totasque
 advolvere focus ulmos ignique dedere;
 hic noctem ludo ducunt et pocula laeti
 fermento atque acidis imitantur vitea sorbis. 380

Talis Hyperboreo Septem subiecta trioni
 gens effrena virum Riphæo tunditur Euro
 et pecudum fulvis velatur corpora saetis.

Si tibi lanitium curae, primum aspera silva,
 lappaeque tribolique, absint; fuge pabula laeta; 385
 continuoque greges villis lege mollibus albos.

Illum autem, quamvis aries sit candidus ipse,
 nigra subest udo tantum cui lingua palato,
 reice, ne maculis infuscet vellera pullis
 nascentum, plenoque alium circumspice campo. 390

Munere sic niveo lanae, si credere dignum est,
 Pan deus Arcadiae captam te, Luna, fefellit
 in nemora alta vocans; nec tu aspernata vocantem.

At cui lactis amor, cytisum lotosque frequentis
 ipse manu salsasque ferat praesepibus herbas: 395
 hinc et amant fluvios magis et magis ubera tendunt
 et salis occultum referunt in lacte saporem.

377 totasque] que *del. M^l, om. bchy* || 383 velatur PRγ, *Ryfin. 57, 21* : velantur Mω, *evan. in V*, vestitur *schol. Bern.* || 395 ipse My : ille PRω, ipse V || 396 ac magis ω (*praeter bn, magis r*)

(377) Hipermetroa: ikus *Georg. I, 294.*

(381) *Septem... trioni*: tmesia; *triones* hitzak 'idiak' esan nahi omen zuen (Varron, *Ling. VII, 74*), eta halakotzat hartzen ziren Hartz Handiaren zazpi izar nagusiak. *Hyperboreo*: tautologikoa da «Septem... trioni»-rekin batera.

(382) *Riphaeo... Euro*: riphear mendiak Europako iparraldearen eta Ponto Euxinoren artean kokatzen ziren; «Euro» izenak, hemen, ekialdetiko haizea esan nahi du edo, besterik gabe, haizea oro har.

egindako haitzuloetan, eta bildutako haritzak eta zumar osoak sukaldera hurrantzen dituzte eta sutara ematen; hemen pasatzen dute gaua jolasean eta, alai, garagardo irakinarekin eta udalatx mikatzekin mahatsondo-goporrak antzeratzen dituzte. Hyperborear zazpi idien peko gizonen enda basati hau riphear Euroak astintzen du eta abereen zurda horailez esaltzen ditu gorputzak.

Artilea ardura bazaizu, beude urruti, ezer baino lehena-
 385 go, baso lakarra eta lapatxak eta laparrak; egizu ihes bazka oparoetatik; eta aukera itzazu berehala ile leuneko artalde zuriak. Aharia, zuri-zuria bada ere, aho-sabai bustiaren azpian mingaina beltza badu, bazter ezazu, ez ditzan jaioberrien kalparrak orban beltzez zikindu, eta beteta dagoen
 390 landatik ingura ezazu beste bat. Horrela, artilezko opari elurrezko batekin, sinestea merezi badu, Panek, Arcadiako jainkoa, engainatu eta hartu zintuen zu, Ilargia, oihan saketara hots egiten zizula; eta zuk ez zenuen mesprezatu hots egiten zizuna.

Esnearen maitasuna duenak ordea isatsa eta loto ugariak
 395 eta belar gaziak eraman ditzala bere eskuz asketara: honen-
 gatik maite dituzte gehiago ibaiak eta gehiago betetzen dituzte errapeak eta gatz-gustu ezkutu bat lagatzen dute esnean.

(383) *velatur*: aditz medioa da eta «corpora» bere osagarri zuzena. (Baina uler daiteke «corpora» erlaziozko akusatiboa izango balitz bezala).

(384) *curae*: datiboa.

(385) *lappaeque*: hitz honen azken silaba luzea da (ikus *Georg.* I, 153). *pabula laeta*: artilearen kalitatearen kalterako zirela uste zutelako.

(390) *nascuntur*: *nascuntium*, *metri causa*.

(392) *Pan deus Arcadiae*...: «fabula sic est: Pan cum Lunae amore flagraret, ut illi formosus videretur, niveis vellibus se circumdedit atque ita eam ad rem veneriam illexit. Huius opinionis auctor est Nicander: nec poterat esse nisi Graecus» (Serv.).

(396) *hinc*: gauza gaziak jatetik alegia.

GEORGICON III

Multi etiam excretos prohibent a matribus haedos
 primaque ferratis praefigunt ora capistris. 400
 Quod surgente die mulsero horisque diurnis,
 nocte premunt; quod iam tenebris et sole cadente,
 sub lucem: exportant calathis (adit oppida pastor)
 aut parco sale contingunt hiemique reponunt.
 Nec tibi cura canum fuerit postrema, sed una 405
 velocis Spartae catulos acremque Molossum
 pasce sero pingui. Numquam custodibus illis
 nocturnum stabulis furem incursusque luporum
 aut inpacatos a tergo horrebis Hiberos.
 Saepe etiam cursu timidos agitabis onagros
 et canibus leporem, canibus venabere dammas; 410
 saepe volutabris pulsos silvestribus apros
 latratu turbabis agens, montisque per altos
 ingentem clamore premes ad retia cervom.
 Disce et odoratam stabulis accendere cedrum 415
 galbaneoque agitare gravis nidore chelydros.
 Saepe sub immotis praesepibus aut mala tactu
 vipera delituit caelumque exterrita fugit
 aut tecto adsuetus coluber succedere et umbrae

398 etiam Pb : iam MRωγ, *evan. in V* extremos P || 402 exportans *schol. Bern., Scaliger*

III, 403-566 MPR — 403 parcos M, *corr. M¹* («parvo, *alii parco» schol. Bern.*) ||
 408 inpacatos *ex indignatos M⁵* || 412 turbaris P, terrebis R || 415 galbaneosque
 M, *corr. M¹* graves R, gravi n, *Non. 315, 6, Serv.* || 416 ignotis R

(401) *quod: sc. mulsero.*

(402-403) *exportant... aut... contingunt... (et) reponunt: ez du zerikusirik bi jetzi aldiekin.*

(402) *sub lucem: sc. premunt.*

(403) *hiemique: datiboa.*

Askok antxume titigetuak ere amengandik bereizten dituzte, eta aho puntak burnizko muturrekoekin ixten dizkiete. Ar-
 400 gitzean eta eguneko orduetan jetzitakoa gauaz estutzen dute; ja ilunbeetan eta eguzkia sartzean jetzitakoa, argitan: katiluetan eramaten dute (hirira joaten da artzaina) edo gatz apurrarekin ukitzen dute eta negurako gorde.

Eta ez dakizula azkena izan zakurren ardua, baizik
 405 Sparta lasterraren zakurkumeak eta molossiar zakarra batera hazi itzazu gazur gantzatsuaz. Zaintzaile hauekin ez zara inoiz ukuiluetako lapur gautarraren beldur izango, edo otsoen erasoena, edo, bizkarretik, baketugabeko hiberiarrena. Askotan korrituaraziko dituzu ere, antxintxika, basasto beldur-
 410 tiak, eta zakurrekin ehizatuko duzu erbia, zakurrekin orkatzak; askotan, zeure aurrean eramanda, zaunkekin lasterkaraziko dituzu tegi basatietatik botatako basurdeak, eta harraman-
 tzarekin orein handia estutuko duzu sareetara mendi handietatik.

Ikas ezazu baita zedro usaintsua ukuiluetan erretzen ere
 415 eta galbanoaren kearekin suge kaltegarriak uxatzen. Askotan, mugitugabeko asken azpian, edo sugegorria ezkutatzen da, ukitzeko gaiztoa, eta zeruaz beldurtuta ihes egiten du, edo sugea dago lurrari atxikia, teilatupean eta gerizpean

(405) *velocis Spartae catulos acremque Molossum*: Spartako zakurrak oso preziatuak ziren; molossiarrek Epiroko lurraldea den Molosiatik hartzen dute izena.

(406) *custodibus illis*: ablatibo absolutoa.

(408) *a tergo*: bizkarretik erasotzen omen zutelako (beraz, «horrebis»-ekin ulertu behar da).

(409) *timidos... onagros*: Asia Txikian bizi ziren basastoak.

(410) *venabere*: sc. *venaberis*.

(415) *chelydros*: ikus *Georg.* II, 214.

(418) *tecto... et umbrae: hendiadyoin* seguruenik. *adsuetus*: «succedere» eta 419ko «aspergere» bere osagarriak dira.

GEORGICON III

(pestis acerba boum) pecorifique aspergere virus
 fovit humum. Cape saxa manu, cape robora, pastor, 420
 tollentemque minas et sibila colla tumentem
 deice! Iamque fuga timidum caput abdidit alte,
 cum medii nexus extremaeque agmina caudae
 solvontur tardosque trahit sinus ultimus orbis.
 Est etiam ille malus Calabris in saltibus anguis 425
 squamea convolvens sublato pectore terga
 atque notis longam maculosus grandibus alvom,
 qui, dum amnes ulli rumpuntur fontibus et dum
 vere madent udo terrae ac pluvialibus Austris,
 stagna colit ripisque habitans hic piscibus atram 430
 improbus ingluviem ranisque loquacibus explet;
 postquam exusta palus terraeque ardore dehiscunt,
 exsilit in siccum et flammantia lumina torquens
 saevit agris asperque siti atque exterritus aestu.
 Nec mihi tum mollis sub divo carpere somnos 435
 neu dorso nemoris libeat iacuisse per herbas,
 cum positis novus exuviis nitidusque iuventa
 volvitur, aut catulos tectis aut ova relinquens,
 arduus ad solem et linguis micat ore trisulcis.

422 iamque] cumque M⁷, namque P || 423 agmine R, *DServ. Aen. II, 212* || 426 corpore P, *Sabbadini* : pectore MRωγ, *Ribbeck, Mynors* || 429 et R, *adn. Lucan. I, 219* || 433 exsilit R, *Mynors*, exilit nr : extulit M, exiit Pωγ, exsultit *rec.*, *Ribbeck, Sabbadini* || 435 nec Man, *Serv. Georg. II, 475* : ne M²PRωγ, *Quint. IX, iii, 21, Probus 251, 11, schol. Bern., Serv., Ribbeck*

(421) *tollentemque minas*: *tollentem caput minax* esango balu bezala. *sibila colla*: erlaziozko akusatiboa da («tumentem» intransitiboa delako). *tollentemque, tumentem*: adierazten ez den osagarti zuzenaren predikatiboak.

(425) *ille malus... anguis*: aipatzen ez badu ere, χέρσυδρος izenekoz hitz egingo du hurrengo lerroetan, narrasti urlehortar bat (χέρσος 'lehorra', ὕδωρ 'ura'). *Calabris in saltibus*: Calabria, Italiako hegoaldeko lurraldea.

(427) *longam... alvom*: erlaziozko akusatiboa.

egoten ohitua (abelgorrien gaitz ankerra) eta ganaduari po-
 420 zoia botatzen. Har itzazu harriak eskuan, har makilak, ar-
 tzain, eta jo ezazu mehatxuak altxatzen dituenean eta lepo
 txistukariak puzten dituenean! Sakon gorde du ja, ihesean,
 buru beldurtia, erdiko korapiloak eta buztan-muturreko gu-
 dal-ilarak laxatzen direnean eta azken bihurriak bira asti-
 425 tsuak herrestatzen dituenean. Gaiztoa da baita calabriar
 basoetako suge hura ere, gorputza jasota bere bizkar ezka-
 tatsuak bihurritzen dituena eta sabel luzean orban handiekin
 zikinduta dagoena; hau, iturrietatik errekarik sortzen den bi-
 tartean eta lurrak udaberri hezeaz eta Austro euritsuez bus-
 430 tita dauden bitartean, aintziretan bizi da eta hemen egonaz,
 urbazterretan, zitalak arrainekin betetzen du bere zorro
 beltza eta baita sakel berritsuekin ere; aintzira idorra denean
 eta lurrak kiskaltzeagatik irekitzen direnean, lehorra irte-
 tzen du eta, bere begi sugartuak okertzen, soroetatik su-
 mintzen da, egarriagatik zakarra eta izutua beroagatik. Ez
 435 dezadala nik gogorik izan orduan loaldi biguina egiteko ze-
 rupean ez oihaneko bizkarren batean belarrean etzateko,
 hondakinak utzita berritua bihurritzen denean eta, gazteta-
 sunagatik distiratsua, eguzkitan malkarra, umeak edo arrau-
 tzak zuloan laga dituela, eta ahoko mingain hirukoitzekin
 dirdaitzen denean.

(429) *Austris*: hegoaldetiko haizea.

(430) *ripisque*: ablatibo lokatiboa. *hic*: aintziretan.

(434) *agris*: ablatibo lokatiboa. *siti*, *aestu*: kausazko ablatiboak («aspén»-ekin le-
 henengoa, «exterritus»-ekin bigarrena).

(436) *memoris*: «dorso» mugatzen du.

(439) *linguis*... *trisulcis*: instrumentala. *ore*: ablatibo lokatiboa. *trisulcis*: hemen ez
 da ondo ulertzen hitz hau, sugen mingaina erdibitua baitago: baliteke τριχῶδες
 ('ile bat bezain mehea') hitzaren itzulpen okerra izatea (hitz hau berau erabiltzen
 baitu, mingainari buruz hitz egiten ari dela, Aristotelesek bere *De partibus animalium*
 liburuan, II, 17).

Morborum quoque te causas et signa docebo. 440
 Turpis ovis temptat scabies, ubi frigidus imber
 altius ad vivom persedit et horrida cano
 bruma gelu, vel cum tonsis inlutus adhaesit
 sudor et hirsuti secuerunt corpora vepres.
 Dulcibus idcirco fluvii pecus omne magistri 445
 perfundunt, udisque aries in gurgite villis
 mersatur missusque secundo defluit amni,
 aut tonsum tristi contingunt corpus amurca
 et spumas miscent argenti vivaque sulpura
 Idaeasque pices et pinguis unguine ceras 450
 scillamque elleborosque gravis nigrumque bitumen.
 Non tamen ulla magis praesens fortuna laborumst,
 quam si quis ferro potuit rescindere summum
 ulceris os; alitur vitium vivitque tegendo,
 dum medicas adhibere manus ad volnera pastor 455
 abnegat aut meliora deos sedet omina poscens.
 Quin etiam, ima dolor balantum lapsus ad ossa
 cum furit atque artus depascitur arida febris,
 profuit incensus aestus avertere et inter
 ima ferire pedis salientem sanguine venam, 460
 Bisaltae quo more solent acerque Gelonus,

441 ubi] cum R, *Colum. VII, v, 5* || 443 inlutus MPRγ, *Colum. VII, iii, 10* : inlotus M²ωγ¹, *schol. cod. M Ecl. X, 7, schol. Bern., Mynors* || 444 hirsutis M (corr. M²) R, irsuti *schol. cod. M Ecl. VII, 53* || 449 vivaque sulpura *Macr. V, xiv, 4, Gramm., schol. Bern., Serv.* : et sulpura viva MPRωγ, *GLK VII, 289, 2 et 309, 32, quidam ap. Mar. Victorin. 212, 21, Anth. XVII, 332, viva et sulpura r, ac sulphura viva n* || 452 laborumst R : laborum est MPR³, malorum est *schol. Bern.* || 456 aut MRbcrtγ : et Pωγ¹, *schol. Bern. Ter. Ad. 693, Ribbecke, Mynors* omnia Mdhtv, *Serv., Mynors* : omnia PRωγ, *Ribbecke, Sabbadini*

(449) Hipermetroa: ikus *Georg. I, 294.*

440 Gaixotasunen zergatikoak eta seinaleak ere irakatsiko
dizkizut. Uger zatarrak ardiei erasotzen die euri hotz bat
edo izotz zuristadun negu latz bat sakon, haragi biziraino,
sartu zaienean, edo moztu berriei garbitu gabeko izerdia
itsasten zaienean eta sasi latzek gorputzak urratu dizkiete-
445 nean. Horregatik zaintzaileek artalde osoa bainatzen dute
ibai gozoetan eta aharia, ileak bustita, ur-osin batean mur-
giltzen dute eta aldeko urak eramana doa, edo gorputz
moztu berria igurtzi egiten dute olioaren hondar mikatzare-
kin, eta zilarraren aparrak eta sufre-harria nahasten dituzte
450 eta idar bikeak eta argizari lodi koipatsuak eta astatipula eta
lupu-belar usainduak eta bike beltza. Ordea lan hauen on-
dorio bat ere ez da batek minbiziaren ezpainak ebaki ahal
izan baditu bezain ongilea; estalian gaitza hazi eta bizi egi-
455 ten da, artzainak bere esku sendatzaileak zaurietara hurbil-
tzeari uko egiten dion bitartean edo jainkoei zantzu hobegoak
eskaten eserita dagoen bitartean. Are gehiago, marrakarien
mina gaiztatzen denean, hezur-muinetara itzurita, eta sukar
iharrak gorputz-zatiak jan egiten dituenen, onerako izan
ohi da bero goriei bide ematea eta ankaren behealdean
460 odolagatik irten egiten duen zaina zulatzea, bisaltiarrek eta
gelonoar adoretsuak egiten duten modura, Rhodopera eta

(450) *Idaeasque pices*: Phrygiako Ida mendikoak alegia, pinuetan oso aberatsa: izan ere arbola hauetatik ateratzen da bika.

(456) *deos... omina*: akusatibo bikoitza, «poscens»-ekin.

(459-460) *inter ima... pedis*.

(461) *Bisaltiae*: Macedoniako ekialdeko mugan bizi zen herria, Thracia ondoan. *Gelonus*: Scythiako herria, baina hemen iparraldeko edozein nomadaren ordez (ikus *Georg.* II, 115). Hau da: bisaltiarrek eta gelonoarrek hori bera egiten dute baina oso sarri, ateratzen duten odola edan egiten dutelako; horregatik egiten dute hain ondo: egizu zeuk ere, diotso Virgiliok erromatarrari, haiek bezala.

cum fugit in Rhodopen atque in deserta Getarum
 et lac concretum cum sanguine potat equino.
 Quam procul aut molli succedere saepius umbrae
 videris aut summas carpentem ignavius herbas 465
 extremamque sequi aut medio procumbere campo
 pascentem et serae solam decedere nocti,
 continuo culpam ferro compesce, priusquam
 dira per incautum serpant contagia volgas.

Non tam creber agens hiemem ruit aequore turbo 470
 quam multae pecudum pestes. Nec singula morbi
 corpora corripiunt, sed tota aestiva repente,
 spemque gregemque simul cunctamque ab origine gentem.
 Tum sciat, aërias Alpīs et Norica si quis
 castella in tumultis et Iapydis arva Timavi 475
 nunc quoque post tanto videat, desertaque regna
 pastorum et longe saltus lateque vacantis.

Hic quondam morbo caeli miseranda coortast
 tempestas totoque autumnī incanduit aestu
 et genus omne neci pecudum dedit, omne ferarum 480
 corruptique lacus, infecit pabula tabo.

462 aut M, adque R || 465 aut] et M, corr. M₂ ignavius] segnius R || 466
 concumbere P (cf. *Ecl.* VIII, 87) || 469 serpunt P, *Sabbadini* || 470 aequora Ry
 (corr. γ¹) || 475 Iapydis ω, *Serv. hic et Aen. XI, 247, schol. Bern., ps. Probus* : Lapydis
 M, Iapygis Pbry, *schol. Bern. in lemm.*, Lapygis R arva M¹ωγ¹, *schol. Bern.* : arma
 MRcnvy, ora P || 477 vocantis P, vacantes R, vagantis bcγ, corr. γ¹ || 478 coortast
 R : cohorta est M, corta est PR⁵ || 481 corripuitque Pn, corripitque cγ (corr. γ¹)

(462) *cum fugit*: alegia, «Bisaltae» Rhodopera eta «Gelonus» «in deserta Ge-
 tarum», nahiz eta aditza singularra izan. (Eta gauza bera esan daiteke 463ko «po-
 tab»-i buruz: aipatu diren guztiari dagokie). *Rhodopen*: Thraciako mendikatea (ikus *Georg.*
 III, 351). *in deserta Getarum*: Thracian kokatzen ziren, Itsaso Beltzaren mendebalde-
 ko kostaldean alegia. Jakina, «fugit» non hostem, sed quia vivit sic, ut mutet locos»
 (*Serv.*): hau da, nomadak direlako.

(464) *Quam*: sc. *ovem*.

getiarren basamortuetara ihes egiten dutenean eta zaldi-odolez gatzatutako esnea edaten dutenean. Urrutitik ikusten dutuna edo maizegi hurbiltzen dela gerizpe gozora edo gogo
 465 gabe hartzen dituela belarren muturrak eta azkena jarraitzen zaiela besteei edo, bazkatzen ari dela, zelai erdian etzaten dela eta bakarrik alde egiten duela gau beranduan, geldi eza-
 zu berehala haren errua burniarekin, zorigaiztoko kutsuak artalde artagabera hedatu baino lehenago.

470 Ekaitza dakarren zurrunbiloa ez da itsasoan oldartzen ganaduen izurri asko bezain sarri. Gaixotasunek ez dituzte gorputz bakanak hartzen, bat-batean udako artalde osoa baizik, eta itxaropena eta ganaduak eta, batera, jatorritik hasita arraza dena. Ondo jakingo luke orain ere, hainbeste denboraren ondoren, Alpe goiak eta noricoar muinoetako
 475 basetxeak eta Timavo iapydiarreko larreak ikusiko lituzkeenak, artzainen erreinu mortuak eta basoak, luze eta zabal hutsik lagata.

Hemen, behinola, giro deitoragarri bat sortu zen zeruaren gaixotasunarengatik, eta udazkeneko bero betearekin su
 480 hartu zuen, eta hiltzera eraman zuen ganaduen mota oro, piztien oro, aintzirak usteldu zituen, bazkak zornez kutsatu

(468) *culpam ferro compesce*: 'hil ezazu' da gehienek ulertzen dutena.

(472) *aestiva*: sc. *stabula* (*aestiva castra*-ren gainean eraikitako metafora).

(473) *cunctamque ab origine gentem*: artaldearena alegia.

(474) *Norica*: Noricokoa, Rhetia eta Pannonia bitartean dagoen lurraldea, Dnubiortik hegoaldera (gutxi gora behera gaurko Kärnten, Austrian); larre bereziki zabal eta aberatsak zeuden han.

(475) *castella*: hemen, seguruenik, 'baserriak'. *Iapydis arva Timavi*: Timavo ibaia (Venezia eta Istria bereizten dituen: ikus *Ecl.* VIII, 6) iapydiarren artetik igarotzen da. (Iapydiarrak, gutxi gora behera, illyriarrak dira, Dalmaziako herri bat).

(476) *post*: adberbioa.

(478) *Hic*: *Noricon. morbo caeli*: «'morbo caeli', quia corruptus aer morbi causa est» (Serv.).

(480) *omen ferarum*: sc. *genus*.

GEORGICON III

Nec via mortis erat simplex, sed ubi ignea venis
 omnibus acta sitis miseros adduxerat artus,
 rursus abundabat fluvidus liquor omniaque in se
 ossa minutatim morbo conlapsa trahebat. 485
 Saepe in honore deum medio stans hostia ad aram,
 lanea dum nivea circumdatur infula vitta,
 inter cunctantis cecidit moribunda ministros;
 aut, si quam ferro mactaverat ante sacerdos,
 inde neque impositis ardent altaria fibris, 490
 nec responsa potest consultus reddere vates,
 ac vix suppositi tinguntur sanguine cultri
 summaque ieiuna sanie infuscatur harena.
 Hinc laetis vituli volgo moriuntur in herbis
 et dulcis animas plena ad praesepia reddunt, 495
 hinc canibus blandis rabies venit et quatit aegros
 tussis anhela sues ac faucibus angit obes.
 Labitur infelix studiorum atque immemor herbae
 victor equos fontisque avertitur et pede terram
 crebra ferit; demissae aures; incertus ibidem 500
 sudor et ille quidem moriturus frigidus; aret
 pellis et ad tactum tractanti dura resistit.
 Haec ante exitium primis dant signa diebus:
 sin in processu coepit crudescere morbus,
 tum vero ardentes oculi atque attractus ab alto 505

483 attraxerat P, abduxerat n || 484 fluidus M⁷ || 488 magistros R || 490 nec M
 || 499 fontesque M, fontisque, *sed u ex corr.*, P, fortisque acde, fontis (*om. que*) b ||
